Pero aún queda bastante que decir sobre éste y otros puntos conexos —y, por cierto, ferozmente debatidos hoy entre algunos sectores— como lo es, por ejemplo, la formación del euskera escolar unificado, el papel que en la orientación lingüística de la escuela debe corresponder a la Academia como institución específica para el cuidado de la lengua y, también, la función que ha de desempeñar la Universidad a quien, a su vez compete la formación de los profesores.

Pienso que, en puertas del Estatuto, que ha de transferirnos la Enseñanza, es absolutamente necesario llegar a una completa y total clarificación de estos temas.

5. El problema de la unificación

He insistido bastante hasta aquí sobre la necesidad de un euskera escolar común y unificado.

Al parecer, todos coincidimos en este principio; pero no así en el modo de llevarlo a la práctica.

Así ocurre, por ejemplo, con la opinión de los que piensan que la unificación debe quedar para más tarde, "Que fun-

cionen los mecanismos espontáneos de utilización de la lengua y el proceso de desarrollo cultural del pueblo vasco —dicen éstos— y la unificación se hará por sí misma".

Creo, por el contrario, que en una situación tan crítica como la actual, el abandono de la lengua a sus propios "recursos naturales" sólo serviría para aumentar la entropia y el riesgo de desaparición.

En realidad, este asunto tiene prisa, mucha prisa. Bajo el aspecto escolar —por lo menos— bien puede decirse que el problema de la unificación se nos echa encima a toda velocidad.

Como es sabido, a partir del presente curso el euskera va a ser implantado ya como materia común en muchos Centros docentes del país.

Por otra parte, el Estatuto nos traerá pronto la posibilidad de trabajar más a fondo, y con muchos mayores medios que ahora, en la protección y desarrollo del euskera.

Estas circunstancias obligan, de modo evidente, a que el euskera escolar sea "puesto a punto" a la mayor brevedad posible, siquiera en una primera aproximación y con un mínimo de garantías científicas.

Pero ¿quién deberá ser el orientador de esta tarea?

Está claro que la labor de la Comisión Mixta constituida para la aplicación de la Orden Ministerial sobre bilingüismo, deberá ser fundamentalmente administrativa y que la misma carece de competencia científica para afrontar los problemas de la unificación.

Por consiguiente, la Comisión deberá ser asesorada a este efecto, por un órgano científico autorizado para ello y que será, según lo previsto, la Academia de la Lengua Vasca.

Recordemos aquí la idea, que ya expresamos anteriormente, de que, si bien la tarea de la salvación del euskera es fundamentalmente un quehacer de los hombres de gobierno, éstos no deberán, en ningún caso, llevarlo a cabo según criterios meramente políticos sino que tendrán que hacerlo con la colaboración de los científicos y especialistas en la lengua.

Estiman algunos que este asesoramiento debiera confiarse a diversas instituciones cultas del país, como por ejem-

plo, la Sociedad de Estudios Vascos o la de Amigos del País, pero no exclusivamente a la Academia.

No voy a entrar aquí en el examen concreto de la cuestión. A mí, personalmente, la Academia de la Lengua me ha inspirado siempre un gran respeto y sigue inspirándomelo, pese a sus posibles deficiencias.

Atacar a la Academia no sólo me parece injusto y absurdo, sino que es además echar piedras contra nuestro propio tejado.

Ahora bien, en el caso de que se admitiera la pluralidad de asesoramiento, ¿quién sería el árbitro de las contradicciones que entre unas y otras posiciones lingüísticas habrían de producirse inevitablemente?

¿No nos veríamos así abocados a la paradójica situación de que fueran los hombres políticos de turno quienes tuvieran que zanjar en cada momento las polémicas de tipo lingüístico existentes en nuestro pueblo?

He aquí un género de politización que convendría evitar a toda costa. El lingüista debe estar en su terreno; el político en el suyo, y, de lo contrario, no se hará cosa buena.

Es cierto que en una situación como la que hoy afecta a nuestra lengua es un deber de la Academia el de pulsar las opiniones de todas las instituciones cultas del país, abrir informaciones públicas, efectuar sondeos para conocer el efecto que sus normas puedan producir en la base, y, sobre todo, tratar de aunar, en la medida de lo posible, las posiciones divergentes.

Pero, dándose por supuesto que todo este trabajo previo se realice normalmente, el dictamen que en cada caso se presente a los órganos de la Administración educativa deberá ser único, sin vacilaciones, contradicciones ni opiniones internas contrapuestas.

En los años sesenta, entre los artículos dominicales que yo solía publicar por aquel entonces, en un periódico donostiarra, escribí uno titulado "La cuestión de las haches", artículo que, a pesar de los años transcurridos, suscribiría hoy enteramente.

En el mismo decía lo siguiente: "Cuando las gentes se acaloran y se apasionan por cosas que parecen nimias, puede asegurarse que, tras la aparente trivialidad de las mismas, se ocultan problemas y cuestiones mucho más vitales e importantes".

Y expresaba yo la posibilidad de que por debajo de esas cuestiones, aparentemente nimias, funcionasen posturas ideológicas mucho más graves y profundas.

También ahora pienso lo mismo, es decir, que algo de eso ha ocurrido en nuestro caso y que bajo determinadas polémicas ortográficas y lexicales han operado, en estos años, motivaciones ideológicas, tal vez inconscientes para sus propios actores. Acaso era inevitable que así ocurriera, por faltar cauces normales para la expresión de las ideas.

Poco después de publicado el artículo en cuestión, recibía yo un anónimo —en tono amable— en el que se me decía, entre otras cosas: "Barruko eztabaidak, etxekoen artean". Que es como decir que: "La ropa sucia se lava en casa". Por desgracia, de entonces a esta parte, no se ha lavado ropa, sino que las actitudes se han ido complicando y endureciendo.

En la reunión celebrada en Aránzazu por "Euskaltzaindia", el año 1968, D. Manuel Lekuona, entonces presidente de la Academia, pronunció estas significativas palabras: "Oinatin gaude, oiñeztar eta ganboarren lur jatorrean. Ez gatozela Arantzazura, batzuek oiñeztar eta besteak banboar, bakoitzak bere ezpata eskuan, beste iritzikoen aurka gudatzeko prest".

Pero estos sabios consejos de D. Manuel no fueron escuchados. Parece, pues, que en un pueblo tan dado como el nuestro a parcialidades y banderías, ésta y otras clases de contiendas han de ser el pan nuestro de cada día.

Hasta ahora la Academia se ha limitado a dar consejos y orientaciones, que muchos escritores seguimos y otros, en cambio, no. Pero el euskera "batua" es ya una realidad muy importante, tanto en el campo literario como en la enseñanza, y esto no creo que nadie pueda negarlo.

Ahora bien, en este momento y en relación con el tema de la lengua escolar, va a ser necesario que los criterios sean

completados y puestos en aplicación en los Centros docentes y aquí el papel de la Academia será altamente importante y de una enorme responsabilidad.

Otra de las cuestiones batallonas que se plantea en torno a "Euskaltzaindia" es la de la titularidad de los profesores de euskera.

En la situación de emergencia en que hemos vivido hasta ahora, "Euskaltzaindia" ha asumido la concesión de ciertos títulos o diplomas. Pero es evidente que en un régimen normal, la titulación del profesorado no debe corresponder a la Academia, sino que ha de ser función propia de la Universidad.

Así como a la Academia le compete el establecimiento de reglas gramaticales y ortográficas, la preparación del profesorado corresponde a la Universidad, y más específicamente, a las Escuelas Universitarias de Profesorado de E. G. B. y a las Facultades de Pedagogía y Lingüística vasca. Son éstas, a mi entender, quienes de un modo o de otro, deben garantizar en el futuro, los conocimientos pedagógicos y lingüísticos de los candidatos al profesorado de lengua vasca.

No he de extenderme más sobre los problemas que relacionan la Academia con la unificación del euskera.

Desde mi punto de vista he dicho ya lo que me parecía más esencial en este asunto.

OMENALDIAK

GEORGES LACOMBEREN OMENALDIA
(BAIONA, 1979-I-26)

GEORGES LACOMBE (1879-1947)

Baiona, 1979-I-26
P. Lafitte

Georges Lacombe Orthesen sortu zen, Biarnon, 1879.eko Urtarrilaren 31-an. Aita Agen-darra zuen, beraz kaskoina, etorki onekoa bertzalde, haren ahaide-arbasoetan "norbait" izan diren gizon bikain hainitz aurki baiginirozke ofizio edo bizi-bide desbardintsuenetan. Ama aldiz Saint-Jayme aitoren semeen odolekoa, nafartarra, euskaldun garbia, Amikuzeko mintzaira xotil eta arina ederki ikasia.

Saint-Jayme Donapaleutarrak, Ostankoatik heldu ziren: deitura hori emana zaien Erdi-aroan Santiagorako bidean beilariak ostatzen zituzten etxeri. Alde hortarik Lacombe-n familia ahaidetua zen bai Baxenabarreko bai Ziberoko askazi frangorekin. Gure Georges horri laket zitzaion erraitea Beñat Mardo bertsulari barkoxtarra bere jendakikoa zuela.

Aita gobernuko mutil izanez, etxekoek nahi baino usuago zuten Jondoni Martine, erran nahi dut herri-aldaira, eta Georges Lacombek hiriz-hiri eman du bere haur eta gaztezaroa. Digne Angoulême eta Bordaleko ikastegietan bederen ibili zen. Erakasle onak ukan zituen bidenabar: Bertzeak bertze, Boissonade eta Potel Angoulêmen, Le Bansais Bordalen. Denek badakigu Boissonade horren berri, Errolan-en kantorea bere gisara argitu nahi ukan baitzuen. Potel horrek artoski ohart-arazi zuen aleman mintzaiari, eta Le Bansais delakoak filosofiari. Ez zitzaizkon behinere jaun hoik bihotzetik itzali behar, eta handik berrogoi urteren buruan ere, nola ez zituen begiak argi, seme batek bere burraso maite-maiteak bezala, aipatzen zituen aldi guziez.

Bordaletik Pariserat jo zuen eta hemeretzi urtetan "licence en philosophie" iraganik, soldado egon zen urte bat

(1900-1901). Soldadogotik landa, egundainoko hatsean ikasteari lotu zen berriz ere Sorbonne eta Collège de France deitu eskola goren-gorenetan; irakasle adituenak argizagi. Erran ditake bere bizi guzia "ixtudiant" pasatu duela, beti zerbait berri ikasi nahiz.

Lacombek bi ekaieri eman zeizkien bere gogo-bihotzak: filosofiari eta euskarari.

1949.ean, haren orde euskalzain oso izendatu nindutenean, ene sartzeko hitzalditxoan haren filosofiaz erran nituen asko gauza. Ez ditut egun errepikatuko. Gaiten orroit bakarrik gain-gainetik maite ukan dituela Jules Lachelier (1832-1918), Pierre Janet (1859-1947), eta Henri Bergson (1859-1941). Lachelier-en lan batzu publikatu ditu eta Bergson-en liburuxka batean aipatu. Bera ere jarraikia zen "Société Française de Philosophie" batasunari eta ari izana da Sorbonnen filosofiaren erakasten.

Haren entzule batek egin lerro hauk adi zaitzue: "Ele alferrik gabe baderama bere erakaspen argia, paper mutur batzu mahainean hedaturik eta ezkerreko erhietan xut (Ez ahantz, jaunak, eskuineko besoa 14-eko gerlan galdu zuela). Ezagun du aipu dituen liburuak, zahar ala berri, ez dituela zeiharka ez eta axaletik miatu, bai ordean azken piruetaraino eta bururen buru. Jostetan bezala bagarabiltza xoratuak Platon agurearen ganik Jacques Chevalier-en ganat, bidenabar Leibniz, Maine de Biran, Hamelin eta Brunschvicg batzuen berri emaiten daukula. Durkheim eta Lévy-Bruhl ez ditu hainitz laudatzen. Azken huntaz aipatu dauku Albert Léon jaunaren zirtoa: "Lévy brûle mais n'éclaire pas!". Erran dautet Lacombek lagunez lagun trufa eta musika, mihi ukaldia eta ausikia ere, frango merke dituela, hemen, erakasle kondu, serios emaiten du, grekotar zaharren "hiereus eirenaios" baten pareko...". Lacombek ez zuen irri guti eginen, "hiereus eirenaios", "apez baketsu" hori irakurri balu.

* * *

Zer nahi den, ordu da noski, filosofia utzirik, euskararat itzul gaiten. Gehienek alabainan, euskalzaleago ginaukan filosofo baino.

Berak gogotik kondatzen zuen nondik sortu zitzaion euskararen alderako dei hori: Haurrean, hamabi-hamahiru urte

zituzkelarik, Angoulême-ko liburu-zahar-tegi batean, Mauleko Sallaberry-ren "Chants populaires du Pays Basque" kantu-bilduma aurkitu zuen. Karioxko izanez berak bere sosetarik erosteko, amak pagatu zion eta present egin. Mutiko koxkorrak, bertsu eta aire, bururen buru, gogoz ikasi zuen, amak frantseserat itzultzen ziola. Hastapen xume horren ondorioak nork erranen ditu?

Artetik dugun aitor, familian ukan zuela sustengu. Bereziki bere osaba Frédéric Saint-Jaymen ganik. Hau ezagutua zen Donapaleuko "Zaldi xuri" garañotegiaren eraikitzailetzat; baina pilotazale suharra zen eta euskalzale kartsua. "Gure Herria" aldizkarian idatzi du eta zenbait liburuxka ere jostagarriak argitaratu.

Horiek hola, Lacombe goizik ihiztari jarri zen, behin kantuen eta gero euskal paper-liburuen ondotik; horrela liburutegi bat euskarazkoa bildu zuen, munduan diren hiruzpalau handienetarik bat: diruketa gaitza xahutu du, laneko behar-beharrak zitzaizkon ekai balios hoien metatzen. Bertzalde ezin eskuratuzko zenbat liburu zahar ez ditu bere eskuz kopiatu?

Hoin nekez bildu liburueri ez ditake asma zenbatetaraino atxikia zen: norbaitek batto jesan edo mailegatu nahi ziolarik, zinak eta minak ziren. Orroit naiz behin, Etchahuni datxikola, Dassance jaun zenak egin zion galde batez. Bere adixkideari ezetz idor bat ezin ihardets, eni igorri zauzkitan zenbait lerro: "Errozu Luis gure adixkideari neholaz ere ez dudala postari fidatzen ahal lan balios hori; ez naiz eta ene buruari berari behin ere fidatzerat menturatzen, burdin bidez nabilalarik: egungo egunean ez da ixtripurik eta ohointzarik baizik denetan aipu".

J. B. Darricarrère 1928-an hil zelarik, haren ordari izendatu ninduten euskalzain urgazle edo laguntzale. Ordutik pentsatu nuen zerbait izkiriatu behar nuela ene aintzinekoari buruz. Luzaz ibili naiz haren eskuzko euskal hiztegiaren ondotik, nehun ezin atxemanez. Behin baino gehiagotan aipatu nuen ene kezka Lacombe jaunari eta harek beti ihardetsi daut hiztegi hori galdua zela. Lacomben liburu eta paper andana bat Monzon jaunak erosi baitzituen gure adixkidearen arrebari, nor harritu, ni harritu paper horietan ikusi ditudalarik Darricarrère zenaren esku-lanak.

Zer nahi den, laster eskualzale eta eskualari handiaren fama egin zioten Lacombe jaunari. Izaitez euskararen alde haren mendean zerbait egin den batasun, agerkari edo lantegi guzietan haren izena aurkitzen dugu, luze eta nekagarri ere bailitake denen aipatzea.

Halere erranen dugu "Euskalzaleen Biltzarreko" kide zaharrenetarik zela, batasunaren buruzagi ere egina, Urkijo jaunaren ondoko (1911-1912). Martin Landerretche apeza baitzen Biltzar hortako idazkari, irakurtzekoak dira Lacombek igortzen ziozkan gutunak (1906-1919); bildu ditugu 76 eta "Bulletin du Musée Basque" Baionakoan pausatu. (Ikus "Bulletin du Musée Basque", 2e, 3e et 4e trimestres 1968)

Julio de Urquijo jaunak "Revue Internationale des Etudes Basques" aldizkari handia abiatu zuelarik segretario hartu zuen eta 25 urtez segurik Lacombe jarraiki zaio kargu hortan, hainitz artikulu berak ere izkiriatuz.

Donostiako eta Baionako jakintsun baldar gehienetan bazuen alki bat: "Sociedad de Estudios Vascos", "Société des Sciences Lettres et Arts", "Musée Basque", Cercle d'Etudes Euskariennes", eta aber.

Erran gabe doa Euskalzaindiak ere bildu zuela. Hastehastetik Azkuek eskaini zion urgazle edo laguntzaile izaitea. Ez balioz ez zuen on-hartu eta sekulako aiherkundea atxiki zion Euskalzain-buruari. Bainan Pierre Broussain hil-eta, Urkijok sar-arazi zuen euskalzain oso eta gure gizona gogotik sartu. Hazparnen egin zuen, Herriko etxean bere lehen hitzaldia, L. L. Bonapartez.

Ene ondotik Pierre Charritton-ek aipatu behar baitauzkitzue Lacomben lanak, ez diot ahamena ahotik kendu nahi ez eta baratzea funditu. Erranen dut xoil-xoila Jon Bilbaok bere Bibliografian 150 obra aipatzen dituela Lacombenak.

Zorigaitzez ez dakigu zer bilakatu diren, hogoi urtez apailatu zituen bi ikerpen nausi: batto Aldudeko euskarari buruz; bertzea Ziberoko euskararen mendez-mendeko aldakuntzeri buruz. Gavel-en arabera, bigarren lan hau biziki aintzinatua zen, garbirat emaiteko prest-presta. Bertzeaz Lacombek, berak izkiriatzen zion Landerretche apezari, 1918-ko abendoaren 21-ean: "Mon travail sur le basque aldudien avance: j'ai à l'heure actuelle plus de 600 pages in-

4.º de notes classées sous trois rubriques: phonétique, morphologie, vocabulaire. "Badakigu Etchepare mirikuak eta Michel Iriart apezak lagundu zutela. Bainan lan horiek oro norat galdu dira?

Bi hitz nahi nituzke Lacomben hizkuntzalari asmoez. Hemen dugu kenka gaixtoa.

Frango ezagutu dut jaun hori. Izkiriatzen zautan. Izkiriatzen nion eta Baionarat jausten zelarik, dei egiten zautan, joan nindakion mintzatzerat.

Badakizue ama alargundu zitzaiolarik, Baionarat bildu zela andere hori: "Villa Izarra", hainbertze Hegoeuskaldunek ezagutzen duten hartarat. Ama hilez geroz, Lacombe Sanizpiritako Laustau otelean jausten zen eta han jaten. Kafea haatik Baiona handian hartzen zuen, "Panier Fleuri" zelakoan. Gomitatzen ninduen eta aitortuko dut, bazkariak arras onak izanak gatik, goxoago zitzaizkitala haren gramatika oharpenak.

Bainan horra! Zerbait xehetasun galdatzen ziniona, ardureneko haren ihardespena hunelakoa zen: "Schuchardt-ek hauxe erraiten du... Uhlenbeck haatik ez da aburu bereko; huna zer dion... Azkuek aldiz Van Eys-i esku emaiten dio horixe erranez... Bizkitartean Saroïhandy-ri entzun diot bertzela argi ditekela hitz hori, nahiz Gavel-ek baduen ate zerratu horren idekitzeko bertze gako bat...".

Hots denen iduripenak emanen zauzkitzun, berak golkoan zuena salatu gabe.

Halere entsea gaiten haren asmu larrienen aipatzerat. Euskararen iturburuez, duda-mudan zagon. Schuchardt zaukan bere jainko ttipia eta hunek emanik Iberotarra euskararen arbaso, ez zuen arras gezurtatu nahi: bainan ez zuen osoki sinesten. Caucase-ko iturburu aipatu berria ez zuen baitezpada ukatzen, baina beha zagon, orai artinoko frogak ez askiz. Iduri zitzaion "indo europeano" delakoarekin bazukeela behar bada zerbait ahaidego ukanik aspaldiko mendetan. Erromanoen hatzak zituen aurkitzen argienik, bainan aitor zuen latina, ere egitura dela kausa, ez zela nehundik ere gure mintzaiaren ez aita ez aitaso izaiten ahal.

Euskara ez dugu orotan berdin erabiltzen. Lacombek bi alde emaiten ohi zituen gure euskalki guziak: bizkaitarra eta

bertze guziak; hauk Nafarroako euskara zaharrari eratxikitzen ziozkan. Bonaparten berexkundeak maiz aipu zituen eta ez guti goresten; halere zenbatetan ez du aitortu ez ditakela xuxen erran zerk duen euskalkia egiten, nun den hasten, nun bururatzen.

"Dialectologia" deitu jakintza nahiko zuen euskararat hedatu bat eta sakondu. Erraiten niolarik batasun beharretanago ginela, berexgo beharretan baino, ihardesten zautan: "Euskalkiek elgar argitzen dute, elgar aberasten, eta hek gabe ez ginezake xila zer zitakeen lehenagoko euskara". Egia handia; baina lehen zer izana den jakin baino ez ote da beharrago bizi dadin eta azkart dadin, emeki-emeki batetaratuz! Hortaz poxi bat zeihar ginen.

Bertzenaz euskara mota guziak on zitzaizkon: euskara osatu, garbi ala mordoil. Denetan aurkitzen zuen holetan zer ikas, eta beihalakoak bezala erraiten ahalko zuen: "Je me suis délecté à étudier de magnifiques monstres grammaticaux, car je suis linguiste, c'est à dire physiologiste de la langue et non médecin!".

Pierre Janet-ek aipatu baitzituen bai adimenaren, bai orroimenaren eritasunak, Lacombek bilatzen zituen mintzairetan barna eritasun horien markak. Ohartu zen hitz bakar batek, zenbait aldiz ukan ditzazkela elgarren kontrako bi ikur: adibidez; "lumatu" erabiltzen da "lumaztatu" eta "lumagabetu" erraiteko. "Xito hori ari da handitzen eta lumatzen"; "Egun bazkari ederra ukanen dugu; amak jada oilaskoa lumatu du". Ikus berdin "Huts" hitza zein desberdina den "zaku hutsa" ala "maite hutsa" erraiten dugunean. Hala-hala gehikeriak zitzaizkon "itsuski ederra", "izigarri prestua" eta holako hitz-ezkontzak. Bitxi zitzaion aditzea: "Hiltzen naiz ezin hilez" edo "Bahiaz ur-ekarle bat da". Artetik erran dezadan, baditake gutarik zenbaitek ez dugun ez eritasunik ez menskeriarik senditzen mintza-modu horietan. Bainan tira!

Hizkuntzalari batzuek daukate hitza bertze hitz baten seme dela. Lacombek pentsatzen zuen arrazoinekin ez dela beti hola gertatzen: hitz batzu arras berritik asmatuak izan direla. Adibidez Amikuzen "autoari", "Tarranta" eman zioten izena, hastapen hartan egiten zuen harrabotsa ihakinduz. Hazparneko bi atsok ixilka kafea hartzen zutelakoz eta ez

nahi nehori salatu, "keita" izengoititu zuten, elgarren arteko mintzairean. Orok badakite Baden Pauwel batek "Jamboree" eta bertze hitz asko berak asmatu zituela, nehungo mintzaire bihi bati errorik ere mailegatu gabe.

Lacombek sineste handia zuen hizkuntzalarien baitan. Maiz entzun diot erraiten: "Euskara jakintsun faltan ari da hondatzen!". Ene iduriko, mintzatzale eta izkiriant faltan galduko da, galtzekoz eta dolu dugu gure adixkideak ez baitu berak biziki guti baizik erabili, nahiz askotan idazle gazteak sustatu dituen, euskaraz beren erran beharren hedatzerat. Haatik euskara libro baten alde zen: ez zuen nahi izan gaiten ez erdararen lekaio ez erdararen ikaran.

* * *

Bururatzean nola ez agert haren heriotzeak eman zaukun trixtezia. Nahiko ginuen denek luzaz bizi zadin oraino, bere lan hasien bururatzeko eta artetan bere zirtoez gure alegeratzeko. Hiltzekotz opatuko ginuen bederen Euskal-Herrian hil zadin, ahaide-adixkideen artean eta ahal balitz Elizaren laguntzekin. Zorigaitzez bertzela joan da.

Eritu zelarik, lehiakara urbildu zitzaizkon adixkide euskaldun batzu artatzerat. Gogotik inguratzen zuten. Bainan Lacombe biziki kilika zen. Egun batez letra batek salatu zion eri-gaizki zelako fama hunarat hedatu zela. Gaitziturik hasarretu zen: "Zer zaitzue ala ez naizela aski laster hiltzen?" Denak etxetik haizatu zituen, sehi xaharra barne. Bakarbakarrik gelditurik, jeiki zen eta ospitale baterat joan. Han hil zen, nehor ahaiderik, ez adixkiderik gabe, 1947.eko Uztailaren 13-an: Lander baten pare ehortzi zuten oroetako zilo batean, hiru ehorztale arrotzek, ezagun guzien ixilik. Bertzerik hartze zukeen euskalzale, euskalari eta euskalzain jakintsu eta kartsu horrek. Haren orroitzapena geldi bekigu gure bihotz eta otoitzetan.

EUSKAL LAU IDAZLERI OMENALDIA

(IRUÑEA, 1979-V-25)

BORDEL, HUALDE, ARRIGARAI ETA LEZO-RI OMENALDIA

Iruñea, 1979, Maiatzak 25
Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaime Ignacio del Burgo, Nafarroako Foru Diputazioaren Buru jaun agurgarria.

Jesús Malón Kultur saileko arduradun jauna.

Euskaltzainkideak.

Jaun-Andreak, Agur denoi!

Ongi-etorrizko hitz horiengatik eskerrik zintzoenak bihurtu nahi dizkitzuet. Gaur Iruñe zaharrean biltzen da Euskaltzaindia. Egia esateko, ez da lehen aldiz. Euskaltzaindiaren urrezko ezteiak hemen ospatu ziren; eta bai ospaketa horren aurretik eta bai ondotik ere, edo Iruñean bertan edo Nafarroako beste herri batzuetan, Euskaltzaindiak egin izan ditu bere batzarreak; ez beharbada nahi bezain sarri, baina egin ditu. Eta beti aparteko zoramen eta liluraz etorri izan gara honera, Euskal-Herri zaharraren bihotza bezala den lur honetara.

Nola ahantz dezakegu Nafarroako Diputazioa, beste hiruekin batean, izan zela Euskaltzaindi honen sortzaile? Eta nola ahantzi Euskaltzaindi honen hasierako lau euskaltzainen artean bat nafarra zela, Kanpion haundia, alegia? Eta orai ere hor dugu Aita Intza beneragarria, lehen aroko Euskaltzainditik bizirik gelditzen zaigun euskaltzain bakarra; eta hor ditugu Aingeru Irigarai, Polikarpo Iraizoz, José María

Satrustegi. Ez noa urgazleak eta abar aipatzera, zeren asko baitira.

Gaur, ordea, Euskaltzaindia hemen biltzeko bazen aski motiborik. Alde batetik, gaur ospatzen dugu Nafarroako Ordezkaritza edo Delegazioaren eguna. Nafarroako Foru Diputazioak emanik, Euskaltzaindiak Ordezkaritza edo Delegazio bat izango du hemen Iruñean, beste euskal hiriburuetan —Baiona, Bilbo, Donostia eta Gasteizen— dituen bezalaxe. Beraz, hemendik aurrera euskal gauzen ardura hartzeko bulego berezi bat idekiko du Euskaltzaindiak hemen Iruñean. Esan gabe doa eskerrik beroenak ematen dizkiogula Nafarroako Foru Diputazioari bulego hau jartzeko eman dizkigun erraztasunengatik.

Beste aldetik, lau euskaltzale nafarren mendeurrena ospatzen dugu aurten: Bordel, Hualde, Arrigarai eta Lezorena. Beroiei omenaldi, oroitzapen edo goratzarre ttipi bat egin nahi izan diegu. Bakoitzari buruz txosten bana entzungo dugu. Bordeli buruz mintzatuko zaigu Satrustegi jauna, Hualderi buruz San Martín, Arrigarairi buruz Irigarai eta Lezori buruz Aita Bonifazio Ataungoa.

Eskerrak berei beren lanok prestatu dituztelako. Eskerrak gaurko batzarrea gertutzen lagundu diguten guztiei. Eskerrak bereziki eta aparteko modu batean nafar Diputazioari. Izango ahal da dena gure euskara maitea Nafarroa zaharrean indar berriz bizi dadin!

* * *

Sr. Presidente de la Excma. Diputación Foral de Navarra, Jaime Ignacio del Burgo,

Sr. Jesús Malón, director de Cultura y Educación,

Sres. Diputados,
Sres. Académicos,
Señoras, señores:

Hoy es un gran día para Euskaltzaindia, la Real Academia de la Lengua Vasca. Gran día, por cuanto que con este acto queremos celebrar la concesión por parte de la Diputación de Navarra e inauguración de una Delegación de la Academia en Pamplona, al igual de las que ya existen en las

diversas capitales de Euskal Herria, de este viejo país del euskara, a saber, en Bayona, Bilbao, San Sebastián y Vitoria (1).

Euskaltzaindia, como es sabido, es una Institución fundada en 1918-1919 por las cuatro Diputaciones del país para velar sobre el euskara, fomentar su estudio y su uso y dar normas orientadoras en orden al cultivo del mismo. En 1976 S. M. el rey Juan Carlos I reconoció y confirmó la autoridad de Euskaltzaindia en este campo específico suyo.

Desde su fundación, Euskaltzaindia ha procurado cumplir en la medida de sus posibilidades la misión que el país le confiara. Tanto en la vertiente de los estudios o investigación del idioma, como en la del fomento práctico del mismo, su labor ha sido ciertamente múltiple y sensible, aunque a las veces haya tropezado con incomprensiones y dificultades no pequeñas. No es propio de este momento hacer una enumeración o balance de las realizaciones con que ella ha contribuido al progreso del estudio y del cultivo práctico del euskara. La morfología, la sintaxis, el acento, los estudios dialectológicos, las orientaciones para la unificación de la ortografía, del léxico y del verbo, la organización de concursos literarios, los torneos de bertsolaris, las campañas de alfabetización para enseñar a leer y escribir en euskara, la preparación de personal habilitado para impartir clases, los estudios socioestadísticos a fin de conocer exactamente cuál es la situación real del idioma, la preparación de léxicos especializados con el fin de acomodar el euskara a la expresión de muchas realidades de la compleja vida moderna, la recogida y estudio de las variedades locales, el expedir dictámenes de asesoramiento a las autoridades públicas sobre extremos pertinentes al idioma, como también el asesorar a los padres que desean imponer nombre euskérico a los hijos, el confeccionar el nomenclátor oficial de los nombres euskéricos de nuestros pueblos: he aquí un poco por dónde han ido en estos

(1) Posteriormente hemos sabido por comunicación del propio Sr. Presidente que el lugar que estaba reservado para la Delegación de la Academia va a ser destinado a otro uso, sin que ello invalide en modo alguno la concesión por parte de la Diputación de una Delegación a la Academia, para la que se buscará local en otra parte. Esperamos, de todos modos, que los retrasos que de este cambio se originen no sean grandes y hacemos votos por que la deseada Delegación se ponga en funcionamiento en el lapso de tiempo más breve posible.

sesenta años de vida de la Academia las principales actividades de ésta.

El desarrollo del país y la creciente toma de conciencia de lo que el idioma significa para éste ha traído como consecuencia la multiplicación de trabajos y servicios que se nos demandan. Para mejor atender a los mismos, estos últimos años nos hemos visto precisados a abrir Delegaciones en las cinco capitales citadas. Y siendo Euskaltzaindia una institución creada por las Diputaciones, es justo que sus Delegaciones funcionen también en vinculación y bajo el amparo de las mismas. Este es también el caso de la de Pamplona.

Para evitar malentendidos, debo decir que Euskaltzaindia ha procurado siempre cumplir su misión al margen y por encima de toda política, y esto por una razón muy simple: ella estima que el euskara es el bien de un pueblo, un bien de todos, y que, por lo mismo, este bien no puede ni debe ser instrumentalizado, ni monopolizado por ningún partido, credo ni ideología. Esta ha sido siempre nuestra ejecutoria y norma de acción, y nada ni nadie nos hará desviarnos de ella. Nos debemos al euskara y a Euskal-Herria, que, como dice este bello nombre, es el país del euskara.

En el seno de la Institución hay, por supuesto, representantes de todos los dialectos y variedades de la lengua. Por lo que respecta a Navarra, entre los cuatro académicos fundadores proclamados en 1918 uno era navarro, Arturo Campión. Navarro es también el único superviviente de la primera época de la Academia, el venerable P. Dámaso de Inza, como navarros son también el Sr. Angel Irigaray, el P. Policarpo de Iraizoz y D. José María Satrústegui, actual secretario general de Euskaltzaindia.

No me es posible extenderme aquí sobre la aportación navarra a la literatura euskérica. Sólo diré que el autor del más clásico y célebre libro que se ha escrito en euskara es precisamente un navarro, Pedro de Axular, natural de la villa fronteriza de Urdax. Axular hizo sus estudios en la Universidad salmantina en la época más gloriosa de dicha Universidad. Allí trató sin duda con estudiantes de otras variedades del euskara distintas de la suya nativa, y en su bello libro no deja de haber muestras de este su conocimiento de la realidad polifacética del euskara. En el prólogo a su libro, al hablar de

las diferencias y variedades del euskara, Axular enumera puntualmente las diversas regiones o circunscripciones políticas de la vieja Euskal-Herria por este orden, a saber: la Alta Navarra, la Baja Navarra, el país de Sola o Zuberoa, el país de Labort, en uno de cuyos pueblos —en Sara— vivió él de cura; Vizcaya, Guipúzcoa y el país de Alava.

También el gran poema *Euskaldunak*, de Orixe, tiene por teatro o escenario el lugar de Huici en el valle de Larraun.

Navarro, y casi el único testigo del dialecto llamado alto navarro meridional, hoy casi extinto, pero que un día fue el de mayor extensión en toda la lengua, es Joaquín Lizarraga, de Elcano, en la cuenca de Pamplona. Joaquín Lizarraga, novicio jesuita al tiempo de la expulsión de la Compañía por Carlos III, se vio forzado por las circunstancias a dejar la Congregación y hacerse cura, y estuvo hasta su muerte en su pueblo natal, Elcano, durante unos sesenta años. Preparaba con esmero y cuidado la predicación dominical, que, por fortuna, se nos ha conservado. El Sr. Juan Apecechea va a publicar próximamente un tomo con una parte selecta de esta producción. La Academia desea inaugurar con esta obra su colección de Testigos del Euskara, buscando para ello una fórmula de coedición entre Príncipe de Viana y Euskaltzaindia.

Debo decir además que el acto de hoy quiere ser un homenaje a cuatro autores navarros en su centenario: al bertsolari Bordel, de Valcarlos; al Sr. Hualde, roncalés, colaborador del Príncipe Luis Luciano Bonaparte; al capuchino Arrigarai, natural de Caparroso y autor de una notable Gramática del euskara, y al escritor P. Lezo, también capuchino, natural de Aranaz. En cuanto a los dos primeros, se celebra este año el centenario de su muerte; en cuanto a los dos últimos, el de su nacimiento. La presentación de unas breves semblanzas sobre cada uno de ellos constituirá el núcleo del acto de hoy.

No quiero finalizar estas palabras sin expresar nuestro reconocimiento a la Excma. Diputación en nombre de la Academia. Esta procurará corresponder a la confianza que la Diputación ha depositado en ella, laborando, como siempre, por lo que constituye su razón de ser, o sea, el euskara, precioso legado y alma de la vieja Euskal-Herria.

"BORDEL" BERTSOLARIA ZENAREN EHUN-URTEBURUAN

Iruñea, 79-V-25
J. M. Satrustegi

Egun hauetan betetzen da Juan Etxamendi, "Bordel" bertsolaria, hil zeneko ehun-urteburua. 1879.eko Maiatzaren 30ean pausatu zen Luzaideko bere baserri ederrean, 87 urteetan.

Gure idazle eta kultur-arloko gizonak ez dira, denbora luzean, ezagutuak izan euskaldunon artean. Hara zer zioen, duela berrogeita hamar urte, Etxamendi bertsolariaz bere herritar Manezaundik:

> "Espainia aldeko eskualdunek eztute ezagutzen pertsulari haundi hau, ez eta bere izena sekula entzun ere, naski... Nere herrikoa zen, Luzaidekoa; bainan gu Espainiari eratxikiak edo lotuak izanikan ere, Benafarta-rrak, Garazikoak gira, muga egileen gainetik."

Zorionez, gaur ez dago gure artean hori esaterik. Euskal literaturaz gehiago arduratzen hasia da gazte jendea; gero ta ugariago dira irakasle eta andereñotako ikasketak egiten dituztenak, eta Bordelen kantu zenbait olerki hoberenen mailan dabiltza. Ez noa, beraz, beste noizbait egin nuen bezala Bordel bertsulariaren berri ematen hastera.

Manezaundik dioen muga kontua dut orain gogoan. Bere biziko pasarte bat aipatu nahi dut, zenbat muga motaz joa den gure Euskal Herri maite hau aditzera emateko.

Lurraldez eta hizkuntzaz garaztarra zen Iparraldeko euskaldun hau, baina legez Hegoaldeko nafarra genuen. Karlisten lehenbiziko gerratean Donostian zegoen eta han hasi zuen bere biziko galbario latza. Ihes egin nahi izan zuen lurpeko bidez gaztelu batetik, eta arrapatua izan zen bere lagu-

nekin, Donostiatik Tolosara, eta handik Arrasatera, beti noiz hilen zuten beldurrez ibili ondoan, Nafarroara ekarri zuten azkenik.

Hobe zuen probintzian utzi balute. Orain zetorkion gurutzerik haundiena. Honela dio bertsotan:

"Nafarroako seme kreatu mundura,
Probintzian penetan ibili ardura,
Arribaturik ere gure eremura,
Mila barbaridade eta arrangura:
Purgatoriotarik sartu infernura."

Erriberan etsaitzat hartu zuten euskalduna eta egurra eman zioten, bere lagunei bezala. Zortzi ziren, eta bakoitzari ehun zigor ukaldi eman ziotela aitortzen du berak:

"Zortzira, ehun palo ordenatu zauten,
Duda niz halakoek arimarik bauten.
Ez dakit nehork ere sinetsiko nauten
Zenbat purgatorio erakutsi zauten;
Bihotza trankilago bizi gira aurten."

Bihotza aipatzen du bertsolariak, berak omen zuen bihotz haundia azaleratuz. Herritarrek dioetenez une honetan agertu zuen zenbatetaraino bultzatzen zuen kupidak besteren minak bere gain hartzera. Lagunetariko bat anaia omen zuen, bera baino gazteagoa, eta heri zegoela ikusirik, zigorka hilen zuten beldurrez bere bizkar gainean hartzea eskatu omen zuen bien zama.

Manezaundi, Luzaideko idazleak esaten duenez, "erdi hila, odolztatua, sarraskitua, ereman zuten eritegirat eta heriotzarekin borroka ibili ondoan, mirakuluz sendatu zen".

Ez da, beraz, harritzekoa Luziadeko bertsolari nafarrak, Nafarroa beste muturreko jendeak arrotz balitu bezala harturik, etsai giroan honako lerro hauek idaztea:

"Nafarroako serbil lepondo gorriak,
Luzifer lotsa diro harien koloriak.
Montañesak girela oro traidoriak,
Martier finitzeko emanez odriak.
Arrasatau balitu enperadoriak!!"

Nafarroaren hauzia ez da gaurkoa. Auñamendin nazioarteko muga aski ez dugularik, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiarekin sortu digute borroka; eta Nafarroa bera ere bi zatitan hautsi. Etxamendik bere haragian jasan zuen anaia arteko bereizketa honen eztena. "Infernu bat in daike españolezkua, ez dute ikusi nahi presuna justua", esan zuen gero beste pasarte batean.

Oso garbi ikusi zuen hori gure Etxamendik eta bere bertsoetan gaurgaurko arazoa mugatu zigun.

Eta gerra gaiari datxikola, bere bizi guziko arazo nagusia gerrateak izan zirela esan dezakegu. Bera paketsu eta pakezale izanik, txiki txikitotik gudarien erasopean bizitu zen.

Urte bat besterik ez zuelarik, 1794.ean sartu ziren Luzaiden frantximentak eta bertakoak ihesi joan behar izan zuten ahal zuten lekura. Hiru urteren buruan itzultzean etxe guziak errerik aurkitu zituzten eta berri berritik bizitzen hasi beharra.

Napoleonen aldia etorri zen gero. Zahartu ondoan egin zituen haren bertsoak eta oso ongi ikusten zuen enperadorearen jokabidea:

"Napoleon beldurrez emigratu dena,
Makurrik egin gabe badu(gu) aski pena;
Gizon abila eta justua lehena,
Holaxe paratzen due zuzen dabilena."

Orain artekoak Ipar aldetik bazetozkion, otsoaren ahoan sarturik bait zegoen Luzaide, Hegoaldeko bolara etorri zen laster. Karlisten bi gerrateak ezagutu zituen eta bietaz egin zituen bertsoak. Ondarrekoak, 84 urteetan, hil baino hiru urte lehenago, "Apezen kontrakoak" deitzen dira, Karlosen gizonen alde atera zirela salatuz.

Elizkoia zen, bestela, eta ez du gai ausart eta lizunik utzi. Egia ala gezurra, kantuz ari omen zen hil aintzinean, herritarrek dioetenez.

Gaur ehun-urteburuko omenaldi hau eskaintzean, gizon jator, kristau sutsu eta bertsolari trebea ospatzen dugula esan nahi dizuet.

Bertso berriak dira gorde zaizkigun gehienak, paper eta lumaz bakardadean eginak, alegia. Horrek ez du esan nahi bat bateko etorririk ez zuenik. Ahoz aho zebilen, Otxalde eta Etxahunekin, bere izena; baina saio harien berri gutxi gelditu zaigu.

"Bordel" zaharraren izpirituak nolabait irauten du munduan. Kalifornian den biloba Juan Kruz Arrosagaray dugu bertso paperatan jarraile zintzoa. Luzaideko Bordelian sortua bera ere.

Eta besterik gabe, erdaraz esango ditut orain hiriburu honetako entzunleei buruz zenbait hitz. Barkatu.

* * *

Hace pocos días, al conocerse la noticia del homenaje que la Real Academia de la Lengua Vasca iba a dedicar a la buena memoria de cuatro escritores navarros, cuyo centenario se cumple este año, un amigo me preguntó si eran importantes.

El dato no es meramente anecdótico. Cabría preguntar, a su vez, al interesado qué es lo que en realidad considera importante una sociedad materialista, deshumanizada y sectaria como la nuestra.

Dudo que podamos llamar importantes, en ese sentido, a hombres que cultivaron en solitario los valores culturales y lingüísticos de nuestro pueblo, cuando el representante máximo de la literatura vasca, Axular, navarro de Urdax, no tiene todavía en Pamplona una calle que recuerde su memoria. Ultimamente, una modesta plazoleta.

¿Podrían considerarse importantes estos hombres en el contexto de una sociedad que se resiste a recuperar del subterráneo ignominioso del olvido el nombre de Arturo Campión, el navarro más ilustre de los tiempos modernos?

Todo es relativo en este mundo, y quizá habría que lamentar no fueran futbolistas todos los escritores y hombres de cultura, para ser incluidos como importantes en la escala de valores más cotizados.

Entre tanto, la tarea de actualizar el recuerdo de quienes dedicaron el esfuerzo meritorio de sus afanes al cultivo y

difusión de los valores autóctonos, supone una aportación a la historia de nuestra cultura y lleva implícito el testimonio del agradecimiento.

Desde esta perspectiva es como debe valorarse el alcance de las sesiones públicas de la Real Academia Vasca, que incluyen en el programa el homenaje a los hombres de letras.

Juan Etxamendi, "Bordel"

El bertsolari y poeta valcarlino Juan Etxamendi nació en el caserio "Bordel", el día 7 de enero de 1792, un año antes de que el ejército francés invadiera el pueblo, obligando a emigrar a todos los vecinos.

Su vida iba a estar marcada por el estigma de la guerra. Tres años había durado el primer exilio, y las tropas napoleónicas volvieron a traumatizar la vida de la villa fronteriza.

No le fueron mejor las cosas durante el servicio militar. Prisionero al huir por un túnel, en el Castillo de la Mota, de San Sebastián, protagonizó una arriesgada aventura de la que milagrosamente escapó con vida. Es el tema de una larga composición titulada "Donostian Soldado", soldado en San Sebastián.

Plasmó los avatares de la primera guerra carlista, y fue testigo atormentado de los desmanes de la última, relacionando los abusos de esta retirada con la actuación de los sacerdotes, en el canto que se considera una diatriba contra el clero, "Apezen kantiak".

Aparte de esta faceta dominante en el tono general de su obra, fue también el cantor de la vida de su pueblo. Ningún suceso memorable escapaba al comentario de tono moralizante y sensato del poeta. Cantó con reverencia a la memoria de sus padres, reseñó los deslices amorosos, denunció el crimen, dejó constancia precisa de los pactos fronterizos, y puso en solfa las anomalías administrativas de las autoridades locales.

Cabe destacar la calidad poética de algunas de sus composiciones que han pasado al cancionero vasco. "Bihotza zeraut nigarrez urtzen", se me derrite en lágrimas el corazón,

caló en los oyentes y sus copias corrían de mano en mano. "Ene Andregaiari", a mi prometida, se considera como obra maestra de nuestra literatura. "Mendekoste Bestetan", en las fiestas de Pentecostés, fue armonizada un siglo después por el P. Donostia.

Por otra parte, cabe reseñar la herencia cultural del bertsolari de Valcarlos, que entronca juntamente con Otxalde y Etxahun, con la escuela continental que inició las actividades literarias un siglo antes que entre nosotros.

No debemos olvidar que Navarra alcanzó las cotas más altas de su prestigio, en función de los caminos. La famosa calzada romana de Burdeos a Astorga, y la ruta jacobea más tarde, respondían al trazado impuesto por la geografía antes que otros intereses bastardos desviaran primero el ferrocarril, y luego la autopista por derroteros que convierten a Navarra en zona marginada de las grandes rutas.

Por esos cauces le llegó a Navarra la cultura y el arte de Europa, y Valcarlos, en el eje del cordón umbilical, fue desde siempre la puerta de España, en frase del historiador inglés Roger de Hoveden, quien relató una campaña pirenaica de Ricardo Corazón de León en 1178.

Es así como se explica que los cantos de "Bordel" tengan eco en ambas vertientes del Pirineo. Yo he constatado entre las personas mayores de Mezquíriz, por ejemplo, el recuerdo de composiciones de Echamendi, y he recogido, concretamente, la canción "Heriotz krudel bat", una muerte cruel, que describe el crimen de Arneguy, en el que la propia esposa dispone la muerte de la víctima, al nacimiento del primer hijo.

El estilo y la fuerza expresiva de los bardos que acabo de citar llevan la impronta a una tradición culta. Los tres vienen a ser el producto espontáneo de una región que se inició en la literatura escrita, antes que el resto del País Vasco.

Echamendi es, además, hombre religioso y sus versos no están imbuidos del sectarismo ideológico que ya empieza a irrumpir con fuerza por entonces.

Delegación de la Academia

Esta sesión académica estaba programada en función de otro acontecimiento que, por disposición oficial de última

hora, ya no va a tener lugar. Hace tres años que la Diputación Foral de Navarra dispuso que la sede permanente de la Delegación navarra de la Real Academia de la Lengua Vasca estuviera en la Cámara de Comptos, acuerdo que acaba de ser revocado en una de sus primeras actuaciones públicas por los nuevos corporativos forales. Tres años de lenta ejecución de las obras y deficiente funcionamiento de nuestra Secretaría, prácticamente atendida desde Bilbao por falta de locales, han tenido por resultado la revocación de aquel acuerdo de la Diputación anterior y la búsqueda precipitada de otros locales, esta vez con carácter provisional, precisamente una semana antes de la inauguración oficial. Estos son los hechos.

Excelentísimos Sres. Académicos de Alava, Baja Navarra, Guipúzcoa, Labourd, Vizcaya y Zuberoa: me creo en el deber ineludible de presentarles mis excusas como secretario general de esta Real Academia de la Lengua Vasca, en calidad de delegado de la misma en Navarra y, sobre todo, por mi condición de navarro que recoge la perplejidad del hombre de la calle ante estos hechos.

Borren, por favor, de sus preclaras mentes la simple insinuación de que pueda tratarse de un juego de niños, tal como se nos ha sugerido. Sería una presunción ofensiva para un pueblo que, si alguna virtud radical ha demostrado en su larga historia, es precisamente su hombría y recia personalidad, incuestionadas e incuestionables hasta el presente.

Como buenos vascones que somos, la palabra de este pueblo es palabra de honor, equivale a documento notarial y se cumple siempre. He dicho siempre. Por eso mismo quiero pensar que la Excma. Diputación habrá tenido, y tendrá, poderosas razones de estado que nosotros desconocemos, para adoptar una postura singular que le emplaza ante Navarra y ante la historia.

Porque historia son los dos acuerdos de signo contrario que en este momento ponen en tela de juicio la credibilidad de un pueblo, por la actuación pública del máximo organismo foral, y yo quisiera, como hombre de la calle, velar por su buena imagen, obviar los juicios tendenciosos que empiezan a darse ya.

Es también historia esta solemne sesión académica presidida por los máximos representantes de ambas Corporacio-

nes, en este Museo de Navarra, que hoy es atalaya abierta al mundo que nos mira con expectación.

Les ruego encarecidamente que tratemos todos de disipar cualquier vago presentimiento, sin crear nuevos motivos de fricción en momentos tan decisivos para el afianzamiento de la identidad navarra.

Yo tengo fe en nuestros hombres, y en que sabrán anteponer los intereses sagrados de nuestro pueblo, a los suyos propios y a los del partido que les arropa.

Sigo teniendo fe en esta Diputación Foral y Democrática, que sabrá ser la Diputación de todos los navarros, potenciando el rico y variado acervo cultural, sin reticencias ni sectarismos que no riman con el talante abierto de nuestra vieja vocación europea.

Por eso no me puedo imaginar, no tiene cabida en mis esquemas mentales, la idea de que nuestra Diputación pueda nunca degradarse hasta el punto de desempeñar el odioso papel de madrastra desnaturalizada de la criatura que dio a luz hace sesenta y un años, juntamente con las otras tres Diputaciones hermanas, a raíz del Congreso de Oñate en 1918.

Hoy la criatura es ya mayor de edad y cuenta con el reconocimiento real a nivel del Estado español.

Yo les auguro, excelentísimos Sres. Académicos que nos honran con su presencia, que esta Real Academia de la Lengua Vasca ni ahora ni nunca va a tener motivos para sentirse extraña en su propia casa.

Espero no defraudarles.

P. HUALDE MAIO, ERRONKARIKO "USKÁRAREN" LEKUKO

Iruñea, 1979-V-25
Juan San Martin

Jaun andreok:

Gure historiaren lehen erroak Nafarroan ditugula dakigunontzat, zer gauza atseginagorik Nafarroa erresuma zaharreko hiriburu hontan mintza ahal izatea baino? Baina, batez ere, Campión-en irakurgaietatik gure historia, aberri problematika eta euskara bera sakonago ezagutzera eta maitatzera heldu zen honentzat.

Nafarroako erresuman egin nituen Erdi-aroko Arte ikasketak. Arte baliosa egitan. Nafarroak bere buruaren jabetasun osoa zuen garai haietakoa. Geroztik, historian, berriz ez du lortu maila hura. Balioen neurria ekonomiaren alderdi hutsetik begiratzen dutenek kontuan izan behar dute erromaniko eta gotiko monumentu handi hoiek eraiki zituzten garaian zer nolako aberastasuna zuen gure Nafarroak, inguruko erresumekin konparaturik. Bere nortasun osoa galduz gero, eztu ezagutu lehengo mailarik, eta goragoko agintari berriei gogozko zitzaien helburuetara errenditurik, foru ta guzi ere, bertan behera utziak izan ditu herriaren nortasunean hain finkaturik zeuden kultur balioak.

Jokabide hau, lotsagarri ez ezik, mingarri zaigu euskaldun eta euskaltzaleoi gure egunotan Antso erregeak goraipatu zuen "Lingua Navarrorum" galzorian ikusi beharra. Zer egia Erronkarin esaten zutena: Ez dago legerik ezdokenarentako".

Hala ezagutu nituen "uskára" berezia mintzatzen ziren azken erronkarriar zaharrak banan bana hobiratzen. Iragan Apirilaren 30-ean bete dira hiru urte erronkariko azken euskalduna hil zela eta nere sentipen minari eutsi ezinik eskaini

nion gorazarrezko artikulu bat, igaz *Gogoz* deritzan nere liburuan bildurik argitaratu nuena (1).

Gaurko egunez, aski gazte hil zen Hualdez mintzatzean, Nafarroako eskualde eder horren oroitzapen eztia berbizten zait bihotzean eta bertako zahar haiengandik jasotako kanta zaharrak ditut gogoan.

Kantok argitaratzean eman nuen bibliografian agertzen zenez (2), Erronkariko "uskáran" lehen aldiz izkribatu zuena Bidankozeko Prudenzio Hualde izan zen, duela ehun urte bere sorterrian hila, eta egun, Euskaltzaindiaren deira, beste hiru nafarrekin batean goretsi nahi duguna.

Nere lan hura inprimategian sartuz geroztik, esaldi labur batzuk argitaratu zituen Florencio Idoatek "Cuadernos" berean, Burgin 1569. urtean izan zen sorginkeriegatik Iruñeko auzitegian epaituei ukapena zinegotziz esan eraziak (3).

Hala ere, literatura mailan behinik-pehin, Hualde bera agertzen zaigu aintzindari.

Zer dira, bada, horiek? Hizkuntza baten ardura eta arta hartzeko jarririk dauden elkargo edo batasunak; hizkuntza hura nolabait gidatu, bultzatu eta indartu behar dutenak.

Euskaltzaindia, Euskararen Akademia ere, horretarakoxe da, bada. Euskara, euskaldunon mintzaira, zaindu, gidatu, landu, indartu, eta daukan baino osasun hobeagoan jartzeko.

Bai. Inork izatekotan, euskarak du Akadeñmia baten behar eta premia gorria. Euskararen patua mendeetan barnna benetan harrigarria izan da. Hona hemen herri ttipi bat, hizkuntza berezi baten jabe dena, guztiz bestelakoak diren hizkuntzez inguratua. Hizkuntza honek, euskarak, legearen aldetik ez du inongo babesik izan. Eskolan sartzea debekatu zaio. Gizarte prestijiorik ez du berekin. Guti landua, bertan behera utzia. Halaz ere, bere basa itxuran eta ahal izan duen bezala, iraun du. Baina zer gertatu behar zitzaion ez zen zaila asmatzen. Galduaz joan da, gainbehera amilka etorri da, inguruko hizkuntza boteretsuek itoa.

Oraino, lehengo mendeetan, etxeko eta auzoko bizimoldeak indar handia zutenean, aisago gordetzen zen euskara, eta bai belaunez-belaun pasatzen ere. Gaur, ordea, bizimoldea, ohiturak eta dena iraulkatu denean, ez da berdin gertatzen. Euskaldun irautea askoz ere zailago bihurtu da.

* * *

Baina aitzina iragan baino lehen, diodan hizño bat euskararen aldeko obra hau funtsezko arrazoietan oinarritua dagoela erakusteko. Izan ere, hemen galde lezake zenbaitek: Eta zergatik salbatu nahi dugu euskara? Zer axola du euskaldun izan edo ez izan? Xoko bateko hizkuntza ttipi eta bakarti

baten jabe izatea baino ez ote da hobe hizkuntza handi eta zabalago baten jabe izatea?

To, goazen zatika. Euskara maitatzeko, begiratzeko eta lantzeko zer arrazoi dagoen, nik hemen, bistan da, ezin dut hedatsuki azaldu, luzeegi joango baitlitzateke hitzaldi hau. Gainera, hor dago *Euskararen Liburu Zuria,* arrazoi horiek ezagutu nahi dituztenen faboretan Euskaltzaindiak argitaratua.

Gauza bat esango dut soilki. Edozein herrik, handi nahiz ttipi delarik, nork bere hizkuntza atxikitzen du. Zergatik? Hartan bere izakeraren eta nortasunaren irudia ikusten duelako. Guk geurea arbuiatu eta gaitzetsiko bagenu, arlote eta zozo batzuk bezala jokatuko genuke.

Etsenplu bat aipatzeko, hor dugu Israelgo herriarena. Hizkuntza bat behar zuen. Bat hautatzekotan, bazirudien munduan zabalduena dena, inglesa hautetsi behar luketela. Eta ez. Zein hartu zuten? Berena, hebraiera, nahiz eta hizkuntza hori aspaldi hilik egon, nahiz eta hizkuntza hura inork ez jakin. Eta hilik eta ehortzirik zegoen hizkuntza berpiztu dute. Zergatik? Berena delako. Inork ere ez du aita edo ama maitatzen handi edo aberatsa delako, berea duelako baizik. Berdin edo antzera gertatzen da hizkuntzaz. Baina, hori bai, israeldar bakoitzak badaki hebraieraz gainera, beste hizkuntza zabalago bat ere, nahiz dela inglesa, frantsesa, española, arabea, errusoa..., eta behar denean erabiliko du, baina etxe barnerako beti berena.

Guk ere euskarari atxikiak izan behar dugula diogunean ez dugu esan nahi beste hizkuntzarik ez dela ikasi behar. Besteak ikasi bai, baina nork berea utzi gabe.

Eta honetan maiz oker-adituak egoten direlako, beste hitz bat ere esan nahi dut: euskal zaletasuna ez dela politika. Euskara guztiona da, herri baten ondasuna eta ondarea da. Beraz, euskaldun orok, politika batekoa izan, bestekoa izan, eskubidea eta eginbidea du hemen. Guztiok dute hemen parte eta zeregin, zeren euskara guztiona baita. Bego bada hau garbi. Euskaltzaindia, euskararen aldeko bere lanean, ez dago ezein politikari lotua. Berak uste du, gainera, maila banatan daudela bi gauza hauek: euskara eta politika.

* * *

Egungo egunez euskara bezalako hizkuntza batek suntsitze kausei nahi baldin badie buru egin, behar ditu izan, besteak beste, zenbait baliamendu, zenbait bide, tresna eta laguntza bere alde. Eta horietako bat da Akademia.

Euskal Akademia baten beharraz aurki ohartu ziren euskaltzaleak eta euskararen arrangura sentitzen zutenak. Akademia hori ez da, noski, euskarak dituen aje guztientzat erremedioa, baina bai zerbait.

Basa itxuran eta bertan behera utzia bizi den hizkuntza batek behar du honelako batasun edo elkargo bat, bestetarako izango ez bada ere, hizkuntza hori lantzeko eta eskolan irakatsia izateko, arau gidari batzuk eman ditzan.

Akademia honen beharraz mintzatu ziren joan-mendean Aizkibel, Duvoisin, Ulibarri, Manterola, Artiñano etab. Baina gauza ez zen mamitu, ez zen gorpuztu mende honen hastapenean baizik; 1918. urtean alegia. Orduan gure lau Diputazioek —Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroakoa— erabaki zuten Euskararen Akademia muntatzea eta laguntzea. Hamabi euskaltzain edo "académico" izendatu ziren, eskualde eta euskalki denetatik hautatuak. Horietaz gainera urgazle edo laguntzaile eta euskaltzain ohorezkoak ere jarri ziren. Azkenik, 1976. urtean, lege berezi baten bidez, Espainiako Errege Juan Karlosek Akademia honen onartze eta ezagutza egin du.

Euskaltzaindia ez da, bada, zerbait pribatu. Erakunde publiko bat da, herriko eta erresumako agintariek ezarria eta aitortua.

Bi sail edo eremu ditu Akademia honek: Iker-saila eta Jagon-saila. Hau da: alde batetik euskara iketzea, aztertzea, estudiatzea; eta bestetik zaintzea, bizi dadin eta lant dadin neurriak hartzea.

Sortze egunetik Euskaltzaindiari egotzi zitzaion helburu handienetako bat —handiena ez bada— honako hau izan zen: irakaskuntzarako eta idatzizko zereginetarako hizkera batu bat moldatzea. Euskal Herri guztirako balio lezakeen euskara orokor bat, euskalki guztietako osagaiez osotua prestatzea.

Egungo egunez euskaltzainen numerua doblatu egin da. Hastapenean hamabi ziren, orai hogei eta lau. Laguntzaileak, berriz, ehundik gora. Ohorezkoak ere hor dira. Horien artean

ditugu sortzez euskaldun ez diren jaun jakintsu batzuk: Karl Bouda, Antonio Tovar, Norbert Tauer, etab.

Esan gabe doa nafarrak ere badirela euskaltzain osoen artean: Aita Damaso Intzakoa, Aita Polikarko Iraizozkoa, Aingeru Irigarai jauna, Jose M.ª Satrustegi. Laguntzaileen artean, berriz, hor da Mariano Izeta baztandarra eta beste asko.

Euskaldun frantsesak ere baditugu, noski. Euskara bere osotasunean hartzen du, bada, Euskaltzaindiak.

Eta zer egin du Akademia honek 60 urtez?, galdetuko didazute agian. Nik hitzaldi motx honetan ezin konta dezakeegin duen guztia. Hauxe bakarrik esango dut: Akademiak hor du bere aldizkaria, *Euskera:* gerra aurreko garaian 16 tomo agertu ziren; gerra ondoan 25. Bilduma horretan bada zernahi lan: gramatika lanak, hiztegi lanak, euskalki berezi batzuen azterketak, testu zaharren argitalpenak, euskal idazleei buruz xehetasunak, Euskaltzaindiaren agiri eta erabakiak, etab.

Euskara zaintze arloan Euskaltzaindiak aurpegia atera izan du, baita une txarretan ere. Sariketak, biltzarrak, ospakizunak bertsolari txapelketak etab. muntatu ditu. Euskal Irakasle titulua sortu du, etab.

Hiztegi espezializatuak ere egin ditu edo egiten ari da: Merkatalgokoa, Etxegintzakoa, Ikastolakoa, Pertsonen izenena, Udalen izenena. Euskararen Lekukoak izena duen liburu bildumari ere hasiera eman dio, eta, hain zuzen, lehen libururukia Apezetxea jaunak prestatu du aspaldiko autore nafar baten —Elkanoko Joakin Lizarraga— lana argitaratuz.

Aurten, berriz, urte honen azken aldean Biltzar bat egingo du Arrasate edo Mondragoen, Altube tar Seber jaunaren mendeurrena ospatuz eta Biltzar hori euskal gramatikaren puntu batzuk aztertzeko izanen da. Iaz beste biltzar bat egin zen Bergaran, Eleizalderen mendeurrena ospatuz eta euskara batuaren egoera aztertuz.

Lehenago ere esan dut Euskaltzaindia aparteko modu batean euskara batu bat moldatzeko sortu zela, eta hortan da. Argitara berri du *Euskal Aditz Batua.*

Hortik aitzakia hartuz, batzuk hor ari dira esaten Euskaltzaindia euskara batuaren alde eta euskalkien etsai bihurtu zaigula. Hori, ordea, ez da egia. Euskaltzaindiak uste du denentzat dela tokia. Baina, hori bai, euskara mueta bat guztion artean lokarri izanen dena behar-beharrezkoa dela ikusten du eta lan hori bultzatu nahi du. Hori egiteko mandatua Euskal Herriak berak eman baitzion eta egiten ez duen bitartean, herriaren aurrean dugun zorra ez dugu kitatzen.

* * *

Jaunak: Ikusten duzuenez lan gaitza da. Euskaltzaindiak berak bakarrik dena egin dezakeela pentsatzea txorakeria da. Zorionean gaur-egunean badira Unibertsitateak ere eta horietan badira Euskal Filologi Sailak.

Zernahi gisaz, eskabideak gero eta handiagoak eta ugariagoak datozkigu burugainera, eta erantzuteko, langile guti da. Halaz guztiz, bere ahalen neurrian saiatzen da Euskaltzaindia.

Euskal Herrian bada —hala uste dugu— gogo eta borondate gure mintzaira kenka larri honetan bizirik ateratzeko. Eta zinez, guztion lana da hau. Euskarak iraungo du baldin euskaldunak, euskaldun orok, egiaz eta benetan obra hau berea bezala hartzen badu.

* * *

Señoras, señores:

En atención a lsos que ignoran el euskara voy a resumir brevemente lo que en esta lengua acabo de dcir. La Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia se reúne hoy en Elizondo, invitada por el Ayuntamiento del Baztán, con motivo de cumplirse este año el centenario de las primeras fiestas éuskaras que se celebraron a este lado del Pirineo, y que tuvieron aquí lugar ahora hace cien años. Pero acerca de aquellas efemérides, que fueron las fiestas éuscaras, se ocupará más de propósito el Sr. Haritschelhar.

El tema de mi disertación en euskara ha consistido en dar una breve información acerca de la Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia, sobre sus objetivos y razón de ser y sobre sus trabajos.

Todos saben, sin duda, que existe una Real Academia Española y también una Academia Francesa. Lo que ya no es tan conocido es que también existe una Real Academia Gallega, un Institut d'Estudis Ctalans, una Real Academia de la Lengua Vasca, etc. Estas Academias, como es obvio, son unas instituciones que tienen la misión de velar por las lenguas respectivas.

Si hay alguna lengua que tenıa necesidad de una Academia, ésta es precisamente el euskara. Conocéis poco más o menos su caso y cuál ha sido su suerte en la historia. Es la lengua de un país pequeño, lengua muy diferente de las vecinas que le invaden el campo. Ha vivido scularmente como ha podido, en un estado de desamparo total, de indefensión legal, sin acceso a la escuela y a los grandes medios de difusión, sin apenas cultivo, sin prestigio social. Cuál iba a ser su futuro, de seguir así las cosas, no era difícil adivinar. Acabarıa muriendo, acorralada y ahogada por otras lenguas más poderosas.

Tal vez se pregunte alguno: ¿Y qué más da? ¿Importan tanto el que desaparezca una lengua? Al fin y al cabo no os volveremos mudos, y a falta de una lengua, tendremos otra para decir nuestras cosas.

No voy a extenderme aquí en la exposición de las razones o motivos en que se fundamenta este anhelo por salvar el euskara. El que quiera profundizar en el tema puede leer *El Libro Blanco del Euskara,* publicado por esta Real Academia.

Sólo diré una cosa: todo país, sea pequeño o grande, se esfuerza por mantener su lengua. ¿Por qué? En el fondo porque ve en él el espejo o imagen de su propio ser, de su identidad como pueblo, de su personalidad, la principal caracterıstica que lo configura. Esto el vasco lo ha captado con notable intuición al llamar a su paıs Euskal Herri, que quiere decir "país del euskara", y al llamar al vasco "euskaldun", o sea, el que posee el euskara. Por tanto, sin el euskara no hay País Vasco ni vascos.

Con esto no queremos decir que el euskaldun no deba saber también otras lenguas más extendidas y necesarias para la vida. Claro que las deberá saber, pero sin repudiar la suya.

Creo también que es necesario que esta empresa pro euskara se mantenga al margen y por encima de las distintas opciones políticas. En un país puede haber, y hay legítimamente, una pluralidad de opciones políticas, pero la lengua es algo que concierne a todos y no debe por tanto vincularse a una opción concreta.

Es claro que la lengua vasca, si quiere hacer frente a las causas de disolución que luchan contra ella, necesita ciertos medios y recursos.

Uno de ellos, cuya necesidad se dejó sentir ya vivamente en el siglo pasado, era el de la creación y existencia de una Academia de la Lengua. Aizkibel, Duvoisin, Ulibarri, Manterola, Artíñano y otros se expresaron en este sentido. Pero el proyecto no se plasmó en realidad hasta el año de 1918. Nuestras cuatro Diputaciones —o sea, de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya— deciden en esta fecha crear y sostener de mancomún esta Institución. Al principio los académicos de número eran 12 y fueron escogidos de todas las regiones del país y variedades de la lengua vasca. Ultimamente, en 1976, S. M. el rey de España Juan Carlos I, por un expreso Decreto, ha dado su espaldarazo y refrendo a esta Academia. No se trata, pues, de una asociación o grupo privado. Se trata de una Institución pública, que ha recibido su encomienda de las mismas autoridades.

El campo de la Academia es doble: por una parte la investigación de la lengua, por otra la tutela de la misma.

Entre los quehaceres que se le encomendaron uno de los principales —si no es el más principal— es el de laborar por la constitución de una lengua común y uniforme que pueda ser válida en todo el ámbito del pás a efectos de su utilización en la enseñanza, en los medios de comunicación, menesteres literarios, etc.

He dicho queen un principio los académicos de número eran 12; hoy son 24. Los correspondientes pasan de 100. Entre los académicos de honor figuran algunos sabios extraños al país y beneméritos en el campo de los estudios vascos.

Por supuesto que Navarra está dignamente representada en la Academia. Académicos de número navarros son el venerable P. Inza único superviviente de la primera época de

la Academia, el P. Polícarpo de Iraizoz, el Sr. A. Irigaray, D. José M.ª Satrústegui; correspondientes el Sr. Mariano Iceta y otros. También los vascofranceses forman parte de Euskaltzaindia, de modo que ésta abarca toda la Euskal Herria.

Y bien —diréis—: ¿Qué ha hecho la Academia en los 60 años que cuenta de vida?

Yo no puedo extenderme aquí en la enumeración de la labor realizada. Sólo diré que el órgano de la Academia *Euskera* cuenta ya con 40 tomos. Como podéis suponer, en sus páginas hay una gran multiplicidad de trabajos: trabajos de gramática, de diccionario, estudios dialectológicos, de edición de textos, decisiones y acuerdos de la Academia, información sobre autores vascos, etc.

Por lo que se refiere a la sección tutelar, la Academia ha dado la cara, aun en tiempos difíciles, organizando actos de afirmación y promoción de la lengua, concursos literarios, torneos de bertsolaris, celebración de Congresos, etc. También ha creado el título de profesor de euskara. Pasan de 1.600 los que lo han obtenido en estos últimos años. Se han confeccionado, o se están confeccionando, diversos diccionarios especializados. Se ha iniciado una colección de libros titulada "Testigos del euskara" donde tendrán cabida autores de todas las variedades y épocas: acaba de salir el primer número, preparado por el Sr. Apecechea, dedicado precisamente a un autor navarro, Joaquín Lizarraga de Elcano. El segundo volumen irá consagrado a Decheparé, también bajonavarro, protopoeta vasco, que escribió en 1545. Próximamente, en diciembre de este año, se va a celebrar en Mondragón un Congreso de estudio dedicado a temas de Gramática.

Tal vez en los últimos años la Academia ha dedicado atención preferente al tema de la formación de la lengua literaria común. Recientemente ha aprobado y publicado El verbo unificado común. Ya Campión y Broussain en un célebre informe decían que este problema del vasco literario común es "acaso la más grave de las cuestiones que pueden someterse a los debates y sentencia de nuestra Academia".

Pero no se crea por esto que la Academia sea opuesta al cultivo de los dialectos y variedades de la lengua vasca. Ella cree que hay lugar para todo. Mas habida cuenta de la urgen-

cia del problema, no podía por más tiempo desatender a la encomienda que recibió del país en orden a crear el euskara común. Sin este instrumento el euskara no puede tener entrada en la escuela ni en los medios de comunicación. Y privar de estos medios a la lengua es condenarla a perecer irremisiblemente.

Como veis, el quehacer es grande. Las responsabilidades y empeños que recaen sobre Euskaltzaindia son de día en día mayores, y los obreros pocos. Menos mal que hoy contamos también con Universidades que tienen departamento de filología vasca. Euskaltzaindia se esfuerza por responder a tantos empeños en la medida de sus posibilidades. Pero no olvidemos que la tarea de salvar el euskara es de todos. Sólo si el pueblo euskaldun la toma a pecho, como obra suya, como en realidad es, podrá salvarse el euskara.

ELIZONDOKO EUSKAL JAIAK DUELA EHUN URTE

Elizondo, 79-VII-20

Jean Haritschelhar

Elizondon egin aintzin, bazuen 25 urte baino gehiago sortu zituela. Antoine d'Abbadie-k "Euskal jaiak edo bestak". Egia erran gure Xiberotar euskaltzale jakintsun eta aberatsak, Abyssiniako eremuak ikertu eta, bere etxea edo hobeki erraiteko bere jauregia Urruñako lurretan eraiki zuen. Jadanik 1851 ean eman zuen dirua Urruñako bestetako pilota partidentzat, urte hartan estrenatu baitzen herriko plaza laxoa (1): 400 ehun libera erraboteko partidaren irabazleeri, 100 libera pilotari hoberenari, 100 libera plekari hoberenari. Bi urteren buruan, 1853 an beste zoin gehiagoko bat asmatzen du: neurtizlarien gudua, ohorezko makila eta urrezko untza batekin saristatua. Zoin gehiagoko horrekin nahi zuen zazpi Euskal Herrietako pertsulari edo olerkariak agert ziten plazarat. Argi eta garbi dago xede hori orduko aldizkarietan: "Nous invitons les Basques d'au delà des monts à contribuer à ce concours national. Unis par le coeur, par les habitudes et par la tradition, les peuples qui habitent les deux versants des Pyrénées doivent être animés d'une noble émulation pour chanter les douceurs, vanter les charmes du Pays qu'ils aiment par dessus tout". (2) Eta erakusteko idekia zitzaiela deneri neurtizlarien gudu hori dio d'Abbadie-k beste artikulu batean: "On n'exclura aucun dialecte, on n'en préfèrera aucun; les juges ne seront guidés que par l'appréciation du mérite des pensées et de la manière dont elles sont rendues" (3).

---

1) Ikus. J. HARITSCHELHAR, "Urrugne (1851-1961) Contribution à l'histoire de la pelote", *Gure Herria*, 1961, p. 194-195.

2) *Le mémorial des Pyrénées*, n.º 70, Samedi 11 juin 1853.

3) Artikulu hunen manuskritoa aurki ditaike Pariseko "Bibliotèque nationale" delakoan, N. A. F. 21 746, folio 164.

1853 etik eta 1863 artio Euskal jai horiek egin ziren Urruñan. 1864 ean ez dakit zergatik utzi zuen Urruña Musde d'Abbadie-k eta bai pilotako, bai olerkietako sariak eman zituen Saran. 1877 an Donapaleuk gozatuko ditu besta horiek. Garrailetan aurki ditazke izen ezagutuak hala nola Elissamburu Jan Battitt eta haren anaia Leon, Larralde jaun medikua, sortzez Bordaxuritarra, Harlux, Joanes Berges, Otxalde, Agustin Etcheverry. Orhoitzapen gisa aipa dezagun Etxahun, Barkoxtar olerkaria. Ez zuen irabazi eta jujek ukan zuten damutzeko parada, Etxahunek "huntü" zituen pertsu latz eta minkorrekin.

Dena den, 1879 ko urtean pentsatu zuen D'Abbadie-k behar zuela Ipar Euskal Herria utzi eta jo behar zuela Naparrorat. Hartu emanetan sartu zen Iruñako *Asociación Euskara*-rekilako agintariekin, Arturo Campión-ekin bereziki: "Nous apprenons que M. A. d'Abbadie, l'éminent membre de l'Institut qui a un culte profond pour la langue basque, organise de concert avec la Asociación Euskara de Navarre, des jeux floraux qui auront lieu dans l'un des villages basques de cette province. En même temps que ces concours il y aura de belles parties de paume et une exposition régionale. Pour en assurer le succès la Société et M. d'Abbadie ont donné des prix sérieux." (4).

Elizondoko besten programa agertu zen Baionako aldizkari batean *"Le Courrier de Bayonne"*. Ikus ditaike "sari seriosak" zirela. Orotarat, pilota eta olerki, D'Abbadie-k emaiten zituen 780 libera, ohorezko gerriko bat eta ohorezko makila. *Asociación euskara* elkarteak, bere aldetik emaiten zituen 790 libera, soinulari, aizkolari pertsulari eta behi zoin gehiagokoentzat. (5) Ikusi ditaike zer arrakasta ukan zuten pertsulari eta olerkarien primek. Hogoi eta hamar olerki baino gehiago etorri ziren Baionarat eta Tolosatik idatzi zion d'Abbadie-ri Fidel Lizarraga. jaunak eta huna zer zion:

"Tolosa 10 de junio 1879"

"Muy señor mío y amigo: Tomo la libertad de molestar a Vd, conociendo lo cariñoso que es Vd y por servir a dos mejores improvisadores del País Vasco".

---

4) *Le Courrier de Bayonne,* Vendredi 21 mars 1879.
Ikus ere *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco,* Literatura, I, 466 or.
5) *Le Courrier de Bayonne,* vendredi 31 mai 1879.

"D. José Bernardo Otaño de Cizurquil y D. Pedro José de Elicegui de Asteazu se me presentaron ayer suplicándome hiciese el favor de escribir a una persona de esa que desearían saber las condiciones es decir que ellos se presentarán contra los mejores improvisadores que se encuentren pero que no podrían competir por escrito con poetas instruidos y a pesar de esto suplican se les dé el tema sobre lo que han de versar en el escrito pues no entendemos el vascuence del prospecto y espero de su amabilidad se digne contestarme cuantos pormenores pueden cocurrir sobre la versificación, qué día tienen que presentarse en esa, de cuantos individuos se compone el jurado y sus nombres y si basta con solo hacer presente a Vd que irán los dichos señores.

Cumpla Vd con todos mis conocidos en el casino y Vd mande con la misma franqueza a su amigo y SS QBSM." (6).

Uztailaren 28 an, arratsaldeko 3 etan emana izan zen 80 liberako saria eta zilarrezko makila. Behar baginitu segitu orduan agertarazi ziren paperak usteko ginuen Ramón Artola Donostiarrak irabazi zuela. Alabainan Baionan, Lamaignèreen irarkolan agertu ziren paperrek diote: "1879 —Neurtizlarien gudua Elizondoko bestetan. Garhait saria eraman duen kantua Ramón Artola Donostiakoak egina. Altabizkarko kantua. Nor bere etxean izan bedi nagusi. (7)"

Lehenbiziko aipamen ona Darrupe-Harluz Urruñarrak Ameriketarik bidali eresi batekin irabazi zuen. Bigarren aipamen ona eraman zuen eresiaren titulua izan zen: *Jaungoikoa bera bakarrik da andi.*

Aipamen ohorezkoak:

José M. de Yparraguirre, Santa Luziako ibarrekoari
Agintza egin izan duen Iputzari
Lamiaren kantua egin izan duen Iputzari
M. Maguregui, Bilbaokoari
Valentın Ecenarro, Bizkaitarrari
Joanes Oxalde, Bidarraitarrari
Harozteguy, Ziburutarrari
L. L. I, Nafarrari
I. G. O. y A, Iputzari

6) Paris, Bibliothèque nationale, N. A. F. 21 748, folio 85.
7) Musée Basque. Concours d'Abbadie. Feuilles volantes.

Manuel de Imaz, Alzokoari
Betiri Dibarrart, Baigoririarrari
Agustín Etcheberri, Saratarrari
Joanes Berjes, Saratarrari.

Egia erran, utzi zuten salatu gabe nork irabazi zuen lehen garrait saria. Huna zer dion *"Le Courrier de Bayonne"*-ko artikulu batek:

"Les fêtes basquaises d'Elizondo qui ont eu lieu le 25 du mois dernier en tété très remarquées. Le concours de poésie basque a été des plus remarquables et le nombre de concurrents dépasse la trentaine. Le jury chargé de distribuer les primes a réservé le premier prix. Le second a été décerné à M. Ramón Artola de Saint Sébastien pour sa traduction du chant d'Altabiscar. Les deux premiers accessits ont été obtenus par M. Darrupe-Harluz d'Urrugne pour une pièce contre l'émigration en Amérique et par l'auteur de la pièce "Jaungoikoa bera bakarrik da andi". Douze mentions honorables ont été décernées à des auteurs originaires des provinces basques espagnoles et françaises." (8)

Premier prix réservé: Zertako? Beldurrez dudarik gabe. Duvoisin —ek berak aitortzen dauku hori idazten diolarik Louis Lucien Bonaparte printzeari: "Pour essayer de vous distraire un moment de ces tristes pensées je mets à la poste à votre adresse les 2e et 3e fascicules des Légendes basques, de la part de M. Cerquand, inspecteur de l'Académie de Bordeaux et cinq pièces de vers dont l'une très remarquable composée par M. Philippe de Arrese y Beitia d'Ochandiano. L'auteur n'a pas voulu écrire dans son proppe dialecte qui n'est pas assez répandu pour être compris de tous; ses vers sont plus guipuzcoans que biscayens.

Comme le Pays Basque espagnol est sous le régime de l'état de siège, nous n'avons pas jugé à propos de publier que M. de Arrese este premier lauréat au concours d'Elizondo (de peur de faire interdire ces concours à l'avenir) mais on lui fera parvenir le prix.

Son chant a été tiré à 1.000 exemplaires, de même que celui de la mort de Roland, heureuse imitation en vers d'un

8) Le *Courrier de Bayonne*, Dimanche 3 Août 1879.

morceau en prose dont beaucoup de littérateurs se sont occupés. Le véritable auteur fut un Bayonnais, M. Garay de Monglave, et le trducteur basque, un de mes cousins, Louis Duhalde, d'Espelette'' (9)

Berak publikatu zuen Arrese Beitiaren olerkia *''Ama euskeriari azken agurrak''* La *Semaine de Bayonne* deitu aldizkarian (10), bere frantses itzulpenarekin eta salatzen dauku ez zuela *''Le Courrier de Bayonne''* delakoak agertarazi nahi ukan, beldurrez mugan arrasta zitzazten aleak.

Elizondoko jaiekin d'Abbadiek osatzen du bere lehenbiziko xedea. Ordu artio guti agertu baziren Napartar, Gipuzkoar eta Bizkaitarrak, Elizondon aise nagusitu ziren. *''Les pièces françaises sont entièrement effacées par les guipuzcoanes et les biscayennes arrivées directement chez Mme Lamaignère''* (11) Orduz geroz zinez Euskal Herri osoko zoin gehiagokoa izanen da. Gehiago dena, oldar berri batekin sortuko dira bertzo bestak, hala nola urte berean egin ziren Donostian. Gero sotuko den abertzaletasunak bere erroak mogimendu kultural hortan dauzka eta dudarik gabe Antoine d'Abbadie batek merezi du berea. Euskal Herriak XX garren mendean ezagutuko duen berpizte literarioa hasten da XIX garrenean d'Abbadie-k sortu dituen euskal jaiekin. Egun batez beharko zaio eman zor diogun esker ona euskaltzale suhar horri.

9) J. B. DARANATZ, ''Correspondance du capitaine Duvoisin ''Lettre à L. L. Bonaparte, 24 juillet 1879, *RIEV*, 1930, p. 358-359.

10) La *Semaine de Bayonne*, mercredi 6 Août 1879.

11) J. B. DARANATZ, (Correspondance du capitaine Duvoisin'', Lettre à A. d'Abbadie, 11 juillet 1879), *RIEV*, 1930, p. 357.

BRUNO ETXENIKE (1819-1893)

Elizondo, 1979-VII-20
Juan San Martin

Jaun-andreok; señoras, señores; agur! guzioi:

En ésta breve disertación, para conmemorar el centenario de las Fiestas Euskaras, quiero traer al recuerdo a uno de los promotores de las mismas al frente de la Asociación Euskara de Navarra: Bruno de Echenique. Y perfilar, escuetamente, algo de su vida, de su obra y de sus relaciones con el príncipe Luis-Luciano Bonaparte.

Bruno Eugenio María de Echenique y Garmendia, nació en Urdax el 9 de julio de 1819 y vivió gran parte de su vida en Elizondo, en la mansión palaciega de Datuegaraya (Datuena). Fue hombre de buena posición social y gran cazador.

De todos los colaboradores del príncipe, fue el que mejor se hizo cargo de sus investigaciones y del método por él adoptado.

Falleció en Pamplona, el 14 de marzo de 1893.

Por encargo del príncipe Bonaparte tradujo al vascuence navarro, cinco partes de la Biblia: *El Evangelio según San Mateo* (Londres, 1857) y *La profecía de Jonás* (Londres, 1862), más las hasta ahora inéditas: *El Cantar de los Cantares de Salomón, El Libro de Ruth, El Evangelio de San Mateo* y *El Apocalipsis de San Juan*, todos ellos en dialecto baztanés, cuyos manuscritos se conservan en el archivo de la Diputación Foral de Navarra.

El 11 de agosto de 1856, y por mediación de Antoine d'Abbadie fundador y mantenedor de las Fiestas Euskaras, Bruno de Echenique tomó contacto con el príncipe Bonaparte en la mansión de Echaux de Saint-Etienne de Baïgorry, y allí

mismo se comprometió con la traducción de *El Evangelio de San Mateo.*

En 1866 acompañó al príncipe durante 17 días consecutivos, en un recorrido por tierras navarras para hacer las debidas precisiones en sus estudios linguísticos interdialectales.

Julio Altadill dijo de él: "don Bruno Echenique, vascófilo eminentísimo, hombre dotado de excepcionales cualidades de sabiduría atestiguadas en sus innumerables producciones y al frente de la Asociación Euskara, entidad patriótica de buena memoria, de la cual Echenique era alma y vida".

* * *

Louis-Lucien Bonaparte printzearen lankide gorenetakoen artean aipamen berezia merezi du Bruno Etxenike zenak. Ez zion alperrik esango, printzeak bere gutun batean: Zu zaitut eskatzen ditudan itzulpenok nola behar duten berezala ohartu den bakarra.

Bruno Etxenike Garmendia Urdazubin sortu zen, 1819-ko Uztailaren 9an (beraz hil honetan bete dira ehun eta hirurogei urte). Bataio izenez. Bruno Eugenio Maria jarri zioten. Bere aita eta aitatxi ere Urdazubikoak ziren; ama ordea, Berakoa. Beraz, Bruno Etxenike, Axularren sorterrikoa zen, baina bere bizitzako parte handi bat Elizondon igaro zuen, Mugairetik Elizondora bidean aurkitzen den Datuegaraia (Datuena) jauregian. Bonaparte printzearekin hemendik izan zituen harremanak, 1857tik 1862ra bitartekoak behinik-pehin, itzulpen lanak burutu zituen garaian. Gutunik anitz idatzi zion hemendik printzeari. Bere seme Bruno Etxenike Meokik, printzeari egindako berrogei gutun gordetzen zituen eta J. Urkixori utzi zizkion RIEV-en argitaratzeko. Gero Nafarroako Foru Diputazioneak erosi zituen gutun horiek. Gaur egun, L. L. Bonaparte printzearen eta bere laguntzaile euskaldunen arteko harremanak ikertu nahi dituenak beharrezkoa du gutun hoiek aztertzea.

Etxe aberatseko gizona zen eta, honegatik, diru laguntzaren eskerik bagekoa izan zen printzeari eskaini zion laguntza. Printzeak, Bruno ihizazale zenez, eskopeta bat erregalatu zion bere laguntza eskertu nahirik, eta azken gerratean galdu zitzaien Etxenikeren biloberi. Ihizaria, arrantzalea eta ibiltari

handia omen zen eta esaten dutenez, Urdazubitik Gasteizera zenbait aldiz mendiz mendi joana omen zen ihizan eginaz. Ibilaldiotan, esan ohi da, Baztan, Ultzama, Sakana, Burunda eta Nafarroa erresuman euskalkien arteko desberdintasunez ohartzen zela eta elkarren arteko konparaketak ikertzea gogozkoa omen zuen.

Larresoron frantsez eta matematika ikasten egona zela badakigu, Piarres Lafitte jaunak eman digun berriari esker. Honez gainera, bere bizitzaz, oso guti dakigu. Bi aldiz ezkondu omen zen. Lehen emaztea Ruiz de Alegria deiturazko arabar bat omen zuen eta beragandik seme-alabak izan zituen, Mikaela eta Joakin. Bigarren ezkontzako emaztea Prudentzia Meoki, eta honekin hiru seme, Bruno, Salbador eta Saturnino. Eta, hoien ondorenez senitarte handia utzi zuen.

Iruñean hil zen, 1893. urteko Martxoaren hamalauan.

* * *

Nolakoak ziren printzeak agintzen zituen Biblia itzulpenak?

Duvoisin kapitanak Hiribarren apezari esan zionez, Bonaparte printzeak katoliko egiten zuen bere burua, baina Biblia euskaratzean ezertariko oharrik gabekoa nahi zuela, hizkuntzalarientzat nahi zuenez. Intxauspek eta Uriarte berak egin zituen ahaleginak alperrikakoak izan ziren. Hontan: "Protestanteek berak baino estuagoa zen gure Printzea", esango digu Aita Akesolok. Bonapartek ez zuen nahi ez behar Biblia beraren itzulpeneko euskara baizik. Baina, bere ekintzari esker, gure literaturaren aberasgarri ditugu bere laguntzaileen lanok.

Bestalde, euskalkiak mugatzeko lehen lan serioetan probetxugarri izan ziren eta Azkue berak ere *Morfología vasca* deritzan lanerako erabili zituen. Baztango euskalkiaren berezitasunez ere baliatuz. Baina, euskalkien ikertze sakon baterako oraindik bada hor materialik aski eta ondoko gizaldiak bertara jo beharko dute gure hizkuntzaren Atlas osatzeko orduan.

Brunok, Bonaparteren aginduz, Bibliaren bost zati itzuli zituen euskarara. Hauetatik bi baizik ez ziren argitaratu:

San Mateo-ren Ebangelioa. (*El Evangelio de San Mateo*. Londres, 1857), goi-nafarreraz idatzia eta Jonás-en Profezia (*La Profecía de Jonás*. Londres, 1862). Baztango euskaran, joan zen mendearen erdialdera Elizondoko hirian erabiltzen zen erara.

Argitaratu gabe dauden esku-izkribuen artean, Nafarroako Foru Diputazioko gordailuan daude: *Salomon-en Kantiketako Kantika, Ruth-en liburua, San Mateo-ren Ebangelioa*-ren bigarren itzulpen bat eta *San Juanen Apokalipsis*, laurok Baztango euskaraz idatziak.

Iragan Maiatzaren 25.ean Iruñean Prudentzio Hualderi buruz eman nuen hitzaldian esan bezala: oroi, gizonak munduan gehien irakurri duen liburua Biblia dela; oroi, argitara gabe gelditzen zaizkigun itzulpenogatik historiarekin eta euskararekin zordun gaudela. Gure literatura ez baita aberatsegia holako lanak gordailu zoko batean edukitzeko.

Ikus dezakegunez, gure euskarak badu oraindik bitxi ederrik izkutaturik. Noiz ikusiko dute argia?

* * *

Baina, nondik eta nola hartu zituen Etxenike zenak Louis-Lucien Bonaparte printzearekingo harremanak?

Bonaparte printzeak Klaudio Otaegi hondarribiar maisua ahaideko zuen, elkarren emazteak ahizpak zirenez. Bere bidez ezagutu zuen nonbait Antoine d'Abbadie eta honek bultzatu zuen euskararen iker lanetara.

Oroi, d'Abbadie jauna izan zela Euskal Jaien sortzaile eta eusle. Urruñean 1853. urtean sortu eta mugazemendik, duela ehun urte lehenbiziko aldiz Elizondoko hiri honetan. Besteak beste, Nafarroako Asociación Euskara elkargoa osatzen zutenekin batean Bruno Etxenike ere partaide izan zen 1879. urte gogoangarri hartan. Eta, banatu ziren sarien artean, eskola maisurik hoberenaren saria K. Otaegirentzat izan zen.

D'Abbadiek 1856ko Apirilaren 25ean egin zion gutun baten bidez gomitatu zuen printzea, Euskal-Herrira etor zedin. Eta, printzea ikertze asmo berri hura aurrera eraman nahirik, urte bereko Uztailaren 19an heldu zen Baionara eta egun berean agurtu zuten laguntzaile izango zituen Duvoisin

eta Intxauspek. Berealaxe Nafarroako bi alderdiekin harremanean jarri nahi zuen eta Abuztuaren 7-rako Baigorriko Etxauz jauregirat dei egin zion d'Abbadie jaunak, bere anaia zen Charles bizi bai zen orduan jauregi honetan; eta gutunean zionez, Elizondon bizi zen Etxenike hau ezagutzeko aukera izan zezan. Eta 1856ko Abuztuaren 11an heldu zen Bruno Etxenike Urdazubitik Baigorrira. Hogeitahamasei urte zituen Brunok eta elkarren artean izan zuten lehen harreman hartan hartu zuen beregan San Mateoren Ebangelioa euskaratzea. Bai laster burutu eta argitaratu ere.

Gogozko izan zituen printzeak Etxenikeren itzulpen lanok, dirudienez beste inor baino lehen ohartu bai zen lana burutzeko zehaztasunez. Printzeak ber berak hala aitortu zion 1859ko Irailaren 12an izkiriatu zion gutunean: "Usted es el único que inmediatamente se ha hecho cargo de lo que yo quiero en las versiones que encomiendo".

1857ko Urrian egin zuen printzeak bere bigarren bidaia. Hil honen 15erako deitu zituen bere laguntzaileak Baionarat eta Londresko bere inprimategian argitarazi zituen liburuak aurkeztu. Orduan izan zuen Bruno Etxenikek bere lehenbiziko lana inprimaturik eskuratzeko aukera.

Baionako bilera hartan laguntzaileei lanen batasunez hitz egin zien. Bereziki aburu bateratua eta ortografia bakarra eskatuz eta honetarako arauak markatu zituen.

Helburutzat euskararen euskalki desberdinen konparaketazko ikerketa zuela agertuz, argi ta garbi adierazi zien.

Gainera, urte honetako bidaian etorri zen printzea lehen aldiz Baztanera.

Eskuratu ahal izan zituen liburu eta itzulpenen bidez, ondoko urteetan, euskara sakonki ikasi eta ikertzeari eman zion. Baita anitz lan burutu ere.

Ongi menderatu zuen gure mintzaira eta zituen zalantzei buruz pertsonalki nahi zuen Euskal-Herrian zehar, hanhemenka, ber berak erabaki. Horretarako etorria, 1866. urtean, Urtarriletik Martxora bitartean berriz izan genuen hemen. Baionako "Mont St. Jean" etxean kokaturik, deitu zituen bere laguntzaileak. Hauen artean genuen Bruno Etxenike ere. Orduan eraturik eginen zuten gure Nafarroa gaindi

ibilaldia. Elkarrekin igaro zituzten hamazazpi egun, Aezkoa, Zaraitzu, Erronkari,... aldeak ikusiz eta ikertuz, Bonaparte printzea, Otaegi, Etxenike eta hirurak.

Printzearen azken bidaia 1869.urteko udaberriz izan zen. Politika giroagatik, muga pasatzeko eragozpenak izan zituen eta Donibane-Lohitzunen gelditu zen. Harat deitu zituen nafar laguntzaileak eta beste zenbaiten artean joan zen Bruno Etxenike ere.

Urrengo urtean erori zen Frantziako Napoleon III.a eta printzeak etzuen izan bere lanetan jarraitzeko behar zuen laguntzarik. Eta hemen bukatzen dira gure Etxenikeren berriak. Bere lanen mezua guztiz argitara gabe.

Hitzaldi llabur honetan, Bruno Etxenikeren ohorea goraipatuz eta ospatzen dugun eguna gogoan hartuz, duela ehun urte Iparragirrek hemen kantatu zuen Oroitza ekar dezadan bukatzeko, une honetan hain egoki datorkigunez. Hara hemen lehen eta azken bertsoak:

"Elizondoko uri
eder politean
euskalduna ugari
bildura da pakean
esanez batu gara
bai zori onean
gorrotorik gaur ezta
gure batzarrean.

Nafarren bide onak
gaur laurak batean
da artu bear dana
errien onean
euskaldun on guztiak
betiko pakean
eztegu nai gudarik
anaien artean."

BIBLIOGRAFIA

L. Akesolo, *Katolikoen euskerazko Bibli-itzulpenak,* "Jaunaren deia", 35 zenbakia, 1971.

Duvoisin-en *Biblea Saindua*-ren bigarren argitalpenari hitzaurrea. Bilbo, 1972.

J. Altadill, *Geografía General del País Vasco-Navarro* (vol. Navarra, tomo 2), p. 81 Urte gabe.

N. Alzola (H. V. B.) *Bonaparteren Eunurte-muga dala-ta* (1857-1957) "El Bidasoa" 1957,urteko Uztaila-Urria zenbakietatik ale berezia (separata).

Echenique. Boletín R. S. V. A. P., XIX (1963), 282-284 orrialdeak.

R. M. Azkue, *Morfología vasca, Euskera,* IV eta V (1923-1924), 303, 338 eta 340 orr.

J. Bilbao, *Eusko Bibliographia,* tomo III, 274-275. Donostia, 1973.

B. Estornés Lasa, *Literatura,* tomo I, 363 eta 683 orr. (Ed. Auñamendi). Donostia, 1969.

Diccionario Enciclopédico Vasco, vol. V, 450-452 orr. (Ed. Auñamendi). Donostia, 1974.

A. Irigaray (A. Apat-Echebarne), *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra,* 31-40 orr. Iruñea, 1974.

M. Izetaren *Dirua galgarri* eleberriaren "Leen peredikia", 10-11 orr. Auspoa Liburutegia, 13 zenb. Tolosa, 1962.

G. Lacombe, "Les traductions basques de St-Mathieu", *Eusko-Jakintza.* Baiona, 1947.

P. Lafitte, *"Biblea Euskal-Herrian" Euzko-gogoa,* 1958. 497 eta 499 orr.

S. Onaindia, *Euskal Literatura,* tomo II, 166-168 orr. Bilbo, 1973.

A. Pérez Goyena, S. J., *Contribución de Navarra y de sus hijos a la Historia de la Sagrada Escritura*. Notas históricas y bio-bibliográficas. ("Pampilonensia", serie A, vol. I) 110 orr. Iruñea, 1944.

El valle de Baztán. Colección bio-bibliográfica. 36-37 orr. Iruñea, 1967.

J. de Urquijo, *"Cartas escritas por el príncipe L. L. Bonaparte a sus colaboradores"*, RIEV, II (1908), 215-221 eta 655-659 orr.; IV (1910), 233-297 orr.

J. Villalonga, "Introducción a un estudio sobre Luis Luciano Bonaparte y sus trabajos". *Eusko-Jakintza* , vol. VII (1953-1957), 39-68 orr.

L. Villasante, *Historia de la Literatura vasca*, 173-177 orr. (2. argitalpena). Arantzazu, 1979.

J. Vinson, *Essai d'une Bibliographie de la langue basque*. I, 285, 325 eta II, 765 orr. París, 1891.

EUSKARAREN GIROA BAZTANEN

Elizondo 79-VII-20
Mariano Izeta

Euskararen egoera Baztanen bizkor dagoen ala ez behar genuke erakutsi. Ni baztandarra naizenez gero ezagutzen dut nere sor-lekua eta ezagutzen dut hemengo jendea. Zer erranen dut bada euskararen egoerari buruz? Erran dezaket oraindikan bizirik dago la Baztanen eta gure eskualdean bizi garenetatik ehuneko hiruetan hogeitamar edo gehiago ere euskaldunak garela. Egia erran nere sort-herria Elizondo dugu herririk erdaldunena, haundiena ere bai eta badakigu ere herri haundietan jendea lehenago erdalduntzen dela eta euskarak galtzen duela indarra. Gazte eta haur elizondar gehien gehienek ez dakite euskaraz, hori egia da, bainan hortako dine badira ere aunitz gazte eta haur euskaraz ederki dakitenak. Gaitz hau ez da oraikoa. Ni hemen sortua naiz eta nere ama ere bai eta baita ere nere aitetxi eta amatxi eta aintzinekoak ere dudarik gabe. Hortaz badakit hemengo berri. Lehenago ere gure haur denboran duela berrogeita hamabortz urte Elizondoko kaletarrak arraz erdaldunduak zauden, orduan ere Elizondoko karriketan erdara nagusi. Kaletarrak bai erdaldunak baina ez ordea hauzokoak eta baserrietan bizi zirenak, hok guziak euskaldun garbiak baitziren. Denbora hartan baserrietan eta herri ttipietan ez zen erdararik. Elizondoko herriaren erdalduntzea ez da oraikoa, gaitz hau lehenagotik dator, ia lauetan hogei urte eta gehiago hain segur. Bainan gezurra iduritzen bazaigu ere Elizondoko herria orai baino erdaldunago egona da. Orai badirudi berpiztu dela eta herrian euskara gehiago mintzatzen dela. Bainan horrek badu bere arrazoina. Elizondo haunditu da bainan zorionez Baztango jendetaz horniturik, baserriak utzi dituztenak eta bertze herrietatik Elizondora bizitzera etorri direnek haunditu dute gure herria. Beti ere herria euskaldun jendez

hornitzen delarik pozgarri da. Gainera ikastola ere badugu eta ehun eta berrogei haurrekin. Halere erdara beti nagusi eta ez hemen bakarrik, baita Baztango bertze herri aunitzetan ere. Lehenago erro errotik herri euskaldun zirenak eta haurrak ere karriketan euskaraz mintzatzen, orai erdaldunduta ikusten ditugu. Aunitz badira beren etxetan erdaraz mintzatzen direnak, guraso euskaldunak eta kasik erdaraz ez dakitenak maiz aditzen badugu beren haurrekin erdaraz ari direla. Erran dezadan horixe dela Euskal Herriak duen gaitzik haundienetako bat. Gurasoen errua euskararen galtzea, kontzientzarik eza, hau da hitz egokia. Bainan zorionez Baztanen ez dira denak berdinak, badira guraso euskaldunak beren etxeetan beti euskaraz mintzatzen direnak. Euskara bizi da baztandarren ezpañetan eta haurren ezpañetan ere, denak ez baitira erdaldunduak. Eta orai baztandar haurren artean eginikako ikesta interesgarria ager dezadan. Inkesta hau Baztango Eskola Batuetan (Concentración Escolar) egina da.

Aurtengo Ikastaroan EGB-ko 5, 6, 7 eta 8 garrengo kursuko 400 haurren artean, Euskarari buruz inkesta bat egina daukate. Haur bakotxari hamabi galdera eta baita ere haur hoien gurasoei bertze zortzi galdera. Denak ez ditugu erakutsiko bainan bi behintzat ager ditzadan:

Eskolako 400 ikasleei galdera hau: BADAKIZU EUSKARAZ?

Erantzuna: 280-ek BAI, ulertu eta mintzatu. 69-ek ulertu. 51-ek EZ.

Elizondoko 96-en haurren artean: 37-ek badakite. 20-ek ulertu bakarrik. 39-ek ez dakite.

* * *

Galdera hori bera 400 haur hoien gurasoei:

Baztan guziko 342 gurasoei: Badakite euskaraz 297. Ulertu 13. Ez dakite 30.

Elizondoko 91 gurasoen artean: Badakite 63. Ulertu bakarrik 4. Ez dakite 23.

* * *

Euskal Kontzientza negurtzeko galderak ere baziren:

Nahi zenuke eskolan euskarazko klaseak ematea?

400 haurren erantzuna: 292-ek Baietz. 67-ek bai, baina ez sobera. 39-ek ez dute nahi.

Elizondoko 96-ek: 62-ek Baietz. 21-ek bai, baina ez aunitzik. 13-ek ez dute nahi.

Baztan guziko 342 guraso: 225-ek. Bai. 82-ek ez aunitzik eta 28-ek ez dute nahi.

Elizondoko 96 gurasoei: 65-ek. Bai. 16-ek bai baina ez aunitzik eta 6-ek ez dute nahi.

Inkestaren bi galdera hoiek aski dira Baztango euskararen giroa aztertzeko. Horrek adierazten du gure egoera, ehuneko 70 euskaldun Baztanen. Ikusten dugunez Baztanen euskara bizi da eta hemen bizi garen gehien gehienak euskaldunak gara. Baina ez dezagun sobera espanturik egin, gure eskualdean ere bertze lekuetan bezala euskaraz dakiten aunitzen artean erdaraz mintzatzen baitira, batez ere Elizondon eta Iruriten. Bertze gañerako herriak euskaldunago dira, bereziki herri ttipia eta hauen artean, Aniz, Ziga, Berroeta, Azpilkueta, Amayur, Gartzain, Erratzu, Lekaroz, eskolako haurren arteko inkestak adierazten digun bezala. Bainan egia erran dezadan. Herri ttipi hauetako haurrek ere elkarren artean erdaraz aritzen dira, gehien gehienak. Norena den errua? Denak gara errudun. Halere gure sor-lekuan euskara bizirik dago. Euskal zaletasuna exkax xamar dabilela, hori ere bai, eta aunitzek gure mintzairarengatik axolarik ez dutela, baita hori ere. Euskaldunen artean hedatua dagoen minbizia, gaitz bortitza eta lehen bai lehen garaitu behar duguna. Bainan nondago gure etorkizuna? Gazterian. Gazteak eta haurrak euskalduntzea eta kontzientziatzea. Ikastolak zaindu, Eskola Nagusietan euskara sartu eta euskal zaletasun egiazkoa gauza guzien gainetik.

Euskarak daukan baino arrakasta haundiagokoa behar luke eta hori gure baitan dago. Euskal Kultura, hori da gure helburua. Euskaldun jendeak behar luke euskara irakurri eta idatzi, irakurgai errexak eta euskara arrontean behar genituzke, mamidunak eta interesgarriak, euskaldun jendeak

ausnar ditzan, euskara garbia eta ongi mintzatua eta ez zenbait idazlek erabiltzen dutena. Herri mailan jokatu behar dugu, herrietako berriak, nekazalgoaren arazoak, euskal kultura, kondaira, hiztegi bertso, kirol eta bertze, beti ere euskararen zabalkunderako eta batez ere herrikoia. Arazo huni buruz badirudi "Baztandarren Biltzarra" Elkarteak, Aldizkari edo Berriketari bat argitaratzekotan dabilela. Asmo hoietan dabiltza eta poztuko ginateke asmo eta nahikeria horiek, egia bihur daitezen. Berriketari hortan baztandar euskal idazle berriak saia daitezke eta gauza interesgarri agertu ere. Baztandar gazte hoien artean ezagutzen ditugu dozena erdi bat bai ederki idatzi dezatenak. Euskara baztandar kutsuarekin, denbora batez Bruno Etxenike, Frantzisko Lapitz, Xabier Lazkoz, Kruz Goienetxe, Damaso Legaz, Blas Fagoaga eta bertze aunitzek idazten zuten bezala.

Baztandarrok burrunba guti aterako dugu, ez gara "espantuntziek", baina emeki emeki bagoaz eta gure bideari lotuak etsitu gabe. Orai ere ez gaude lo, urteko egiten baita Ipuin Sariketa bat Baztango haurren artean. Hemen ere alfabetatzearen beharra badago eta nabari da haur hoiek ez dutela egundaino euskara irakurtzen. Aurten ere Jainkoa lagun, larrazkenean hain segur eta Euskal Jaien Mendeurrenaren ohoretan, baztandarren artean idatz-sariketa bat egin gogo dugu. Hau ere Herri mailan, gai errex bati buruz eta euskal kultura piztuarazteko.

Eta orain dei bat guraso baztandarrei: Zuen haurrekin euskaraz mintza zaitezte, ez dezagun hil gure arbasoengandik hartu dugun lore eder hori, ez dezagun hil gure euskal izpiritua. Familia euskararen harrobia da, Ikastola kulturarena eta zuen ahalmenaren negurrian saia zaitezte. Gure hizkuntza galtzen badugu ez dugu barkamenik.

Hil ezkilik ez, goratu bihotzak. Baditu ehun urte baino gehiago erran zutela euskara hil-urren zagola, bainan oraindikan bizirik dago eta biziko ere. Mintza gaitezen Axularrek seaskan ikasi zuen mintzairan, bere ama Azpilkuetarra baitzen, eta mintza gaitezen Jatsu eta Xabierko Frantziskoren mintzairan, gure Sainduaren ama ere Azpilkuetarra baitzen.

Eta holaxe bide huntatik jarraikiz gure mintzairak mendez mende iraun dezan mundua suntsitu arte.

BAZTANGO GAU-ESKOLEN GAIN

Elizondo, 79-VII-20
Jose Urroz

BAZTANGO GAU-ESKOLEN HISTORIA:

Sarrera: 1970 urtean sortzen dituzte "euskerazko klaseak" Elizondon, bertako giza-euskaltzale batzuek. Jon Oñatibia izan zuten laguntzaile, astean bi aldiz etortzen zen Donostiatik.

Lehenengo saioa, izan zen 1971-1972, nahiz bizi motza izan, zaletasun pixka bat sortu zuen. Lehenbizian, jende asko izendatu zen gau-askolan baino, poliki, poliki, nekatu eta aspertu ere.

Bigarren saioa 1975-1977 Lantegi eskola hasi oinan eta segidan ainbertze ikasle izendatuzen berriro, baino, ikasgela bakoitzeko gehiegi. Gainera batzuk uste baino zailagoa zela ikusi zuten, eta pixka, pixkanaka, gutxitu ziren.

Hurrengo urtean berriz gogoz eman genion haspenta eta jendea izendatu zen. Zerbait gutxiago, hiru mailetan. Ikastaroari akabila ematerakoan erabera gehiago ziren aurreko urtean baino. Hirugarren urtean gauza berdintsua gertatu zen. Hala ere, ikusi genuen multzo txikiagokin lan gehiago egiten zela eta ikasleen aldetik iraupen haundiagoa, gainera, mintzaera biziago erabiltzen dela, ta ikastaroa amaitu genuen beste urtetan bezelaxe.

1978-1979. Lantegi eskolatik aldatu ginen ikastolara, nola dagoen herriaren erdian "Kuarteleko Zelayan". Gainera, ikastolan beti, euskal kutsu gehiago nabaritzen delako: marrazkiak, tresnak, euskal liburuak eta abar. Lau mailetan hemen dugu ikastaroa; hiru lehenengoak *euskalduntzen*, eta laugarrena *alfabetatzen*.

1979. urte hasieran, Iruritako gaztediok euskal zaletasuna giroa sumatu zuten beren tartean, nola elkartzen ziren bi sozidadetan eta nabaritzen zuten zerbait falta zutela: abestiak, dantzak, jolasketak, dena euskal kutsuan, eta mintzaera erdaraz.

Orduan Iruritako eskoletan hasi ziren gau-eskola ematen eta izendatu ziren uste baino gehiago. Ikastaroak eman dira bi mailetan, eta aurtengoa ikusirik, datorren kurtsuan nahi dute hirugarren maila sortu.

Aurtengo oporretan kezka sentitu dute Oronoz-Mugaireko euskal zaleak eta saio txiki bat egin nahi izan dute. Uztaileko hilabete osoa goizeko 10 etatik- 12arte bi mailetan ematen da euskera bertako aurrei, eta oso pozik daude ikasleak eta baita ere irakasleak, nolako giro ederra dagoen. Datorren kurtsurako gau-eskola antolatzeko lanean ari gara bertako gurasoekin. Honekin ez dugu erran nahi oraingoz hetsi artu dugunik, baizik zer giro dagoen urtetik urtera Baztango Bailaran. Gure nahia da Baztango herrixka guztietan gau-eskolak sortzea, gutxienez bi mailetan: bat *euskalduntzen* eta bestea *alfabetzen,* batez ere.

Baina nola garen hain bakartiak, gure bidea orain arte izan da herriak sor ditzala bertakoek ikusten dutenean zer garrantzia daukan gure tartean euskaraz mintzatzeak.

* * *

Hizkuntza eta gizartea.—Hizkuntza eta gizartea hestu elkar loturik agertzen zaizkigu. Ezin dugu pentsatu, bat izatea bestea gabe.

Gizonen pentsamentuak agertzeko biderik osoena dugu hizkuntza. Hizkuntza herri batetako gizadiaren esperientzian kristaldura bat dela erran badazakegu alde batetik, eta bestetik, erabakizaile da gizartearen eta gizabanakoaren elkar bilerarako.

Hizkuntzak eta honen baitan bildu den giza ondareak, ez du ezaguketa bakarrik, bai eta gizaeran jokaera ere. "Hizkuntzaren bitartez taxutzen da gizonen bizitza osoa. Zai egon gaitezen euskaldunak, horrenbeste mila urtez gure aurrekoek iraun duten hizkuntza ez galtzeko. Nahi badugu Euskadi

Euskal-Herria bihurtu, beharrezkoa da euzkotarrak euskaldundu. Bestela, Euskadi euskararik gabe ez da Euskal-Herria.

Baztanen, bertze tokietan bezala, noiz eta euskara galduago orduan eta kontzientzi gehiago sumatzen da euskararen beharra. Lehenengo Elizondon gero Iruritan eta orain Oronotzen.

Gau-eskola deritzen diogu orain arte euskaldundu eta alfabetatzeari ikastolatik kanpora, nahiz askotan egunez eman klaseak edo ikastaroak.

Baztango Gau-eskola Nafarroako gau-eskola elkartean dago, eta Euskadiko federazio barruan; gainera Euskalzaindiaren babesean; Horrengatik gure lana izan da batez ere hizkuntzaren gain baina euskal historia ta ohiturarik huts egin gabe. Nafarroako Alfebetatze Euskalduntze Koordinakundearen barruan nola dagoen, haren problematika dauka. Baztango Bailara euskaldunaz hartzen dogu, baino gutxi kontzientziatua. Euskaraz dakitenek ez diote garrantzirik ematen bere asaba zaharren hizkuntzari eta ez dakienek oso zaila arkitzen omen dute.

Nafarroako gaueskolak sortu ziren Euskadi guziko problematika beraz. Ikastolak egiten duen lana osotzeko. Nola ikastolak euskalduntzen eta alfabetatzen dituzten haurrak, lan hori soil gelditzen da oraingoz Euskadi osoan euskalduntzeko erdaldunak, eta alfabetatzeko euskaldunak.

Horrengatik norma bezala gau-eskolako mugimendua ikastolagandik aparte dago, problematika desberdinak dituelako, nahiz eta bi erakundeak helburu berdinak izan; hau da Euskal Herria euskaldundu.

Honela irakasle askok egunez ikastolan ematen dituzte klaseak eta gabaz, gau-eskolan eta ikastola ez den tokietan, liberatu edo beste irakasleen bitartez.

Gaur, Alfabetatze euskalduntze mugimenduak, lan izugarria du aurrez-aurre Nafar herriak euskararen alde azaltzen ari den kezka, ardura eta asmoa ikusteaz. Bere lana aurrera eraman ahal izateko, erakunde publikoen laguntza beharrezkoa du, honela ahal izan dadin euskararen aldeko lanetan profesional taldeak sartzea. Eta ez utz, beti bezala borondate oneko gizonen eskuetan bakarrik.

eskolaren aldeko laguntzak

Orain arte, nola honelako lanari ez zaion garrantzi haundirik eman, laguntzak pertsonalkiak izan dira gehinetan. Diputazioak zerbait lagundu izan du, Udalek oso gutxi egin dute, orain, Ikastolako elkarteak, eta Baztandarren Biltzarrak, beren laguntza osoa eskaini digute. Mil esker denei.

Euskal-Herri maitea

Gure herria geure aberria
zein polita eta zoragarria
zure jendea hezia ta jatorra
zure mendiak, belar, lore, ta
zuhaitzez beteak daudela
ikusten dituzte gure begiak

Gora Euskal-Herria
maite dezagun gure soterria
sortu dezagun gure tartean
batasuna, eta elkartean bizi gaitezen
gure asaba zaharren lurrean
kontserba ditzagun ohiturak
jolasketak, eta abestiak
Gora zaharrak eta gazteak
Gizonezkoak eta emakumeak
Hego, Ipar eta mundu guztiko senideak
utz dezagun haundikeria, txarkeria ta zabarkeriak

Bat garela ba dakigu, nahiz zazpi zatitan agertu
Hizkuntza bat dugu
nahiz era askotara mintzatu
eskuindarrak eta ezkertiarrak
badugu denontzat tokia
gure Euskal Herri maitean.

SEBERO ALTUBE JAUNAREN OMENEZ

(GERNIKAko JUNTETXEAN, 1979-VIII-27)

ALTUBE-TAR SEBER JAUNAREN MENDEURRENA ZABALTZEAN

Gernikan, 1979, Abuztuak 27
Fr. Luis Villasante

Bizkaiko Jaurerriko Diputadu Jenerala.

Gernika eta Arrasateko Alkate jaunak.

Euskaltzainak.

Gernikar eta hainbeste lekutatik etorri zareten Jaun-Andreak: Arratsalde on denoi!

Euskaltzaindiaren batzarre batetik bestera bitartean Euskaltzaindiko norbait hiltzen denean, ohitura du gure Akademiak batzar hasieran haren aipamena egitea. Eta hori da gaurko kasua. JOKIN ZAITEGI, ohore mailako euskaltzaina, hil berri dugu. Arrasateko semea zen, Severo Altube bezalaxe, eta honek bezala hark ere euskararen aldeko lanetan eman ditu bere bizitze eta indarrak.

Gerra ondoko urte latz haietan, euskaraz ia deus egiterik ez zegoenean. *Euzko Gogoa* aldizkaria sortu zuen, nun eta Guatemalan! Olerkari, idazle eta batez ere itzultzaile izan dugu Zaitegi jauna. Greziako pentsalari handien obrak —Platon eta abar— itzuli ditu euskarara. Euskaraz benetazko kultura bat izan dezagun oinarriak ezartzea izan da Zaitegiren asmoa, eta langintza horretan higatu ditu bere urteak eta bai bere txanponak eralgi ere.

Zaitegi jauna euskaltzain leguntzailea izendatua izan zen 1953. urtean. Ohore mailako euskaltzain, berriz, 1977.ean.

Goian bego gure adiskide eta gogaide zaharra.

* * *

Gernikan biltzen da gaur Euskaltzaindia. Nik dakidala, gerra ondoko garaian gaur arte ez da uri honetan batzartu Euskaltzaindia, nahiz eta uri honek lokarri hautsi ezinak izan, bai Euskaltzaindiarekin eta bai euskararekin.

Gernikako hilerrian –kanposantuan– hiru euskaltzain daude ehortzirik: Carmelo Etxegarai, Bonifacio Etxegarai eta Altube-tar Seber jauna.

Gernikak euskararekin dituen lokarriak ez naiz hemen kontatzen hasiko. Zerbait aipatzearren, hauxe bakarrik esango dut: gure herri literaturan gogoangarri direla Gernikako Marijeseak. Eta Gernikan edo Gernika inguruan bertsolaritzak loratze ederra ezagutu duela eta ezagutzen duela gaur oraino: hor dira, diodana probatzeko, Enbeitatarrak eta abar. Euskal idazleen artean ere bada izen bat baino gehiago, noski. Bizi direnak aipatu gabe, ahaztuxea dugun izen bat nahi dut gogoratu: Kanala-Etxebarria, Valentin Berriotxoa dohatsuaren bizitzea eta beste Gernikako euskaran idatzi zuena.

Baina goazen zuzenean gaurko ospaketa honen motiboa adieraztera. Severo Altube jauna gaurko egunez, orai dela 16 urte, hemen Gernikan hil zen. Eta gainera, hura jaio zenetik aurten dira ehun urte.

Severo Altube ez zen gernikarra, mondragoitarra baizik, baina gazte zela etorri zen Gernikara eta hemen eman zuen bere bizitzeko zatirik onena; bere euskal lanak ere hementxe egin zituen. Uri honetako alkate ere izan zen.

Euskararen kezka bihotzean josia ekarri zuen beti Altube jaunak. Gure hizkuntza nola bizirik atera, nola iraun arazi: hori zen Altuberen ardura nagusia. Euskarak, herri hizkuntza bizi bezala iraun dezan, ze problema eta korapilo askatu behar dituen: hori aztertu eta argitu nahi izan zuen, problema horien gainean argi egin, argia zabaldu. Horretarako linguistika eta gramatika gaiak ikastera lotu zen. Hortik jasotako irakaspenez jantzirik, euskarari bidea zabaldu nahirik eta euskararen bizitzea beti gogoan izanik, bere ustez euskararen bizitzerako kaltegarri zena salatu eta mesede dena bultzatu nahi izan zuen.

Garai hartan hitz kontuan nagusi zebilen purismoa kaltegarritzat jo zuen. Euskara jatorraren joskera zein den aztertu zuen. Euskal azentoaz ikerpen sakonak egin zituen. Euska-

SEBER ALTUBE LERTXUNDI
(1879-1963)

raren Batasuna euskararen iraupenerako zein beharrezkoa den behin eta berriz eta aspertzeke erakutsi zuen.

Euskara salbatzeko euskara maitatzea ez dela aski esaten zuen Altube jaunak. Maitetasuna ondo dagoela, baina maitetasunaz gainera argia eta jakintza ere behar direla. Bestela, jakintza gabeko maitetasun itsuak mesede baino kalte gehiago egin ohi diola sarritan maite den gauzari. Eta horrelako zerbait ikusten zuen berak garai haretako euskalzaletasunean. Maitetasuna, bai, baina askotan maitetasun itsua, gutxi argitua, eta argi hori berarentzat zuzentzen eta besteontzat zabaltzen ahalegindu zen.

Ni gernikar naizenarren, aitortu behar dut liburuetatik ezagutu nuela Altube jauna aurpegiz baino lehen. Haren irakaspenak oso estimatuak nituen eta asko lagundu zidaten. Eta nik bezala seguraski aitortuko dute beste asko eta askok. Bai. Altube jaunaren maisutzaren arrastoak garbi ezagun dira gure adinekoen gizaldian.

Honekin ez dut esan nahi maisu bezala beti hutsezin denik. Gizonok denok gara mugatuak eta neurridunak. Hark ere beharbada gauza guztietan ez zuen beti ongi asmatu. Beharbada gauza batzuetan urrunegi joan zen. Edozein modutan ere, euskaltzain bezala Altube jauna eredu eta ispilu bat dugu guztiok.

Ez noa gehiago esatera haren bizitze eta lanei buruz, zeren hortaz beste batzuk mintzatuko dira gaur.

Euskaltzaindiak Altube jaunaren mendeurrena handikiro ospatu nahi du. Eta hau da arrazoia: Lehen orduko Euskaltzaindi zahar hartan, Azkue kenduz gero, inor gutxi gailurtu da gramatika lanetan Altube bezanbat.

Gaur, bada, mendeurrena zabaltzeko, Altube hil zen egunean bertan batzarre agiria egin nahi izan du Euskaltzaindiak hemen Gernikan.

Abenduan, berriz, eta Arrasaten —han jaioa baita Altube— hiru egunetako Biltzarrak, euskal gramatikari eskeiniak, egingo dira. Gramatikalari izan genuen Altube eta hari eskeini dakiokeen omenaldirik hoberena horixe dela uste dugu: euskal gramatikaren esparrua lantzea. Gero, berriz, datorren urteko udan, hemen Gernikan atzerriko euskalarien biltzar

bat egiteko asmoa dago. Baita liburu bat ere agertuko da urte barruan Altube jaunari buruz.

Hauek dira, jaunak, Altube-tar Seber jaunaren mendeurrena ospatzeko antolaturik dauden ekintza nagusiak.

Eta honenbestez zabaldurik gelditzen da Altube jaunaren urtea.

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

SEBERO ALTUBE, GIZONA

Gernika, 1979-VIII-27
J. M.ª Velez de Mendizabal

Euskaltzainburua, Gernika eta Arrasateko alkateak, euskaltzainak, jaun-andreak, AGUR

1.879.eko Azaroaren 8an, eguerdiko 12etan Klara Lertxundik, Juan Alejandro Altuberen emaztea, haur bat munduratzen zuen Arrasaten. Egun berean izan zen bataiatua Donibaneko herriko Eliz Nagusian. Egutegiko Sainduen Izendegiari jarraituz, alde batetik, eta aitapontekoaren izenaz baliatuz, bestetik, SEBERO MIGUEL ipini zioten Bataio Liburuan jaio berriari.

Juan Alejandro eta Klarak ba zuten aurretik beste seme bat, Benigno, Sebero baino urtebete zaharragoa. Bikoteak, oraindik, beste ume bi izango zituen: Jesusa eta Hilario Mercedes.

Zernolako haurtzaroa izan zuen Seberok? Galderari erantzuteko sendiaren testuingurua aztertuko dut, gaingiroki ez bada ere. Aitak "errementari-tabernari" zuen ogibidea. Bera ezagutu zuten arrasatear guztiongandik mugaketa berbera jaso dut Juan Alejandroren xehetasunak eskatzean: *gizon zakarra*. Zurrutak tiratzen zuen, gainera, eta anaiarrebak sarri ikusi ahal izan zuten aita bere senetik joanda. Etxeko giroa ez zen bat ere ona eta, behin, Benignok lagundurik, Seberok ihes egin zuen etxetik Gasteizko senideengana.

Seberok hamabi urte zituelarik bere ama hiltzen da. Etxe hartako maitasun-iturri bakarra itzali denez harremanak zailagoak egiten dira aita eta gaztetxoen artean. Benignok urte batzu geroxeago bizitzera Argentinara joan den Hilariorengandik berriak eskatzean honela esaten dio honi eskutitz batetan:

"...y con todas las noticias, pues quiero estar enterado de todas tus cosas, pues ya sabes que cuando joven era yo el padre y la madre, si así se puede llamar."

Sendia, bestalde, handitzen doa Juan Alejandro beste bi bider ezkontzen baita, lotura hoietatik seme bana edukiz.

Seberoren abiapuntua ez da, ikus daitekeen bezala, ezertxo ere atsegina. Nola, beraz, iritsiko den mailaraino iristea? Amaren altzoan ezagututako maitasunaren haziak kontrako erreakzioa sortuko du bere baitan. Eta txikitandik saiatuko da barneko lirikotasunak markatzen dizkion bideetatik.

Musika da Seberoren lehen zaletasuna. Juan Jose Rodriguez Arrizabalagak, Arrasaten "Maixu Zaharra" izengoitiz ezaguna, erakutsiko zizkion solfeo oinarrizko kontzeptuak. Herriko organulariaren kargua Victoriano Balerdik 1.892.an hartzean berarekin hasten da Sebero ikasten.

Armonia, musika konposaketa eta beste aurrera zeramatzan Seberok instrumentoak menderatzen zihoan batera. Honela, bibolina, errekintoa, kitarra... Baina beste bat izan zen egun haietan ospe handia ekarri ziona: dultzaina.

Dultzaina-hirukote bat osatu zuten Seberok, bere anaia Benignok eta Kristobal Bedia 9 urteko gaztetxoak. Arrasateko inguruetan ez ezik Euskal Herri osoan ziren ezagunak. Sari batzu ere irabazi zituzten. Hirukote haren kalitateaz ideia egiteko, Kristobalek herriz herri zebilen lehen uda amaitu ondoren 1.000 pezeta eman zizkiola aitari esan zidan behin haren arrebak. Union Cerrajerako orduko soldata 10 urteko mutiko batentzat egunean bi errealekoa zen.

Bitartean Seberok solfeo klaseak ematen ditu herriko Udaletxean eta baita berean ere. Bandako kide dugu zuzendari izendatu arte 1.899.an. Bere ogibidea musikan dagoela ikusten du, lanean ihardunez atsedenik gabe, ezagupide sakonagoak erdiesteko. Eta mugak hedatu nahian, Gernikako Bandarako irten diren azterketetara azaltzen da, kargua berarentzat izanez. 1.901.eko Abenduan gaude.

Seberok bere jaioterria uzten du. Aurrerantzean zer aurkituko duen ez daki baina gizon itxaropentsua dugunez bere indarretan jarri du sinesmen osoa. Ez du sekulan Arrasate ahantziko, aukera duen bakoitzean bere jatorria zein den eza-

GERNIKAN, 79-VIII-27. Euskaltzaindiak Altuberi egindako omenaldia. Ezkerretatik eskuinetara: Mitxelena, Haritschelhar, Abaitua (Gernikako Alkatea), Villasante, Ardanza (Arrasateko Alkatea), Satrustegi eta San Martin.

gutaraziz. Baina Gernikak bereganatu egin du eta bertatik emango dizkigu fruiturik onenak.

Euskararekiko joerak errotu egin du berarengan. Honek beste zenbait alderdi eta giro ukitzeko posibilitatea ematen dio. Musika eta, batez ere, linguistikako ikasketei ekin die gartsuki. Heurei eskaintzen dizkie bere orduak oro. 1.914.eko hasieran Gernikako inguruetako harma lantegi batzuk bat egitea erabaki zuten "Alkartasuna" izenekoa eraikiz. Seberoren ibilbide zintzo eta zuzena ikusirik enpresako arduradunek zuzendaritza eta Kontseiluko Lehendakaritza eskaintzen dizkiote 1.916.an. Hau dela eta, Bandako lana utzi behar du. Eta berarengan fedea jarri zutenak gaizki ez uzteko edo, Seberok "SIVISPACEM" deritzan pistola berri baten patentea lortzen du bi urte geroxeago.

Urte berean, hau da, 1.918.ko Apirilaren 11.an Urkiolako Elizan ezkontzen da Gregoria Gangoiti andereñoaz. Argentinan jaioa izan arren gurasoak bizkaitarrak zituen emakume hau Altuberen euskarria izango da egun honetatik aurrera.

"Bizkorra, urduri eta harro xamarra baina bihotz handikoa" omen zen ongi ezagutu zutenen eritziz. Begirune handia zion bere gizonari eta Seberori aholkua eskatu aurretik ez zen etxean erabakirik hartzen.

Bikoteak ez zuen seme-alabarik izan. Hala ere, Benigno anaiaren andrea hiltzean sei urteko hauen alaba Elixabete hartzen dute etxerako.

Gregoriaren gurasoek emaitza garrantzitsuak egin zizkioten Gernikako herriari. Honela, aitak Buenos Airesen 1.922.an testamentua egitean, bere ondarearen bostena Asilo Kalzadari utzi zion. Honela dio testamentuak: "Siendo el legado valioso, representa un beneficio de alta importancia a la institución legataria". Bestalde, "Gizarte Etxea" egin ahal izateko amaren terreno batzu saltzen ditu sendiak 1.957.an, "en las condiciones de 250 pesetas el metro cuadrado, por tratarse de finalidad benéfica".

Bizitza aurrera darrai. Arrasateko etxe bateko atarian irakur daitekeen "Solus labor parit virtutem sola virtus parit honorem" esaldiaren inguruan jasotzen ari da bere mundua Sebero. Eta honela, euskara eta musikaren gaineko

artikulu, hitzaldi eta liburuak euskal "erresistentzian" abangoardiako punterengo tokia ematen ari zaizkio.

1.920.eko Ekainaren 22an izendatzen dute euskaltzain Txomin Agirreren hutsunea betetzeko. Abenduaren 28an eman zuen sarrerako hitzaldia bere aurkezlea R. M. Azkue euskaltzainburua izanez. Hitzaldiaren titulua *"Izkuntz jakintzia ta euskeriaren bizitzia"*. Bertatik atera ditut ondoko lerroak, euskarari dagokionez, Altube ren izpirituaz jabe gaitezen. Hitz zorrotzak, gaurregun ere osorik aplika daitezkeenak:

> "Euskerearen bizitzia: esan beaŕik eztala dirudi baina bada: euskaltzaleok, euskerea maite dogula dinogunok, euskereari dagokon gauzeetatik gorengotzat, beiñentzat, nagosijentzat, beronen bizitzia euki bear dogu. Beronen edestija, beronen zaartasuna, beronen edertasuna, beroneri buruzko geure eretximeretxiak eta enparau guztija eztira ezer ere; bazterrera jaurti bear ditugu, euskeriaren bizitza bera, laguntasun eske, oiuka, deika, erostaka ikusten dogunean.
> Eta, eztabilku, gaur, oŕela, geure izkera maiteau?"

Nolanahi ere, Altuberi aurpegiratu zaion okerrik gogorrenetakoa bere lan gehiena erdaraz ematea da. Dela hamar egun hildako Jokin Zaitegiren hitzak dira ondorengoak:

> "Altuberengan aurkitu dudan akatsik handiena erderaz idaztea dateke. Beharbada, orduko euskaltzaletasuna ez zen oraingoaren aldean alderatzekoa; oraingoa askozaz zintzoagoa da hizkuntzari begiratuz. Edozer gai euskaraz eman nahi genuke. Hauxe ageri da euskal idazle gazteen artean.
> Nolabait, Altube bera ere ohartu zen horretaz, *Euzko Gogoa*-n euskaraz idatzi baitzituen "Erderakadarik Txarrenak" izeneko lanak, *Erderismos*-aren laburpen gisa."

Gernikako herriak, bestalde, lehen agintaritza ematen dio 1.931.ean. Postu honetan 5 urte iraungo du Bizkaiko gobernadorearekin ados ez zegoenez dimisioa azaldu arte.

Baina itzelezko ekaitza gainean zegoen. Seberoren moduko gizonen lana zeharo eragotziko zuen ekaitzak lehen tximistak botata zituen. Gau beltzak bere hagin eta hatzapa-

rrak erakusten zizkion Euskal Herriari. Seberok, "hemen ez dago gauza onik" aurreikusiz, herbesteko bidea aukeratzen du 1.936.eko Irailean. Eta Altubek, bere Herriaren oinazeak mindurik, bertan behera uzten ditu ordurarte esku artean zeramatzan lanak. Pabe-ko Hotel L'Europe filosofo kezkati baten egoitza bilakatzen da. Herriaren, gizonaren, oinazea da goitik behera arduratzen duena eta berau izango du ardatz urtetako ikerpenetan.

Hauen ondorioa *La Fonction de la douleur* obra dugu. Liburua atera ahal izateko Frantziako CNRS-ari egiten dion eskarian honela esaten du Altubek:

> "...herritar paketsuen sarraskiak-nere jaioterrian, Arrasaten, 43 pertsona afusilatu dituzte Francoren tropek-bultzatu nau arazoaren muina ikastera, hau da, zein datekeen munduko bizitzan gaizkiaren eta giza-oinazearen zergaitia."

Hogeitabi urtetako herbestaldia amaitzen da Sebero eta Gregoriarentzat 1.958.an berriro Gernikaratzean.

Sebero euskarari buruzko ikasketetara itzultzen da, lehengo indar eta maiztasunaz ez bada, bai esperientziak ematen dion ziurtasunaz. Baita gerra aurreko solasaldi luzeak ere itzultzen dira. Segundo Olaeta, Kastor Uriarte, Julio Bareño eta beste lagunen artean iragan denboretako uneak datoz gogora. Gernikako Abesbatzaren sorkundea izango da, edo Altuberen etxean asmatutako "Elai-Alai" koreografi Taldea, edo Kasinoan egunero egiten ziren xake jokaldiak, edo Seberoren lan eztabaidagarriak, edo Gernikako bonbaztapena...

"Aberriaren askatasuna kulturaren bitartez" Seberoren sloganeko uneak ziren haiek. Euskara eta musikaren bidez kontzientzi nazionalaren bila. Hauxe zen Altube-politiko haren ezaugarria. Euskaltzale politiko baino lehenago zen Altube harena. Gaurko gure politikoek, zuri nahiz gorriek, sarri ahanzten duten formula. Tornulari, legegizon, futbolari, arrantzale izateko lehendabiziz *herritarra* izan behar baita. Horixe zen Altube, herritarra.

1.961.eko Uztailaren 27an Gregoria hil da, bere aitak hain maitekiro lagundutako "Asilo Kalzada"-n. Laurogei urte zituen.

Hau dela eta, Seberok bizitokia aldatzen du Gernikako bertako Arrien-enera. Bere osasuna, bizitzan zehar arduraz zaindu duena, makaltzen dihoa. Hala ere, indarrik gelditzen zaio oraindik bere lagunak hartzeko. Arrasateko Bandan kide izandakoek bisitaldi bat egiten diote 1.962.eko udan, berari omenaldi txiki bat egiteko. Eta Seberok besoak zabalik hartzen ditu hunkipenak betetzen duelarik. Arrasateko bizitzaren orduak gogoratzen ari da. Aurrean ditu txikitango bere lagunak. "Errementari-tabernari" baten semea besterik ez zen denboretako lagunak. Eta orain bere tokia du irabazia euskal arloan. Urte asko iragan da linguistikako hildoa urratzen lagunduko zion Hovelacque-ren "Linguistique" liburua Azkuek utzi zionetik. Gehiago oraindik Gernikako herriaren ondarea diren "Marijesiak" bertsoak harmonizatu zituenetik. Beharrezko urratsak erabat itzaltzen ari zen beraren karreran.

1.963.eko Abuztuaren 27a. Gaur bezalako eguna. Seberok igarri egin du amaiera. Gogoko zuen Tino Rossiren ahotsa entzun nahi du azken aldiz. Beraren ezpainetatik "Lili Marlen" abestia hots motelaz sortzen da. Alemanez harturikako Pabo haren azkenengo gogoeta izango da. Malkoz beterik ditu begiak Lumon iganderoko Mezatan jotzen zuen "Goiz aldean zeruetan..." kanta entzutean.

Arratsaldeko 2.etan Seberoren bihotz nekatua betiko gelditzen da. Gernikako Eliza Nagusiaren kanpaiek gizon handi baten heriotzea ezagutarazten dute. Biharamunean, *beraren* Musika Banda lagun duelarik, Altuberen gorpua Gernikako kanposantuan da ehortzia, berak diseinatu eta gerturiko hilobian. Haren ondoan Gregoria eta honen gurasoak.

Kurutzeko marmorezko xaflan Seberok idatzitako olerkiak ederki mugatzen digu mundu honetatikako haren igaroaldia:

Jainkoak, Adanen bidez
zigorkatu ginduzanez,
lur-bizitza igaro dozu
pena askogaz, poz eskasez,
zerua irabazia dozu, bai!,
nekaldi orren ordaiñez.

SEBERO ALTUBE ETA GERNIKAKO EUSKARA: DOMINGO KANALAETXEBARRIA

Gernika, 1979-VIII-27

J. A. Arana Martija

Euskaltzaindiko Jaun agurgarriok.

Jaun andreok:

Benetako poza hartuko zuen biltzarre hau ikusirik Jose Paulo Ulibarri okondotarrak: orain 147 urte, 1832.ean, igarle bezala, bertso hau jarri zuen eta:

"Ogeta lau gizon
behar dira izentau
Gernikako Batzarrean
euskeraren ganean
egiteko alegin hau."

Gernikako Batzar Etxe honetan bildu zarete, Euskaltzainok, euskararen ganean eten gabe lan egin zuen gizon hospetsu bati omenaldi bat eskaintzeko; bazen garaia Euskaltzaindia Bizkaiko Etxe Nagusi honetan biltzeko eta gernikarrok oso harro gaude gertaera honekin. Baina gure poza gehitzen da bertoko semetzat dugun Seber Altube egintza honen gune dela ikusiz.

Altuberi dagozkion gauzarik gehienak esanak dira, maisuen ahoetatik, gainera, eta esango dira mendeurren barru honetan. Eta nik ez dakit zer esan nakizuekeen aspergarri ez izateko. Beraren biografiaz zeozertxu esateko gertu nengoen, baina Velez de Mendizabal adiskide dudanak bete du arlo hau. Seber Altube musiku bezala estudiatzea ere gai zirikagarria zen, baina musikuen biltzarra ez da gaurkoa hizkuntzazko gaiei zuzendutakoa baizik; eta gainera, Altuberen musika ezagutzeko ez da gauza hoberik musika bera entzuneraztea baino eta bizpahirur lan baino ez badira ere, Gernikako

Andra Mari Koralak gero eskainiko dizkigu. Nola bada bete niri emandako agindua?

Seber Altube, dakigunez, musiku bezala etorri zen Gernikara 1901.eko Abenduan. Eta musiku lanetan jardun zuen lehenengo urteetan El Progreso ostatuan bizi zelarik. *Gernika* Orfeoiarekin lehiaketetan zebilela Azkue jauna ezagutu zuen Seberok eta Azkuerengandik biztu zen beraren baitan euskararen ardura. Arrasatetik Gernikara etorrita ez zuen euskalki problemarik aurkitu hango eta hemengo euskara erdi berdinak ziren eta bait dira. Baina nolakoa zen orduan Arrasaten eta Gernikan egiten zen euskara? Herriko euskararen zale eta aldeko Sebero zenez gero, zein zen Seberok maite eta defendatu zuen Gernikako euskara? Nere hitzaldiñoaren gaia hauxe bera izan daitekeela iruditu zait.

Gernikara etorri eta 30 urte geroago, *La vida del euskera* liburuan esan zuen Altubek 40 urte lehenago, hau da, 1891. ean Gernika zela "una plaza fuerte del euskera", eta hau esakeran esan nahi zuen herria, Gernikan, euskaraz mintzatzen zela. Baziren orduan euskaltzale trebeak, gero ikusiko dugunez, baina Altubek esan nahi zuena zen herria euskalduna zela. Hori esan zuenetik beste 40 urte iragan dira eta orain ere ba dauzkagu Gernikan ez euskalzaleak bakarrik, euskaltzainak ere bai: hemen dagoen Aita Luis Villasante Kortabitarte, Ajengizko Errenteriakoa, Euskaltzainburua dugu, eta Jose Basterretxea "Oskilaso", Imanol Berriatua, Juliana Berrojalbiz, Kepa Enbeita, Bitoriano Gandiaga, Inazio Omatxebarria, Joan Mari Torrealdai. Gernikakoak batzu eta inguruetakoak besteak, urgazleak dira. Baina herriak euskararik egiten du? Hor dago gakoa! Herriko euskara da euskalzaleen oinarria, maite eta defendatu behar dena, Altubek maite eta defendatu zuena.

Nolakoa zen orduko euskara Gernikan jakiteko Altuberen *Erderismos* eta *El Acento Vasco* liburu mamitsuetara jo dezakegu. Lehenengoan, eta 8. orrian, Busturiko Bikarioaren Dotrina aipatzen du; Gernikan Egurrolak 1893. ean argitara emandako ale bat erabili zuen Seberok.

Gerotxoago, Gernika inguruan, euskaldunek gazteleraz hitz egikeran darabiltzaten "euskerakadak" aipatzen ditu. Erakuspen bat ematerakoan hauxe aipatuko nuke: aldegoi = aldegon. Adibide hau gero 1922.ean, Gernikan, Eusko Ikas-

kuntzak antolatu zuen Biltzarrean agertu zuen Altubek bere "Euskel itz barrijak" hitzaldian. *Mondragon, camion, capon* erdal hitzak Gernika inguruan *Mondragoi, kamioi, kapoi* euskarara itzultzen bait dira, gaizki egindako jantziak beheko partean agertzen duten *aldegoi*-a, eta aurkako zentzua, gernikarrek *aldegon* erdaratuko dute.

Erderismos-en 20. orrian Lumoko Madariaga baserriko etxagunari entzundako esaldi bat dakar. Eta gerotxoago, Gernikakoa izan ez arren, Gernikari dagokion bertso oso hospetsua kritikatzen du Seberok. "Gernikako Arbola bedeinkatua da" gaizki esanda dagoala dio Seberok, joskera aldetik "Gernikako Arbola da bedeinkatua" izan beharko luke eta.

Gernikako seme zen Belumendu, Julio Bareñoren ezizena noski aipatzen du 29 eta 140. orrialdeetan beronen esaldi batzu komentatuz. Eta Arrasate, beraren jaioterria ahaztu ezinik, hango esaldi jator bat jartzen du 40.orrian: "Gizon ori joan joak ala etorri jatok? Beste Gernikako esakera berezi batzu ere aipatzen ditu, adibidez.

> "Un modismo curioso cuyo uso es bastante corriente en la comarca gernikesa: consiste en reducir a verbo frases enteras, generalmente rematadas por un nombre verbal, el cual es seguido del auxiliar *egin* conjugado perifrásticamente; así resultan oraciones tales como:
>
> — "Orrek etxera joan egin gura dau."
>
> — "Zuk baztarrak lotsatu egiten baño eztakizu."
>
> — "Arek "entzun nai eztozun gauzaren bat esan" be bardin egingo deutsu gero!"

Eta hala Gernika eta inguruko esaldiak aipatzen ditu beste orrialde askotan:

"Salbetara joan" esaten da Gernikan eta ez Salbera, mezatara esaten den bezalaxe. Edo "Ako ederra!" eta "Ako gauaren ederra!".

El Acento vasco bigarren liburura jotzen badugu, fonetikako hainbat Gernikako berezitasun azaltzen ditu Altubek. Orixe, Azkue, Larrasket eta Gavelen estudioen gainetik beharrezkoa zen Altubek Navarro Tomás en *Observaciones Fonéticas sobre el vascuence de Gernika*, 1922.ean argitaratua,

kontutan edukitzea. Baina gernikarren gandik berak hartutako fonemak ere ematen dizkigu liburu eder honetan. Ez larregi luzatzeko hitzaldiño hau, adibide bi bakarrik emango dizkizuet:

Kalzada Babesetxeko Errifa egiten zenean, jendeaurrean zenbaki sarituak emakeran, hala abesten zuen antxina —dio Seberok— herriko pregoneruak:

Lau mile bosteun eta ogeta zortzi.

Orain, ostera, pregoneru berriak, euskarazko tonologia ikasi ez duenez gero, hala kantatzen ditu zenbakiak:

Lau mila bosteun eta ogeta zortzi.

Hau da Altubek ematen digun bigarren adibidea: Subía un día un conocido gizon por la carretera de Luno montado como de costumbre en su motocicleta; al pasar delante de un grupo de gernikeses, preguntó uno de estos:

—¿Quién ha sido ése?

—Don José —respondió uno—; pero un tercero replicó:

—Don José no, sino don Jóse.

Neuk ere ezagutu nuen gizon hori. Muxikakoa zen; eta guk eta herri guztiak deitzen zuen dón Jose.

Harira etorri ez arren, eta *El Acento Vasco* liburuaren mamia utzi orduko, gauzatxo bat esan behar dut. 1974.eko *Euskera* aldizkarian eman nuen Altuberi dagokion Bibliografia; hutsune bat dago zerrenda horretan orain bete nahi dudana: 1927.ean, Argentinan zegoelarik, *La Prensa* egunkarian argitara eman zituen Altubek, Ekain eta Uztailean, lantxo batzu: "Algunos argentinismos explicados por el idioma vasco". Ene ustez laister izango dira lan hauen fotokopiak Euskaltzaindiko Bibliotekan postaz eskatu ditut eta.

Ikusten dugunez, herriko euskara maitatzen zuen Seberok eta gainera eredu bezala bere liburuetara eraman zuen.

* * *

Baina Altube ez zen literato bat, hau da, ez zuen ezer literaturarako idatzi. Gramatiko eta linguista zen Sebero. Horregatik herriko hizkuntzatik adibide bezala jartzeko per-

lak baino ez zituen ateratzen Altubek. Nola bada jakin zein zen orduko euskara gernikarren ahoetan? Zoritxarrez gure liburutegi eta biblioteketan urriak dira Gernikako euskaran idatzitako liburu eta paperak. Gernikako bonbardeoan erre ziren Karmelo Etxegarai eta Timoteo Loizagaren liburutegiak, orduko euskalzaleenak, apaizenak etabar. Ez zen paperik ere geratu erreketa negargarri haren ondoren. Dena dela, zeozertxo kontserbatu da beste toki batzutan.

Juan Ruiz de Larrinaga, prantziskotar jakintsua, Gernikan jaioa zen 1876. ean. "Aranbeaskoa" ezizenagaz argitaratu zituen euskaraz lan batzu Azkuek sortutako *Ibaizabal* aldizkarian 1899.ean eta 1900.ean. 1906.ean, Durangoko Elosuren Irarkolan argitaratu zuen *Aita San Frantziskoren Irugarren Ordenako Erreglia eta Indulgentziak*. Gernikako euskaran idatzita daude.

Hau baino urte bi zaharragoa zen Cesareo Miangolarra Aberasturi, Gernikan 1874.ean jaioa, Deustun eta Pedernalesen apaiza izandakoa eta azken urteetan Gernikako Kalzada Babesetxean kapellau ezagutu genuena, 1958.ean hil arte. Orain tamalez joan zaigun Jokin Zaitegi grekeratik itzulpenetan trebea izan bada, Miangolarra izan zen latinezkoak euskaratzen punterengoa. Bilboko *Jel* eta *Euzkadi* aldizkarietan, 1907.eta 1908.ean euskaratu zituen Bergiliren Eglogak. Euskaltzaindiko Bibliotekan dagoen liburu batek hala dio: "Virgilio'ren Artzain Abestiak. Euzkeraldu dauz Miangolarra eta Aberasturi tar Kesara Deustuko Jaupariak. Bilbon, Astuiren Irarkolan, Tenderia, 19. 1912". Urte haietan Azkueren laguntzaile ere izan zen, beronek dion bezala Kantutegiko abestiak erdaratzen arduratu zen eta. Baina garbi zalea zenez gero, ez digu asko lagunduko Gernikako euskara gozatzen.

Horretarako dugunik idazle egokiena pertsonaia ezkutu bat da: DOMINGO KANALAETXEBARRIA ANIZ. Barka ezazue, jaunak, baina esan behar dituanak oso berriak dira, lehenengoz ematen dira misterioz beteko idazle honen xehetasunak eta; barka ezazue –diot– oraindik hitzalditxoa luzatzea.

Duela 13 urte eman zuen idazle honen berri Aita Villasantek Gernika Hiri sortu zenetik VI. Ehunurteburuko Egitarauan. Nikolas Alzola, euskaltzain urgazleak ere Kanalaetxebarriak argitara emandako liburu bien berri eman zigun BRSVAP en 1966. ean. Aita Lino Akesolo, euskal-

tzain urgazlea hau ere, Gernika aldetik ibili zen idazle honen berriak bilatzen. Ni ere, Kanalaetxebarria deitura ikusten nuen albo herrietan ibili nintzen Parrokietako artxiboak arakatzen. Domingo Antonio Kanalaetxebarria bat Mundakako artxiboan agertu zen; baina 1854.ean hildakoa eta gehiagoko datu gabe. Ameriketara joandako praile eta idazle bat ere agertu zen ikerketetan, baina Juan Franzisco zen eta bigarren karlistadan Ameriketara joana zenez gero, ez zen ez gure pertsonaia. Azkenean lotu nuen haria: Meaza Kanalaetxebarriatarrak bizi dira Gernikan eta heuretariko bat, Jose, urte askotan Marijesiak solista bezala abestu dituena. Kanalaetxebarriak Egurrolaren Irarkolan argitaratu zituen luburuen berri eman nionean, esan zidan gogoan zeukala beraren osaba Primitivo Kanalaetxebarria, Egurrola –nean enplegatuta egon zela eta gero Andaluzia aldera, Andujarrera, jo zuela bertan inprenta bat jartzeko asmoz. Beronen aitona Domingo Kanalaetxebarria izan zen, baina ikerle guztien buruan gure idazlea praile edo apaiza zen bere liburuen mamia ikusiz. Joseren arrebekin egon nintzan gero eta ilunean argi pixka bat sartu zen: aitona Domingo Kanalaetxebarria zen benetan eta idazlea ere bai. Gogoan zeukaten etxean zeuden liburu eta paperak aitonak idatziak: letra txiki, fina eta garbia zeukan aitonak, noski. Baina liburuak eta paperak bonbardeoan erre ziren.

Idazlea bait zen Domingo, Meaza sendiaren aitona, baina nola gure prailea izan edo nola ulertu seme-alabadun ezkondu batek halako gaiak erabiltzea? Joan nintzen Gipuzkoako Biblioteka Probintzialera, han daude Kanalaetxebarriaren liburu bakarrak eta. Ha bai ez uztekoa! *Jesucristo jaunaren lege santia* liburuan, 89. orrian hala dio gure "praileak":

> "euqui biar dogu gurasooc gueure semiacaz ardura andija, bestelan ez dogu ecer aurreratuco. Orregaitic bada, asten ezpadoguz gueure semiac Jaungoicoaren billdur santuan, charto ibillico gara bere aurrera eldu gaitezanian..."

Horrez gainera, beste pasarte askotan, apaizak aipatzen dituenean, hirugarren pertsonan idazten du edo sermoi entzule bezala agertzen zaigu. Liburuaren idazlea, hain zuzen, ezkondua zen. Eta Meaza Kanalaetxebarria sendiaren aitona zen gure idazlea.



DOMINGO KANALAETXEBARRIA ANIZ
(1828-1897)

XVIII. mendearen erdirantz, Arratzuako Josef Kanalaetxebarria Zabala Nabarnizko Maria Ipinza Aldekoarekin ezkondu zen eta ezkontza horretatik jaio ziren Arratzuan Juan Bautista eta Jose Migel, azkenengo hau 1790. ean. Jose Migel Arratzuako Silbestra Aniz Zaldibiskarrekin ezkondu zen eta lau seme-alaba eduki zituen: Bernardina, Juana Maria, Domingo eta Juan Manuel Kanalaetxebarria, Aniz, Ipinza, Zaldibiskar. Dirudienez, denak jaio ziren Gernikan, eta gure Domingo 1828.ean hiletako paperetatik ondoriozta dezakegun bezala. Gernikako Parrokiako Erregistroak erre egin ziren bonbardeoan baina ez Erregistro Zibilekoak; erregistro hau 1870.ean hasi zen eta han agertzen da Domingo Kanalaetxebarriaren heriotzeko datua (Sección 3.ª, Tomo 6, Folio 294):

> En la villa de Guernica y Luno, a las nueve de la mañana del día trece de octubre de mil ochocientos noventa y siete... compareció D.ª Sebastiana Mendivil... manifestando en calidad de mandataria que D. Domingo Canalaechebarria Aniz, natural y vecino de esta dicha villa, edad de sesenta y nueve años, de profesión sastre retirado, falleció a las seis de la tarde del día de ayer en su domicilio, a consecuencia de escrufulosis... Que el referido finado estaba casado en el acto del fallecimiento con D.ª Eduarda Gavicaechevarria Azpiri, natural de Lequeitio y de esta vecindad de cuyo matrimonio deja ocho hijos llamados D. Dionisio, D.ª María, D.ª Buenaventura, D. Juan José, D. Ramón, D.ª Filomena, D. Eduardo y D. Primitivo...

Ilobek diote gaztaroan Bordelera joan zela sastre ogibidea ikasten eta gero Ameriketako Chilera. Handik itzulita ezkondu zen eta emaztetzat Eduarda Gabikaetxebarria Azpiri, Lekeition 1841. ean jaioa hartu zuen. Diruduna zen emaztea, aita Dionisio, elantxobetarra, itsasuntsi jabea zen eta. Gernikako Artekalen bizi izan zen matrimonioa eta bertan zeukan Domingok bere sastreria. Lehen aipatutako zortzi seme-alabak Gernikan jaio ziren baina gehienek Chilerantza jo zuten han zeuden etxeko ondasunak eta. Filomena, seigarren alaba, eta Primitivo, txikiena, geratu ziren Gernikan. Primitivok ere ihes egin zuen gerotxoago Andujarrera. Filomena geratu zen bada aitaren etxean eta berak gorde zituen aitaren paper eta liburuak. Primitivo Andujarren hil zen eta

beste guztiak Chilen. Domingoren alarguna bera baino urte bi geroago hil zen 1899 an.

Filomena Gernikan jaio zen 1877.eko Martxoaren 28 an eta berton hil 1959.ean. Primitivo, gazteena, 1881.ean jaio zen. Filomena hartu zuen emaztetzat beraren lehengusu Gilermo Meaza Kanalaetxebarriak, Juana Maria, Domingoren arrebaren semeak. Ezkontza honetatik jaio ziren Maria Karmen, Isidoro, Jose, Maria Begoña, Jose Martin, Eduarda, Miren Belen eta Imanol Meaza Kanalaetxebarria, aitonaren berri eman didatenak.

Gernikako euskara estudiatzeko liburu interesgarri bi idatzi zituen Domingo Kanalaetxebarriak. Biak Egurrolaren "sulotegijan" argitaratu ziren. Antonio Egurrola Gandiaga inprimatzailea Abandokoa zen eta Durangon inprenta batetan lan egin ondoren, 1888.ean etorri zen Gernikara beraren "Librería-Imprenta-Encuadernación" delakoa, Fueroetako Plazan jartzera. Lehen argitara eman zen liburua hau zen:

I

Fr. BALENTIN DE BERRIO-OCHOA, TONQUIÑGO MARTIRI BENERAGARRIJAREN BIZITZIA, BESTE ZUZEN BIDE BATZUCAZ, DOMINGO DE CANALA ECHEVARRIAK GAÑIC, GUEITUTA JESUCRISTO JAUNAREN PASIÑO SANTUCO ETA MISIÑOI SANTUETAKO CANTUCAZ. Liburuchu au dago Vitorijako Obispo Jaunac ontzat emonda. GUERNIQUEN, Antonio Egurrolaren suloteguijan, 1890 garreen urtian.

1865.ean argitaratu zuen Jose Migel Arrieta Maskaruak Balentin Berriotxoaren bizitza erdaraz eta hala azaltzen du Domingo Kanalaetxebarriak bere liburuaren "Asiera edo berba aurrecua"n. Baina gure Kanalaetxebarriak nahi zuen "zubei cer-bait esatia gueure eusquera ederrian... amodijo gueijago euqui biar gueuzquijon berbeeta moduban" Dirudienez ordurako hasi ziren garbizaleak lanean, hau dio gure idazleak eta: "Ez uste izan liburuchu onetan topauco dozubezala araco berba ederrac eusquera garbijan. Asco imiñico nituque; baiña uste dot iracurlee gueijenac ez leuqueezala aituco...

Liburutxo hau ez da Arrieta Maskaruaren hitzulpen zuzena, zeren "Esango deutsubedaz beste gauza batzuben artian, Berrio-Ochoagaz estudijoco lagun izan cirianai entzun da daucadazan gauza batzuc bere gañian" Balendinen lagun horien artean bazen, orduan Gernikan zegoen koajutore bat: Basilio Diaz de Espada, Bergarako semea, 1824.ean jaioa eta 1891.ean Parroko Jauna hautatua izango zena.

Nik dakidanik hiru sastre zeuden orduan Gernikan. Gure Kanalaetxebarria eta Tomas Atxirika eta Goitiatxu izenekoa. Kanalaetxebarria serio xamarra zen –ez dago beraren liburuak ikustea baino– eta beste biak oso zelebreak. Goitiatxu, esate batetarako, oso lukurreroa ei zen eta lanean jartzen zenean, prakak ez higatzeko beheratu egiten zituela, diote. Hil zorian aurkitu zenean, beraren lukurrerriaz anemiko bihurtu zen eta, osagileak Malagako ardau gozoa edatea agindu zion.

– Hau bai pena –ezan zuen Goitiatxuk ardaua mustatukeran– hain gauza gozoa probatu eta hil egin behar...

Atxirika, nere osaba Julio Bareñoren aitona, ez zen makur geratzen halako txantxetan. Kanalaetxebarria baino gaztetxoagoa zen, 1831.ean jaioa zen eta. Bestea baino urte bete lehenago hil zen, hau da, 1896.ean. Don Basilio Diaz de Espada joan zen eleizakoak ematen eta jakin zuenean nor zetorren,

– "Tire, tire, etxoat nik ezpatarik behar hilteko, berez be hilko nok eta..."

Liburuaren azken aldean Kanalaetxebarriaren bertso batzu ematen dira, 1886.eko Bagila = Ekain 9 an jarriak "Berrio-Ochoaren azur beneragarrijac Tonquiñetic beraren jaiotz errira (Elorrijora) ecarri citubezan egunian". Eta gero Berriotxoak Tonkinetik bere amari egindako hiru gutun. Lehenengoa ezaguna da 1894.ean orri solte batetan argitara eman zen, eta 1927 Pedro Muñagorrik bere *Cartas del Beato Valentin de Berrio-Ochoa* liburuan eman zigun. Hirugarrena ere Muñagorrik ematen digu, baina bigarrena ez dut oraindik inon argitara emanda ikusi, Kanalaetxebarriaren liburuan izan ezik.

Liburua amaitzeko ematen digu Kanalaetxebarriak Basterretxearen "Jesukristori kendu ezkero" eta beste misinoietako kantuak.

II

Jesucristo jaunaren legue Santia Domingo de Canala Echevarria Ganic Vitorijaco Obispo Jaunaren baimenagaz, 1892 garrenian. *Guerniquen, Antonio Egurrolaren Sulote-guiyan,* 1893 garreen urtian.

Bestea baino mardulagoa da liburu hau, nahiz eta neurri bardinekoa izan; baina letraren tipoak txikiagoak dira eta orrialde gehiago ditu.

Hemen ere euskararen goramena egiten du Kanalaetxe-barriak hasieran. "Eusquera maitia berba-cuntza pobria dala?" Eta euskararen aberastasunaren alde egiteko aipatzen ditu Olaetxea, Astarloa, Mogelen "Baserritar jakitunaren Echeco Escolia" eta *Peru Abarca.* Kontuan eduki dezagun Peru Abarkaren lehendabiziko edizioa 1880.ean egin zela *Beti bat* aldizkari karlistan eta liburu bezala 1881.ean atera zela. Irakurri berria du bada Kanalaetxebarriak Mogelen liburu hau 1885.ean bere JESUCRISTO JAUNAREN LEGE SANTIA idazten duenean.

Eta begira zazue zer dion, beste liburuaren atarian beza-la, euskara garbiaren aurka: "Imiñico nituquez nic liburuchu onetan berba asco eusquera garbijan; baina uste dot iracurla erdijac ez leuqueezala aituco; cer diñot nic erdijac? Ezda lau-renac bere. Orregaitic bada escribidu gura dot liburuchu au Bizcaitar guztijac edo gueijenac aituco dabeen moduan".

Kanalaetxebarriak diosku 1884.ean asmatu zela Gerni-kako ibarrian edo errekan kanal bat zabaltzea eta

> Guerniquen izangogu
> erbeste gentia
> ez orregaitic galdu
> Cristoren leguia.

Erbesteko erlijio gabeko jenteen beldurrez idatzi zuen Kanalaetxebarriak liburu hau. Jesukristoren bizitza eta agin-duak komentatzen ditu sermoi itxuran eta zatirik handiena 1889.ean idatzita dago.

Gernikaren historiarako kapitulu bi oso interesgarriak ditu liburu honek: "XXVI. Esaaldi au escribidu zan 1885 garrenian, Españaco colera demporan". "April iñguruan"

hasi ei zen kolera eta "garagarrille azqueneco egunerarte ill diriala gueisso onegaz amalau milla ta iru persona" dio Kanalaetxebarriak. "XXVII. Coleria aldenduta guero" idatzia dago eta han ematen du "Cemendiaren (Azaroa) lauan, bostian eta seijan" egindako Triduaren berri. Daniel Baertel eta Juan Luis Arrue, frantziskotarrak eta biak durangoarrak izan ziren sermolariak. Franzisko Ormaetxegoitia zen orduan Parroko Jauna eta Jose Marzelo Lekanda Alkatea. Ramon Iturbe aipatzen du hiriko Sekretario bezala eta hemen esan behar dotana da Iturbe izan zela oraindik Lumorako Kurutze Bidean abestuten den "Neure Pekatuak" kantuaren egilea, baita ere beste liburuxka urri baten egilea: *La fusión de Guernica y Luno ante la Ley Foral* Delmasek 1882.ean argitara eman zuena.

XXXII. kapitulua da liburuaren azkena. Eta amaitzeko ezin hitz hobeak esan: "Euscaldunac: galduten bada eusqueria gure artian, ez daquit cer izango dan gugaz".

Ez zuen Seberok Kanalaetxebarria ezagutu, baina halako euskalduna adiskide bezala segurazki hartuko zuen. Herriko euskara zaleak, biak, Ameriketan ere ibilitakoak, gizon zintzo, zuzen eta finak biak. Herriko euskararen alde jarraitu zuen Seberok Kanalaetxebarriak hasitako lana. Bion izpiritua dago gaur, hemen, gure artean.

"SEBERO ALTUBE" LIBURUAREN AURKEZPENEAN (ARRASATE, 1979-XII-6)

SEBER ALTUBEREN OMENEZ

Arrasate, 1979-XII-6
Juan Antonio Garmendia

INTERVENCION DE D. JUAN ANTONIO GARMENDIA EN EL ACTO DE PRESENTACION DEL LIBRO-HOMENAJE A D. SEVERO DE ALTUBE, DE D. JOSE M.ª VELEZ DE MENDIZABAL, EL DIA 6 DE DICIEMBRE DE 1979, EN EL AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON. EDICION DE SGEP-CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN.

Jaun-andreok, adiskide maiteok. Arratsaldeon.

Arrasaterako ezezik, Euskalerri osorako izaki gaingaiñekoa, gaurko jakintza-gertakizuna. Joan dan Azaroan, SEBERO ALTUBE zanaren jaio eunurte muga zala ta, haren sorterriak gorasarrea eratu dio, ereslari, filosofo, erdal eta euskal-idazle bikaiñari. Orobat SEBERO ALTUBE liburuaren egille Josemari Velez de Mendizabal jaun, ospetsuari.

Aratza Akizuk, Arrasateko Udal-batzaren izenean, eta Euskaltzaindiarenean, Josemari Velez de Mendizabal liburu egilleak, argitaratzea eta babesa eskatuz, Donosti-Aurrezki-Kutxari eskaiñi ziotenean, zalantza apurrik gabe onartu eta gure euskal-jakintza sortari erantsi genion. Gorasarre ontan kide izateak ere poztu egin gintuen.

Aurtengo uztaillean Gernikan ospatu ziran nazio-arteko batzarrei lotu dezaiekegu gaurko Gorasarrea ere, Lege Zaarreko erri ospetsuan alkate eta orfeoiko zuzendari izana bai zen, Altube jauna.

Altube zanaren nortasun bikaiñaz eta erri-jakintza eta euskalelerti saillari erantsi zien, oroz gaiñeko ornitzeaz, oraintxe jardungo zaizkigu gure lau adiskide min eta euskaljakintsu auek: Aita Villasante, Jose Antonio Arana Martija, Patxi Altuna eta Josemari Velez de Mendizabal jaunak.

Donosti-Aurrezki-Kutxaren izenean artzazue gure eskerrik onena, Arrasateko Udaletxe, Euskaltzaindia, egille, gaur arratsaldeko izlari eta ona azaldu zeraten entzule eta ikusle guziok. Milla esker bada.

Azkenean, Donosti-Aurrezki-Kutxak, liburu bana eskeiñiko dizue. Agur bada.

Señoras y señores, queridos amigos. Buenas tardes.

Hoy es para Arrasate, para Guipúzcoa y Euskalerria, y para todos nosotros un importante acontecimiento cultural. El homenaje, en su propia villa natal, a un gran euskaltzale,

SEBERO ALTUBE - Liburuaren aurkezpenean
Ezkerretatik eskuinetara: J. M. Velez de Mendizabal, Arantza Akizu, Aita Villasante, J. A. Ardanza, Patxi Altuna, J. A. Arana Martija eta Juan Antonio Garmendia

cuyo centenario de nacimiento fue en noviembre pasado: D. SEBERO ALTUBE LERCHUNDI, músico, filólogo, filósofo, escritor en euskera, castellano y francés. Y es también un acontecimiento entrañable para el autor de la obra que hoy presentamos, escrita por D. JOSE M.ª VELEZ DE MENDIZABAL, pues se trata de su primer libro, lo que es bien importante en la vida de una persona.

Por eso, cuando Arantza Akizu, en nombre del Ayuntamiento de Arrasate, y Josemari Velez de Mendizabal, como autor del libro y en nombre de Euskaltzaindia, propusieron a la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián la edición y patrocinio de esta obra, no dudamos en aceptarla e incorporarla a nuestras publicaciones de cultura vasca. Así como en participar en homenaje tan grato como merecido.

Homenaje que enlaza con las reuniones internacionales celebradas en Gernika en julio de este año, la villa foral vasca de la que fue alcalde el Sr. Altube y en donde residió tanto tiempo, como gerente de empresa y director de su orfeón y banda de música.

De la rica personalidad de D. Severo Altube y de su trascendental aportación a la literatura vasca y a la cultura del país van a hablarnos enseguida cuatro competentes euskerólogos y buenos amigos nuestros: los Sres. Fr. LUIS VILLASANTE, JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA, PATXI ALTUNA y JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL. Nombres ampliamente conocidos y respetados en todo el país, por todo lo mucho que vienen aportando a nuestra cultura e idioma.

Sin más, pues, ya que cuanto de Altube tengamos que oír nos lo explicarán ellos enseguida con la mayor competencia, sólo me queda agradecer, en nombre de la Caja de Ahorros Municipal, al Ayuntamiento de Mondragón, a Euskaltzaindia, al autor, a los oradores de esta tarde y a todos Uds. su participación y presencia en este acto.

Al final del mismo, la Caja de Ahorros Municipal les obsequiará a Uds. con un ejemplar del libro que hoy aparece. Muchas gracias a todos.

ALTUBEREN MAISUTZA EUSKAL HITZEN ARAZOAN

Arrasate, 1979-XII-6
Fr. Luis Villasante

Eusko Ikaskuntzaren Biltzar ospetsua egin zen Gernikan 1922. urtean. Bertan Altube tar Seber jaunak irakasaldi bat eman zuen gai honetaz: "Euskel-itz barrijak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen". Kongreso haretako lanak dakartzan liburuan dator (78-93 orrialdeetan).

Altube jaunaren lan hau guti ezaguna dela uste dut. Oroit naiz nola Altube berak egin zidan beronen aipua han Pabeko desterruan bisitatzera joan nintzaion batean. Gutti gora-behera honela esan zidan: Euskal hitzen arazoari buruz nik badut lan bat Eusko Ikaskuntzaren Gernikako batzarrean. Inork ere ez du aipatzen. Erdi galdua edo ahaztua gelditu da. Baina han erakutsi nuen nik neure ikuspuntua, ene ustez auzi honetan hartu behar den bidea.

Eta hala da. Sistematikoki, goitik behera aztertzen du han euskal hiztegiaren eremua. Gaia menderaturik duenaren maisutzaz mintzo da. Sail honetako katramila eta korapiloak askatzeko argia eta gakoa bere eskuan dituenaren maisutzaz.

Ez dakit kasu gehiegi egin zitzaion orduan. Ez dut uste. Dena dela, lan hau berak estimatua zuen urte asko pasata gero ere. Auzi honi buruz geroago emango dituen irakaspenetan beti bat iraungo du Altubek. Azken batean Linguistika eta Gramatika gaiez liburu asko irakurria zen, eta horietan ikasitako irizpideak euskal hiztegiaren arlora ekartzen saiatuko da Altube.

Gernikako irakasaldiaren helburua eta nondik-norakoa ulertzeko, garai hartan euskal literaturan zer giro eta egoera nagusitu zen gogoratu beharra dago.

Alde batetik, hor zegoen sabindarren eskola. Eskola honen ustetan, hitzen etimologiari begiratuz, erdal usaia zuen hitz oro hizkuntzatik kendu behar zen. Kendutako hitzak uzten zuten zuloa betetzeko, hitz berriak asmatu behar ziren. Era horretara, euskara, sartu zitzaion zikinkeria orotarik garbitzen zen. Eta bide horretatik abiatuz, zer gehiegikeriak ez ziren egiten! Hizkuntzan sustrairik sakonenak zituzten hitzak ere kanpora jaurtitzen ziren. Eta bat ere izerdirik ez zuten asmakizunak erabiltzen ziren haien ordez.

Orduko iritzi okerra, herrian zabaldurik zebilena, honela azaltzen du Altubek: Euskerarik onena, zuzenena, jatorrena erderatiko itzik gitxien darabillanena dala: hori sinestarazi zaio herriari.

Gehiegikieria horien kontra Azkue jauna altxatu zen. Honen irizpidea kontu honetan hara zein zen. Bere hiztegiaren hitzaurrean agertzen du: "En cuanto a las voces exóticas, he incluido aquellas que no tienen equivalente castizo y han tomado carta de naturaleza en el idioma; como *eliza* "iglesia", *lege* "ley", *errege* "rey", *liburu* "libro", *meza* "misa—, etc. Estas voces y todas las del mismo género irán acompañadas de dos signos de interrogación puestos entre paréntesis" (D V E F, p. XV).

Beraz, kanpoko hitzaren ordezkoa etxean badugula uste duenean, Azkuek ere hitz hura baztertu egiten du. Era horretara, Azkuek zabalera eta sustrai handiko hitzak bere hiztegitik kanpoan utzi ditu, esate baterako *fede, kolore, fruitu, familia*, etab. Irizpide hau eta jokabide hau Altubek ez du ontzat hartzen.

Altube jaunak bere lanean ez du izenik aipatzen. Ez ditu, alegia, bere izenez izendatzen ez sabindarrak eta ez Azkue. Hurbilegi zeuden.

Berak hau esaten du bakarrik: "Erderatiko itzen arerijook talde bittan berezi ei-giñaikez. Lenengo, zustraitijak: erderatiko itzik bat ere ontzat emon nai eztittuenak; bigarren, biguntxoagotijak: erderatiko itzok ontzat artu geinkezala diñoee oneek, baiña euskera bizijan ikurpen bardiñekorik ezagutzen eztanean bakarrik". Hemen Américo Castroren lan bat aipatzen du.

Azkue da, noski, bide hau bere hiztegian segitzen duena. Eta Altube ez dator bat iritzi honekin, eta zinez, hitzaldi guztia edo gehiena bide honen funtsgabea erakustera doa, nahiz eta, esan dudan bezala, Azkueren izenik edo beronen hiztegiaren aipamenik bertan ez egin.

"Ikurpen bateko —dio Altubek—, esan-gura bardiñ-bardiñeko itz bi gitxittan eta aldi laburren baten baiño ezin bizi izaten dira izkereetan. Errijak laister ezbardindu ta erabikotu oi-dittu orretariko itzeen ikurpenok" (81 orr.). Hori horrela delarik, hiztegigilea ez da nor hizkuntzaren hitz bat hiztegitik kanpora botatzeko, horren beharrik ez dugula eta.

Altuberen jarrera auzi honetan garbi eta zalantza izpirik gabekoa azaltzen zaigu lan honetan zehar. Eta badirudi tiroak, nahiz eta izenik ez esan, Azkueri zuzentzen dizkiola: Azkue handiaren hiztegi handian ikusten dituen hutsak nahi dituela salatu.

Oker eta nahaste guztien abiapuntu bezala printzipio hau jartzen du: "zabalgorik txikijena dabeen itz eta izkerakijak, naiz aundijena dabeenak naurri baten iminttea, garrantzi bardiñekotzat artzea" (80 or.). Hau da, Altuberen ustez, oker guztien eta nahaste guztien iturria.

Gero bana-banaka eta xeheki aipatzen eta erabakitzen ditu esparru honetan azaltzen diren kasu eta problema bereziak: erderatiko hitzak zabalgo handia eta sustraikide asko ditueneko kasua; haren ordezkotzat hartu nahi den hitzak esan-gura antzekoa bai, baina berdina ez duenekoa; euskal hitz garbia delako horrek, gorputz gutxi duelako, ordezko izateko egokia izaten ez deneko kasua; esannahi edo adiera berri bat adierazteko, herriko hitz bat aldaera txiki batekin sartu nahi denekoa, etab. Kasu guzti hauek aztertzen ditu Altubek etsenplo ugariak aipatuz. Baina jokaera guztiok gaitzesten ditu. Azken batean hizkuntza ilundu, pobretu, erkindu eta nahastu besterik ez dutela egiten, dio.

Hizkuntzari errespetoa zor zaio. "Izkeria nai bezela aldatzeko gauzia dala uste izanik", oker guzti horiek egin dira.

Lanaren bigarren partean, berriz, hizkera berarizkoak aztertzen ditu, hots, "lenguajes especiales".

Euskalerrian aspaldidanik bertokotuta ditugun erlijiñotza, langintza, jolasgintza, dendaritza, etxe-arazo-gintza eta abarreri dagozkien hitzak baketan utzi behar dira.

Atzerritik orain agertzen zaizkigun makina, erreminta, jostailu, soineko eta komertziotako hitzak, hizkuntzak eskatzen dituen moldaera txiki batzuekin hartu eta kezka gabe erabil daitezke. Jakintzetako hitzak, berriz, latin eta grekotik hartu behar ditugula uste du Altubek, sartalde honetan beste hizkuntzek egiten duten bezala. Azkenik, literaturan hitz berriak sortzeko atea Altubek ez du ixten, baina baldinkizun batzuk jartzen ditu. Literatur maila honetan herriko hizkeraren izerdiaz gantzututako euskara maite du Altubek. Literatura ederraren maila eta hizkuntza teknikoarena guztiz bereizten ditu Altubek.

Ez noa lan guztiaren azalpen xehea egitera. Hau bakarrik esango dut: lan hau aztertuz ikusten dela zein argi eta zuzen ikusten zuen Altubek auzi hau. Ez da galtzen. Zehatzmehatz ezagutzen ditu eremuaren zoko-moko guztiak.

Altuberen kezka nagusia badakigu zein zen: euskara herri hizkuntza bizi bezala indartsu eta osasuntsu bizi zedila. Eta horretarako zein bide hartu behar den esaten digu. Ez, zoritxarrez, euskal idazlerik gehienek eta hiztegigileek orduan segitzen zutena. Gaur bizi balitz, nik ez dut dudarik, beste muturretik egiten diren gehiegikeriak ere berdin zigortuko zituen. Neurria gordetzea kosta egiten zaigu, nonbait.

Dena dela, Altuberen maisutza, hiztegi gauzetan, oinarri sendo eta iraunkorretan finkaturik dago. Eta hori ondoko urteetan —hura hil ondoko urteetan esan nahi dut— geroago eta argiago ikusi da.

ALTUBEREN EUSKAL ARIMARI

Arrasate, 1979-XII-6
J. A. Arana Martija



2. Aire zahar hau joatzu zerura
ezaguna zure musiketan
besterik ez dator nere burura
gaur zugaz hasteko harremanetan.

3. Ez naiz bertsolari ez naiz poeta
ez nagizu larregi eskatu
ahal dudana egingo dut eta
ausarti naizenez gero parkatu.

4. Arrasate zen zure sorterria
ta hemen nago, kantuz, gernikarra
Gernika zen zure herri berria
biak lotzeko zara ortzadarra.

5. Asko da zugan ikasi dudana
sartu ninduzun ikastolara
nik zugaz lehenengo harremana
izan zen maite izatea euskara.

6. Zure zainetan zetorren musika
hau zen zure bigarren ardura,
horregatik zordun dago Gernika
biztu zenuen ta bere kultura.

7. Txikitatik espirituz apala
zinen Seber aproposko lurra
ereintzeko mindegian bezala
zure ariman euskal hazi apurra.

8. Zugan erne zen euskaltasuna
Arrasaten egin zen landara
musika ta euskararen maitasuna
zuhaitz errotu heldu zen Gernikara.

9. Gizaldi hasierako neguan
garbitu zenuen gure orbela
eta udaberrian lore kimuan
agertu zen zure arnas epela.

10. Frutuak eman zenigun ugari
zure bizitzako urteetan
espirituz aberatsa denari
emaitza dario bere eskuetan.

11. Musikarako berezitasuna
landu zenuen zure bizitzan
baina ez zen igarotzen eguna
euskararen defentsarako ekintzan.

12. Baina ez zen musika ez ta euskara
atzerrira bota zinduzanak
Alkatetza utzi ta Frantziara
eraman zinduzan politik lanak.

13. Aberria maite izanez gero
zein izango zen zure azkena
ikusten zenuen argi Sebero
ha zen bai maitasunaren pena.

14. Eta denen ganetik maitagarri
zenez zuretzako Euskalerria
ez zen inondik zuretzat mugarri
ez isiltasun ta ez atzerria.

15. Saber Altube, maisurik onena
zure jarraitzaile gu bagara,
izan bedi zuk nahi zenuena
gora Euskalerri ta gora euskara.
GORA EUSKALERRI TA GORA EUSKARA!

ALTUBE ETA EUSKAL AZENTUA

Arrasate, 1979-XII-6
Patxi Altuna

Ospakizun honen noraezeko labur beharrak eta hizlari kopuru handi xamarrak ez dit inola uzten, egitarauan izendatu zaidan gai zabala hemen luzaki adierazten. Ez da hori, noski, bilera honen helburua, ez bileraren antolatzaileen asmoa ere. Altuberen omenaldi batetan gai hau erabat aipatu gabe uzteak, bestalde, ez zirudien bidezko, Altubek maiteen izan eta gehien landu zituen euskal gaien artean bat azentua izan bait zen, dudarik gabe. Baita, dirudienez, bere lagunekin haserrebiderik latzenak sortarazi zizkiona ere. Gaur lehen aldiz argitara datorren liburu honetan bertan duzue haserrebide horien arrastoa eta oihartzuna, Orixek eta Altubek azentua zela bide elkarri egin zizkioten eskutitzetatik hiruzpalauren zatiak hor ematen bait dira eta beroietan garbi ageri zenbatetaraino ziren ezin elkartuzkoak bataren eta bestearen iritziak. Ezin elkartuzkoak berentzat bederen, gerta bait zitekeen –eta hala gertatzen bide zen– euskalki desberdinez ari zirenez gero, nork berean arrazoi izatea. Altube jauna hizkuntzalaria ez ezen, musikalaria zen eta bere musika doinuei hitzak berak ipini ohi zizkien ia beti. Konpasaren zati bortitzak, batetik, eta hitzen azentuak, bestetik, bat etorriko baziren, euskal hitzen azentua zein silabatan gertatzen zen jakin behar. Horixe zen Altuberen kezka eta horixe ere Orixe eta Altube elkarrengandik guztiz aldendu zituen puntua. Ez dugu geure eskupidean damurik bien arteko eskutitz sorta osoa; Leizaola eta Anbrosio Zatarain ere ixkanbila horretan partaide izan omen ziren eta Zatarain jaunak omen ditu guztiak etxean gordeak. Merezi luke, noski, Altuberen urtemuga honetan guztiak argitaratzea, gai horri buruzko bakoitzaren iritziak hobeki ezagutzearren.

Ez dut nik orain xixtra horretan eskuak sartzeko gogorik ez astirik. Alfer lana litzateke, gainera, neurri handi batean behinik behin, harrez gero euskal azentuaren ikerketak urrats handiak eman bait ditu etxeko eta kanpoko zenbait euskalariri esker. Mundu guztiak daki gaur, edo jakiteko bidea bere eskumenean du bederen, zenbait liburu irakurri eta beste nekerik gabe, lau lurralde bereizten dituztela gutxienez trebatuek, hala nola gure artean Mitxelenak, euskal azentuari dagokion aldetik: lau azentu mota, alegia, Euskal Herri osoan barna. Gutxienez, diot, bai bait daiteke oraindik inork idoro gabekoaren bat ere izatea, azentu gaia ez bait da gaurdaino izan gure artean behar lukeen adina aztertua alde eta xoko guztietan. Lau lurralde horietako bakarren batean, Altubek gehien ezagutzen zuenean, hain zuzen, ez da gainera, dirudienez –hala dio Jacobsen-ek– herri eta herrixka guztietan erabat berdina azentuaren jokaera, ez bederen axaleko itxurari soilik begiratzen bazaio.

Nork ez ditu maiz entzun, esate baterako, eta aski txunditurik entzun, noski, nahiz eta giputza izan, areago dena, nahiz eta azpeitiarra izan, azkoitiarrek txitian pitian esan ohi dituzten *égunero, párrokixen, ámarretan* (hitz guztiok eta ondoan aipatuko ditudanak atzo bertan jaso nituen Azkoitiako neure lagun baten ahotik), guk, azpeitiarrok, urrunago joan gabe, esango genituzkeen eta esan ohi ditugun *egúnero, parrókiyen, amárretan* eta antzekoen ordez? Beste izenok ere –pluralean, noski, singular direnean guk bezalaxe esaten bait dituzte–, noiznahi entzun dakizkieke: *txákurrek* eta *záldixek, ástuek* eta *bé(h)ixek*. Etxapeko sarbidea Azkoitian *bebarrue* esan ohi dute eta guk adarra jotzeko batipat edota haien bizkarretik farre egiteko hitz hori generabilenean, *bebarrúen paolan* esan ohi genuen; haiek ez, berriz, *bebárruen* baizik; "éskerrak eman berrien" esan dit gaur bertan beste azkoitiar batek.

Ez natzaizue gehiago luzatuko. Orain arte esanek aski ongi erakusten digute, nik uste, euskal azentuaz Altubez geroztik lan ederrik egin bada ere, are gehiago dagoela egin-kizun, batez ere leku eta toki bakoitzeko xehetasunen deskribapenak bildu eta ezagutu nahi baditugu. Guzti onek ez du, haatik, Altuberen eta bere garaikoen lanaren merezimendua gutxitzen, ez lausotzen; haien, eta batipat Altube jaunaren,

ikerlanak gerokoen oinarri eta abiapuntu ezin utzizko eta baztertuzko izan bait dira. Hori sinesteko aski da gai hori jorratzen duten gaurko zenbait liburu begiratzea: Altuberen lanen aipamena ez da haietan inoiz falta, ezin falta ere. Altubek bideak urratu eta hildoak ireki zituen eta hildo haietan hazia erein, gero fruitu joririk eman duen eta aurrera emango duen hazia, noski.

"SEBERO ALTUBE" LIBURUAREN AURKEZPENA

Arrasate, 1979-XII-6
J. M.ª Velez de Mendizabal

San Nikolas ospatzen dugu gaur. Euskal Herrian hain hedaturik dagoen aintzinako ohiturari jarraituz, milaka izan dira ikastola nahiz eskoletatik eskean irten diren haurrak. Heuren eztarrietatik abestia helburu berdinaz irten da: entzulearengandik oparia, lortzea: mahaspasa, pikua, intxaurra eta besteren atzetik ibili dira gure umeak, bihotzetan pozak toki hartzen zielarik.

Eta gaur, San Nikolas egunean, beste norbait ere egon omen da artzapezpikuaren ondoan, gure umeei ez ezik geuri ere oparia egiteko nahian. Eta Sebero Altubek-berau izan baita San Nikolasen gaurko kidea- bere haziaren apurra bota nahi izan digu, gugan behar dugun zuhaitza hazten joan dadin.

* * *

Gaur aurkezten den liburu hau, egilea neu naizela esan arren, Herriarena, Herri H. maiuskulaz, dela esango nuke nik. Eta ez dut demagogia atsegin. Hiru arrazoik naramate baieztapen hau egitera:

1. Sebero Altube Herri guztiaren ondarea baita. Herriari eskaini baitzion bere bizitza osoa.

2. Sebero Altuberi buruzko liburu hau atera ahal izateko Herriarengatik arduratzen ari diren pertsonaia askoren laguntzaz baliatu baitnaiz, ni, nolabait esateko, biltzaile edo eragile hutsa bilakatuz.

3. "Liburuaren Zergaitia"-n esaten dudan bezala, liburu hau Herriari zuzendua baita. Herri xeheari, oraindik zenbait aldetatik esnatzeke dagoen Herriari.

Beraz, liburu honen gaineko eskubidea inork badu; hori Herria da.

* * *

Sebero Altube; Arrasaten jaioa eta Euzkadiri entregatua. Euzkadi- Euskal Herria binomioa ematen ez zen garaiko gizona. Gaur, ordea, Euzkadik ez du –zoritxarrez– zerikusi haundirik Euskal Herriarekin.

Euzkadi, Jose Luis Lizundiak orain dela gutxi esaten zuen bezala, projektu politiko bat da; eta Euskal Herria...

Zer da Euskal Herria?

Euskal Herria, eta ez dut ezer berririk esaten, gaixorik, oso gaixorik, aurkitzen den gorputza da. Eta guk ba dugu nahiko errurik egoera latz honetan. Euskal kontzepturik, kontzientziarik ez izatean gaixoaren antigorputz hiltzaileak bihurtzen ari gara, haren zainetatik korri daitekeen odol osasuntsu apurra pozointzen dugularik.

* * *

Hace ahora aproximadamente 7 años que decidí euskaldunizarme. Precisamente, uno de mis profesores fue Patxi Altuna, del que guardo un gran recuerdo. Tanto es así, que basta decir que solía aprovechar de él hasta las homilías que pronunciaba en la iglesia de los jesuitas, los domingos en misa de 11, si la memoria no me traiciona. Pero vayamos al tema...

Decía que ahora aproximadamente 7 años, dí los primeros pasos camino de mi euskaldunización. Y hoy se presenta un libro en cuya confección he tomado parte. Y me siento satisfecho, aunque sea un libro con todos los defectos de un principiante.

Pero, ¡¡¡ojo!!! Al decir esto no intento echar sobre mí ningún tipo de incienso, ni agua bendita, ni mucho menos!!! Porque el hacer lo que he hecho no es más que un accidente dentro de un contexto más amplio, que era *mi deber*.

De la misma manera que hace unos meses llevábamos adelante una campaña apoyando el derecho de todo vasco a residir en Euzkadi, bajo mi esquema mental, todo vasco residente en Euzkadi tiene *la obligación* de euskaldunizarse,

comenzando por el primer requisito que es aprender el euskera.

DIGO, REPITO, OBLIGACION.

De otra manera, estamos acabando con Euskal Herria.

No podía menos que sonreír, tristemente al hacer la comparación de rigor, cuando leía hace poco tiempo la noticia sobre la creación de una Asociación para la defensa de los castellano-parlantes en Cataluña. Dos de los objetivos principales de esta Asociación eran:

– Defender y estimular el derecho de los castellano-parlantes a ocupar cargos de responsabilidad en el Gobierno de Catalunya.

– Defensa de los derechos laborales, culturales, políticos y sociales de la comunidad castellano-parlante.

EUZKADIN BEZALA, GUTXI GORA BEHERA.

Liburua hortxe dago. Bere orrietan Arrasateko, Euskal Herriko, seme baten gorabeherak aurkitu ahal izango dituzue. Orain zeuen esku dago liburuak izan dezakeen mamia dastatzea.

Ezin ordaindu-inolaz ere- Donostia Aurrezki Kutxak eta Arrasateko Udalak liburua atera ahal izateko azaldu duten borondate ona. Egiazko nere eskerrona doakie liburua biribiltzen lagundu didatenei. Batez ere, bertan lanak azaltzen dituztenei.

Baina,eskerron honetan ezin ahaztu bi izen: Mikel Zarate eta gure Iokin Zaitegi.

Mikelek, koolaborazioarekin batera, olerki bat bidali zidan. Honela dio:

"Agindua zor ohi da, Joxe Mari.
Hasiak egina dirudi,
eginak urregorri?
Parkatu ta hurrengoan sakatu.
Ez zaizu gustatu?
Beste bat egingo dizut,
nahi baldin baduzu.

Honelako lan arin kaxkarra
egiteko asti samarra
izango dut aurrerantzean ere...
Gora gu ta gutarrak
emeak eta arrak!
Gora Euzkadi!
Altubetu hadi!''

Mikelen koolaborazioa jaso eta zenbait egunetara, Apirilaren 10.ean, hil zitzaigun –bat batean– Lezamako beraren baserrian.

Iokin Zaitegik, bestalde, ez du gure artean aurkezpenik behar, denok ezagutzen baitkenuen arrasatear haundi hau. Berau izan zen, gela honetan gainera, liburu honen beharraz hitzegin zidana., Seberori enparantza eskaini zitzaion egunean. Abuztuaren 17.an hil zen Iokin, gaixoaldi baten ondoren.

Mikel eta Iokin. Euskaltzale sutsu eta naroak. Bi gizon, bi bizitza, euskara eta euskal kulturari emanak.

Horra hor, Euskal Herriaren historian sekulan itzaliko ez diren argizariak. Seberoren lankide Iokin; haren jarraitzaile Mikel.

Jaso behar dugun eraikuntzaren hiru zutabe sendoak.

Bene, benetan, esan dezaket:

MIKEL, IOKIN, SEBERO GOGAN ZAITUZTEGU!!!

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

ERAKUSLEAK

Batzordeko idazkari naizenez, bi hitz egin dezadan eskatu didate, gainerako formak bazterturik honako hauek onartzeko batzordeak izan dituen arrazoiak agerian ipiniz. Diodan lehenik Alvarez Emparanza (''Txillardegi''), Xabier Kintana eta hirurok ginela batzordeko. Eta gero, formarik gehienak finkatzen lan ttikia izan dugula, nabari baitzen aukeran zegozkeen gainerakoak baino zabalduagoak edota jatorragoak, edo biak batera, zirela honako hauetatik zenbait. Dudamudazko izan zitezkeen (eta euskaltzain osoek birrets ditzaten arte, daitezkeen) forma batzuk aipatuko ditut, beraz, soil soilik.

Singularrekoei nagokiela, *hark* onartu dugu, ez *harek*, biak aski ezagunak eta erabiliak izanik ere, lehena bakarra agertzen baita antzinako idazle guztiengan.

Leku kasoetan *honetan, horretan* eta abar *-e-* dutelarik, hobetsi ditugu, hirugarrenean ezik: *hartan, hartako* eta abar, alegia. Orobat *honetaz, horretaz, hartaz* instrumental delako kasoan, horien ondoan *honez, horrez* eta *harez* ere sarturik, halaz ere, *honez gain, harez gero* eta hauen antzekoak esateko; *-taz* iruditu zaigu, beraz, egokiena, zaharrena ez bada ere, eta horrenbestez *-zaz* eta *-tzaz* baztertu ditugu.

Bizidunen kasoetarako *-n-* duten formak proposatzen ditugu, hots, *honengan, horrengan, harengan* eta berebat horien kideetan. Ez, ordea, kausativoan, zeinetan hobe eritzi baitiegu *-n-* gabeei: *honegatik, horregatik, hargatik.*

Adlativo kasoa eta oihu gisakoa (''Ecce homo'') bereiztearen aldeko zen norbait, *honera etorri da* eta *hona hemen*,

alegia; baina azkenean bateratzea hobe zela, antzinako idazleengan ez dela bereizkuntzarik agertzen eta batera ematen ditugu; *hona, horra, hara,* beraz, batean nahiz bestean.

Moduzkoetan ere, lekukoetan bezalaxe, *-e-* duten formei hobe eritzi diegu: *honela, horrela,* baina *hala,* lehen *hartan* bezalaxe. Zenbait esapidetarako, haatik, *hola* ere onartzen da; hara nola, *hola-hala* eta *hala-holako gizona.*

Pluralekoetara gatozela, are aukera gutxiago zen formen artean eta geure artean ere zalantza ttikiagoak izan ditugu. Batetan izan ezik: aktivoa eta pasivoa bereizi, bai ala ez? Hirurotako bat kontrako zelarik, baina hark ere gehiengoari amore ematen ziolarik, ez bereiztea erabaki dugu eta horrenbestez honela gelditu dira: *hauek, horiek, haiek* aktivo nahiz pasivo. Arrazoia, besteak beste, hau litzateke: oraingo euskaldunen artean ez ezik, euskal literatura osoan, zuberotarrek bakarrik egin izan dute, eta egiten dute, bien arteko bereizkuntza; ez Etxeparek, ez Leizarragak, ez Axularrek, ez Zibururuko Etxeberrik, bai, ordea, Oihenartek, antzinakoen artean.

Horrez gain, eta singularrean ez bezala, kausativo kasoan *-n-* duten formak hartu ditugu, *hauengatik* eta abar, alegia, Oihenartek eta bestek *horiegatik* badiote ere eta egungo egunean biok esaten eta idazten diren arren.

Azkenik deiktiko direlakoetan ez gara sartu eta oraingoz erabaki gabe gelditzen da, esate baterako, *honexen* ala *honenxe, honexegatik* ala *honegatixek,* zeinek behar lukeen euskara batuan.

Hona, beraz, ondoren batzordearen proposamena:

Patxi Altuna S. J.

ERAKUSLEAK

hau	hori	hura
honek	horrek	hark
honen	horren	haren
honi	horri	hari
honekin	horrekin	harekin
honetan	horretan	hartan
honetako	horretako	hartako
honetara	horretara	hartara
honetatik	horretatik	hartatik
honetaz	horretaz	hartaz
honengan	horrengan	harengan
honengana	horrengana	harengana
honengandik	horrengandik	harengandik
honegatik	horregatik	hargatik
honentzat	horrentzat	harentzat
hona	horra	hara
honako hau	horrako hori	harako hura
honez	horrez	harez
honela	horrela	hala
honelako	horrelako	halako
hemen	hor	han
hemengo	horko	hango
hemendik	hortik	handik
hauek	horiek	haiek
hauek	horiek	haiek
hauen	horien	haien
hauei	horiei	haiei
hauekin	horiekin	haiekin
hauetan	horietan	haietan
hauetako	horietako	haietako
hauetara	horietara	haietara
hauetatik	horietatik	haietatik
hauetaz	horietaz	haietaz
hauengan	horiengan	haiengan
hauengana	horiengana	haiengana
hauengandik	horiengandik	haiengandik
hauengatik	horiengatik	haiengatik
hauentzat	horientzat	haientzat
hauez	horiez	haiez

OHARRA

Euskaltzaindiak bi txandatan onartu zuen Erakusleen proposamena: Otsailaren 23ko batzarrean Donostian, eta Uztaileko 20an Elizondon.

Aurreko zerrenda onartu zuen, xehetasun hauek gaineratuz:

a) *Hauek, horiek, haiek,* bai nominatibo eta bai ergatibo kasoetan erabiltzea erabaki zen.

b) *Hone(n)gatik, horre(n)gatik, hare(n)gatik* era honetan eman ziren ontzat. *Hargatik*, bizigabea denerako ontzat eman zen, halere.

d) *-taz, -zaz*: biak onartu ziren; *-taz* ageri da zerrendan, baina *honezaz, horrezaz, harzaz; hauezaz, horiezaz, haiezaz* ere ez dira gaitzesten. Ilatibo bezala, *hortaz.*

e) *-tatik, -tarik* bi formak uzten dira oraingoz, deklinabideko batzordeak erabakia har dezan.

f) *Hona, honera*: ez da onartzen bikotasun hori; *hona, horra, hara* baizik, soil-soilik.

g) *Hola-hala* eta horren antzeko esaeretan *hola* forma onartzen da. Era berean *hala-holako* eta esateko.

DEKLINABIDEA

EUSKALTZAINDIAK DEKLINABIDEAZ ESKAINTZEN DUEN ERABAKIA

Bergarako VIII. Biltzarraren ondorik Euskaltzaindiak, ortografia eta gramatikazko formen zenbait pundu gogoan harturik, argitasunak emateko asmoa agertu zuen, hizkuntza batuaren aldeko urratsak, poliki poliki bederen, aurrera bidean senda eta berma zitezen. Hasteko, kontsonante bustipalatalen ortografiak nolakoa izan behar lukeen adierazi zuen. Gero, izenordeen formen aukera egin zuen. Eta hirugarrenez, hauxe berau, deklinabidearena, jalgierazten du argitara, *h*-arenarekin bateratsu, hizkuntza baturako hobetzat etxekitzen dituen formak zein diren azaldurik.

DEKLINABIDEA

GRAMATIKAZKO KASUEN MARKAK

Nominatiboa	*Ø*
Partitiboa	*-(r)ik*
Ergatiboa	*-k*
Datiboa	*-(r)i*

GENITIBO NOMINALIZATZAILEENAK

Edutezkoa	*-(r)en / -(r)e*
Leku denborazkoa	*-ko / -tako*

GAINERAKOENAK

Instrumentala	*-z / -zaz, -taz*
Soziatiboa	*-(r)ekin*
Motibatiboa	*-gatik, -(r)engatik / -(a)rren* (1)
Destinatiboa	*-(r)entzat, -(r)endako*
Prolatiboa	*-tzat, -tako*

LEKU DENBORAZKOA

Inesiboa	*-n / -tan*
Ablatiboa	*-tik / -tarik, -tatik // -(r)ik*
Adlatiboa	*-(r)a / -tara*
Adlatibo bukatuzkoa	*-(r)aino / -taraino // -ino* (2)
Adlatibo bide zuzenezkoa	*-(r)antz, (r)at / -tarantz, -tarat*
Adlatibo destinatiboa Destinatiboa	*-(r)ako / -tarako* *-ko / -tako // -kotz / -takotz*

Distribuzio konplementarioz. Distribuzio geografikoan ere baditu aldeak.

/, // Distribuzio konplementarioz.

(1) -(a)rren delakoa *-gatik* formarekin txandakatzen da.

(2) Hala ere denborazko zentzua duten hitzei *-rarte* itsasten zaie eta distribuzio konplementarioz *arte*, azkenengo honek *arteino/artio* ere baduela. Pluralez *-etararte* edo *-ak arte*.

DEKLINABIDEA

ARTIKULU GRADU GABEKOAREN ONDORIK

	Singularra	**Plurala**
Nominatiboa	*-a-Ø*	*-ak*
Partitiboa	—	—
Ergatiboa	*-a-k*	*-ek*
Datiboa	*-a-ri*	*-ei*
Genitibo edutezkoa	*-a-ren*	*-en*
Genitibo leku denborazkoa	*-Ø-ko*	*-etako*
Instrumentala	*-a-z*	*-ez*
Soziatiboa	*-a-rekin*	*-ekin*
Motibatiboa	*-a-(ren)gatik / -a-rren*	*-engatik, ak-(g)atik*
Destinatiboa	*-a-rentzat, -a-rendako*	*-entzat, -endako*
Prolatiboa	—	—
Inesiboa	*-a-n*	*-etan*
Ablatiboa	*-Ø-tik*	*-etarik, -etatik*
Adlatiboa	*-Ø-ra*	*-etara*
Adlatibo bukatuzkoa	*-Ø-raino*	*-etaraino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*-Ø-rantz, -Ø-rat*	*-etarantz, -etarat*
Adlatibo destinatiboa	*-Ø-rako*	*-etarako*
Destinatiboa	*-Ø-ko*	*-etako*

DEKLINABIDEA

ARTIKULU GRADU HURBILEKOAREN ONDORIK

	Singularra	**Plurala**
Nominatiboa	*-au-Ø/-ori-Ø*	*-ok-Ø*
Partitiboa	—	—
Ergatiboa	*-on- e -k / -orr- e -k*	*-ok*
Datiboa	*-on-i / -orr-i*	*-oi*
Genitibo edutezkoa	*-on-en / -orr-en*	*-on*
Genitibo leku denborazkoa	*-Ø-ko (markatu gabea)*	*-otako*
Instrumentala	*-on-(e)-z / -orr-(e)-z*	*-oz*
Soziatiboa	*-on-e-kin / -orr-e-kin*	*-okin*
Motibatiboa	*-on-e-gatik / -orr-e-gatik*	*-ongatik, -ok-(g)atik*
Destinatiboa	*-on-en-tzat / -orr-en-tzat (...dako)*	*-ontzat, -ondako*
Prolatiboa	—	—
Inesiboa	*-o-n*	*-otan*
Ablatiboa	*-Ø-tik* (markatu gabea)	*-tarik, -otatik*
Adlatiboa	*-Ø-ra* '' ''	*-otara*
Adlatibo bukatuzka	*-Ø-raino* '' ''	*-otaraino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*-Ø-rantz, -Ø-rat* '' ''	*-otarantz, -otarat*
Adlatibo destinatiboa	*-Ø-rako* '' ''	*-otarako*
Destinatiboa	*-Ø-ko* '' ''	*-otako*

DEKLINABIDEA

LEKU DENBORAZKO MARKAK BIZIDUN ZENTZUA DUTENEI ERANTSI BEHAR ZAIZKIENERAKO

Inesiboa	*-gan / baitan*	Genitibo edutezkoaren ondorik ere joan daitezke
Ablatiboa	*-ganik, -gandik / baitarik*	
Adlatiboa	*-gana / baitara*	
Adlatibo bukatuzkoa	*-ganaino*	
Adlatibo bide zuzenezkoa	*-ganantz, -ganat*	
Adlatibo destinatiboa	*-ganako*	

Euskaltzainburuaren eskabidez hurrengo oharrok eta ereduok prestatu ditut.

Bilbon 1979-garreneko Irailaren 27-an.

EUSKARA BATURAKO DEKLINABIDEAREN OHARRAK.

Lehen paradigman marka hutsak besterik ez dira agertzen.

Parentesi artean datozenak kontesto batzuetan ez direla ahoskatzen adierazi nahi du eta beste batzuetan bai. Esaterako: *-(r)i* marka kontsonante baten ondoan *-i* da eta bokal baten ondoan *-ri*. Adlatibozko *-(r)a* delakoak, ordea, ez du zeharo berdin betetzen lege hori anfibologian ez erortzearren.

Adierazi beharra dago, ordea, kasuen markak, alderdi batera utzirik bokalaren ondorik hastapenean *(r)* dutenak, *-e-* epentetiko bat hartzen dutela kontsonante baten atzean jarriz gero eta kontsonante batez hasten baldin badira: *edozein gizon + k > edozein gizonek, lur + ko > lurreko, ur + tako > uretako, egon + z > egonez,* baina hala ere *zerzaz* edo *zertaz, zertan, edozein gizon + gatik > edozein gizonegatik,* baina hala ere *sakon + tzat > sakontzat, Idiazabal + n > Idiazabalen, ur + tan > uretan, egur + tik > egurretik*, eta abar.

Parentesi artean agertzen da *-(a)rren* delakoaren *-a-* ere. Baina hemen ez du gauza bera adierazi nahi, egungo eguneon beti *-a-* hori duela erabiltzen baita. Historian zehar hori gabe ere azaltzen denez gero artikulu fosilizatua dela esan nahi du.

Beste distribuzio konplementarioez, / edo // markaz seinalaturik daudenez, alegia, horra esan beharrekoa:

Genitibo edutezkorako *-(r)en* eta *-(r)e* ipini dira. Bigarrenak erabiltze mugatua du: *nire, hire, zure, gure* eta soziatiboaren markaren aurretik, *aitarekin* eta abar, *ene, neure, heure, zeure, geure.*

Leku denborazko guztietan izen propioekin lehenengoa erabiltzen da: *Bilbora, Bilbon,* eta abar. Bestela *eguzkitara, eguzkitan*, eta abar. Baina bada bazilazio eremu bat ere izen propio bezala jokatzen ez direnetan euskalkietan zehar, hala

Instrumentalean *-zaz* edo *-taz* izenorde, galdetzaile eta azkenekoetarik aterarikakoekin.

Motibatibozko *-gatik* eta *-arren* direlakoen arteko distribuzio konplementarioa ez da leku guztietan berdin. Eremu batean *etorriarren, etortzearren* bada ere, bestean *etorriagatik, etortzeagatik*, baina *etorri denarren* hala ere.

Leku denborazkoetan datozen ablatibozko *-(r)ik*, adlatibo bukatuzko *-ino* eta destinatibozko *-kotz / -takotz* ez dira gero mugatzailedunen artean agertzen, partitiboari gertatzen zaion bezala ez baitira izen sintagma mugatuen ondorik erabiltzen: *mendirik mendi, ondorik, bizi deino, hortakotz*, eta abar.

Bi forma agertzen direnean / edo // marka gabe, distribuzio geografikoa besterik ez dutela adierazi nahi da eta biak zilegi direla.

Artikuluez mugaturikako paradigmetan parentesiak beste zerbait azaldu nahi du. Esaterako: *-a-(ren)-gatik* modu bitara erabiltzen dela, *-agatik* edo *-arengatik*. Eta *-ak-(g)atik* delakoa *-akatik* besterik ez dela ahoskatzen, asimilazioz. Ez da sartu, ordea, *-egatik*, Etxepare XVI-garren mendekoaren baitan eta Eibarko norman erabiltzen dena, hau da, **-eggatik*, jadanik baztertuxe gertatzen delako.

A. Irigoyen

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan azpian izenpetzen dutenak bildurik 1979garren Azaroaren 30ean eta ikusirik deklinabedeaz aurkeztu den proposamendua, aho batez onartu da Euskaltzaindiaren eritzitzat boto zuri bat izan ezik.

J. Haritschelhar



J. Hiriart Urruty



A. Irigoyen



E. Knörr



F. Krutwig



P. Lafitte

E. Larre



L. Mitxelena

J. San Martin



J. M. Satrustegi



L. Villasante



A. Zavala



X. Diharceren izenean
P. Lafitte



J. L. Davanten izenean
J. Haritschelhar



P. Larzabalen izenean
J. Haritschelhar

DEKLINABIDEAREN EREDUAK

MUGAGABEA

Bokalez amaiturikako *egoki* adjetiboa

Nominatiboa	*egoki*
Partitiboa	*egokirik*
Ergatiboa	*egokik*
Datiboa	*egokiri*
Genitibo edutezkoa	*egokiren*
Genitibo leku denborazkoa	*egokiko / egokitako*
Instrumentala	*egokiz*
Soziatiboa	*egokirekin*
Motibatiboa	*egoki(ren)gatik*
Destinatiboa	*egokirentzat, egokirendako*
Prolatiboa	*egokitzat, egokitako*
Inesiboa	*egoki a n* (3) */ egokitan*
Ablatiboa	*egokitik / egokitarik, egokitatik // egokirik*
Adlatiboa	*egokira / egokitara*
Adlatibo bukatuzkoa	*egokiraino / egokitaraino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*egokirantz, egokirat / egokitarantz, egokitarat*
Adlatibo destinatiboa	*egokirako / egokitarako*
Destinatiboa	*egokiko / egokitako*

(3) Zenbaitetan artikulu ta guzti ager daiteke mugagabeen sailean, hura hurbila ez baldin bada, beste leku denborazko kasuen sistemari berdindurik. Artikulurik itsatsi gabeko hondarrak ere badira txokoren bat edo bestetan, hala nola, *etxen, aitzurren, be(h)arren, itaurren,* eta abar. Sustantibo berbalek ere hala dute: *egiten, ekartzen, barkatzen,* eta abar, artikuluz mugaturikakoetarik berezirik, *egitean, ekartzean, barkatzean,* eta abar.

Inesiboa	*egoki(ren)gan / egoki(ren)baitan*
Ablatiboa	*egoki(ren)ganik, egoki(ren)gandik / egoki(ren)baitarik*
Adlatiboa	*egoki(ren)gana / egoki(ren)baitara*
Adlatibo bukatuzkoa	*egoki(ren)ganaino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*egoki(ren)ganantz, egoki(ren)ganat*
Adlatibo destinatiboa	*egoki(ren)ganako*

MUGAGABEA

Kontsonantez amaiturikako *labur* adjetiboa

Nominatiboa	*labur*
Partitiboa	*laburrik*
Ergatiboa	*laburrek*
Datiboa	*laburri*
Genitibo edutezkoa	*laburren*
Genitibo leku denborazkoa	*laburreko / laburretako*
Instrumentala	*laburrez*
Soziatiboa	*laburrekin*
Motibatiboa	*laburregatik, laburrengatik*
Destinatiboa	*laburrentzat, laburrendako*
Prolatiboa	*laburtzat, laburtako*
Inesiboa	*laburre a n* (4) */ laburretan*
Ablatiboa	*laburretik / laburretarik, laburretatik // laburrik*
Adlatiboa	*laburrera / laburretara*
Adlatibo bukatuzkoa	*laburreraino / laburretaraino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*laburrerantz, laburrerat / laburretarantz, laburretarat*
Adlatibo destinatiboa	*laburrerako / laburretarako*
Destinatiboa	*laburreko / laburretako*

(4) Ikus (3) oharra.

bis	Inesiboa	*laburregan, laburrengan / laburr(en) baitan*
	Ablatiboa	*labu.'reganik, laburregandik, laburrenganik, laburrenganik / laburr(en) baitarik*
	Adlatiboa	*laburregana, laburrengana / laburr(en) baitara*
	Adlatibo bukatuzkoa	*laburreganaino, laburrenganaino*
	Adlatibo bide zuzenezkoa	*laburreganantz, laburreganat, laburrenganantz, laburrenganat*
	Adlatibo destinatiboa	*laburreganako, laburrenganako*

ARTIKULU GRADU GABEKOZ MUGATURIKAKO *EGOKI* ADJETIBOA

	Singularra	**Plurala**
Nominatiboa	*egokia*	*egokiak*
Partitiboa	–	–
Ergatiboa	*egokiak*	*egokiek*
Datiboa	*egokiari*	*egokiei*
Genitibo edutezkoa	*egokiaren*	*egokien*
Genitibo leku denborazkoa	*egokiko*	*egokietako*
Instrumentala	*egokiaz*	*egokiez*
Soziatiboa	*egokiarekin*	*egokiekin*
Motibatiboa	*egokia(ren)gatik*	*egokiengatik, egokiakatik*
Destinatiboa	*egokiarentzat, egokiarendako*	*egokientzat, egokiendako*
Prolatiboa	–	–
Inesiboa	*egokian*	*egokietan*
Ablatiboa	*egokitik*	*egokietarik, egokietatik*
Adlatiboa	*egokira*	*egokietara*
Adlatibo bukatuzkoa	*egokiraino*	*egokietaraino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*egokirantz, egokirat*	*egokietarantz, egokietarat*
Adlatibo destinatiboa	*egokirako*	*egokietarako*
Destinatiboa	*egokiko*	*egokietako*

		Singularra	Plurala
bis	Inesiboa	*egokia(ren)gan / egokia(ren) baitan*	*egokiengan, egokiakan / egokien baitan*
	Ablatiboa	*egokia(ren)ganik, ...gandik / egokia(ren) baitarik*	*egokienganik, ...gandik, egokiakanik, ...kandik / egokien baitarik*
	Adlatiboa	*egokia(ren)gana / egokia(ren) baitara*	*egokiengana, egokiakana / egokien baitara*
	Adlatibo bukatuzkoa	*egokia(ren)ganaino*	*egokienganaino, egokiakanaino*
	Adlatibo bide zuzenezkoa	*egokia(ren)ganantz, egokia(ren)ganat*	*egokienganantz, egokienganat, egokiakanantz*
	Adlatibo destinatiboa	*egokia(ren)ganako*	*egokienganako, egokiakanako*

ARTIKULU GRADU HURBILEKOZ MUGATURIKAKO *EGOKI* ADJETIBOA

	Singularra	**Plurala**
Nominatiboa	(5)	*egokiok*
Partitiboa		—
Ergatiboa		*egokiok*
Datiboa		*egokioi*
Genitibo edutezkoa		*egokion*
Genitibo leku denborazkoa		*egokiotako*
Instrumentala		*egokioz*
Soziatiboa		*egokiokin*
Motibatiboa		*egokiongatik, egokiokatik*
Destinatiboa		*egokiontzat, egokiondako*
Prolatiboa		—
Inesiboa	*egokion*	*egokiotan*
Ablatiboa	(6)	*egokiotarik, egokiotatik*
Adlatiboa		*egokiotara*
Adlatibo bukatuzkoa		*egokiotaraino*
Adlatibo bide zuzenezkoa		*egokiotarantz, egokiotarat*
Adlatibo destinatiboa		*egokiotarako*
Destinatiboa		*egokiotako*

(5) Artikulu hurbila singularrean bakana denez gero ez da hemen agertzen.

(6) Leku denborazko kasuetan, inesiboan izan ezik, formari dagokionez artikulu singularrik ipintzen ez denez gero ezin marka daiteke hurbiltasunik.

		Singularra	Plurala
	Inesiboa	(7)	*egokiongan, egokiokan / egokion baitan*
	Ablatiboa		*egokionganik, ...gandik, egokiokanik, ...kandik / egokion baitarik*
bis	Adlatiboa		*egokiongana, egokiokana / egokion baitara*
	Adlatibo bukatuzkoa		*egokionganaino, egokiokanaino*
	Adlatibo bide zuzenezkoa		*egokionganantz, egokionganat, egokiokanantz*
	Adlatibo destinatiboa		*egokionganako, egokiokanako*

(7) Ikus (5) oharra.

ARTIKULU GRADU GABEKOZ MUGATURIKAKO *LABUR* ADJETIBOA

	Singularra	**Plurala**
Nominatiboa	*laburra*	*laburrak*
Partitiboa	—	—
Ergatiboa	*laburrak*	*laburrek*
Datiboa	*laburrari*	*laburrei*
Genitibo edutezkoa	*laburraren*	*laburren*
Genitibo leku denborazkoa	*laburreko*	*laburretako*
Instrumentala	*laburraz*	*laburrez*
Soziatiboa	*laburrarekin*	*laburrekin*
Motibatiboa	*laburra(ren)gatik*	*laburrengatik, laburrakatik*
Destinatiboa	*laburrarentzat, laburrarendako*	*laburrentzat, laburrendako*
Prolatiboa	—	—
Inesiboa	*laburrean*	*laburretan*
Ablatiboa	*laburretik*	*laburretarik, laburretatik*
Adlatiboa	*laburrera*	*laburretara*
Adlatibo bukatuzkoa	*laburreraino*	*laburretaraino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*laburrerantz, laburrerat*	*laburretarantz, laburretarat*
Adlatibo destinatiboa / Destinatikoa	*laburrerako* / *laburreko*	*laburretarako* / *laburretako*

		Singularra	Plurala
Bis	Inesiboa	*laburra(ren)gan / laburra(ren) baitan*	*laburrengan, laburrakan / laburren baitan*
	Ablatiboa	*laburra(ren)ganik, ...gandik / laburr(en baitarik*	*laburrenganik, ...gandik, laburrakanik, ...kandik / laburren baitarik*
	Adlatiboa	*laburra(ren)gana / laburra(ren) baitara*	*laburrengana, laburrakana / laburren baitara*
	Adlatibo bukatuzkoa	*laburra(ren)ganaino*	*laburrenganaino, laburrakanaino*
	Adlatibo bide zuzenezkoa	*laburra(ren)ganantz, laburra(ren)ganat*	*laburrenganantz, laburrenganat, laburrakanantz*
	Adlatibo destinatiboa	*laburra(ren)ganako*	*laburrenganako, laburrakanako*

ARTIKULU GRADU HURBILEKOZ MUGATURIKAKO *LABUR* ADJETIBOA

	Singularra	**Plurala**
Nominatiboa	(8)	*laburrok*
Partitiboa		—
Ergatiboa		*laburrok*
Datiboa		*laburroi*
Genitibo edutezkoa		*laburron*
Genitibo leku denborazkoa		*laburrotako*
Instrumentala		*laburroz*
Soziatiboa		*laburrokin*
Motibatiboa		*laburrongatik, laburrokatik*
Destinatiboa		*laburrontzat, laburrondako*
Prolatiboa		—
Inesiboa	*laburreon*	*laburrotan*
Ablatiboa	(9)	*laburrotarik, laburrotatik*
Adlatiboa		*laburrotara*
Adlatibo bukatuzkoa		*laburrotaraino*
Adlatibo bide zuzenezkoa		*laburrotarantz, laburrotarat*
Adlatibo destinatiboa		*laburrotarako*
Destinatiboa		*laburrotako*

(8) Ikus (5) oharra.
(9) Ikus (6) oharra.

		Singularra	Plurala
	Inesiboa	(10)	*laburrongan, laburrokan / laburron baitan*
	Ablatiboa		*laburronganik, ...gandik, laburrokanik, ...kandik / laburron baitarik*
bis	Adlatiboa		*laburrongana, laburrokana / laburron baitara*
	Adlatibo bukatuzkoa		*laburronganaino, laburrokanaino*
	Adlatibo bide zuzenezkoa		*laburronganantz, laburronganat, laburrokanantz*
	Adlatibo destinatiboa		*laburronganako, laburrokanako*

(10) Ikus (5) oharra.

BOKALEZ AMAITURIKAKO *GERNIKA* LEKU IZEN ARTIKULURIK GABEA

Nominatiboa	*Gernika*
Partitiboa	*Gernikarik*
Ergatiboa	*Gernikak*
Datiboa	*Gernikari*
Genitibo edutezkoa	*Gernikaren*
Genitibo leku denborazkoa	*Gernikako*
Instrumentala	*Gernikaz*
Soziatiboa	*Gernikarekin*
Motibatiboa	*Gernika(ren)gatik*
Destinatiboa	*Gernikarentzat, Gernikarendako*
Prolatiboa	*Gernikatzat, Gernikatako*
Inesiboa	*Gernikan*
Ablatiboa	*Gernikatik*
Adlatiboa	*Gernikara*
Adlatibo bukatuzkoa	*Gernikaraino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*Gernikarantz, Gernikarat*
Adlatibo destinatiboa	*Gernikarako*
Destinatiboa	*Gernikako*

KONTSONANTEZ AMAITURIKAKO *IRUN* LEKU IZEN ARTIKULURIK GABEA

Nominatiboa	*Irun*
Partitiboa	*Irunik*
Ergatiboa	*Irunek*
Datiboa	*Iruni*
Genitibo edutezkoa	*Irunen*
Genitibo leku denborazkoa	*Irungo, Iruneko*
Instrumentala	*Irunez*
Soziatiboa	*Irunekin*
Motibatiboa	*Irungatik, Irunegatik, Irumengatik*
Destinatiboa	*Irunentzat, Irunendako*
Prolatiboa	*Iruntzat, Irundako*
Inesiboa	*Irunen*
Ablatiboa	*Irundik, Irunetik*
Adlatiboa	*Iruna, Irunera*
Adlatibo bukatuzkoa	*Iruneraino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*Irunerantz, Irunat, Irunerat*
Adlatibo destinatiboa	*Irunerako*
Destinatiboa	*Irungo, Iruneko*

BOKALEZ AMAITURIKAKO *ENEKO* PERTSONA IZENA

Nominatiboa	*Eneko*
Partitiboa	*Enekorik*
Ergatiboa	*Enekok*
Datiboa	*Enekori*
Genitibo edutezkoa	*Enekoren*
Genitibo leku denborazkoa	—
Instrumentala	*Enekoz*
Soziatiboa	*Enekorekin*
Motibatiboa	*Eneko(ren)gatik*
Destinatiboa	*Enekorentzat, Enekorendako*
Prolatiboa	*Enekotzat, Enekotako*
Inesiboa	*Eneko(ren)gan / Eneko(ren) baitan*
Ablatiboa	*Eneko(ren)ganik, Eneko(ren)gandik / Eneko(ren) baitarik*
Adlatibòa	*Eneko(ren)gana / Eneko(ren) baitara*
Adlatibo bukatuzkoa	*Eneko(ren)ganaino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*Eneko(ren)ganantz, Eneko(ren)ganat*
Adlatibo destinatiboa	*Eneko(ren)ganako*

KONTSONANTEZ AMAITURIKAKO *KATALIN* PERTSONA IZENA

Nominatiboa	*Katalin*
Partitiboa	*Katalinik*
Ergatiboa	*Katalinek*
Datiboa	*Katalini*
Genitibo edutezkoa	*Katalinen*
Genitibo leku denborazkoa	–
Instrumentala	*Katalinez*
Soziatiboa	*Katalinekin*
Motibatiboa	*Katalinegatik, Katalinengatik*
Destinatiboa	*Katalinentzat, Katalinendako*
Prolatiboa	*Katalintzat, Katalindako*
Inesiboa	*Katalinegan, Katalinengan / Katalin(en) baitan*
Ablatiboa	*Katalineganik. ...gandik, Katalinenganik, ...gandik / Katalin(en) baitarik*
Adlatiboa	*Katalinegana, Katalinengana*
Adlatibo bukatuzkoa	*Katalineganaino, Katalinenganaino*
Adlatibo bide zuzenezkoa	*Katalineganantz, Katalineganat, Katalinenganantz, Katalinenganat*
Adlatibo destinatiboa	*Katalineganako, Katalinenganako*

"H" LETRAREN ORTOGRAFI ARAUAK

I

Agiri honen beharra eta beronen ulerpiderako argitasunak

Euskaltzaindiak beti jo du zilegitzat "H" letraren erabilera. Hori jakiteko aski da bere sorreran erabaki zuen euskal abeze edo alfabetoa gogoan hartzea. Euskaraz idaztean erabil daitezkeen letren artean han dator "H" ere. Ikus *Euskera* I (1920), 1 zenbakia, 64. orrialdean.

Hala ere, eta salbuespenak aparte, bikoiztasun bat egon da puntu honetan: letra hau Iparraldeko idazkeran erabiltzen zela eta Hegoaldekoan ez. Euskaltzaindiak, gertaera bat bezala, onartu edo hobeki esan, jasan izan du bikoiztasun hori, ohitura desberdin hau gainditzeko biderik ikusten ez zen bitartean.

Ipar Euskal-Herrian "H" letra gehienek ahoskatu eta idatzi denek egiten dute. Hango idazleak betidanik, berezko duten hotsa adierazteko, letra honetaz baliatu dira, eta orain ere aspirazioaren marka hori idatzi behar delakoan daude. Hegoaldean, berriz, hotsa ezagutzen ez delako, hotsari dagokion letra ere ez zen erabiltzen.

Euskara idatziaren batasuna lortuko bazen, ordea, bikoiztasun hau noizbait gainditu behar zen. Horretarako euskal ortografian letra honi neurri bateko sarrera ematea onartu eta erabaki zuen Euskaltzaindiak Arantzazuko Biltzarrean. Ikus *Euskera* (1968), 250.

Baina nola Hegoaldean letra hau erabiltzeko ohiturarik ez zen, bidezko ezezik baita beharrezko ere gertatu zen epe

bat uztea esperimendu gisa —10 urteko epea, alegia—, Euskaltzaindiak eskainitako bidea idazle, irakasle eta abarrek onartzen ote zuen ala ez ikusteko. Eta hala egin zen.

Gainerakoan, orduan Euskaltzaindia ez zen beste xehetasunetan sartu. Ez zuen erabaki, alegia, zer neurritan sartuko zen letra hori euskal ortografian, zein ziren "H" dun hitzak, etab. Halere, eman zuen, orientapen gisa, Batasunerako hiztegia. Ikus *Euskera* (1968), 251. Eta bertan ikus daitekeenez, hitz asko daude han "H" hori parentesi artean dutenak —dudazko direnak, beraz—. Hau konprenitzeko kontuan eduki behar da "H" letraren erabilerari buruz Iparraldean bi tradizio daudela, Lapurdikoa eta Zuberoakoa, eta biak ez datozela beti bat.

Gainera, guztion gogoan zegoen puntu honetan hitzarmen, abenikoa edo akordio bat behar zela Iparralde eta Hegoaldearen artean. Akordio hori honela zen: kontsonante ondoko "HH" kentzeko eskatzen zitzaien Iparraldekoei, gainerakoen onartzea Hegoaldekoei erraztutzeko. Bide hau Arantzazuko Biltzarraren aurretik Baionako Euskal Idazkaritzak 1964ean hartu zuen, hango Agirian ikus daitekeenez. Beraz, "kh", "lh", "nh", "ñh", "ph", "rh" eta "th" idazkerak baztertzen ziren.

10 urteko epea (1968-1978) igaro arte Euskaltzaindiak ez du "H" letraren arazoari buruz berariaz deus erabaki nahi izan. Epea bete zenean, ordea, Bergarako Biltzarra antolatu zuen. Biltzarrerako egin ziren azterketei esker, garbi ikusi da Euskaltzaindiak eskainitako batasun asmo eta arauek izan duten baietza eta eragina. Ikus *Euskera* (1978), 866.

"H" letraren erabilera Hegoaldean zabaldu da, noski. Baina orain erabilera hori, bai Iparralde eta bai Hegoaldean, lege zehatz batzuen azpian jarri beharra ikusten da, hizkuntza idatziak eskatzen duen batasuna lor dadin.

Horretarako Bergarako Biltzarraren ondoren Euskaltzaindiak batzorde berezi bat izendatu zuen. Batzorde honen helburua izan da "H" letraren erabilera arau batzuen arabera mugatzea.

Kontutan eduki behar da hemen ematen den zerrenda batez ere literaturan erabiltzen diren hitzena dela. Horregatik

ez dira sartzen hainbat hitz lanbide eta giro berezietan ezagunak baina idatzizko euskaraz guti edo bat ere erabiltzen ez direnak.

II

Oinarritzat hartu diren irizpideak

Mugaketa edo bakanketa egiteko honako irizpide hauek izan ditu batzordeak:

1. *Hitz bakunak*

1.1. Iparraldeko literatur tradizioan hainbat hitzetan *kons + h* bikoteak agertzen dira: *epher, berthute, urkhatu, senhar, ilhun, orhe, urrhe*. Kontsonante ondoko H horiek baztertzea proposatzen da, *eper, bertute, urkatu, senar, ilun, ore, urre*... idatziz, salbuespenik gabe.

1.2. Bokale artean eta diptongo eta bokale artean gertatzen diren HH-ak gorde egingo dira: *ahalke, zehar, lehia, oihan, auhen*... Horrelako hitz guztiak zerrendan adierazten dira.

1.3. Hitz hasierako HH-ei dagokionez, Iparraldeko tradizioa ez da beti ahobatekoa. Alde batetik Lapurdiko eta Zuberoako joeren artean bada desberdintasunik, eta bestetik, zenbait H erori egin dira mendeetan zehar. Guzti hau kontuan harturik, eta hitzok banaka aztertu ondoren, zalantzazko HH-ak baztertzea proposatzen da. Gorde eta baztertu diren HH-en berri jakiteko, arau hauen ondoko zerrenda ikus.

1.4. Iparraldeko euskalkietan, bokale artean, jatorriz kontsonante zena H bilakatu da hainbat hitzetan, batez ere azken garai hauetan. Hitzok, H-zko idazkera baztertuz, jatorrizko kontsonanteaz idatziko dira: *soro, garondo, garrasi, turuta*... eta ez *soho, gahondo, gahasi, tuhuta*... Horrelako kasurik nabarienak zerrendan ematen dira, H-dun forma baztergarria parentesi artean eta ondoan jatorrizko forma gomendatua ematen direlarik.

2. *Hitz erakarri eta elkartuak*

2.1. Hitz erakarrietan, etorki-hitza H-duna bada eta erakarketa prozedura gardena bada, hau da, jatorrizko hitzaren eta hitz erakarriaren arteko lotura hiztun normalarentzat nabaria bada, hitz erakarri hori H-ez idatziko da eta ez da zerrendan berariaz adieraziko: *behartu, handitasun, hargin, harrikatu, hasiera, haurdun, hautagarri.*

2.2. Hitz konposatuetan, elkarketaren lehen osagaia kontsonantez bukatzen bada eta bigarrena H-ez hasten, hau da, loturaren ondorioz *kons + h* bikotea gertatzen bada, delako H-a ez da idatziko: *onartu, oinarri.* Bai, ordea, bi osagaiak marratxo batez, edo berezirik, idazten direnean: *oin-hots* eta *oin hots*, noski.

2.3. Hainbat hitz konposatutan, lehen osagaia silaba bakarrekoa denean, H bat agertzen da bi osagaien lotura mugan, are bigarren osagaiak H-rik ez duenean: *onhetsi, ilhargi, gauherdi* (baina *eguerdi*), *deihadar* (nahiz *etsi, argi, erdi, adar* diren), *ilherri, ilharri, aurhide* (*haur + kide*, baina Leiç. *haurride*). Ikusten denez, gainera, bigarren H-aren eraginez, lehendabizikoa, dagoenean, erori egiten da. Baina hori ez da beti gertatzen: *hilotz, harrobi, harresi...* dira tradizioan aurkitzen ditugun idazkerak. Horrelako hitzetan, *barneko H hori baztertzea proposatzen da, are bokale artean gertatzen dena.* Bokale arteko H-a bigarren osagaiak berezkoa duenean ere baztertzea proposatzen da. Beraz, *gauerdi, deiadar, goierri...* idatziko da, eta *onetsi...* noski. Lehen osagaia H-ez hasten den hitzei, konposatua nabarmenki gardena gertatzen denean, H etimologiko hori ezarri egingo zaie, *hilarri, hilerri, haurride...* idatziz. Baina *ilargi* idatziko da, gardentasuna ez baita kasu honetan hain nabaria.

2.4. Idazkeraren auzian etimologiaren eta erabileraren irizpideak aurrez-aurre gertatzen direnean, erabileraren irizpidea hobetsiko da. Horrela *ospe, ospel...* idatziko dira, tradizioan agertzen diren arabera. Arrazoi berberagatik, hegoaldeko tradizioan bakarrik erabili izan direlako, H-rik agertzen ez duten hitzak H-rik gabe idatziko dira lehen osagaia gardena gertatzen ez denean: *erbeste, espetxe, esparru, arbel, orbel, arkatz, aintzat, aintzakotzat...* Sail honetako hitzak berariaz adieraziko dira zerrendan. Halaber, *-urren* atzizki

hegoaldetarra H-rik gabe idatziko da; *mendeurren, bederatziurren...*

2.5. Euskal hitz batetan normalki H bat bakarrik ager badaiteke ere, aurreko arauek ez dagozkien hitz elkartuetan H bat baino gehiago onartzen da, hitzok etenik gabe idatzi nahi direnean: *hirurehun.*

3. *Zerrendari buruzko argigarriak*

3.1. Leku eta pertsona izen propiotako HH-ak ez dira zerrendan sartu. Hiztegi berezietarako uzten dira. Deituretako HH-ak ere ez dira hemengo arauekin neurtzen.

3.2. Arrazoi berberagatik, zientzi mailan erabiltzen diren maileguzko H-dun hitzak ere ez dira zerrendan aipatzen.

3.3. H daramaten aditz forma edo deklinabideko kasuak ere ez dira sartu. Esate baterako, *bihoakit, hoa, horren, honetan...* Forma horien idazkera ikasteko Gramatikara jo behar da.

3.4. Zerrendan ez daude, noski, Iparraldean H hotsaz ahoskatzen diren hitz guztiak. Euskara batura pasa diren heinean bakarrik hartu dira kontutan. Testu dialektalak toki jakin bateko hizkeraren arabera eman nahi direnean, hemen ez dauden HH-ak erabiltzea zilegi dela esan beharrik ez dago; eta berdin ez jartzea, tokiko hizkerak ez dituenean.

3.5. Hainbat hitz H-dunek badute ordain hedatuagorik eta erabilgarriagorik, Hauetako bati lehentasuna eman behar zaionean, komatxoen artean ezarri dugu delako hitzaren ondoan.

3.6. Azkenik, H-rik ez duten zenbait hitz, Hegoaldean ere zalantzazko direlako, sartu egin dira zerrendan, irakurleak beroien idazkera zuzena ikas dezan: *neurri, leun, ziur, iaz, aurten, alegia...*

III

ZERRENDA

Zeinuen argitzea

→: geziaren eskubi aldeko forma hobesten dela esan nahi du.

/ /: Barnean dagoen hitzak esanahia argitzen du.

Ik. → : Ikus.

-: marra honek, hitz amaieran denean, adierazten du forma hura hitz konposatu eta erakarrietan erabiltzen dela. Aurrean badator, lehen zatia falta duela, atzizkia dela.

'' '': komatxoen artean datorren hitza bestea baino zabalduago eta erabilgarriago dela esan nahi du.

Hitz bat kurtsibaz jartzen denean esan nahi du ez dela bestea bezain gomendagarri.

+: gehitu behar dela esan nahi du.

1,2 zenbakiak hitzaren gainean: forma berberekoak izanarren, hitz desberdinak direla esan nahi du.

( ): Parentesi artean datorren hitz forma baztergarria dela esan nahi du.

1. "H" LETRA ALFABETIKOKI KONTUAN HARTU GABE

aha-, *ik.* aho
ahabi(a)
ahago /landarea/
ahaide
ahaikoa
ahaire "doinua"
ahakar, aharra
ahal /*baina ik.* al, alba-, albait/
ahalke, *-ge*
ahamen
ahantzi, ahaztu
ahardi
ahari
aharra, ahakar
aharrausi
ahate
haatik
ahats "zikina"
ahaztu, ahantzi
habaila
abarrots, *arrabots*
habe[1] "pilarea"
habe[2] "animalia"
habia
abil "trebea"
haboro "gehiago"
habuin, hagun
adina, *aina* /bezanbeste/
aheria /eritasuna/
haga
hagin[1] /arbola/
hagin[2] /ahokoa/
hagitz
hagoan "orekan"
hagun, habuin
ai, aiei
ahi
aiduru "zain"
aiei, ai

aienatu
aihen
aiene
aiher
aieru
haikatu /zutierazi/
hain
aina, adina /bezanbeste/
haina "delako hura"
hainbat
hainbeste
ainitz, anitz
aintza
aintzat, aintzakotzat
aio "zain"
aihotz
haitada /txanda, aldia/
ahitu
haitz
aitzur
haize
aizkol- *ik.* aizkora
aizkora, aizkol-
ahizpa
aizto
aizturrak
haizu "sori, zilegi"
al /galderatan/
ala /edo; bazka; partikula/
hala /horrela/
alabaina
halabehar
halaber
alafede
alajainkoa
alba- /+ aditza/
albait /+ aditza; ...-en/
alegia /ipuina; partikula/
haltsar /errai/
altu
haltz /zuhaitza/

hama- *ik.* hamar
hamahiru
hamar, hama-, heme-
amu
han
handi, haundi
anitz, ainitz
hanka
hanpatu
hantu
hantuste
aho, aha-
aholku
ahots
ahotz /gariarena/
ar /emea ez dena/
har /animalia/
har-[1] *ik.* hartu
har-[2] *ik.* harri
hara
harabartu
haragi, harat-
aran "fruitua"
haran "ibarra"
harat- *ik.* haragi
arbel
arbi /landarea; arraultzeak/
are
harea "hondarra"
ari /aditza/
hari /jostekoa/
harik eta
haril
haritz
arkatz
arma
armarri
aro /garaia/
arotz
harpa
harpe

arpoi
arrabots, abarrots
arrantza[1] /astoarena/
arrantza[2], arrantzu /arrain harrapaketa/
harrapatu
harri, har
harritu
arrisku, *irrisku*
harro
harresi
harrobi
arroka /haitz/
hartu
hartz
hartzi /legamia, buruko ileak/
-has "huts"
haserre
hasi
hasperen
hastandu
hastapen
haste "hasiera"
astelehen
hastio
hats
atseden
atxiki
hatz
atzapar, aztapar
atzazal, azazkal, azkazal
atzeman
atzitu
hau
auhen
aukera
ahul
haundi, handi
ahuntz
ahuña, -ñe "antxumea"
ahur
haur
haurride

aurpegi
hausnar
hauspo
hausterre
hautatu
hauteman, hautu
hauts
hautsi
autu /solas/
hautu, hauteman
ahutz "masaila"
auzi
auzo
haxe "zama"
haz- /-aita, -ama.../
azaro
azazkal, atzazal, azkazal
hazi
azienda "ganadua"
hazka
azkazal, azazkal, atzazal
azkordin
hazpegiak
aztapar, atzapar
aztarna, azterren
haztatu
azterren, aztarna
aztore
aztura
baha- *ik.* bahe
bahe, baha-
bahitu
basahuntz
behar
(beharri) → belarri
behatz
behatu
behaztopa
behazun
behe /*baina* -be, -pe/
behere
behi

behiala
behin
behintzat
behor
berehala
berrehun
bihar
biharamun
bihi
bihortz /tresna/
bihotz
bihurri
bihurtu
bizpahiru
bostehun
buhame
buhatu
(buhurdi) → burdi
deiadar
desohore
doha- /*baina* doan, doarik, "dohainik"/
dohain, doe
doe, dohain
ehai- *ik.* eho
hebain
hedatu
hede
hedoi, hodei
ehe
hega- *ik.* hego
hegal, hego
hegan
hegatz, -ts
hegazki
hegazti
hegi "bazterra, ertza"
hegigoa "aihergoa"
hego, hegal
hego /haizea/
hei(a) "ukuilua, tegia"
heiagora

eihar, ihar
hein
eihera
ehiza, ehizi, ihizi
hel- *ik.* heldu
heldu
eltzaur, intzaur
heme- *ik.* hamar
hemen
eho
ehortzi
hera /hegaztiena/
herabe
(erhan) → ero
eraztun
herbal
erbeste
erbi
herdoil(a)
heren
herenegun
herensuge
herexa "aztarna"
eri /osasun gabea; behatza/
herio
heriotze
ero
herots "habarrotsa; omena"
herra "higuina"
herratu "galdua"
errauts
(erraztun) → eraztun
(erren) → errain
herren /maingua/
erresa /irin eta zahia/
herresa /berme/
erresaka
herresta
herri
erribera
herronka

hertsatu
hertsi
hertu /hustu/
ertz
ertzain
hertze, heste
hesi
heste, hertze
esparru
espetxe
estu "mehar"
hetika /eritasuna/
etsi
hetsi, itxi
ehun[1] /hamar aldiz hamar/
ehun[2] /oihala/
heze
hezi
hezur
gahatu "harrapatu"
gauerdi
goganbehar
gehiago
gehiegi
gehitu
giharre
(gohaindu) → gogaindu
goien
goierri
guhaur
hi
ihabali "beldurtia"
ihakin "burla"
ihaloskatu /iraulikatu/
ihar, *eihar*
ihardetsi
iharduki
ihardun, jardun
(iharrosi) → inarrosi
ihaurri
ihaute(ri), inauteri

iaz, igaz
ibai
ibi
idoi "lohia"
ihes
ihesi
higatu
higitu
higuindu
ihi
ihintz
ihizi, ehiza, ehizi
hil[1] /ez bizi/
hil[2] /hilabete/
hilabete
ilargi
hilarri
ilaun
ilaur
ildo
hile
ile /biloa/
hilerri
ilinti
hilobi
inauteri, ihaute(ri)
(ihortziri) → igortziri
hira
iraka
iratze
(ihauli) → irauli
hiri
hiro
hiru
hiruhortz /tresna/
hirurehun
hirurogei
irrisku, arrisku
(ihaz) → iaz, igaz
irrits "irrika"
hisi(a) "gorrotoa"

historia
istorio "ipuina"
hits
itxi, hetsi
hitz
hizkuntza
keheila
lahar
la(u)rehun
la(u)rogei
lauhortz /tresna/
lehen
lehenbizi
lehendakari
lehenengo
lehertu
lei "jela"
lehia
leial
leiho
lehoi
lehor
leun
lihazi
liho
lohi
luh- *ik.* lur
(ur)mahel
lur, luh-
mahai
mahats
mahuka
mea "minerala"
meha- *ik.* mehe
mehar
mehatxatu
mehatxu
mehe, meha-
mendeurren
mihi
mihimen
mihise

mihura
mihuri "alea"
naharo
nahasi
nahi
nahiz "ba...ere"
nehor "inor"
neurri
noharroin "eskalea"
nihaur
oha- *ik.* ohe
ohaide
ohartu
ohatze
hobe
hoben, hogen
hobi
hodei, *hedoi*
hodi
ohe, oha-
hogei
hogen, hoben
(hogoi) → hogei
ohi
oihal
oihan
oihartzun
oiher "zeharkakoa"
oies
ohil "basa"
oinarri
ohitu
ohitura
oihu
omenaldi
onartu
hondamendi
hondar
hondatu
onddo
ondo /albo/

hondo /behea/
ontsa "ongi"
ohol
ohoin
ohondikatu
ohoratu
ohore
(ohostu) → ostu
(ohots) → orots
or "zakur"
hor /non?/
horditu
ordu, oren
hori[1] /erakuslea/
hori[2] /kolorea/
horma /izotza; pareta/
hornitu
horrela
orri, hosto
orrialde
hortz
osin "leizea"
ospe
ospel
ospitale
hosto, orri
ostu
hots
hotz
hozitu
sahats
saguzar /gauainara/
saihets
sehaska
sehi
sei(r)ehun
(soho) → soro
suhar
suhi
(tuhuta) → turuta
txahal

-tzar
uh- *ik.* ur
(uhain) → uhin
uhal
uhalde
uharte
uher "arrea" */baina* uger "heroila"/
(ugarte) → uharte
uhin
(ujolde) → uholde
ukitu */baina* hunkitu/
umidura "hezetasuna"
umil
umore
hunkitu */baina* ukitu/
huntz
uholde
ur, uh- /edatekoa/
hur /hurbil/
hura
hurbil
hurko
hurran /hurbil/
-urren (mendeurren...)
hurren
urri
hurrupatu
urteurren
hustu
huts
hutsal
xahu
zahagi
zahar */baina* -tzar/
zaharo /haga/
zahato
zahi
zehar
zeharo
zehatu
zehatz
zehe

zihatu
ziho "seboa"
ziur
zohi[1] "mokorra"
(zohi[2]) → zori
zohar "garbia"
zuh- *ik.* zur
zuhaitz
zuhamu
zuhar
zuhaur
zur, zuh-
zuhur

2. "H" LETRA ALFABETIKOKI KONTUAN HARTURIK

abarrots, *arrabots*
abil "trebea"
adina, *aina* /bezanbeste/
aha- *ik.* aho
ahabi(a)
ahago /landarea/
ahaide
ahaikoa
ahaire "doinua"
ahakar, aharra
ahal /*baina ik.* al, alba-, albait/
ahalke, *-ge*
ahamen
ahantzi, ahaztu
ahardi
ahari
aharra, ahakar
aharrausi
ahate
ahats "zikina"
ahaztu, ahantzi
aheria /eritasuna/
ahi
ahitu
ahizpa
aho, aha-
aholku
ahots
ahotz /gariarena/
ahul
ahuntz
ahuña, -ñe "antxumea"
ahur
ahutz "masaila"
ai, aiei
aiduru "zain"
aiei, ai
aienatu
aiene
aieru

aihen
aiher
aihotz
aina, adina /bezanbeste/
ainitz, anitz
aintza
aintzat, aintzakotzat
aio "zain"
aitzur
aizkol *ik.* aizkora
aizkora, aizkol-
aizto
aizturrak
al /galderatan/
ala /edo; bazka; partikula/
alabaina
alafede
alajainkoa
alba- /+ aditza/
albait /+ aditza; ...-en/
alegia /ipuina, partikula/
altu
amu
anitz, ainitz
ar /emea ez dena/
aran "fruitua"
arbel
arbi /landarea; arraultzeak/
are
ari /aditza/
arkatz
arma
armarri
aro /garaia/
arotz
arpoi
arrabots, abarrots
arrantza[1] /astoarena/
arrantza[2], arrantzu /arrain harrapaketa/
arrisku, *irrisku*
arroka
astelehen

atseden
atzapar, aztapar
atzazal, azazkal, azkazal
atzeman
atzitu
auhen
aukera
aurpegi
autu /solas/
auzi
auzo
azaro
azazkal, atzazal, azkazal
azienda "ganadua"
azkazal, azazkal, atzazal
azkordin
aztapar, atzapar
aztarna, azterren
azterren, aztarna
aztore
aztura
baha- *ik.* bahe
bahe, baha-
bahitu
basahuntz
behar
(beharri) → belarri
behatz
behatu
behaztopa
behazun
behe */baina* -be, -pe/
behere
behi
behiala
behin
behintzat
behor
berehala
berrehun
bihar
biharamun

bihi
bihortz
bihotz
bihurri
bihurtu
bizpahiru
bostehun
buhame
buhatu
(buhurdi) → bururdi
deiadar
desohore
doha- /*baina* doan, doairik, "dohainik"/
dohain, doe
doe, dohain
ehai- *ik.* eho
ehe
eihar, ihar
eihera
ehiza, ehizi, ihizi
ehortzi
ehun[1] /hamar aldiz hamar/
ehun[2] /oihala/
eltzaur, intzaur
eraztun
erbeste
erbi
(erhan) → ero
eri /osasun gabea; behatza/
ero
errauts
(erraztun) → eraztun
(erren) → errain
erresa /irin eta zahia/
erresaka
erribera
ertz
ertzain
esparru
espetxe
estu "mehar"
etsi

gahatu
gauerdi
gehiago
gehiegi
gehitu
giharre
goganbehar
(gohaindu) → gogaindu
goien
goierri
guhaur
haatik
habaila
habe[1] "pilarea"
habe[2] "animalia"
habia
haboro "gehiago"
habuin, hagun
haga
hagin[1] /arbola/
hagin[2] /ahokoa/
hagitz
hagoan "orekan"
hagun, habuin
haikatu /zutierazi/
hain
haina "delako hura"
hainbat
hainbeste
haitada /txanda, aldia/
haitz
haize
haizu "sori zilegi"
hala /horrela/
halabehar
halaber
haltsar /errai/
haltz /zuhaitza/
hama- *ik.* hamar
hamahiru
hamar, hama-, heme-
han

handi, haundi
hanka
hanpatu
hantu
hantuste
har /animalia/
har-[1] *ik.* hartu
har[2] *ik.* harri
hara
harabartu
haragi, harat-
haran "ibarra"
harat- *ik.* haragi
harea "hondarra"
hari /jostekoa/
hariketa
haril
haritz
harpa
harpe
harrapatu
harri, har-
harritu
harro
harresi
harrobi
hartu
hartz
hartzi /legamia, buruko ileak/
-has "huts"
haserre
hasi
hasperen
hastandu
hastapen
haste "hasiera"
hastio
hats
hatz
hau
haundi, handi

haur
haurride
hausnar
hauspo
hausterre
hautatu
hauteman, hautu
hauts
hautsi
hautu, hauteman
haxe "zama"
haz- /-aita, -ama.../
hazi
hazka
hazpegiak
haztatu
hebain
hedatu
hede
hedoi, hodei
hega- *ik.* hego
hegal, hego
hegan
hegatz, -ts
hegazki
hegazti
hegi "bazterra, ertza"
hegigoa
hego /haizea/
hei(a) "ukuilua, tegia"
heiagora
hein
hel- *ik.* heldu
heldu
heme- *ik.* hamar
hemen
hera /hegaztiena/
herabe
herbal
herdoil(a)
heren

herenegun
herensuge
herexa "aztarna"
herio
heriotze
herots "habarrotsa, omena"
herra "higuina"
herratu "galdua"
herren /maingua/
herresa /berme/
herresta
herri
herronka
hertsatu
hertsi
hertsu /hustu/
hertze, heste
hesi
heste, hertze
hetika /eritasuna/
hetsi, itxi
heze
hezi
hezur
hi
higatu
higitu
higuindu
hil[1] /ez bizi/
hil[2] /hilabete/
hilabete
hilarri
hilerri
hilobi
hira
hiri
hiro /materia/
hiru
hiruhortz /tresna/
hirurehun
hirurogei

hisi(a) ''gorrotoa''
historia
hits
hitz
hizkuntza
hobe
hoben, hogen
hobi
hodei, *hedoi*
hodi
hogei
hogen, hoben
(hogoi) hogei
hondamendi
hondar
hondatu
hondo /behea/
hor /non?/
horditu
hori[1] /erakuslea/
hori[2] /kolorea/
horma /izotza; pareta/
hornitu
horrela
hortz
hosto, orri
hots
hotz
hozitu
hunkitu /*baina* ukitu/
huntz
hur /hurbil/
hura
hurbil
hurko
hurran /hurbil/
hurren
hurrupatu
hustu
huts
hutsal

iaz, igaz
ibai
ibi
idoi "lohia"
ihabali "beldurtia"
ihakin "burla"
ihaloskatu /iraulikatu/
ihar, *eihar*
ihardetsi
iharduki
ihardun, jardun
(iharrosi) → inarrosi
(ihauli) → irauli
ihaurri
ihaute(ri), inauteri
(ihaz) → iaz, igaz
ihes
ihesi
ihi
ihintz
ihizi, ehiza, ehizi
(ihortziri) → igortziri
ilargi
ilaun
ilaur
ildo
ile "biloa"
ilinti
inauteri, ihaute(ri)
iraka
iratze
irrisku, arrisku
irrits "irrika"
istorio "ipuina"
itxi
keheila /landarea/
lahar
la(u)rehun
la(u)rogei
lauhortz /tresna/
lehen

lehenbizi
lehendakari
lehenengo
lehertu
lehia
lehoi
lehor
lei "jela"
leial
leiho
leun
lihazi
liho
lohi
luh- *ik.* lur
(ur)mahel
mahai
mahats
mahuka
mea "minerala"
meha- *ik.* mehe
mehar
mehatxatu
mehatxu
mehe, meha-
mendeurren
mihi
mihimen
mihise
mihura
mihuri "alea"
naharo
nahasi
nahi
nahiz "ba... ere"
nehor "inor"
neurri
nihaur
noharroin "eskalea"
oha- *ik.* ohe
ohaide

ohartu
ohatze
ohe, oha-
ohi
ohil "basa"
ohitu
ohitura
ohol
ohoin
ohondikatu
ohoratu
ohore
(ohostu) → ostu
(ohots) → orots
oies
oihal
oihan
oihartzun
oiher "zeharkakoa"
oihu
oinarri
omenaldi
onartu
onddo
ondo /albo/
ontsa "ongi"
or "zakur"
ordu, oren
orri, hosto
orrialde
osin "leizea"
ospe
ospel
ospitale
ostu
saguzar /gauainara/
sahats
saihets
sehaska
sehi
sei(r)ehun

(soho) → soro
suhar
suhi
(tuhuta) → turuta
txahal
-tzar
(ugarte) → uharte
uh- *ik.* ur
(uhain) → uhin
uhal
uhalde
uharte
uher "arrea" /*baina* uger "erdoila"/
uhin
uholde
(ujolde) → uholde
ukitu /*baina* hunkitu/
umidura "hezetasuna"
umil
umore
ur, uh- /edatekoa/
-urren (mendeurren...)
urri
urteurren
xahu
zahagi
zahar /*baina* -tzar/
zaharo /haga/
zahato
zahi
zehar
zeharo
zehatu
zehatz
zehe
zihatu
ziho "seboa"
ziur
zohi[1] "mokorra"
(zohi[2]) → zori
zohar "garbia"

zuh- *ik.* zur
zuhaitz
zuhamu
zuhar
zuhaur
zuhur

Donostian, 1979ko Azaroaren 30ean, Gipuzkoako Diputazioan, azpian izenpetzen dutenak bildurik, eta azterturik "H" letraren ortografi arauei buruz. Batzordeak prestatu duen proposamendua onartzen eta erabakitzen da aho batez, hiru boto zuri izan ezik.

J. Haritschelhar

J. Hiriart Urruty

A. Irigoyen

E. Knörr

F. Krutwig

P. Lafitte

E. Larre

L. Mitxelena

J. San Martin

J. M. Satrustegi

L. Villasante

A. Zavala

X. Diharceren izenean
P. Lafitte

J. L. Davanten izenean
J. Haritschelhar

P. Larzabalen izenean
J. Haritschelhar

A. Irigaray

"H" LETRAREN ORTOGRAFI ARAUAK ERABAKI ONDOAN

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaunak:

Egun haundia dugu hau Euskaltzaindiarentzat, egun haundia euskararentzat.

Euskararen hedadura guztirako hizkera bateratu bat, batez ere idatzizko zereginetan erabiltzekoa, egin nahi du Euskaltzaindiak, bere sortzezko arauetan eskatzen zaion etaberari dagokion bezalaxe. Hizkera batu horren gora-behera guztia ez dago "H" letran, noski. Baina Ortografi alorrean Iparraldea eta Hegoaldea bitaratzen eta bereizten zituen puntu nagusia eta ia bakarra hauxe zen. Eta guztiok dakigu nolako garrantzia duen Ortografia bat eta batua edukitzeak. Azken batean hizkuntza idatziaren bisaia, begitartea Ortografiak eskaintzen digu. Lehenbiziko urratsa, beraz, Ortografia batzea zen. Eta oztopo bakarra, hori lortzeko, "H" letran zegoen.

Zorionez, oztopoa gainditu da. Oztopo zail eta korapilotsu honi oldartu eta buru eman zaio. Horregatik nion egun handia zela gaurko hau.

Ez da samurra izan. Mataza nahasia eta luzea izan da benetan. Urtebete eta gehiago joan da Bergarako Biltzarrak puntu hau erabakitzeko agindu zuenetik, eta dagoeneko gainean dugu beste Biltzarra, Arrasatekoa, joskerari eskainia. Beste Biltzar horretan sartu baino lehen behar zen auzi hau garbitu, eta zorionean egin da. Badakit batzordeak lan haundia burutu behar izan duela. Lehenik irizpideak hautatu behar ziren horien arabera "H"aren erabilera mugatzeko.

Gero hitzen zerrenda osatu behar zen. Oker ez banaiz, hitz zerrenda hori bost aldiz egin behar izan da. Egin, desegin, berregin... zer lana! Baina azkenean dena izan da probetxurako, dena izan da onerako. Denok ikasi dugu, eta ez guti, "H" letraren arazoa dela eta ez dela. Bai, oztopoak ere ez dira beti alferrekoak izaten. Askotan aurrerapenerako bide eta akuilu izaten dira.

Beste aldetik, gauzak soseguz eta behar den astia hartuz, behar diren kontsultak eginez, etorritako oharrei kasu emanez eta abar egin behar ziren, zeren urrats hau larria zela bagenekien guztiok. Denok dakigu hamar urte honetan "H" letraren inguruan kokatu direla batasunari buruzko sesioak. Gehiegikeriarik esan gabe esan daiteke gaur Euskal-Herria begira daukagula, gaurko erabaki honen zain dagoela, alegia. Ez dakit denen guztokoa izanen den erabakia. Baina Euskaltzaindiak arazoa arduraz, zentzuz eta behar den patxada eta arretaz hartu duela, bai.

Berariaz eta izendatuki izenak aipatzen ez naiz hasiko. Halaz guztiz, zilegi izan bekit bi jaunen izenak hemen esatea, zeren batzordekoak izan gabe aparteko modu batez lan egin baitute: Pierre Xarritton eta Ibon Sarasola.

Eskerrak ematen dizkiet lan honetan modu batera nahiz bestera parte hartu duten guztiei, nahiz irizpideak bilatzen, nahiz zerrenda prestatzen, oharrak bidaltzen, era guztietako argibideak ematen, etab.

Jaunak: Gaurko erabakiaz batasunaren historiako kapitulu bati, dudarik gabe, arrazoiz edo arrazoi gabe, istilu gehiena eta zer esan gehiena sorrarazi duenari, amaiera ematen zaio.

Zorionak eta eskerrak, berriz ere, guztioi!

(Donostian, 1979, Azaroak 30)

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburua

EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK IRAKASKUNTZAN

Aipaturiko agerpenaren gehigarri gisa, Foruko Euskaltzaindiaren barne-jardunaldietan bigarren bat gehitzea erabaki zen Abuztuaren 29an, eta Irailaren 28an, Euskaltzaindiko batzarrean, aurkeztua:

"Tokian tokiko hizkera dakiten haur eta nagusiei euskara batua irakastean, sarritan, ez dira oso kontutan hartu izan ohi batetik besterako bidea egiteko nahitaez eman behar diren urratsak, eta ondorioz, elkar osagarri eta bizigarri izan beharko luketenok benetako zubirik gabe geratu ohi dira, bion kaltetan gainera.

Pedagogiazko orientabideak ematea, Euskaltzaindiari zuzenki ez badagokio ere, auzi honek euskararen sendotzean eta hedatzean duen eraginarengatik, biziki gomendatzen du, tokian tokiko euskara zenbat eta urrunago gertatzen den euskara batutik, hainbat era arreta handiagoz elkar osatze bidea zain eta lant dadin.

Azken helburu nagusi eta bakarra euskara bizieraztea, sendotzea eta hedatzea delarik, inola ere ezin pentsa daiteke tokian tokiko euskara eta euskara batua elkarren aurkako gerta litezkeenik, baizik eta bata bestearen nahitaezkoa osagarri eta aberasgarri direla zinez.

Hau honela delarik ere, tokian tokiko euskarak dituen desberdintasun eta ñabardurak ugari direla gogoan edukirik, lehen aipaturiko adierazpenean zioena bera berresaten du Euskaltzaindiak, alegia, tokian tokiko euskara eta euskalkia aintzakotzat hartzean eta lantzean, hizkuntzaren oinarri batuari leialtasuna gorde behar zaiola, euskalkiak indartzearen aitzakiaz joera zatikatzaile batetan gal ez gaitezen.

Bestalde, literatur euskalki desberdinetako ereduak ezagutzera emateko eta irakasleen eginkizuna errazteko asmoz, Euskaltzaindiak berehalatik ekingo dio euskalkizko idazleen antologi bat eragiteari eta argitara emateari.

Azkenik, argi eta garbi utzi nahi du Euskaltzaindiak, bere garaian harturiko erabakiak eta egindako gomendio jakinak salbu, oraindik urrats asko dagoela euskara batua burutzeko eta inork ez duela euskara batua omen delako baten monopoliorik. Beraz, idazleak eta irakasleak beren eskuko dira tradizio ongi ezagutu baten ildotik, pedagogiazko eta literatur adierazpeneko premien arabera, nork bere euskal sen hoberenaren argitan jokatzeko, euskararen funtsezko oinarri batu horrekiko leialtasunean".

NAFARROAKO EUSKARAREN EGOERA

Euskaltzaindiaren zuzendaritzak, gaur Iruñean egindako bileran, beste gai batzuen artean erabaki hau hartu du:

Euskaltzaindiak, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako Foru Diputazioek emandako eta Erret Dekretuak birretsitako eginkizuna beteaz, hots, euskararen alde jokatzeaz, Nafarroa Elebitasun Dekreturik gabe gelditu delako, zeharo kezkaturik dagoela adierazten du.

Euskara Nafarroan lege baliakizunik gabe dagoela ohartzen da Nafarroak dituen eskubideekin elebitasun dekretu bat aurrera atera behar duela uste du, "Junta Superior de Educación" delakoak, behar den bezala eraberritua, noski, ondoren zehatz dezan.

Parlamentu eta Diputazio Foralei eskatzen die hainbat lasterren beren jarrera ager dezatela eta euskararen, hots, nafarren hizkuntzaren alde beharrezko diren neurriak har ditzatela.

Iruñean, 1979.eko Maiatzaren 25ean.

SITUACION DEL EUSKARA EN NAVARRA

La Junta de Gobierno de la Real Academia de la Lengua Vasca, en reunión celebrada en Pamplona el día de la fecha, ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

"Euskaltzaindia", que vela por los intereses de la lengua vasca, misión encomendada por las Diputaciones Forales de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya, y refrendada por Real Decreto, se siente hondamente preocupada por la exclusión de Navarra en el Decreto de bilingüismo.

Es consciente de que el euskara se encuentra en Navarra en una indefensión de instrumentos legales. Considera que Navarra en uso de atribuciones que posee debe gestionar un Decreto de bilingüismo y desarrollarlo posteriormente a través de la Junta Superior de Educación, debidamente reestructurada.

Insta al Parlamento y Diputación Forales se pronuncien urgentemente en este sentido y arbitren las medidas pertinentes para su inmediata aplicación en favor del euskara, la lengua de los navarros.

En Pamplona, a 25 de mayo de 1979.

EUSKAL ALFABETOAREN LETREN IZENAK

Euskaraz egindako irakaskuntza eta, oro har, erabilera soziala, guztiok dakigunez, goraka ari dira aspaldion eta horrek, noski, hainbat eta hainbat arlotan terminologia zehaztea eskatzen du.

Euskaltzaindiaren egitekoa, beste batzuren artean, sortzen ari diren premia hoiei erantzuten ahalegintzea da eta bide horrexetan barrena abiatuz moldatu izan dira, besteak beste, batasunerako erregelak, aditz laguntzaile eta sintetikoen paradigmak, ikastolarako hiztegiak, pertsona eta merkatalgo izendegiak, herri, eta herritarren izenak, banka hiztegia etab. Bide beretik dator halaber gaurko erabaki hau: euskal alfabetoaren letren izenena, hain zuzen ere. Arazo konbentzional bada ere ikuspegi batetik, beharrezkoa iruditu zaio Euskaltzaindiari orientabide hau hartzea.

Horretarako Uztaileko eta Iraileko batzarretan aurkeztu ziren X. Kintana eta A. Zatarain euskaltzain urgazleen proposamen-txostenak eta Urrian eta gaur aztertu dira euskaltzainen artean banan banan.

Beraz, Euskaltzaindiak gaur *Euskal alfabetoaren letren izenez* erabaki hau hartzen du eta jakinarazi:

"Euskal alfabeto edo ABC- a hogeitazazpi letrek osatzen dute, ordena honetan jarriak, beren izena ondokoa dutelarik:

Letra	Izena	Letra	Izena	Letra	Izena
a	a	j	iota	r	erre
b	be	k	ka	s	ese
c	ze	l	ele	t	te
d	de	m	eme	u	u
e	e	n	ene	v	uve
f	efe	ñ	eñe	w	uve bikoitza
g	ge	o	o	x	ixa
h	hatxe	p	pe	y	i grekoa
i	i	q	ku	z	zeta

Letra hauetatik c eta beronen aldakia ç (ze hautsia), q, v, w, eta y, ohizko euskal hitzak idazteko erabiltzen ez diren arren, kanpotar izenak transkribatzeko beharrezkoak direlarik, gure alfabetoan sartzen dira.

Komeni da, beraz, euskal hiztegiak *abc* honetako letra-ordenaren arauera sailkatzea."

Donostian, 1979.eko Azaroaren 30ean.

RELACIONES ENTRE EUSKO-IKASKUNTZA Y EUSKALTZAINDIA

Fr. L. Villasante

Comunicación presentada a la Asamblea de la Sociedad de Estudios Vascos por la Junta de Gobierno de Euskaltzaindia, reunida en su delegación de Vitoria el 14 de mayo de 1979.

Señoras, señores:

Este es un día grande para nosotros y para todo el país. La Sociedad de Estudios Vascos —Eusko-Ikaskuntza—, que tanta parte tuvo en la creación de Euskaltzaindia, después de un letargo de 40 años, vuelve a renacer. Hoy, en el marco de esta magna asamblea, se aprueba su Reglamento actualizado y se nombran las personas que han de ocupar los cargos de presidente y de vicepresidentes regionales de la Sociedad.

Es un día en que todos debemos felicitarnos, y muy especialmente Euskaltzaindia, que siempre mantuvo las más íntimas y cordiales relaciones con la Sociedad.

Yo, como presidente de Euskaltzaindia y en nombre de ella, me creo obligado a decir dos palabras sobre las relaciones mutuas que deben existir entre estas dos entidades, si queremos que ambas contribuyan de modo armónico y positivo al bien del país, tal como lo hicieron en el período anterior a la guerra. Relaciones que se basan en una amistosa, estrecha e íntima colaboración dentro del respeto del campo propio de cada una y con reconocimiento por parte de la Sociedad de la autoridad que a Euskaltzaindia le compete en su dominio específico. Creo que estas condiciones son absolutamente esenciales para que el funcionamiento y actuación de ambas discurra por los mismos cauces de mutua colaboración

y entendimiento que caracterizaron a la época anterior a la guerra.

Si me he decidido a leer estas líneas en esta asamblea es porque en la época pre-constituyente, por así decir, de la renacida sociedad el tema de las relaciones y campo propio de ésta y de Euskaltzaindia ha sido repetidas veces objeto de discusión. Se han emitido diversas opiniones al respecto y —por qué no decirlo—, con fundamento o sin él, ha asomado el temor de que la renacida sociedad pudiera no reconocer el derecho y autoridad de Euskaltzaindia en su campo propio. Creo que a todos nos interesa que estos puntos se clarifiquen. De lo contrario, nuestra labor, lejos de ser constructiva y positiva para el país, podría venir a resultar de signo negativo.

En el mismo *Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos,* que empezó a publicarse en 1919 y prosiguió hasta la guerra civil, hay diversos datos y documentos, sumamente ilustrativos de lo que fueron las relaciones entre Eusko-Ikaskuntza y Euskaltzaindia, y que marcan el camino, creo yo, de lo que deben seguir siendo también ahora.

En esta breve comunicación me limitaré a citar y resumir algunos de estos datos, sin pretender hacer labor exhaustiva.

En el 2.º número del Boletín, 2.º trimestre de 1919, p. 11, hallamos el escrito presentado por la Sociedad de Estudios Vascos a las Diputaciones, pidiendo la creación de la Academia de la Lengua Vasca. No tiene desperdicio este documento. Expone la urgente y perentoria necesidad de que se cree esta Institución, esboza sus dos secciones, de investigación y de tutela, de que deberá constar, tal como se perfilaron en el Congreso de Oñate de 1918. Véase lo que dice este notable documento sobre las tareas de la futura Academia: "Sus trabajos de carácter práctico se enderezarán desde luego (y a tenor de las conclusiones unánimemente aceptadas en la respectiva Sección del Congreso oñatiense) a establecer la unificación léxica, fonética y gráfica del idioma, como base necesaria para la creación de una pujante literatura, y como preliminar indispensable también de la ulterior y definitiva unificación del dialecto literario, aspiración de los vascos todos" (p. 12).

En el número 5.º del mismo Boletín, correspondiente al primer trimestre de 1920, p. 12, se inserta la decisión académica sobre la ortografía a emplear en euskara —donde, dicho sea de paso, figura la letra H entre las letras hábiles—. A continuación Eusko-Ikaskuntza decide, por su parte, adoptar la ortografía decretada por la Academia (p. 14).

En el número 6.º, correspondiente al 2.º trimestre de 1920, hallamos este otro hecho, extraordinariamente ilustrativo. La Academia había abordado el problema de si la raíz *eusk* se ha de escribir con "s" o con "z", y resolvió que con "s". Ahora bien, el nombre vasco primitivo de la sociedad era Euzko Ikaskuntza, o sea, se venía escribiendo con "z", como se puede ver por el mismo Boletín. Ante la decisión de la Academia, el Sr. Eleizalde —que había sido el autor de la denominación Euzko-Ikaskuntza— manifiesta que la Sociedad debe ser la primera en acatar las decisiones de la Academia. En consecuencia, pide que el nombre de la Sociedad en euskera sea desde ahora Eusko-Ikaskuntza, o sea, con "s", según la ortografía decidida por la Academia (p. 5). El Boletín añade: "Fueron aceptadas unánimemente estas propuestas, en bien de la unificación ortográfica tan deseada por todos y se acordó someter a tales normas todos los escritos de la sociedad".

Huelgan los comentarios sobre la comprensión de la autoridad de la Academia, respaldo inequívoco y potenciación de la misma, que estos hechos manifiestan.

En 1922 la Sociedad celebró el Tercer Congreso de Estudios Vascos en Gernika sobre el tema Lengua y Enseñanza. Como se desprende del número 13 del Boletín, correspondiente al primer trimestre de 1922, los temas referentes a la lengua fueron aprobados por la Academia (p. 16).

Creo que estos hechos arrojan una luz más que suficiente para ver cuál era la actitud de la Sociedad respecto a Euskaltzaindia en la época anterior a la guerra. Ambas entidades mantenían las más estrechas relaciones dentro del respeto mutuo a la personalidad e índole de cada una; y la Sociedad reconocía y acataba sin ambages la autoridad de Euskaltzaindia en su campo específico.

En el *Reglamento interior de la Academia de Lengua Vasca,* aprobado y editado en 1920, hay todo un apartado, el

VII y último, titulado: "Relaciones con la Sociedad de Estudios Vascos". En él se lee: "La Academia es una filial de la Sociedad de Estudios Vascos, aunque con plena autonomía en la actuación literaria que sus Estatutos propios la señalan" (art. 44). "Deberá, por consiguiente, tener en la directiva de Estudios Vascos la representación que corresponde a su importancia" (art. 45). "Esta representación la tendrán el director y el secretario, que fueren, de la Academia" (art. 46).

De esta manera fueron perfiladas y aun preceptuadas las mutuas relaciones entre Eusko-Ikaskuntza y Euskaltzaindia, ya desde la fundación de esta última.

Incluso para hacer más fáciles en el orden práctico las relaciones y contactos, evitar la multiplicación de desplazamientos, etc., se ponían de acuerdo ambas entidades, fijando las reuniones en el mismo lugar y en días consecutivos. También ahora se podría hacer así. Si, por ejemplo, Euskaltzaindia tiene su reunión mensual en San Sebastián el último viernes de mes —como suele ser lo ordinario— y Eusko-Ikaskuntza la tuviera al día siguiente en el mismo sitio, el director y secretario de Euskaltzaindia podían quedarse allí y con ello se les ahorraba el tener que hacer otro viaje ex professo otro día. Para mí, al menos, sería una ventaja, pues Aránzazu está lejos de San Sebastián y las combinaciones no son muy buenas, y creo que lo mismo dirá el Secretario actual, que vive en Urdiain.

* * *

En el proyecto de reforma del Reglamento de la Sociedad de Estudios Vascos se propone que Euskaltzaindia tenga no dos —como antes— sino un solo representante en la Junta Permanente de la Sociedad.

Ignoro las razones que hayan podido existir para proponer este cambio en el Reglamento. Creo que la cosa tiene su importancia, porque puede tratarse de una degradación de Euskaltzaindia a los ojos de la Sociedad, y esto sería muy grave. Los conceptos que se han emitido una y otra vez hacen que este temor no parezca infundado. Yo, en nombre de la Academia, pediría que en este punto se dejen las cosas como estaban.

Digámoslo claramente, porque me parece que es mejor decir las cosas clara y llanamente y a tiempo, antes de que se vayan enturbiando y emponzoñando las relaciones por falta de un diálogo franco: Si a los ojos de la actual Sociedad, Euskaltzaindia no es más que una de tantas entidades, una más, un grupo o sociedad entre otras, que se ocupa del euskera, cuyas resoluciones y acuerdos, por respetables que sean, son cosas que a ella sola atañen, opiniones discutibles y nada más; si Euskaltzaindia es puesta por la Sociedad al mismo nivel y en un mismo pie de igualdad con cualquier otro grupo, y sus decisiones no trascienden el rango de lo privado, señores, aquí se ha producido un cambio que es muy grave, una degradación sustancial. Ante el temor de que esto suceda, nada tiene de extraño que en el seno de la Academia se plantee el problema de si en estas condiciones tiene sentido ni razón de ser el que la Academia siga perteneciendo a la Sociedad.

No se trata evidentemente de que la Academia reclame para sí el monopolio del campo de los estudios vascos. El campo de los estudios y de la investigación científica es y será siempre libre y estará a disposición de todo el que lo quiera cultivar. Tampoco se trata de un monopolio en el campo del fomento, apoyo y cultivo del euskera.

Pero hay una cosa innegable y que no se puede silenciar ni desconocer: la Academia fue creada por las cuatro Diputaciones del país, únicos legítimos representantes del mismo, como una Institución de orden público y oficial; ellas le confirieron un mandato, una misión, y por ende, una autoridad y un derecho en un campo que sólo a ella corresponde. Este campo es el que se refiere a la normativa de la lengua y a la formación de la lengua literaria común. Esta autoridad en este campo le viene a la Academia de las Diputaciones, y ha sido confirmada y reconocida últimamente por la máxima autoridad del Estado (1).

Es, pues, claro que hay un campo específico que corresponde a Euskaltzaindia: el de dar la normativa de la lengua. Que sus decisiones en este terreno gozan de una autenticidad,

1) Real Decreto 573 de 26-2-1976 y reconocimiento oficial del Consejo General del País Vasco de 6-3-1978 (B. O. C. G. P. V. n.º 1 de 15-3-1978).

carácter o rango público y oficial; de una legitimidad que de alguna manera la Sociedad debe reconocer, como lo hizo siempre. No se trata de un privilegio tonto que nos arroguemos, sino de un deber y de un derecho que el país nos confirió. Euskaltzaindia no es una sociedad o asociación o grupo más o menos privado. Es una institución pública, a la que la autoridad ha conferido un cometido concreto, dotándole para ello del correspondiente derecho.

Además, la naturaleza misma del asunto de que se trata lo exige así. Hace ya siglos que Etxeberri de Sara —el autor editado y rescatado al olvido por Urquijo— decía que el euskera necesitaba un guía, pero uno solo, pues si van a ser muchos, es preferible que no tenga ninguno.

Y esto se comprende, pues la formación de una lengua literaria unificada exige que haya una autoridad que con los debidos asesoramientos marque las pautas a seguir sobre mil puntos que teóricamente podrían tener soluciones diversas, pero que en la práctica deben tener una sola, si es que se quiere llegar al fin deseado.

* * *

Nos hallamos en un momento sumamente grave y decisivo para el futuro del euskera. Con la aprobación del decreto de bilingüismo, nuestro idioma va a contar con una posibilidad con la que hasta ahora nunca ha contado, que puede ser de consecuencias incalculables para el futuro y potenciación del mismo. El euskera va a entrar en la escuela y esta vez va a entrar por la puerta grande.

Pero éste va a ser un momento crítico. Esta puede ser una prueba de fuego para el euskera. Si no sabemos enseñar el euskera de una manera más o menos homogénea y concorde, o sea, si esto se hace de un modo anárquico y caótico, los resultados pueden ser negativos, podríamos crear la torre de Babel, y la consecuencia sería fatal, el fracaso y el descrédito más rotundo. De aquí la importancia de que el país, y Euskо-Ikaskuntza, por supuesto, reconozcan a Euskaltzaindia como lo que es, como la Institución que fue creada y encargada por el país para esto, para servir de guía en orden a dictar la normativa de la lengua.

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

1979-V-25

Iruñean, Nafarroako Erakustokian, 1979. eko Maiatzaren 25ean, Goizeko hamaika eta erdietan, bildu dira: L. Villasante buru, J. L. Davant, X. Diharce, D. Intza, A. Irigaray, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J. Acha, J. Basterretxea, R. Camblong, P. Charritton, J. Estornes Lasa, J. Fernández Setien, M. Garde, J. L. Lizundia, J. Oregi, J. M. Torrealday, P. Zabaleta eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak.

J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Goizean zuzendaritzakoen bilkura egin da lehenik zenbait pundu zehaztuz. Nafarroako elebitasunaren egoerari erantzuna emanez agiri bat irakurtzea erabaki da.

Camara de Comptos-en emana ziguten ordezkaritza kentzen zaigula adieraziz mintzatu berri da Diputazioko lehendakaria Villasante euskaltzainburuarekin. Horren ordez Nafarroako Erakustokian egongo omen gara beste tokien bat aurkitu arte. Aretoa beste gela batekin eman digute. Ez da, beraz, prestaturik zegoen gure ordezkaritza estreinatzerik izan.

Bezperan izana zen Zuzendaritzakoen batzordea Amadeo Marko jauna agurtzen Nabaskozen. Berak sortua zuen ofizialki Euskaltzaindiaren ordezkaritza, eta esker oneko diploma bat eman dio euskaltzainburuak.

Batzar irekian lau nafar euskaltzaleen ehun urteburua ospatu da. Malon diputatu jaunaren ongietorriarekin nasi da batzarra, Nafarroako Erakustokian.

Aita Villasante euskaltzainburuak, agurtu ditu gero entzuleak.

Juan Etxamendi, Luzaideko "Bordel" bertsoalariaz mintzatu da J. M. Satrustegi; Bidankozeko, Prudentzio Hualderen berri eman du J. San Martinek; Kaparrosoko, Zelestino Peralta "Arrigarai" gogoratu du. A. Irigaray jaunak; Azkenekoz, aita Bonifazio Ataungoa, Lezoko aita Jose Iturria arantzarraz mintzatu da.

Batzarrari bukaera emateko J. I. del Burgo, Diputazioko lehendakariak bere txostena irakurri du.

Bazkal ondoan Bizente Galbete, "Príncipe de Viana" elkargoko zuzendariak, bere ahaide Arturo Kanpionen nortasun eta bizi pasartez txostena irakurri du. J. A. Arana Martijak eman dio erantzuna.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — *J. M. Satrustegi*

1979-VI-29

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1979. eko Ekainaren 29 an, arratsaldeko lauetan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar, buruordeko, J. L. Davant, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez "Txillardegi, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, F. Mendizabal, P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M. Satrustegi idazkari dela.

Diharce, Hiriart-Urruty eta Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Maiatzeko batzar agiria onartu da.

a) *GOIZEKO BILKURAREN BERRI*

Datorren hileko bilera Uztailaren 20an, Elizondon izango dela aditzera eman da. "Fiestas Euskaras" izen haundiko biltzarren mendeurrena ospatzeko eratu diren eginkizunetan sartzen da.

Gipuzkoako Aurrrezki Kutxa Probintzialak bere kontseilaritzarako egina zuen eskariari erantzunez, Juan San Martin izendatu da Euskaltzaindiaren ordezkari.

Bergarako Biltzarrean "H"ari buruz lana zehazteko izendatu zen batzordeak lehen hitz-zerrenda ekarri du. Lehen-bait-lehen aurkezpena egiteko gelditu da.

b) *DAGOZKIEN BATZORDEEN AZALPENA*

Irakaslego batzordeak, azkeneko azterketen ondoreak ikusirik, programatze berriaren beharra agertu du. Izan dituzten eragozpenen berri eman dute. Udan ez da azterketarik egingo, Nafarroako ikasleentzat ezik.

Administral hiztegiko lankideak bildu dira eta helburuen berri emanik, aztertu beharrak diren iturriak aipatu eta lanerako prozedura mugatu da.

"Euskararen Lekukoen" batzordeak Lizarraga Elkanokoaren liburua berehala ateratzekoa dela jakin du. Denbora berean, Patxi Altunak Etxeparez egina duen lana ikusi eta bilduma honetan argitaratzea erabaki da.

c) *TXOSTENAK*

Joseba Intxaustik, Barzelonan, *Euskararen Liburu Zuria* eta beste estudio biak aurkeztu direla aipatu du. Bertako Unibertsitatean egin zen eta oso harrera ona izan dutela azpimarratu da.

"Euskal alfabetoaren letrak" gaitzat harturik irakurri du Xabier Kintanak bere txostena. Hilabeteko epean oharrak bialdu daitezke.

Karlos Santamaria jaunak etortzerik ez duela adierazi du eta ez da bere gaia ukitu.

Eta besterik gabe, ohi den otoitzarekin amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

L. Villasante — *J. M. Satrustegi*

1979-VII-20

Elizondon, 1979. eko Uztailaren 20an, "Euskal Jaien" lehenengo mendeurrena ospatuz egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordeko, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. Atxa, P. Charritton, M. Izeta, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M. Satrustegi idazkari dela.

Hiriart-Urruty eta Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

a) *GOIZEKO BILKURAREN BERRI*

Baztango Udaletxean, goizeko hamaiketan, gai hauek erabili dira:

1. Gernikako Estatutuan Euskaltzaindiari buruz egindako aldaketa ikusirik, bere ofizialtasuna Lizarrakoak zalantzarik gabe aitortzen zuela adieraztea erabaki da, oraikoa, atzerakada arriskugarritzat emanez.

2. Erakusleen erabakia. Bergarako Batzarrean aztertutako gaietan, erakusleena zegoen erabakiaren zai. Ergatiboa eta pasiboa, *hauk/-hauek...* bereiztea ala ez, zegoen zalantzan. Eztabaidatu ondoan, bozkatu egin da. Ez bereiztea onartu da bederatzi botoz. Hiru txartel agertu dira aurka. Hauek, horiek, haiek, izango dira beraz bietarako esaera bakarrak.

3. "H"-ri buruz, oinarrizko bide batzu ikusi dira, datorren batzar batera hitz zerrendaren mugaketa ekartzeko.

b) *BATZAR IREKIA*

Arratsaldeko seietan, Elizondoko Zirkuloan egin da batzar irekia. Timoteo Plaza, Baztango alkate jauna mintzatu da lehenik batzarkide guziei ongietorria ematen.

L. Villasante Euskaltzainburuak egin du gero, Euskal Akademiak esku artean dituen eginkizunak aipatuz.

Euskaltzainburuak Jon Oñatibia euskaltzain laguntzailearen hil berria eman du.

J. Haritschelhar jaunak eman du, gero, duela ehun urteko "Euskal Jai" haien berri.

J. San Martin euskaltzainak, Bruno Etxenike euskal idazle baztandarraren bizitza eta lana aztertu ditu.

M. Izeta euskaltzain laguntzaileak, Baztango euskararen egoeraz txostena irakurri du.

Jose Urroz irakasleak, "Gau eskolak" izenarekin alfabetatze-euskalduntzen egindako lana aurkeztu du.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — *José M.ª Satrustegi*

1979-VIII-27

Gernikan, Bizkaiko Juntetxean, 1979.eko Abuztuaren 27an, arratsaldeko seietan, Seber Altube euskaltzainaren mendeurrena ospatuz egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordeko, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, E. Larre, K. Mitxelena, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, J. M. Aranalde, P. Arregi, M. Atxaga, J. Basterretxea, J. Berrojalbiz, F. Bilbao, P. Charritton, J. A. Etxebarria, X. Kintana, I. Laspiur, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, L. M. Mujika, J. Oleaga, S. Onaindia, J. Oregi, J. A. Retolaza, M. Ruiz Urrestarazu eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M. Satrustegi idazkari dela.

A. Zavala, J. M. Barandiaran, J. Gorostiaga, D. Intza, A. Labayen, P. Lafitte eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Dionisio Abaitua Gernikako alkate jaunak ongietorria eman die batzarkideei, eta Jose Antonio Ardantza Arrasateko alkate jaunarekin batean mahai nagusian eseri da.

L. Villasante, euskaltzainburuak, agurraren ondotik, ospakizun honen asmo eta helburua agertu ditu. Gernikako hau, urte guzian egitekoak diren lanen hasiera dela esan du, Arrasateko Biltzarra eta Nazioarteko Euskalarien Aurkiketak gertakizun nagusi bezala azpimarratuz.

K. Mitxelenak gramatika lanen gaurko egoera aipatu du bere txostenean, Seber Altubek arlo horretan egindakoa gogora ekarriz.

J. L. Lizundia eta J. A. Letamendia, antolakizun eta hizkuntzarekiko batzorde bien idazkariek, Abenduko Biltzarreko aurregitaraua aditzera eman dute.

J. San Martinek, Nazioarteko Euskalarien Aurkiketak aipatu ditu bere txostenean, datorren udan egitekoa den gertakizun berri honen berri eman eta helburuak azalduz.

J. M. Velez de Mendizabal mintzatu da, gero, Seber Altube zenaren bizitzari buruz.

J. A. Arana Martijak, Seber Altube bera euskaltzale bezala eta Gernikako euskara aztertu ditu, bertako idazle eta idazlan ezezagunak agertuz, batez ere Domingo Kanala-Etxebarria.

GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Goizeko hamaiketan, euskaltzain osoek Gernikako Udaletxean egin dute hilabeteoroko batzar arrunta.

H-ari buruz egitekoa den izen zerrendan jarraituko dire irizpideak zortzi pundutan finkatu eta ontzat eman dira. Iraileko batzarrera azken zerrenda ekartzeko gelditu da batzordea. Beste hilabete baten epea utzirik, eta jasotako oharrak kontuan direla, Urriko batzarrean emango zaio ondar birrespena.

Euskaltzaindiaren IX Biltzarrerako izendatuak diren batzorde bietakoak, Hizkuntz eta Antolakizunekoak bertan direlarik, aurregitaraua eta gaien banaketa egin da. Hasiera Abenduaren hogeian, ostegunez, eguerdiko hamabietan izango da, sarrerako hitzaldi eta aurkezpenarekin. Arratsaldean, hitzaldi edo txosten hauek emango dira, lauretatik aurrera: A. Irigoyen, "Galdegaiaren arazoaz azterketak eta proposamenak"; A. Arejita, "Aditzaren galdegaitasunaz"; L. Akesolo, "Galdekizunari buruz xehetasun batzuk"; P. Altuna, "Zenbait sintagmaren batasun hauskorra Ziburuko Etxeberrirengan". Hogeitabatean, ostiralez, beste hauek: M. Azkarate, "-N eta -Z atzizkiak denborazko sintagmetan Axularrengan"; E. Knörr, "Bezala" gaizki erabiltzeaz; "A-hal, -a eta direla eta, zenbait proposamen"; "Beharreko", "Beharrezko" eta antzekoak; K. Rotaetxe, "Euskal ergatiboaren sujetotasunaz"; "Lekutasunezko formen mugabidea ta determinazioa"; I. Sarasola; J. Haritschelhar, "Aditz izenaren morfosintasia"; J. A. Letamendia, "Leizarragak partitiboz dakartzan partizipioak"; P. Lafitte, "Aditzaren aspektuez"; A. Eguzkitza, "Aditzaren aspektuaz". Hogeitabian, larunbatez, R. de Rijk, "Errelatiboa idazle zaharretan"; L. Villasante-M.ª P. Lasarte, "Perpaus kausalak Lapeyre idazle baitan"; R. Badiola, "Perpaus kausalak Mogelengan"; P. Goenaga, "Perpaus konpletiboak Agirre Asteasukoarengan"; J. A. Mujika, "Zenbait konpletiboren azterketa" (J. Leizarraga); K. Mitxelena, "Baldintzazko perpausa". Sarrera, hitzaldi eta txosten hauek Arrasateko Politeknik Ikastegian izango dira, tartean elkar hizketa eta atsedenaldia izanik. Hogeitahiruan, goizeko hamaiketan, Udaletxean, Euskaltzaindiaren batzar irekia IX Biltzarrari amaiera emanez.

Aurregitaraua behin behineko da eta Hizkuntz batzordearen hurrengo bilera baiño lehen, nahi duenak, zuzenketa edo oharrak egin ahalko ditu, gero era bat finkatua uzteko.

* * *

Arratsaldeko batzar irekia, Gernikako Andra Mari Koralak abestu dituen kantuekin hasi eta amaitu da. Entzundako abesti gehienak Seber Altubek berak gertatuak izan dira.

Batzarra amaitu ondoan, Juntetxean meza eman dute hildako euskaltzaleen alde, bertan ziren elizgizonek. Han zen Elisabete Altube, Seber zenaren biloba, Paristik ospakizun hauetara etorria.

Meza ondoan, hilerrira joan dira batzarkideak, Seber Altuberen hilobian otoitz egin eta lore burute bat Euskaltzaindiaren izenean ezartzera.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

Luis Villasante — *José M.ª Satrustegi*

1979-IX-28

Donostian, Diputazio Jauregian, 1979.eko Irailaren 28an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra, bildu dira: L. Villasante buru, A. Irigaray, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez "Txillardegi", M. Atxaga, P. Charritton, X. Garmendia, J. Intxausti, X. Kintana, J. M. Lekuona, J. L. Lizundia, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta L. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoizarekin hasi da batzarra.

Karl Bouda euskaltzain ohorezko, eta Sauveur Narbaitz euskaltzain urgazle jaunen hil berria eman du euskaltzainburuak.

Karlos Garaikoetxea, Euskal Kontseilu Nagusiko burua, ikusten izan da Bilbon Euskaltzaindiko Zuzendaritza. Aurrez Hego Euskal Herriko bost gotzai eta lau Diputazioetako lehendakariei egindako ikustaldien jarraipena dela adierazi du idazkariak.

GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Euskaltzaindiaren Arautegia aldatu beharra dagoela ikusi da, lehenik:

a) Eskuartean dituen ala izan ditzakeen jabegoa legeztatzeko.

b) *Euskaltzain laguntzaile* esaeraren ordez, *euskaltzain urgazle* berriro sartzeko.

c) Urgale eta euskaltzain ez direnen laguntza lortu nahian, lankide maila berri bat sortzeko. Lankide hauen Euskaltzaindiarekiko lotura beren lanaren iraupenaz mugatua izango da. Urriko batzarrera aurretexto bat ekarriko du idazkaritzak.

Izendapen berrien arazoa ukitu da. Lau urteren buruan euskaltzain urgazle izendapenak egitea komeni dela ikusi dute batzartuek.

Gero eta gehiago dira langileen euskal etsaminetarako Euskaltzaindiaren ordezkariak eskatzen dituzten Udal edo bestelako erakunde ofizialak. J. J. Zearreta eta P. Uribarren izendatzen dira, Bilbon hartzen diren deiei erantzuteko eta X. Mendiguren eta J. A. Letamendia, Donostian hartzen direnei.

DAGOZKIEN BATZORDEEN AZALPENA

P. Charritton euskaltzain urgazleak H-ren batzordeak egindako lanaren berri eman du. H-dun hitzen zerrenda euskaltzainen artean banatu

du, datorren Urriaren 15 arte oharrak egiteko epea mugatuz. Iritzi guziak jaso ondoan Euskaltzaindiak beste batzar bat eginen du azken erabakia hartzeko.

A. Irigoyen euskaltzainak, deklinabidearen batzordeak prestatu duenerabaki proposamena irakurri du. Bergarako biltzarraren ondore bezala agindu zitzaion lan hau.

Euskara batua eta Euskalkiak direla-ta, bigarren agerpena zabaldu da batzartuen artean. Arazo honek ez zuela behar zuen bezalako zabalkunderik izan, esan zen Foruan. Oraingo hau, hutsune hori betetzera dator.

J. M. Iriondo euskaltzain urgazleak Bertsolari batzordearen berri eman du. Zenbait bileraren ondorez, azkenean, Eguberri aldera bertsolari txapelketa antolatzeko asmotan dira.

X. Kintana eta A. Zatarain jaunek gertatu dute letren izenei buruz txostena. Gidapen edo oinarri bezala ontzat eman du Euskaltzaindiak.

TXOSTENAK

P. Charritton jaunak Ipar aldeko "Bai Euskarari" kanpainaren kontu eman du.

L. Villasante Foru jardunaldietaz mintzatu da, eta J. M. Satrustegik berorien egunoroko kondakizunen berri eman du.

P. Lafitte euskaltzainak, azkenekotz, Duvoissin kapitainari buruzko txostena ekarri du, idazle honen bizitzaz eta lanez xehetasun jakingarriak jakineraziz.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*

A. L. Villasante — *J. M.ª Satrustegi*

1979-X-26

Donostian, Diputazio Jauregian, 1979.eko Urriaren 26an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, X. Diharce, J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J. M. Satrustegi, eta A. Zavala euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. M. Aranalde, M. Atxaga, P. Charritton, J. M. Etxaburu, J. Fernandez Setien, X. Garmendia, J. Goikoedia, J. L. Lizundia, I. Sarasola, M. Ugalde, A. Zatarain, eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Villasante euskaltzainburuak, Pierre Bordaçaharre, Etxahun Irurikoa zenaren hilberria eman du. Haritschelhar buruordeak egin du gero euskaltzain urgazle zenduaren eta bere lanaren aipamena.

Azken batzarreko agiria ontzat eman da.

GOIZEKO BILKURAREN BERRI

San Martin euskaltzaina itzultzaileen eskola sortzeko premia gorriaz mintzatu da. Buru egingo duen zuzendari baten gertatzea aipatu du gero, eta bere ikasketak egitera norabait bialtzeko bidea ere balegokeela.

Irigoyen euskaltzainak deklinabideari buruz egindako lana aurkeztu du, etorritako oharrak kontuan harturik. Pare bat puntu kenduz gero, ia dena dago erabakitzeko prest, eta datorren bileran hartuko da azken erabakia.

H-ren arazoak beste luzapen txiki bat izan du, hartutako oharren kopurua kontuan dela. Ibon Sarasolari zuzenketa guztiak sailkatu eta zerrendak bateratuz azken erabaki baterako prestatzea eskatu zaio. Datorren Azaroko bilera batean azken erabakia hartzeko gelditu da.

Alfabetoko letren izenak ere ikusi dira, eta ikutu batzu emanik, azken erabakirako gertu gelditu da lana.

BATZORDE LANAK

Administralgo hiztegiaren batzordea bildu da goizean. J. L. Lizundia batzorde idazkariak eman du bilkuraren berri, hitz zerrenda banatuz. Bestalde, Angel Garcia Ronda, E.K.N.an "Administración Municipal" saileko kontseilaria bilkuran zela adierazi du, Kontseilaritza eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak zein mesedegarri diren azpimarratuz.

TXOSTENAK

J. M. Etxaburu "Kamiñazpi" jaunak, *Har eman, hartu eman* esaerei buruz txostena irakurri du. Eztabaida sortu du bere hitzaldiak.

Pedro Pujana jaunak *ahalezko aditz-jokoak* aditz formak aztertu ditu, batez ere Altuberen lanetan oinarriturik. Txosten honek ere solasaldi luzea sortu du.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Luis Villasante

Idazkaria
J. M. Satrustegi

1979-XI-30

Donostian, Udaletxeko batzar aretoan, 1979.eko Azaroaren 30ean, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, J. San Martin, J. M. Satrustegi, eta A. Zavala euskaltzain jaunak; P. Altuna, X. Aranburu, M. Atxaga, I. Goikoetxea, P. Charritton, J. M. Etxaburu, J. Fz. Setien, X. Garmendia, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, X. Kintana, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, L. M.ª Mugika, A. Zatarain, eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, P. Larzabal eta J. M. Lojendio jaunek ezin etorria adierazi dute.

Alkain, Donostiako alkate jaunaren ongietorriarekin hasi da batzarra. L. Villasante euskaltzainburuak eman dio erantzuna. Bere lanbideetara joan-beharra agertu du, gero, udalburuak eta Euskaltzaindikoen artean egin da bilera.

ERABAKIAK

Bi egunez bildu dira euskaltzain osoak, Donostiako Diputazio jauregian, Bergarako gaiei buruz azken erabakia hartzeko. Bezpera arratsaldean, H letraren zerrenda osoari begiratu zehatza eman zitzaion, eta berdin deklinabidearen proposamenari ere.

Egun, berriz, azken punduren batzu eztabidatu ondoan, isilka betetako txartelen bidez, bozketa egin da.

a) *Deklinabidea.* A. Irigoyen jaunak aurkeztu du deklinabidearen batzordeak gertatutako proposamena. Hamabi euskaltzain oso egon dira une horretan. Davant eta Larzabal euskaltzainek Haritschelhar buruordeari eman dizkiote, idatziz, beren botzak. Iratzederrek, halaber, Lafitteri. Aho batez onartu du Euskaltzaindiak batzordearen proposamena, boto zuri bat izan ezik.

b) *H letraren arazoa.* Batzordeak jasotako ohar guztien orraztapena Ibon Sarasolak egin dio Euzkaltzaindiari. Azken punduak ikusi ondoan egin da bozketa. Gai hau mahai gainean zegoela, sartu da A. Irigaray jauna, eta berak ere bozkatu du. Hamasei txartel ziren, beraz, oraikoan. Hauetatik hamahiru baiezkoak, eta zuri beste hirurak. Beraz, zerrenda eta oinarriak Euskaltzaindiaren eritzitzat onartuak gelditu dira.

Krutwig euskaltzainak adierazi zuen, ez zegoela aukeztutako lanaren aurka, baizik eta gai horretan beste ikusmolde bat zuela berak. Horregatik eman zuen zuri.

c) *Alfabetoko letren izenak.* X. Kintanak aurkeztu zuen lehen proposamena, gero A. Zatarainek egindako zenbait zuzenketarekin bateraturik ekarri da, nahiz eta azkenan zenbait puntutan osoki batera ez etorri. Letra bakarkakoen zerrenda aztertu du oraikoz, eta letra hauen izena bakarrik; ez balioa. Bozkatu eta onartua izan da proposamena.

Argitalpena. Bergarako batzar osteko erabaki eta agerpen guztiak liburuska batean argitaratzeaz hitz egin da gero. Lehen-bait-lehen egiteko gelditu da. Honako lan hauek sartuko dira: Euskaltzainburuaren hitzaurrea. Bergarako adierazpena. Adierazpenean agindutakoa betetzeaz. Kontsonante busti-palatalen grafia. Erakusleen formak. Deklinabidea. H letraren ortografi arauak eta hitz zerrenda. Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak. Euskal alfabetoaren letren izenak.

Euskaltzaindiaren agerpenetan, Hezkuntza ministeritzari egindako eskaria, "Euskal Herri" hitza ez baztertzeaz, Nafarroako euskararen egoera. Azkenik, batasunari buruzko bibliografia.

DAGOZKIEN BATZORDEEN AZALPENA

Euskera aldizkariaren batzordeak hurrengo zenbakiaren aurrelana egin duela adierazi du. Lanen hautapena eta programaketa ikusi ondoan, inprimategirako omen dago.

Ondoren, J. A. Letamendia eta J. L. Lizundia, IX. Biltzarreko Hizkuntz eta Antolakizun Batzorde idazkariek, datorren hilaren 20, 21, 22 eta 23an, Arrasaten, Sebero Altuberen omenez egingo den Biltzarraren egitaraua eta xehetasunak azaltzen dituzte.

TXOSTENAK

J. A. Arana Martija jaunak, Mexikon XVII. mendean argitaratutako liburu batean agertzen den euskal zatiaren berri eman du bere txostenean. Libuaren izenburua, hau da: *Vida del Apóstol Santiago el Mayor.*

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

* * *

Berehala, *Euskal Herriko Udalen Izendegia* aurkeztu da, Gasteiz, Iruñea eta Durangon egina zenaren antzera.

Euskaltzainburua
Luis Villasante

Idazkaria
J. M.ª Satrustegi

1979, Abendua

I. BILKURA BEREZIA. Arrasaten, Politeknika Ikastegian, 1979.eko Abenduaren 20an, goizeko hamaika t'erdietan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, eta J. San Martin, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigaray, P. Larzabal, eta L. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute. E. Larre arratsaldean dator.

Deia eginda dagoen bezala bilkura berezi honetako gai bakarra euskaltzain ohorezko eta urgazle berrien izendapena da.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabalek bozketarako ahalak, J. Haritschelhari ematen dizkiote; X. Diharce eta E. Larrek, P. Lafitteri; eta L. Mitxelenak, E. Knörri.

Bilkura honetan arautegiaren 21., 22., 37., 38., eta 39. arauerako prozedura jarraituko da.

Bina euskaltzainek izkribuz egindako proposamen arrazoituak irakurri dira lehenik, eta banan-banaka bozketak eginez, jaun hauek izendatzen dira aho batez:

— Euskaltzain ohorezko: Gerardo Lopez de Gereñu Galarraga, Santiago Onaindia Baseta, Bedita Larrakoetxea Agirrezabala, Nemesio Etxaniz Aranbarri, Casto Inza Arbeo (Aita Jorge Riezu), Etienne Salaberry, Justo Garate Arriola eta Julio Caro Baroja.

— Euskaltzain urgazle: Daniel Landart, Jean Baptiste Etcharren Lohigorri, Junes Casenave-Harigile, Juan Apezetxea Perurena, Francisco Ondarra Erdozia, Federico Barrenengoa Arberas, Pedro Sancristobal Murua, Pedro Pujana Agirregabiria, Karmele Rotaetxe Amusategi, Jose Antonio Arana Martija, Eustasio Etxezarreta Zelaia, Jose Ignacio Telletxea Idigoras, Joxe Garmendia Arruebarrena, Patxi Goenaga Mendizabal eta Jose Antonio Mujika Casares.

Besterik gabe amaitzen da bilkura berezia.

Euskaltzainburua
Luis Villasante

Idazkaria
J. M.ª Satrustegi

II. *BILKURA BEREZIA.* Arrasaten, Politeknika Ikastegian, 1979.eko Abenduaren 20an, arratsaldeko seietan, bildu dira: A. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, eta Juan San Martin, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigaray, P. Larzabal eta L Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute. E. Larre Biltzar egun guztietan egon da, baina alde egin behar izan du Aiherrara.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabalek bozketarako ahalak, J. Haritschelhari ematen dizkiote; X. Diharce eta E. Larrek, P. Lafitteri; eta L. Mitxelenak, E. Knörri.

Bilkura berezi honen xedea Euskaltzaindiaren IX. Biltzarrekiko ondoronez erabakia hartzeko da.

Eztabaidatu ondoren, honako adierazpen hau aho batez onartu da:

1. Biltzar honetara aurkeztu diren lanak, bai erabili diren gaiez eta bai duten mailaz, aurrerapide dauzka.

2. Holako iker-lanak beharrezko ikusten ditu, bereziki Euskara historian zehar erabiltzearen usadio on eta ereduak euskal idazle eta irakasleengana zabal daitezen.

3. Bide honetan barrena jorraitzeko lan talde batzuren beharra, premia eta nahia erakusten da. Horretarako batzordeak sortuko dira.

4. Bere burua eskaintzen du koordintzaile hizkuntza alorrean egiten eta eginen diren lanetarako.

Honekin bilkura berezi hau amaitzen da.

Eta jarraian Biltzar honetan, euskaltzain ez diren, txostengileei deitzen die J. L. Lizundia Idazkariordeak eta jaun andere hauek agertzen dira: Adolfo Arejita, Aita Lino Akesolo, Patxi Altuna, Miren Azkarate, Juan Antonio Letamendia, Rikardo Badiola, Patxi Goenaga eta Jose Antonio Mujika.

Euskaltzainen eta txostengileen artean solasaldi interesgarri bat sortzen da, batez ere, adierazpenaren 3. punduari buruz. Aurrerago bilera bat egitea ikusten da Biltzar honetako lanek etengabeko segida izan dezaten.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*
Luis Villasante — J. M.ª Satrustegi

* * *

BATZAR IREKIA. Arrasaten, Udal Polikiroldegian, 1979.eko Abenduaren 23an, batzar ireki bat ospatzen da, IX. Biltzarrari amaiera emateko. Mahaipuruan: Arantza Akizu andereñoa, Arrasateko zinegotzia; L. Villasante, euskaltzainburua; J. Haritschelhar, buruordea J. M. Satrustegi, idazkaria; E. Knörr eta P. Lafitte euskaltzainak jartzen dira. A. Irigoyen, J. San Martin eta A. Zavala euskaltzainak; F. Artola, I. Beobide, J.

M. Iriondo, X. Kintana, I Laspiur, J. M. Lekuona, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, S. Onaindia, P. Uribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak ere bertan dira.

L. Villasante euskaltzainburuak agur bat egin ondoren, J. M. Satrustegi idazkariak Euskaltzaindiaren Biltzar honi buruzko adierazpena irakurtzen du.

Ondoren, J. L. Lizundia idazkariordeak, Abenduko batzarretan ohi den bezala, datorren urteko batzar egutegia irakurtzen du. Uztailaren azkenean edo Abuztuaren lehen egunetan, Beran, ospatuko da Euskal Jaien mendeurrena; Gernikan, Abuztuaren azken astean, Nazioarteko Euskalarien Jardunaldiak eta *Euskal Erria* aldizkariaren mendeurrena azpimarratzen ditu.

Jarrain, 20an izendaturiko euskaltzain ohorezko eta urgazle berriei izendapen agiri-diploma banatzen zaie, bertan baitira gehienak.

Eta batzar ireki honen segida bezala Euskal Herriko Bertsolari Txapelketari hasiera ematen zaio.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*
Luis Villasante — J. M.ª Satrustegi

BATZAR-TXOSTENAK

GRAMATIKA

AR EMAN ALA ARTU EMAN?

Donostia, 1979-X-26

Etxaburu'tar Jose Mari (Kamiñazpi)

Euskaltzain jaun agurgarriok:

Nire ustez, azken urteotan gauzatxo batzuek okertu dira euskeran. Bear bada ez da zuzena nire iritzia, oker dagoena ni izan nindeke. Ta orregatik, okertzat dauzkadan gauzatxo oiek galbaian igaro nai ditut, nik baiño geiago dakitenen aurrean jarri ea nolako epaia izaten duten.

Gaur bigarren kontutxo batekin nator. "Artu eman" eta "ar eman" dira zuek epaitzea nai nituzkean itzak.

Egia esateko, esateko modu biak dira jatorrak, biak dira ongi esanak.

Nik nere errian "artu emona" esaten ikasi nuen. Gu ondarrutarrok itzak laburtzen txapeldunak bagera ere itz auek eta sail berekoak, oso-osorik esaten ditugu. Ta nere erritik kanpora ere besterik ez det aditu. Beti "artu emona" edo "artu emana". Besterik bein ere ez det aditu erriaren aotik; literatura idatziaren influentziarik izan ez duen erriarengandik esan nai nuen.

Orain azkenengo urteotan ordea, "artu emona" edo "artu emana" zearo aldendu da euskera idatziatik; gazteak oso-osorik "ar emana" artu dute ta len bestea erabiltzen zuten askok ere haztertu egin dute beren lenbizikoa ta azken aipatutakoa bakarrik erabilli.

Ez dakit, aginduren bati jarraitzea ala berezko joera izan dan au. Dana dala, len, ia beti guztiok erabiltzen genuen era zergatik dan jakin gabe baztertzea, ez zait gogoko izan eta auzi oni ekin naian nenbillen.

Eta gauzak itsumustuan esan gabe iztegiei begira jarri naizenean gutxien uste nuenarekin tope egin det, Azkue'k era bi desberdiñotan zerbait berezkuntza arkitzen du. "Ar emana", diru kontu edo negozioetako artu emanak adierazteko erabiltzen omen da. Ta, bestea, beste artu eman guzietarako, noski.

Guk, mota guztietako artu emana adierzteko, itz au erabiltzen degu. Ta besteak, "ar emana" itza artu dutenak ere berdin; naiz adiskidetasun, naiz sexu, naiz diru artu emanak adierazteko darabille.

Beraz, Azkue'k dioenari jaramonik egin gabe, esateko era biok artu eman guztiak adierazteko bai lirakean artuko ditut.

Len, oraindik nire denporetan, "artu eman" itzak besteak baiño indar geiago izan du nere ustez. Eta ez itz egiten bakarrik baita literatura idatzian ere. Bestela izan balitz, "ar emana" irakurtzen oitua egon banintz, ez zitzaidan arrotz egingo gero indarra artu duenean.

Nere iritzia indartu naian, joera berria nagusitu aurrean nola idazten zan erakusten duten esaldi batzuek jaso ditut.

"Gogoan euki daigun giza artu-emonetarako, batasunezko eta errijaz bizi dan idatz izkerarik euskeran arkitzen ez badogu, gura nai ez, erdereetakora joko dogula danok utsune ori beteteko" (Altube, EUSKERA, XIX, 1974).

"Mingarria da Urruzunok, ijitoekin ainbeste artu eman izan zituan euskaltzale argi arek, ijitoen mintzaira bereziko itzen iztegitxo bat ez eratzea" (Arrue, EUSKERA, XIX, 1974).

"Erriarekin eten gabeko artu-emanetan bizi zala esan bearra degu..." (A. Zabala, EUSKERA, XIX, 1974).

"Eta euskeraren muin edo arima hori, nola edo non ikasi? Euskaldun jatorretatik batez ere. Hoiei entzunez, hoiekin hartu eman izanez" (Villasante, EUSKERA, XIX, 1974).

"Ba-dakigu artu-emon andia izan ebala Azkue zanak Ikastetxe orretako sortzalleekin" (Akesolo, EGAN, 1-6-1968).

"Arrezkero ez zan giro izango erekingo artu-emonetan" (Juan San Martin-ZIRIKADAK).

Toribio Etxebarria'ren "Arrate'tikuen Izketia" izeneko eibartar iztegian "artu emona" (comercio) ta "artu emonak" (relaciones) datoz; baiña "ar emona" ezertarako ez dator.

Eta jaun auek baiño beranduago idazten asi ziran gazteak ere lenbizikoan, olantxe idazten zuten: "artu emana".

Ara nola:

"Gauregun mundu guztian zabalduta dago eta ezin ukatu daiteke gizon artean daukon artu emona" (*Yakin,* 3'gn, 1957'garren urtea).

"Elizaren eta afrikatar Erri gazteen arteko artuemanak" (*Yakin,* 13'gn, 1960'garren urtea).

"Nazio bakoitzentzat zein garrantzitsu dan beste nazioekin darabilzkin sal-erosketarako artuemanak, batez ere azkeneko aldi ontan argi agertzen da" (*Europa* idaztiñoa).

"Afrika'rekin artu-eman aundia dauka ta tratatu bat ere bai" (*Europa* idaztiñoa).

Esan dedan bezela, len, gure gazte denporetan da, olantxe idazten zan beti edo geienetan: "artu eman".

Baiña auzia obeki aztertzeko, antxiña, orain eun, berreun edo lareun urte nola idazten zan jakiten asten bagera, orduan ere "artu emana" idazten zala konturatuko gera. Jakiña, olako itzak noizik bein agertzen dera ta nai aiñako pillarik ezin egin. Baiña beintzat nik arkitu ditudan apurrak, guztiak, nire esanak sendotzera datoz.

Ara emen:

"Artu emanac du gustua" (*Textos Arcaicos Vascos,* Mitxelena).

"Erdera ez dakien euskaldunak, euren etxeetan ta artu emonetan bear daben guztia esaten dabee euskera garbian (Aita Bartolome).

"Ez dauka onek orrelango artuemonik gaiskiñakaz" *(Peru Abarka).*

"Nola beren familietako artu emanak ta beste bear diran gauzak ondo aditu ta zuzenduko dituzte" (Kardaberaz).

"Deitu gabe Juntarik
illunbe moduan
artu-eman garbirik
ez oi da munduan"

(Muñagorri'ren bertsoak)

Añibarro'ren *Esku Liburua*'n dagoela ta Azkue'k bere *Morfologia Vasca*'n jartzen du:

"saldu erosietan eta artu emonetan"

Nire ustez auzi au zerbait argitu genezake, eztabaidara atera dedan itzaren antzekoak nola esaten diran begiratuaz.

Jakiña, lenbiziko aditz izena kontsonantean amaitzen diranak ez dira kontuan artu bearko; "jan edana", "joan etorria" ta olakoak ez ditugu aintzat artuko.

Ara ondoren artu izan ditudan apurrak:

"saldu erosietan" (Añibarro).

"begi itxi edegi bateko ikustia" *(Peru Abarka).*

"kendu iminijak" (Azkue'ren iztegiari egindako osagarrian).

"Ze joño! kale izenak ez dira bi urtetik bein kendu ipiñiko txartelak" (Joño, *Deia*).

Ta geuk esaten ditugun bi auek:

"jantzi erantzia" ta
"sartu urtena"

Azkenengo au elizkizun baten izena zan Ondarru'n. Ez dakit, aita prantziskotarrak edo, nortzuk zabalduta, urteko egun jakin batean, zazpi elizetan sartu ta zerbait errezatzen zutenak parkamen edo indulgentziak irabazten zituzten. Baiña zazpi eliza ez dauden erritxoetan eliza batera zazpi bidar sartzea ere berdin zan. Eta egun ori eltzean, Ondarru'n, eliza zaleak, batez ere andreak, an ibiltzen ziran eskalleretan gora ta bera, elizan sartu ta irten, espanetan otoitza zutela. Ta orri, len esan dedan bezela, "sartu urtenak" esaten zitzaion, ez zuen beste izenik.

Beraz, adibidetzat artu genitzakean itz auek guztiak osorik esaten dira. Iñork ez du esan edo idatzi: sal-erosia itxedegia, jantz-erantzia, ken ipiñia ta abar.

Egia, "salerosketa" asko irakurtzen da; baiña neologismoa izan liteke. Beintzat Azkue'k "salmenta" jartzen du baiña "salerosketa" ez.

Dana dala, ezpaian jarri litekean itzen bat gora-bera, beste guztiak osorik esaten dira. Besterik ez.

AHALEZKO ADITZ-JOKOAK

Donostia, 79-X-26

Pedro Pujana

Aditzaren garrantzi handiko zati bat AHAL ERA deritzana dugu. Ahala (hots, gaztelaniazko "poder" aditza) tartean delarik sortu ohi diren aditz-jokoek osatzen dute Era hori.

Ikus:

— Nik lan hau egin *dezaket.*

— Hi bihar Bilbora joan *hinteke.*

— Harriren batek-edo buruan jo *nazake.*

— Sariren bat eman *zekiokeen.* Etab., etab.

Aditzaren Ahal Era hontan, baina, adizkerak oker eta oker erabiltzen dira. Huts eta huts egiten dela esango nuke. Geroago eta gehiago huts eta huts.

Eta Seber Altuberen mendeurrena ospatzen dihardugunez gero, eta ahalezko aditz-jokoon erabilkera hobekien berak zehaztu zigunez gero, maisu handi honek irakatsia gogora ekarri eta kontutan hartzea guztioi konbenigarri zaigula uste dut.

BITARIKO ADIZKERAK

Ahala edo gaztelaniazko "poder" aditza esaldiaren zati delarik euskaraz dauzkagun adizkerak bitarikoak ditugu.

Ikus:

— Ibili ahal naiz	- ibil naiteke	= Puedo andar.
— Eraman ahal dut	- eraman dezaket	= Lo puedo llevar.
— Ezin ibili naiz	- ezin ibil naiteke	= No puedo andar.
— Ezin ekarri dut	- ezin ekar dezaket	= No lo puedo traer.

Etab.

Azkuek honela:

"Hay dos maneras de indicar la potencialidad: la una, muy sencilla, en el verbo infinitivo; la otra, una verdadera maremagnum, en la conjugación. Muchas veces se simultanean las dos conjugaciones. Decimos, por ejemplo, etoŕi al naiteke "puedo venir", bastando para ello con etoŕi al naiz —potencialidad de infinitivo— o con etoŕi naiteke, que lo es de conjugación" (*Morfología Vasca*, Bilbo, 1925, 765 or.).

Aipatu ditugun adizkerok adiera berekoak ote dira? Ibili ahal naiz eta ibil naiteke adizkerek, esate baterako, edo ezin dut lorik egin eta ezin dezaket lorik egin adizkerek esan-nahi bera ote dute? Nahiz bata nahiz bestea erabiltzea berdin ote? Hauxe jakinkizun eta azterkizun.

AZKUEREN IRITZIA

"La misma fuerza tienen ezin etoŕi naiz "no puedo venir" que ezin etoŕi naiteke, ezin etoŕi al naiz y ezin etoŕi al naiteke (*Morf.*, 766 or.).

"La imposibilidad en las ideas presentes ofrece hasta tres grados de expresión: ezin jan det, ezin jan dezaket, ezin jan al dezaket "no puedo comer" (es imposible expresar la significación neta del segundo y tercer grado" (*Dicc. Vasc.-Esp.-Franc.*, ezin hitza).

Azkuerentzat, beraz, berdin-berdin da ezin etorri naiz eta ezin etor naiteke esatea, ezin jan dut eta ezin jan dezaket esatea. "Mis compañeros notan alguna diferencia que yo no percibo" dio berak (*Morf.*, 766 or., oharra).

SEBER ALTUBEREN IRITZIA

Seber Altubek, berriz, guztiz bestelako iritzia du. "El pueblo no contaminado del habla cervantina nunca llega a confundir ambas categorías de flexiones" diosku berak (Observaciones al tratado de *Morfología*, 127 or.).

Seber Altuberen irakatsien arabera, etorri ahal naiz ezin etorri naiz, jan ahal dut, ezin jan dut eta honelako adiz

kerak Ahal Erazko orainaldiari dagozkio. Etor naiteke, ezin etor naiteke, jan dezaket, ezin jan dezaket eta honelakoak, berriz, Ahal Erazko geroaldiari. Beraren hitzak aipatzea izango da argigarriena.

"Potencial Presente. Se usa cuando el acto está en ejecución, es decir, cuando la potencialidad está puesta a prueba. Ejemplos: a) Ezin ibilli naz (cuando se está caminando y no se puede andar). b) Ezin lorik egin dot (cuando se está acostado y no se puede conciliar el sueño).

Potencial Futuro Presente. Se emplea cuando el acto a que se refiere el nombre verbal debe ser realizado después del momento en que habla, aunque la potencialidad del sujeto sea considerada actual en dicho momento. Ejemplos: a) Eroan daiket "puedo llevarlo" (aunque no estoy llevando). b) Ezin lorik egin daiket, lan asko daukat-eta, "no puedo dormir", es decir, no puedo ponerme a dormir... c) Ezin daiteke etorri ordurako, ankako miñaz dago-ta, "no puede venir", es decir, no puede ponerse a caminar. Por eso, las locuciones euskéricas de Futuro Presente pueden revertirse a otras castellanas formadas por flexiones de subjuntivo. Ejemplo: Ezin ibilli naiteke, es imposible que pueda andar. Ezin lorik egin daiket, es imposible que pueda dormir, etc. En cambio, las potenciales de Presente se expresan con más exactitud por fórmulas castellanas gerundiales. Ejemplo: Ezin ibilli naz, estoy no pudiendo andar. Ezin lorik egin dot, estoy no pudiendo dormir..." (Observaciones..., 127 eta 128 or.; *Erderismos,* 249 or.).

"La frase española "no puedo venir" puede traducirse por las dos euskéricas que encabezan este párrafo (Ezin etorri naz = Ezin etorri naiteke), según sea el matiz de significación temporal que se quiere imprimir a dicha frase.

Algunos escritores euskaldunes (y con ellos un euskarálogo eminente, según lo manifiesta en un tratado publicado recientemente), no distinguen la diferencia semántica que presentan las dos locuciones expuestas, así como todas aquellas que pueden ser agrupadas en euskera bajo las denominaciones de Potencial Presente (Etorri al naiz, ezin etorri naiz) y Potencial Futuro Presente (Etorri naiteke, ezin etorri naiteke" (*Erderismos,* 248 or.).

ESAN-NAHI EZ-BERDINA

Aipatu ditugun adizkera bitzuok ("ambas categorías de flexiones", Altubek esango lukenez) ez dute, ez, adierazkizun berdina, guztiz bestelakoa baizik. "Belarri" apur bat izatea nahikoa da bestelakotasun honetaz jabetu ahal izateko. Azkue handia nola ez zen konturatzen ez dakit. Seber Altubek arrazoia zuela bistan da. Jakintsu honek zeatz-meatz agertzen digu adizkera batzuon eta bestetzuon esannahia. Ezin, beraz, zein bata zein bestea nor beraren gogara erabili. Zer adierazi nahi den eta orduantxe baizik.

Gaur, ordea, besterik dakusgu. Alegia, gaizki eta gaizki erabiltzen direla aipatutako adizkera bitzuok. Ez dakigu Ahal Erazko aditz-jokoak egokiro erabiltzen.

— Bihar ezingo gara inora joan.

— Ezingo dugu hitzik egin.

— Ezin zerate hemen gelditu.

— Ezingo duzu horrelakorik esan.

Honelako esakuntzak non-nahi eta noiz-nahi ikusten ditugu.

Adibidez:

— "Kristau ikuspuntutik ezin ditugu onartu... (*Aranzazu*, Iraila, 1978, 13 or.).

— "...eta itsu itsuan bide beretik segitzearekin ezin dugu aurreratu" (Ib., 12 or.).

— "Ur aundiek ezingo dute itzali maitasuna, ezta ibaiek ito ere" (*Orduen Liturgia*, 922 or.).

— "Ezin zerate izan Jainkoaren eta diruaren morroi" (Ib., 763 or.).

Hainbeste eta hainbeste adibide ekar daitezke.

Bihoaz, beraz, argibide batzu, Altube maisuak irakatsi zuena ulergarriago izan dakigun.

— Ibiltzen hasi eta bazabiltzala ikus badezazu, Ibili ahal naiz! esan dezakezu, ahal duzula zerorrek ikusi duzu eta, edo "cuando el acto está en ejecución, es decir, cuando la potencialidad está puesta a prueba", Altuberen hitzak aipatuz.

— Lotara joan eta buruko mina duelako edo, lorik ezin eginda dagoenak Ezin dut lorik egin! berez-berez esango du, ezin duela egin une hartantxe berak dakus eta.

— Kontu bat ateratzen ekin eta ekin jardun eta atera gabe utziz gero, Ezin dut atera ederki esanda dago.

— Korapilo bat askatzen jardun eta jardun egin ondoren, ezin askatu baldin badu, Ezin dut askatu esango du.

— Bizkarrean ehun kiloko lepokada hartu eta ozta-ozta izan arren ere, bazoazela ikus badezazu, Eraman ahal dut! pozik esango duzu, ahal duzula zeuk orduantxe ikusi duzu eta.

— Baina, bizkarrean hartu eta zuretzat gehiegi delako lurrera eror badakizu, Ezin dut eraman! esango zenuke.

— Egun guztian lan-da-lan egin behar duzulako, bazkalondokoa egiteko astirik ez baduzu, Gaur ezin dezaket bazkalondokorik egin esan behar duzu, eta ez Gaur ezin dut bazkalondokorik egin.

— Ezin naiz edo ezingo naiz Gernikara joan ez dago ongi. Ezin naiteke Gernikara joan esan behar litzateke.

— "Ezin jan det" eta "ezin jan dezaket" adizkeren artean bada alderik, Azkuek ezetz esan arren. Jaten hasi eta ahoan min duzulako-edo jan ezin bazeneza, orduan Ezin jan dut! ederki esanda dago. Lan-da-lan egin behar duzulako-edo, jateko astirik ere ez baduzu, ostera, Ezin jan dezaket esan behar duzu euskara jatorrez.

Hitz batez, laburkiro: Ahala edo ezina ikusi izana edo "cuando la potencialidad está puesta a prueba", Altubek esango lukeenez - garrantzi handiko araua da adizkera bata edo bestea noiz erabili behar dan jakin dezagun.

Seber Altube jakintsuak irakatsiari beste alderdi edo ikuspuntu batetatik begira bagakizkio, ulergarriago-edo ager dakiguke beharbada.

— Itsu batek ezin du ikusi. Ezin duela ikusi esan behar, hortaz. Eta ondorioz, ezin dezake ikusi. Jakina! Ezin ikusi du esatea, ordea, askoz gehiago da, ezin dezake ikusi esatea baino, ikusmenik eza edo "impossibilitas phisica" delakoa erakusten du eta.

— Baina, ikusmena edukiz gero, beste arrazoi batengatik zerbait ezin ikus badadi, ezin dezake ikusi edo zin daiteke ikusi esan behar da, ez ezin du ikusi edo ezin da ikusi.

Adibidez:

Pelikula hau ezin dugu ikusi, edo pelikula hau haurrek ezin dute ikusi gaizki dago euskaraz. Pelikula hau ezin dezakegu ikusi edo haurrek ezin dezakete ikusi esan behar genuke behar bezala hitz egiteko eta idazteko. Ikusmena badugu, izan, haurrek badute ikusmena. Ezin ikuste hori, beraz, beste arrazoi batengatik da, konbeni ez delako edo...

Hau dela eta, hemen ezin dugu hitzik egin, ezingo du gezurrik esan eta honelako esakuntzek euskaldun-euskaldun baten "belarrian" min eta min egiten dute. Hitz egiteko edo gezurra esateko ahalmena edo "possibilitas psyisica" delakoa badugu, izan, eta beste zerbaitegatik da hitzik ezin egite hori edo gezurrik ezin esate hori.

EZ DA JOSKERA JATORRA

— Ezingo gara Bilbora joan.
— Bihar ezingo dugu hitzik atera.
— Iñakik ezingo du han etxerik egin.

Honelako edo antzeko adizkerak dakartzaten esakunak sarri eta sarri irakurtzen ditugu gure egunotan. Idazle ononek ere horrelako esaldiak eskaintzen dizkigute noizikbehin.

— Ezin gaitezke Bilbora joan (gaur, bihar...).

— Bihar ezin dezakegu edo ezin genezake hitzik egin.

— Iñakik ezin dezake han etxerik egin.

— "Ur aundiek ezin dezakete itzali maitasuna, ezta ibaiek ito ere".

— "Ezin zaitezkete izan Jainkoaren eta diruaren morroi".

Honelaxe hitz egin eta idatzi behar litzateke Altube maisuaren irakatsien arabera. -Ke-hizkiak geroaldia (zein hurbila

zein urruna) adierazten du. Gure egunotan, baina, adizkeron geroaldiko esan-nahia galdu egin dela dirudi. Eta beste erako adizkerak erabiltzen horrexegatik.

Baina adizkerok jatortzat har bagenitza ere, hori joskera jatorra denik ez dut uste. Hauxe behar litzateke:

— Ezin joan izango gara Bilbora.

— Bihar hitzik ezin egin izango dugu.

— Iñakik ezin egin izango du han etxerik.

— "Ur aundiek ezin itzali izango dute maitasuna, ezta ibaiek ito ere".

Aditza ez da *ezin* soilik, ezin izan baizik. -Go (-ko) geroaldiko atzizkia, beraz, *izan*-i itsatsi behar zaio, ez *ezin*-i (Ikus *Morf.*, 768 or.).

LITERATURA

DUVOISIN KAPITAINAZ OHAR PURRUXKA BATZU

Donostia, 1979-IX-28

P. Lafitte

Duvoisin Kapitainari (1910-1891) euskal-literaturak leku nasaia emaiten dio. Aipatzen dutenak iturburu beretarik atera baitituzte beren berriak, zenbaiti gertatu zaie huts beren errepikatzea. Txosten huntan nahi nituzke zenbaiño agertu. Erran behar dut, nihaurek ere huts horietarik asko egin ditutala ene idazkietan, geroztikako irakurgai batzuek poxi bat argitu naute; eta beharbada txosten huntan makurrak xuxentzen ahalko ditugu. Ez uste izan hargatik harritzeko berriak entzunen ditutzuela: xehekeria zenbait baizik, ez zaizkizue salatuko.

Izen-deiturez bi hitz

Liburu gehienetan Jean Duvoisin errana zaio. Bizkitartean Hiriart-Urruty kalonjeak *Manex* emaiten zion izen ttipitzat: Larresoroko eskola paper guziek *Jean-Pierre;* eta aduanakoek *Jean-Baptiste.*

Duvoisin deitura ere ez da denetan berdin idatzia. Semenarioko dokumentuetan Duvois*ain* ekarria da. Nola nahi idaz dadin, Albert Dauzat hizkuntzalari zenak zaukan *Le Voisin* nehun ez zelakoan, hitz hori *leku-izen* bat zela etorkiz. Frantzia-eskualde ainitzetan herri askok dakartena, eta geroxago *deitura* bilakatua. Zenbaitek hauteman dute abizen hori ez zela euskarazkoa eta nola kapitainak bere burua nafartzat eman zezaken, ezin ulert.

Duvoisin-ek berak argitu izan du bere errana. Kondatzen zuen, baizik-eta 13-garren mendean. Tibaldo lehenak, Nafarroaren errege sartu zelarik, Xanpañatik berekin ekarri

zuela bere erresumara *Du Voisan* (bi hitzetan) izeneko zaldun soldado aintzindari bat: Hau Nafarroan alde bat kokatu zen, familiatu, eta haren leinua mendez-mende, ezkontzaz-ezkontza, arras nafartu.

Alta amaren aldetik ere, nafarra zela erran zezaken; Marie Goroztarzu ez zena bada Baztandar leinu batekoa? Nola ez orroit Goroztarzu-tar horietan eskual olerkari bat izan dela Jean de Goroztarzu apeza (1829-1858). *Orhiko xoria*-ren kantuaren egile xarmanta, bai eta *Eliza-besta*-rena?

Gure kapitainak anaia bat bazuen, bortz urtez zaharragoa, *César* bataiatu zutena. Cezar-i ez zitzaion izen ospatsu hori batere laket; eta gehienetan *C* lehen letra baizik ez zuen ezartzen bere deituraren aintzinean. Hortik gertatu da askok uste ukan dutela *Charles* zela haren izen ttipia, edo *C* letra horrek erran nahi zuela "capitaine". Horra zergatik apezaren idazki batzu guardari leporatu diozkaten. Adibidez: *Notice sur le chapelle Sainte-Magdeleine d'Ustaritz.*

Eskola solas

Duvoisin anai-arrebak ez dira behin ere Ezpeleta-ko eskolan ibili. Aitetamak eskolatuak zituzten: aita herriko auzapez eta kantoinako bakezko juje izaki, eta ama Baionako ikastegi batean aski luzaz egona. Bainan, bertzalde, Hazparneko komentutik iraultzako legek haizatu serora-errientsa bat Duvoisin-tarrek bildua zuten etxerat, haren gain utziz haurren argitzea.

Bizkitartean, zion Hiriart-Urruty kalonjeak, mutikoak nahi izan zituzten etxetik jalgi-arazi; eta biak igorri zituzten Larresoroko Semenariorat. Hortan ez zen kalonjea ongi jakintsutua izan.

Cesar, hasteko, apez-gai zelakotz, Larresororat igorri zuten; bainan ez Semenariorat, hau ez baitzen idekia izan 1820-ean baizik; 28 urte hetsia egona zen etxe hori, gobernuak ebatsirik. Bainan Larresoro *Irigoienean* biltzen zituzten apezgai zonbait, eta apez xahar batek eskolatzen zituen. César-ek hor egin zituen bigarren mailako ikasgoak oro.

Haren anaia aldiz Semenario ideki-berrian sartu zen 1823-ko Urrian, 13 urtetan. Ez zen aise etxekotu. Orduko paper zaharrek alfer eta buruzkin egiten dute, nahiz aitortzen duten bazukeela zernahitako hartze eta adimendu, borondate on gehixagorekin.

Bizkitartean, hiru urte gaixto iragan-eta, huna nun bere Laugarren urtean arras bertzelakatua aurkitzen dugun. 1827-ko Abuztuaren 27an sari-eguna izan baitzen, orduko *Palmares* delakoak salatzen dauku, Jean Pierre Duvoisin-ek merezi ukan zituela bortz aipamen eta bere eskolako hoberenetarik izan zela. Zer gertatu zitzaion ba?

César, haren anaia, errient sartu zen Semenarioan, eta Jean Pierre haren meneko aurkitu. Erakusleak jakin bide zuen nola bil eta susta aintzin urtetako pottoka bihurria.

Bainan, ordutik harat, Jean Pierre horren itzalik ere ez da Semenarioko paperetan. Zer bilkatuz zen, ez dakit batere. Iduriz etxen atxiki zuten aitamen eta serora-errientsaren meneko, lan modu zerbaiten haiduru.

Orduan, denbora pasa, lotu zitzaieken ixtorioari eta euskarari, bi sail horiek ez baitzituen hil artio uztekoak. Bertzeak bertze, buruan sartu zitzaion behar zuela *Fenelon*-en *Téléma-que* liburua euskaralat itzuli. Bainan laster oharturik hitz ainitz eskas zituela, eman zen hitz biltzen, euskal hiztegi baten egiteko.

Aita hil zitzaien 1830-ean, eta Jean Pierre deliberatu zen guardetan sartzerat. Ondoko urtean egin zuen urrats hori.

Herriz-herri

Erran dute Duvoisin-ek ongi baliatu zuela guardagoa, ofizio hortan ipar Euskal-Herria buru batetik bertzera kurritu ahal izan zuelakotz, alde guzietako euskal hitzak bilduz eta euskalkieri ohartuz.

Baionako aduana-artxiboetan bil-arazi ditut Duvoisin-en berriak:

1831-ko Martxoan *guarda xoil* sartu zen;
1832-ko Martxoan *brigadier-orde:*
1834-ko Martxoan *brigadier;*
1839-ko Abendoan *teniente.*

— *Guarda xoil kondu,* iragan zituen:

2 ilabete Ligin; 8 Atarratzen; 2 Lasan;

— *brigadier-orde kondu:*

8 ilabete Heletan; batto Baigorrin; 4 Arrangoitzen; 11 Senperen;

— *Brigadier kondu:*

6 ilabete Oletan; 6 Saran; 4 Serres-en; 10 berriz Oletan; 9 Latsian; 22 Bidarrain; 5 Harnabalen; 13 Ahatsan eta Kanbon zelarik izendatu zuketen *teniente.*

Ikusten duzuen bezala, urte hetan ez zituzten guardak mutxitzerat uzten lekuaren gainean; gehienentzat aldaira horiek ez bide ziren atsegingarriak; Duvoisin-ek aldiz ez zituen hastio, bere hiztegi lanean laguntzen zutelakotz.

Xaho eta Duvoisin

Duvoisin eta Xaho, biak euskalzaleak ziren. Biek euskal hiztegi baten beharra ulertzen zuten, ba eta biek lan horri emaiten zioten beren kar guzia. Jakin nahiz bakotxak, nola bertzeak zeraman bere saila, elgarren ezagutzak egin zituzten. Hastapen hartan adixkidetu ziren, bainan laster hoztu ere, politika eta erlisione gaietan ezin elgar adituz. Egia erran, hiztegi-laneko, Xahok nahiko baitzuen obra bakar bat egin zezaten, baltsan, batek ala bertzeak bildu hitzez baliatuz, xede hori ere Duvoisin-ek ez zuen on-hartu, eta alde bat elgarretarik urrundu ziren.

1848-an Xaho arras barna sartua zen politikan eta bazoan herriz herri, merkatuz merkatu bere ezkertiar ametsen hedatzen. Orduan Duvoisin Heletan zagon, oraino teniente izaki; eta huna Hiriart-Urruty-k kondatzen daukun gertakaria.

Merkatu eguna zen Heletan: arratsaldea. Plaza guzia jendez bete zelarik, hor heldu zaizkie, tipust-tapastean, bizpahiru jaun... dena haro eta larderia: hau zela, hura zela,... bazter guziak errautsi gogo izan balituzte bezala. Gorenik mintzo zena zen Xaho deitu gizon buru bero, harrabots egile handi bat. Alki baten gainera igan eta, handik zer nahi bazerasan. Legeko liburuak, eta bereziki larre eta oihanen zedarriez mintzo direnak, nahi zituen purruskatu eta erre.

Jende guzia hari so, harritua. Guarda aintzindaria ere han, ixil-ixila, bainan hoberenak golkoan.

Azkenean, ezin gehiago jasanez jauntto haren ahapaldiak, zer egiten du? Biltzen zenbait mutiko gazte. Bi jauziz han ziren oro, jaun arrotz heien inguruan: kantuz eta irrintzinaka plaza guzia inarrosi zuten. Baia eta Xahok lekuak hustu, bere lagunekin.

Ez da erraiteko baizik Duvoisin eta Xaho ez zirela elgarrekin uztartzekoak.

Xaho halere ez zitzaion aihertu eta, arartekoz, berriz ere entseatu zen haren biltzerat elgarrekilako hiztegi baten osatzeko. Kapitain berria (1852) ez zen berehartarik kantitzen.

Duvoisinen jiteaz

Kapitaina tematsua zen eta frango bihurria. Erran dugu, Larresoron ez zutela luzaz erakaslek mana-errexa kausitu. Ez omen zen etxekoekin ere biziki pairutsu: laketago zuen bakarrik egoitea bere liburu eta paperekin familian baino, idurieta lana zitzaiola munduko gauzarik sainduena eta beraz baliosena. Bakotxak bere gustu!

Hiztegi-soilas

Jon Bilbaok eta bereziki Harristoy-ek ederki eta nasaiki ezagutarazi dauzkute Duvoisin-en lanak.

Haren euskal hiztegiez zenbait xehetasun bakar, doidoia.

1971-ko *Gure Herria* aldizkarian 188 orrialdetik haste, irakur ditazke Daranatz zenaren argitasun batzu gai hortaz. Salatzen dauke dokumentu batean "British Museum" delakoan nola kausitzen den Kapitainaren Hiztegi *frantses-euskara* hiru liburutan banatua, *Oiergi* hitzarekin bukatzen delarik: ez da beraz osoa, bost-pa-sei letra eskas dituelarik.

Euskara-frantsesa aldiz Duvoisin-ek utzia zuen fitxetan: 12.000 fitxa eta Daranatzek bere eskuz kopiatu zituen 60.000 lerrotan, kopia hori, dionaz, Azkue-ri utzi zion 18 hilabetez, balia ahal zezan bere hiztegi handiaren onetan.

Zenbatetaraino Azkuek baliatu duen eta nola, on litake menturaz jakitea Manuel de la Sotak Daranatzen kopia eskuratu baitu, Azkueren lanarekin konparatu ahal izan du. Ohartu da hitz asko *baztertu* dituela gure Bizkaitarrak: ulertzeko litzateke zegatik: bertzalde han-hemenka zenbait *gaizki irakurtuak* izan dira; eta itzulpen frantsesa ez *beti ongi* hego aldeko erdaralat *aldatua* izanez, gertatzen da erdara hori frantsesera bihurtuz Duvoisin-en lana bietan funditua baitago.

Uste dugu *Retana hiztegian* huts horiek beteko direla eta makurrak zuzenduko.

Egungo aski, eta gaizki erranak barkatu!

EUSKARA DAKARREN XVII. MENDEKO LIBURU BAT MEXICON

Donostia, 1979-XI-3(

J. A. Arana Martij(

Gernikako MARIJESIEN estudio bat gertatzen nenbile la, orain hamabost bat urte, Mitxelenaren "Textos arcaico: vascos" eskuratu nuen eta bertan, 138. orrialdean, ustegabe ko koplak aurkitu nituen, hots, Gernikan abestuten direı bezalakoak 1691. urtean argitara emanak: "Coplas a l: Encarnación y Nacimiento de Nuestro Señor Iesu Christo" Koldo Mitxelenak emandako arrastoari jarraituz, "Euskale rria" aldizkarian Julien Vinsonek argitara emandako idazlaı batera jo nuen eta han zeuden berriak ere nere estudiorak hartu nituen. "Un vieux texte basque du XVII*e* siècle" zeı Vinsonen lanaren izenburua. Joseph Lezamiz apaizak Mexi con argitara emandako liburu baten berriak ematen zizkigu Vinsonek: VIDA DEL APOSTOL SANTIAGO EL MAYOR (eta bar) zen 1699 an Lezamizek Mexicon, Maria de Benavidese irarkolan ateratako liburu honen titulu eta mamia. Libur hau oso bakana zela 1888 an zion Vinsonek eta esku artea erabili ondoren, erosi gabe, azterketa bat egin zuen ordua Vinson bibliografoak.

Hiru zatitan bananduta zegoen liburua:

1. Santiagoren bizitza, 47 kapitulutan

2. Espainiako aintzinako gauza zaharrak eta bikainta sunak, 21 kapitulutan

3. Bizkaiko gauza zaharrak eta bikaintasunak, berezik baina Bizkaia Euskalerri bezala hartuaz. 27 kapitulu dit hirugarren zati honek.

Eta azken kapitulu honen ondoren, eranskin gisan, lehe aipatutako koplak ematen dizkigu Lezamizek, beste libur

arraro batetik hartuak, hau da, Nicolás de Zubiak Donostian, Pedro de Huarteren inprimategian 1691 an argitaratutako DOCTRINA CHRISTIANA EN BASCUENCE liburuxkan azaltzen zirenak. Kopletatik aparte, katekima horren textua ere ematen zigun Lezamizek eta Lezamizetik hartuta Vinsonek. Baina Mitxelenak koplak baino ez zizkigun eman bere "Textos arcaicos vascos"en.

Gero Vinsonek, berriz, bere "Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque" deritxon liburu mardulean, 1891 an Lezamizen liburuaren berri ematen zigun baina euskal textoaren transkriziorik gabe. Bibliografi horretan ematen zigun, baita ere, Zubiaren liburuaren berri, baina Lezamizen aipamena arakatuz.

Dena dela, Lezamizen liburua esku artean erabili zuen Vinsonek, nahiz eta erosi ez, eta Zubiaren liburua ez zuela ezagutzen zion Vinsonek: "Je ne connais ce volume que par la reproduction qui en est faite dans l'ouvrage suivan" hots, Lezamizena. Lezamizena, bada, nun edo nun bazegoen, baina Zubiarena inundik ere ez zen agertzen.

Neri interesatzen zitzaidan koplen textoa estudiatzeko bi transkrizio neuzkan, Vinsonena eta Mitxelenarena, eta katekimako textu bat bakarra, Vinsonena. Koplak konparatuz, (eta aurretik datorren "Ave Maria"), Vinsonen textotik aldaketa batzu egin zituen Mitxelenak:

Vinson	*Mitxelena*
eroizaco orduan	eriozaco orduan
lunarren (sic)	lurraren
irago dira	igaro dira

eta ez nekien zein zen transkrizio ona, Lezamizen originala ez genuen ezagutzen eta.

Gutun pare bat egin nituen Mexicoko katedralera, hango apaiza izan zen Lezamiz eta. Ez nuen erantzunik hartu. Baina aurtengo Irailean Rikardo Badiola Mexicora joateko asmoz zebilela eta, eskatu nion hiriburuko Katedralera edo Nazioko Bibliotekara joatea Lezamizen liburu arraro hori bertan agertzen ote zen ikustera. Eta zorionez Badiola adiskideak esku artean eduki zuen liburua eta mikrofilmak lortu. Eta

orain originalean, ikusi dezakeguna da Vinsonek inprimatu zuen bezala,

eroizaco
lunarren
irago dira

agertzen direla. Baina katekima edo "Articulu Fedecoen explicacinoa" arloan, baditu Vinsonek berak hainbat eta hainbat hutsune:

Lezamiz	*Vinson*
Humanidade Santeari	Humanidade Santuari
Gorpuçagaz	gorputçagaz
guztiz	gustiz
iru personak diraz	iru persona dira
bere adisquide	here adisquide
Salvatore	Salvadore
virtudez	virtutez
Sabel santan	sabel santuan
Trinidade ecoa	Trinidadecoa
dagoçana	dagozan
oneri	oni
jaçi çan	jati çan
erioceagaz	erioccagaz
dagoala	dagoula
eternoaren	eternoare
egunean	egunea
ematen	ematea
idaraten	idazaten
damuriagaz	desmuriagaz
ganea	gañean
dabela	dahela

eta holako beste okertxo batzu ere.

Baina Lezamizetik Vinsonera hainbat aldaketa ikusi ondoren, eta Vinsonetik Mitxelenara ere batzuren batzu, fidegarri ote da Leżamizek Zubiarengandik egindako transkrizioa? Zubiaren liburua non edo non agertu arte ez dugu hau argituko.

II

Nortzu ziren Zubia eta Lezamiz? Gure literatur arloan oso ezezagunak diren idazle hauen berri labur bat ematera noakizue, jaunak. Iturri hauetan aurkitu dut zeozer:

1 *Julien Vinsonek* berak bere lanetan dakarrena

2. *Pedro Garmendiak* eman zigun zeozer bere "Indice por orden alfabético de Escritores Vizcainos antiguos y modernos" (*El Correo Español-El Pueblo Vasco"* 1944-1945).

3. *Damaso Maria Bernaolak* "Curiosidades bascongadas. Noticias del licenciado D. José de Lezamiz y de algunos otros autores catequistas en dialecto vizcaino (*Euskalerria,* 1888, 2. seilebetekoan, 71/73 orrialdeetan).

Iturri hauetatik atera dezakeguna hau da:

NICOLAS ZUBIA ARAOZ Durangon jaio zen 1647.ean. Batxiler zelarik, 1676.ean Durangoko Uribarriko Andra Mariaren Apaiz Elkartean sartu zen. 1691.ean bere *Doctrina Christiana* Donostian argitara eman zuen, eta 1694. urteko Azaroaren 7 an hil zen Durangon bertan.

JOSE LEZAMIZ ere durangoarra zen, 1654.ean jaioa, hau da, Zubia baino zazpi urte gazteagoa. Mexicoko Katedralean apaiza zelarik, 1699.ean bere *vida del Apóstol Santiago* argitara eman zuen bertako irarkola batetan, hots, Maria Benavidesenean. Mexicon hil zen 1708.eko Abenduaren 23an, Gabon bezperan.

Biak durangoarrak izateak badu neretzat bere garrantzia. Marijesiak direla eta argi ikusi dezakeguna da XVII. mendearen erdirantz Durango aldean orain Gernikan abesten diren kopla berberak abesten zirela. Baina ez noa orain gai hau aztertzen, estudio luzeago bat merezi du eta. *Dantzariak* aldizkarian ari naiz estudio hori argitaratzen.

COPLAS
A LA ENCARNACION, Y NACIMIENTO de Nueſtro Señor IeſuChriſto.

GAu on Sanctu onetan
Iaunaren iaiacean
pozgaru gaitean
guſtioc uiotzean.

Aita Adam eguinzan
Iaunaren ganean,
becatu eguin eta
iauſizan atean.

Limboan egoan
boſt mila urtean;
Iauna iaſizaitez
ceruetarean.

Ne garrez dago ait
aimbat urtean;
Iauna iaſizaitez
ceruetarean.

Doncella ederbatec
Belengo errian
ſeña IeſuChriſto
dauco ſabelean.

Eguzqui Diuinala
gauerdi batean
etorrizan lurrera
guizonen ſoñean.

Coloquio entre los Paſtores.

1. Machiniquito
cerdio Cheru?
atzoric ona.
ce barri dogu?

3208	deliciosus (Lin ex Fr.)	Esnegorri Pinuperretxiku	Níscalo	Lactaire deliceux
3210	sanguifluus (Paulet)	Esnegorri Pinuperretxiku	Níscalo	Lactaire sanguin
3211	torminosus (Schaeff. ex Fr.)	Bora	Níscalo de cabra	Lactaire toisonné
3248	volemus (Fr.)	Esnato Esne perretxiku	Lactario anaranjado	Lactaire a lait abondant

	PHALLACEAS			
	Phallus			
3305	impudicus (Lin ex Fr.)	Etzai-ezten	Falo apestoso	Satyre puant
	CLATRACEAS			
	Clathrus			
3314	cancellatus (Lin)	Kaoila perretxiku	Clatro rojo	Clathre grillaje
	LYCOPERDACEAS			
	Calvatia			
3440	gigantea (Nees)	Otso putz handi	Cuesco de lobo grande	Vesse de loup geant
	Lycoperdon			
3431	caelatum (Bull.)	Otso putz	Cuesco de lobo	Vesse de loup ciselée
3436	saccatum (Schaeff.)	Otso putz	Cuesco de lobo	Vesse de loup en vase
3438	umbrinum (Pers.)	Otso putz	Cuesco de lobo	Vesse de loup mou
3439	pratensis (Pers.)	Otso putz	Cuesco de lobo	Vesse de loup des pres
3446	perlatum (Pers.)	Otso putz Asta putz	Cuesco de lobo	Vesse de loup perlée
3450	pyriforme (Sch. ex Pers)	Otso putz Asta putz	Cuesco de lobo	Vesse de loup en forme de poire
3453	equinatum (Pers.)	Triko putz	Licoperdon erizado	Vesse de loup herisée
	Bovista			
3466	plumbea (Pers.)	Otso putz txiki Asta putz	Cuesco pequeño de lobo	Boviste plombée
	nigrescens (Pers.)	Otso putz txiki	Cuesco pequeño de lobo	Boviste noircissante

	SCLERODERMATACEAS			
	Scleroderma			
3531	aurantium (Lin ex Fr.)	Asta putz	Cuesco de burro	Scleroderme vulgaire
	GEASTRACEAS			
	Geaster			
3481	frimbiatum (Fr.)	Lur izar	Estrella de tierra	Geaster frimbie
3502	triplex (Jungh.)	Lur izar	Estrella de tierra	Geaster triplex
	CALOSTOMATACEAS			
	Astreus			
3559	hygrometricus (Pers.)	Lur izar	Seta higrométrica	Geaster hygrometrique
	MORCHELLACEAS			
	Morchella			
3608	vulgaris (Pers. ex Boud.)	Karraspiña Ziza erlauski, Tripaziza	Morilla	Morille
3608	esculenta (Pers. ex Fr.)	Karraspiña Ziza erlauski, Tripaziza	Morilla	Morille
3608	umbrina (Boud.)	Karraspiña Ziza erlauski, Tripaziza	Morilla negra	Morille noire
3611	conica (Pers. ex Fr.)	Karraspiña Ziza erlauski, Tripaziza	Morilla cónica	Morille conique
	Gyromitra			
3635	esculenta (Pers. ex Fr.)	Muin ziza	Bonete	Gyromitre

	TUBERACEAS			
	Tuber			
4760	aestivum (Vitt.)	Boillurra	Trufa de verano	Truffe d'eté
———	melanosporum (Vitt.)	Boillurra	Trufa	Truffe du Perigord

ABREVIATURAS

Batsch	Batsch (no es abreviatura)	Lenz	Lenz (no es abreviatura)
Bolton	Bolton (no es abreviatura)	Müll.	Müller
Boud.	Boudiere	Nees	Nees von Esenbeck
Bull.	Bulliard	Patou.	Patouillard
Cand.	Candolle	Paulet	Paulet (no es abreviatura)
Clus	Clus (no es abreviatura)	Pers.	Persoon
Fr.	Fries	Schaeff.	Schaeffer
Huds.	Hudson	Scop.	Scopelli
Jacq.	Jacquin	Singer	Singer (no es abreviatura)
Jungh.	Junghurn	Vitt.	Vittadini
Lange	Lange (no es abreviatura)		

Cuando se pone "ex" entre dos nombres quiere decir que fue clasificada la especie por el primero y ratificado por el segundo: (Pers. ex Fr.): clasificada primeramente por Person y ratificada más tarde por Fries.

BERRIAK

AMADEO MARCO JAUNARI ESKERRON-AGIRIA EMATERAKOAN

Nabaskoze, 1979-V-24

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Como bien sabéis, señor, la Real Academia de la Lengua Vasca —Euskaltzaindia— fue creada de mancomún por las cuatro Diputaciones del país para velar por la vida y cultivo del euskara o vascuence. En la medida de sus posibilidades esta Institución se ha esforzado por mantenerse fiel a esta misión que el país, por medio de sus Diputaciones, le confiriera. Y ha procurado cumplir dicha misión conservando siempre ésta su vinculación a las cuatro Diputaciones.

No es propio de este momento hacer una enumeración, ni aún somera, de las realizaciones con que, ya en el orden científico, ya en el práctico, Euskaltzaindia ha contribuido, a lo largo de los últimos sesenta años, a la investigación y fomento del idioma vasco. Estudios sobre la morfología, el acento, la sintaxis, decisiones para unificar la ortografía, el léxico, el verbo, estudios socio-estadísticos sobre la situación real del idioma, preparación de personal habilitado para la enseñanza del mismo, reedición de obras de escritores antiguos, campañas de alfabetización para enseñar a leer y escribir en euskara a los euskaldunes que por falta de escolarización adecuada saben hablar pero no saben leer y escribir en euskara, preparación de léxicos especializados para acomodar el euskara a la expresión de muchas realidades de la vida moderna, organización de concursos y premios literarios, torneos de bersolaris, recogida de las hablas y variedades locales, estudios dialectológicos, etc. Dicho muy escuetamente, un poco por aquí ha ido y va la labor de la Academia.

Labor ingente, que la Academia ha procurado realizar siempre en cumplimiento de la misión que se le confió y manteniéndose al margen de toda política, por entender que el euskara es el bien de un pueblo, de todos, y que este bien no debe ser instrumentalizado ni monopolizado por ningún credo, ideología ni partido. Sólo a Euskal-Herria, de quien es el euskara, nos debemos.

Como también sabéis, la autoridad que en el campo del euskara confirieron las Diputaciones a Euskaltzaindia ha sido últimamente reconocida y confirmada por S. M. el rey Juan Carlos I.

Ante el hecho innegable del desarrollo del país y de la toma de conciencia progresiva y creciente por parte de éste respecto a lo que el viejo euskara representa para él, y en consecuencia, ante la demanda cada vez mayor de servicios que se nos piden, la Academia tuvo que pensar en abrir sus correspondientes despachos o delegaciones en cada una de las cuatro capitales, y, como es justo, quiso que dichas delegaciones funcionaran a la sombra y amparo de las respectivas Diputaciones.

Por lo que hace a Navarra, este viejo sueño lo vemos hoy convertido en realidad. Mañana, Dios mediante, la Academia se reúne en sesión pública en Pamplona para tributar homenaje a cuatro autores navarros y celebrar la concesión por la Excma. Diputación Foral de una delegación suya en Pamplona.

Mas nosotros no podemos olvidar ni por un momento que si esto se ha logrado, ha sido principalmente gracias al interés, diligencia y empeño que constantemente habéis manifestado. Es por esto que la Academia ha querido rendiros este pequeño homenaje de gratitud y a la vez ofrendaros este sencillo recuerdo. Eskerrik asko, jauna, euskara eta Euskaltzaindiaren alde beti agertu duzun borondate borondatetsuagatik.

SALUDO Y HOMENAJE A DON AMADEO MARCO

Nabaskoze, 1979-V-24

Vicente Galbete Guerendiain

Con la venia del Ilmo. Sr. Diputado Foral de Navarra por la Merindad de Sangüesa, "La que nunca faltó", don Jesús Bueno Asín.

Mi respetado ex presidente de la Excma. Diputación Foral de Navarra y siempre particular y querido buen amigo Amadeo:

Aunque de baja para el servicio por enfermedad, según certificados médicos que obran en mi bolsillo, algo bronquítico y febril, un algo más reumático, bastante *llarri*, en suma, y no menos *jibáu*, por varias causas, pero, si no muy *azkarro* con suficiente *kozkor* todavía para poder venir a saludarte, aunque sea cojin-cojeando (como diría todo ello nuestro común e inolvidable amigo Ignacio Baleztena que santa Gloria haya) te ruego me permitas unas palabras que desde ahora te prometo habrán de ser más breves que alguno de los largos, farragosos, densos y a veces conflictivos informes que con tanta paciencia me has tenido que soportar, durante años, en el Salón de Sesiones del Palacio de Navarra. Y como el que avisa no es traidor, allá voy con la lectura de estos folios.

Pocas veces serán menos tópicas las frases hechas con que se suelen iniciar las postreras peroratas en ocasiones similares como la que me va a servir de entrático en esta grata circunstancia de hoy diciendo, con el corazón en la mano y con la mayor sinceridad, que ha sido para mí un honor y que experimento una profunda satisfacción al haber sido invitado por los doctos Sres. académicos de la Real Academia de la Lengua Vasca —Euskaltzaindia— a sumarme, en mi condición de académico correspondiente, también, de la Real de la Historia y consejero provincial de Bellas Artes del Ministerio de Cultura en Navarra, como de amigo tuyo y suyo, a este merecidísimo homenaje que, con sencillez e intimidad "quasi-familiar" —como a ti te gustan las cosas—, "Euskaltzaindia" ha querido venir a rendirte, en selecta representación de sabios académicos de toda Euskal-Herria, a este tu viejo y arriscado rincón nativo navarro montañés del Almiradío, a Navascués, *Nabaskoitze* en la "lingua navarrorum" de nuestros mayores, como tantas veces se ha repetido que la llamó, "en documento solemnísimo —eso decía la Diputación Foral de Navarra en acuerdo de 11 de enero de 1896, y en su nombre don Ramón Eseverri, con don Pedro Uranga como secretario fedatario— el preclaro monarca don Sancho el Sabio", el que desde la ya entonces milenaria Iruña "Caput Vas-

coniae", diera sus Fueros a Vitoria = *Gasteiz* y San Sebastián = *Donostia*; ese vascuence del que tanto saben nuestros ilustres visitantes comensales y del que (discúlpame si lo confieso, en nombre de los dos) tan poco sabemos tú y yo, muy a nuestro pesar, como nos consta mutuamente. Pero por cuya defensa, estudio y promoción, como parte vital de nuestro entrañable acervo cultural vascónico-navarro, tanto has querido y has sabido hacer desde tus altos cargos, largamente desempeñados, de diputado foral primero, de vicepresidente después, y luego, y bien recientemente, de presidente de nuestra Excma. Diputación Foral de Navarra; además de como presidente de su Institución "Príncipe de Viana" y de su extinguido Patronato de Fomento del Vascuence, "Euskal Jakintza".

Y quiero agradecer profundamente la amable invitación de la Real Academia a sumarme y participar personalmente en este acto, no menos significativo por la llaneza de su fraternal sencillez, porque ello me permite, querido Amadeo, manifestarte abiertamente mi admiración y estima, haciéndolo precisamente cuando "ya no eres" mi presidente, que en tal caso pudiera interpretarse, quizá, como aduladora lisonja (aunque bien te consta que, entre mis muchos defectos y flaquezas —lo de la flaqueza salta a la vista— no creo que se incluya, ciertamente, el de "tirar levitas", ni siquiera zamarras) y cuando, sin riesgo de torcidos equívocos digamos de "pelotillerismo" —achaque tan frecuente entre funcionarios "rampantes" de cualquier estamento, laicos como clérigos— puedo decirte honradamente, porque así lo siento, que, igual que otros muchísimos navarros de muy distintos pelajes y dentajes (vamos a dejar para otros lo del "cornaje") y ya que me he metido en términos de *Las Tres Vacas*, te tributo una sincera admiración.

Y te admiro, Amadeo, por tu honradez, tu integridad y tu coraje, más que bien probados, los tres, en tantas ocasiones. Por la dedicación, enaltecedora, de toda una vida al servicio de Navarra. Por tu sencillez, tu modestia —que por nada quisiera estar hiriendo ahora— y por tu austeridad, rayana a veces, para mí casi exageradamente, en lo espartano. Por tu sentido del humor, en ocasiones, que todo hay que decirlo, y eso también me vale. Y sobre todo, y en relación con el motivo que aquí nos reúne como amigos y como gente por lo menos "oficialmente" culta, por tu apreciación certera, a lo largo de toda esa ya larga vida —y que sea larguísima— de entrega al servicio de Navarra, de los altos valores que integran nuestro inalienable patrimonio cultural: histórico y artístico, étnico y lingüístico. Y respecto a este último, concretamente, por tu actuación, a ultranza y sin reservas, en defensa *del vasco* y *de lo vasco*, incondicional siempre, con un criterio abierto y a veces en circunstancias no demasiado fáciles, de todos conocidas, y que debiera servir ¡ay! de modélica ejemplaridad para quienes, confundiendo el *ipurdi* con las témporas y teniendo más huéspedes que dedos en cada mano, parecen no poder llegar nunca a comprender que se pueda ser "chato y coronel", como se dice.

Y prevalido de la confianza y amistad con que, desde hace tantos lustros —que cunden más que años— me vienes honrando (lo cual no quita para que hayamos discrepado amigablemente en muchas ocasiones, salvando siempre el respeto debido a la que para mí "era" tu autoridad), per-

míteme, querido Amadeo, hombre de letras y aficionado a la lectura de libros religiosos y humanísticos (aunque haya quien lo ignore) como también marino de mucha altura en veleros airosos de largas y tormentosas singladuras, o almadiero arriesgado entre escollos y rápidos, en la ruta fluvial Roncal a Zaragoza por el Esra y el Aragón al Ebro y tantas cosas más, que conoces muy bien (y no es frecuente, ni entre profesionales) el *"Examen de Ingenios para las Ciencias"* de Huarte de San Juan, nuestro gran humanista de la Sexta Merindad, permíteme –repito– que me tome la libertad, que espero no te enoje, de hacerte en este día, por mi cuenta y mi riesgo, como simple ciudadano navarro –lo de regnícola resulta un poco cursi– actuando "por libre" y aún por libérrimo, que no en valde he sido siempre liberal, mientras tú que naciste y moristes, carlista, un mínimo obsequio biblio-iconográfico personal, que creo cuadra bien a la ocasión de esta cordial visita:

Este pequeño y ya vetusto libro cuya edición costeó, va a hacer pronto dos siglos, el Regimiento de la Ciudad de Pamplona, Cabeza de Reino de Navarra *–Iruñako Hiria, Nafarroako Erresuma-Burua–*, como la llamaría Sancho el Sabio, noble ciudad cuyo escudo quizás siempre en la sala en donde yo nací, precisamente entre la Plaza del Castillo y la calle de la Estafeta, que ya es afinar en pamplonesismo, libro escrito por el sabio jesuíta *irunsheme* Don Miguel Joseph de Maceda, presbítero, residente en Bolonia y especializado allí en la investigación, estudios y publicaciones científicas sobre Historia Eclesiástica de España, al haber sido expulsada de ella, por el rey Carlos III de Borbón, la Compañía de Jesús, e impreso, paradójicamente, en la Imprenta Real de Madrid y por el impresor de Cámara de S. M. –que ya era Carlos IV– en el año 1798, según consta en su frontispicio. Y bajo el título, creo que harto significativo desde los puntos de vista geográfico-histórico y étnico-lingüístico, que tantas veces se suelen tratar de cuestionar apriorísticamente por gentes indocumentadas y empecinamientos que nada tienen de científico, de:

ACTAS SINCERAS / NUEVAMENTE DESCUBIERTAS / DE LOS SANTOS / SATURNINO, HONESTO Y FERMIN / APOSTOLES DE LA ANTIGUA VASCONIA / (HOY NAVARRA Y SUS VECINDADES).

Nada más, querido Amadeo: Honorario "Capitán a Guerra" del pirenaico Valle de Salazar, capitán intrépido, antaño "caphornier" a bordo de frágiles goletas, rumbo a la Patagonia, a quien podrían haberse dedicado aquellos versos de Rafael Alberti, comunista y magnífico poeta:

"Sobre tu nave
un plinto verde de aguamarinas,
de moluscos, de conchas, de esmeralda estelar,
capitán de los vientos y de las golondrinas,
fuiste condecorado por un golpe de mar.
Por ti los litorales de frentes serpentinas
desarrollan al paso de tu arado un cantar.
Marinero, hombre libre, que los mares declinas.
¡Dinos los radiogramas de tu estrella polar!

Capitán bizarro de Infantería luego con tu medalla militar al pecho, en una feroz guerra, de hermanos contra hermanos, que Dios, *Jaungoi-*

koa, quiera que nunca más se vuelva a repetir. Y en la que el mismo *euskera*, puesto que en ello estamos, hablaban los requetés navarros de Leiza que formaban en el tercio de San Miguel, o los vascos de Urdiáin que venían conmigo en la I Bandera de Falange de Navarra, que los *gudaris* de los batallones guipuzcoanos y vizcainos con los que, en aquella trágica coyuntura, tuvimos que enfrentarnos. Aunque, eso sí, supongo yo, que ni unos ni los otros lo hablasen demasiado "académicamente", porque las cosas no estaban entonces precisamente para sutilezas idiomática, ¡arrayua!

Capitán, finalmente, a paz y Fuero, al frente de la nave, esta vez tierra adentro, que pilotaste con mano firme durante varios años, de la Diputación Foral de Navarra.

Y capitán, por último, para terminar con tus capitanías, de modo deportivo y metafórico, de un equipo de fútbol; cuando al inardinar en su seno a "Euskaltzaindia" la corporación que entonces presidías, un periodista, cretino y malaúva, de firma bufonesca, de los de confundir témporas con *ipurdis* además, dijo que: a nuestro "Iribar" le habían marcado un gol.

Acéptame, Amadeo, después del ditirambo, que no es propiciatorio desde luego, sino a "clavo pasado", el apergaminado librejo, el cual no tiene más valor que el afectivo, con su grabado, sobre dibujo de Maella, de nuestros tres apóstoles: San Cernin, San Honesto y San Fermín (el pobre San Honesto, si hoy viviera, con tal nombre pienso que, a veces, se moriría de vergüenza ajena) para leerlo cuando tengas ganas. Allá en la cumbre, en algunos de tus retiros, con tu perro, a tu ermita predilecta y altiva de San Quirico, dominando a Bigüezal, con su "Piedra del Diablo" en el camino, ermita que, hace años, con espíritu auténticamente ermitaño y sin duda mejor que muchos arquitectos, restauraste tú mismo con tus manos, en solitario y ascético *auzalan*. O para leerlo en las noches de invierno al amor de la lumbre de la férrea chimenea, un poco a juego —por lo de férrea— con tu naturaleza y tu carácter, en tu blasonada y austera casa solariega, a cuya vera, tanta gente importante y alguna de mucho menos relevancia, entre la que me incluyo, robándote el descanso del domingo, ha charlado amistosamente contigo durante largas horas —porque, cuando te lías, tampoco se puede decir que seas mudo— de esto y lo otro, del mar y sus confines, lo divino y lo humano, de Fuero y contrafuero (aunque casi siempre de pejigueras para ti), fumándonos tus puros y dándole al coñac; éste también, a tino con el huésped, de nombre marinero, cristiano y combativo, igual que tú, porque solía ser "Lepanto".

Acéptame también —y con esto te juro que termino— mi recordado ex vicepresidente y presidente y siempre buen amigo (como tantos escritos te habré encabezado), con las ACTAS SINCERAS, un abrazo cordial tan sincero como ellas, aunque no fuerte, a causa del reuma que padezco.

Y permite, por último, que, ofreciendo mis humildes excusas al P. Villasante, Presidente, a su Secretario General, José Mari Satrústegui —mi valioso e insustituible colaborador, compañero de injurias y calumnias compartidas sobre nuestras cabezas que, cuando "el gol de Iribar", vertió

sobre los dos el periodista de apodo bufonesco– y a los demás doctos vascólogos de "Euskaltzaindia" aquí presentes, cuyas sesiones llegaste a presidir alguna vez, en cuanto Diputado Foral de Navarra, como aquella de septiembre de 1972, si mal no recuerdo, entra las *boiras* de Burguete, de homenaje a "Larreco", el *auritztarra* ilustre Dr. Irigaray, me despida, en mi más que rudimentaria "Lingua Vasconum" o "Lingua Navarrorum", que para el caso es igual, poniendo mi granito de arena *–ondar pisko-bat–* a modo de una sobremesil y homeopática "Comunicación Académica", capaz, sin duda, de valerme un suspenso rotundo en la más indulgente de las *ikastolas:*

ARRATSALDEON, OSASUNA, MARKO-TAR AMADEO! TORI SAN-PREMIÑEN LIBURUA, ETA AGUR JAUNAK.

Pamplona = *Iruñea*, 24 mayo 1979. -2 h. 15'a. m. 38º (no de latitud, sino de fiebre).

"EUSKAL ADITZ BATUA" ETA "OLETAKO EUSKAL ADITZA" AURKEZTEAN

Donostia, 1979-VI-29

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaun-Andreak:

Orain dela bizpairu hilabete, eta areto honetan beronetan, Bergarako Biltzarreko lanak dakartzan liburuaren aurkezpena egin zen.

Orain, berriz ere, bi libururen aurkezpena dela eta, egiten da gaurko ospaketa hau.

Oraingoan bi liburu dira. Eta biak euskal aditzari buruz. Lehenbizikoa *Euskal Aditz Batua*, Euskaltzaindiak berak prestatu duena. Bigarrena, *Oletako Euskal Aditza*, Pedro Pujana euskaltzain laguntzaileak prestatua. Aspaldidanik ezagutzen eta estimatzen dut Pujana jauna: Angiozarko erretore jaun zela uste dut ezagutu nuela lehenbizi, eta bai herri mixioak Durangon eman zituenean ere. 1970. urtean eta, oker ez banago, Bizkaiko Morgan apaiz zegoela, atera zuen *Euskal-Aditza (Bizkaiera). Flexiones del verbo vasco vizcaino*. Orain, berriz, bere jaioterri Oleta-ko aditzaren ikerlan sakon-zabala eskeintzen digu; eta ez bakarrik Oletakoa; beste toki batzuetako aditzari buruz ere xehetasun ugari dago liburuan: Leinz, Angiozar, Zeanuri eta Mungi aldeko bailaretako aditzari buruz, alegia.

Beraz, aditz asko dago gure artean herritik herrira. Batzuek halako sinplismo batekin esaten dute euskalkietako aditza dela herriko aditza; aditz batua, berriz, artifiziala dela, asmazio bat dela eta berek herriarena nahi dutela. Ez dira konturatzen euskalki literarioetan erabiltzen den aditza ere, neurri batean, konbentzionalki batua edo bateratua izan dela eta herrietako aditzakin ez datorrela beti bat. Tokitik tokira ere euskalkien barnean ez dagoela batasunik, eta beharrak eraginik, idatzizko zereginetarako halako aditz batu bat sortu zela.

Urrats hori joan mendeetan egina da, eta azken batean mesedegarri izan da euskararentzat. Batasun horri esker, euskalkiaren barnean literatura-mailan guztiontzat idatzi ahal izan da, tokitik tokira dauden desberdintasunak gaindituz.

Orain beste urrats bat emanik, euskararen hedadura guztirako balio lezakeen aditz batua egin eta eskeintzen dio gaur Euskaltzaindiak Euskal-Herriari. Aditz batu hau, noski, literatura-mailan erabiltzeko da baitipat. Eta aditz batu hau onartu zuenean argi eta garbi esan zuen Euskaltzaindiak onartze horrekin ez zituela bat ere baztertzen euskalkietako aditz jokoak.

Baina hemen galde lezake zenbaitek: Zilegi eta posible ote da, gero, Euskal-Herri osorako aditz batu bat proposatzea? Bai, posible da, zeren euskara hizkuntza bat da eta ez hizkuntza asko; eta euskarak, euskalkietako berezitasunen gainetik, bere batasunaren agiriak eta seinaleak erraietan tinkaturik dauzka. Eta hizkuntza batek, bere hizkelgien gainetik, era edo tankera normalizatu bat hizkuntzaren hedadura guztirako edukitzea, normala da, eta normala ezezik, noraezeko ere bihurtu da hori gaurko egunean.

Pedro Irizar jauna lan haundi bat egiten ari da: "Aditza euskalki guzietan". Bere lan hori atera dezanean ikusiko dugu nola den herriko aditza tokitik tokira. Pujana jaunak egin digun liburuan ere ikus dezakegu hori bizkaieraren barneko zenbait herriri dagokion aldetik.

Bergarako Biltzarreko azken Adierazpenean berriro agertu du Euskaltzaindiak zein den bere gogoa euskalki eta tokian tokiko hizkerei buruz. Euskaltzaindiak, alegia, nahi du tokian tokiko hizkerak eta euskalkiak azter eta lan daitezen, baina beti ere hizkuntzaren ortografia eta azpiegitura zainduz.

Ez da on norbere txokoan eta zuloan kiribildurik egotea, besteren berri jakin gabe, hizkuntza osoari nolerabait begiratu gabe eta euskara bere osotasunean kontuan hartu gabe. Osotasunaren eta orotasunaren arreta horrek mesede egingo digu baita euskalkiak behar bezala lantzeko ere.

Euskaltzaindiaren ikuspuntua garbi dago, bada. Tokian tokiko hizkerak eta euskalkiak nahi du azter eta lan daitezen. Baina nahi du, baita ere —eta hori hizkuntzarentzat hil edo biziko problema delako—, euskara batu bat egon dadin, guztion artean lokarri izango dena.

Euskaltzaindia sortu zenean —1919. urtean—, berari egotzi zitzaizkion zereginen artean, zeregin nagusienetako bat —nagusiena ez bada— hauxe izan zen: euskara batu hori moldatzea.

Lan horretan azkarregi ez ote gabiltzan diote batzuek. Jaunak, hirurogei urte juxtu pasatu dira Euskal-Herriak mandatu hori eman zigunetik. Azkarregi ote gabiltzan, zuek atera kontua.

Sortarauetan jarri zitzaion zeregin handi hau Euskaltzaindiak ez dauka ahazturik. Eta urteak joan eta urteak etorri, geroago eta garbiago ikusi du euskara batu honen beharra. Nola, bestela, ofizialtasuna euskarari ematen zaionean, administrazioan, irakaskuntzan eta komunikabideetan erabili, halako tankera batu bat hizkuntzari ematen ez bazaio? Gaztelaniak, frantsesak, katalanak eta hizkuntza landu guztiek dutena nolatan uka dakioke gure euskarari? Nola egin diezaioke gogor erdaren erasoari barnean batasunik ez badauka?

Gaur, bada, argitalpen apain eta dotore batean bildua, Euskaltzaindiak eskeini nahi du *Euskal Aditz Batua*. Gaur ospatzen dugu Aditz honen kaleratzea. Gertakari ospetsua dela uste dut. Zazpi urtez aritu da Euskaltzaindia aditz honen prestaketa egiten. Ez ditut kontatuko bitarte horretan izan diren atzera-aurrera guztiak; baina azkenean burutu da lana. Aditz laguntzaileak eta aditz trinkoak: denak daude liburuan. Hikako aditz jokoak falta dira soilki.

Aditz joko guzti hauek bere egunean *Euskera*, Euskaltzaindiaren agerkarian agertu ziren. Baina zabalkunderako nahi zen dena egoki jarririk eta zenbait argibiderekin liburu batean eman. Eta hala egin da. Esan behar da Gipuzkoako Diputazioak bere eskupekoa eman ziola Euskaltzaindiari lan hau argitaratzeko eta horregatik geure eskerrona agertu nahi diogu (1). Gráficas Valverde etxeak, berriz, berak dakien bezala, txukun eta argi asko eta hiru koloretan gainera, inprentatu du liburua. Txillardegi jauna izan da edizioaren prestatzailea eta bai aditzaz hobeto jabetzeko liburuan datozen ohar eta argibideen egilea ere.

Izango ahal dute liburu eder hauek merezi duten bezalako arrakasta eta zabalkuntza!

Aditz batua dakarren liburuaren hitzaurrean esaten da nola lotu zen Euskaltzaindia lan hau egitera; ez, noski, gogoz, ez kapritxoz edo arinkeriaz, alde orotatik zetozkion eskabideek hartaratuta baizik. Esate baterako, batzarre batean Iratzeder, Belokeko Abade jaunak, hauxe esan zuen: Euskal-Herri guztirako Bibliaren itzulpen bat egin nahi zela, baina nola egin aditz batu bat ez baldin badago? Beraz, hori egiteko eskatu zion Euskaltzaindiari. Eta horren antzeko eskeak, zenbat! Egin aurretik zaila eta baita ezinezkoa ere iruditzen zitzaion Euskaltzaindiari lan hau. Baina lanean jarri eta gero ikusi zen gure aurre iritziak askotan ustel izaten direla.

Liburua kalean da, bada. Zer harrera eta ondorio izango duen geroak esango du.

Urrats handi bat egin da euskara batu eta normalizatu horretara daraman bidean.

Bukatzeko, berriz ere lehengora noa. Euskaltzaindiak nahi du tokietako aditzak eta euskara motak aztertzea eta lantzea; oro bat nahi du euskalkiak lantzea; eta berdin nahi du euskara batua bultzatzea. Denontzat tokirik badela uste du. Eta hori frogatzeko, gaurko ospakizun hau dugu erakusgarririk eta aitorpenik jatorrena. Anaitasunik ederrenean aurkezten eta eskeintzen dizue Euskaltzaindiak, batetik, *Euskal Aditz Batua*, eta bestetik *Oletako Euskal Aditza*.

(1) Pujana jaunaren liburua, aldiz, Arabako Diputazioak atera du.

FORUKO JARDUNAK

Donostia, 1979-X-28

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaunak:

Joan den Abuztuko 28tik 30era Foruko Frantziskanoetan hiru egunetako jardunak egin berri ditu Euskaltzaindiak. Bilera horiek ez dira izan, Euskaltzaindiko beste bilerak bezala, euskarari buruz deus aztertzeko edo erabakitzeko. Oraikoan bilerok gure barneko egoera bera aztertzeko izan dira. Gure ajeak eta hutsak zein diren ikusi –hots, gure ahulezia, gaitzak eta akatsak–, eta guzti honi erremedioa ipintzeko eta egoera hobetzeko, bideak bilatu; eta azkenik, guztion artean elkar hizketa eginez eta eztabaidatuz, behar diren erabakietara heldu: horra bileron helburua zein zen.

Beraz, gogoeta egiteko jardunak ziren baitipat. Gaurko uneak eskatzen digunari nola hobeki erantzun, Euskaltzaindia nola tresna bizkorrago bihurtu, gaurko eginbeharrei erantzuteko nola Euskaltzaindia gai bihurtu. Horretarako gure egituran zer aldaketa egin behar den ikusi, eta ahal dela, erabaki, etab. Horra zertarako izan diren jardunaldi horiek.

Lehen aldiz uste dut egin dituela honelako jardunaldiak gure Euskaltzaindiak; baina aspalditik somatzen zen horrelako zerbaiten beharra. Denbora berriak heldu dira, eginbeharrak eta erantzunkizunak ere geroago eta larriagoak etorriko zaizkigu; agian gure egituran bertan ere badaude huts batzuk; gainera datozkigun eginbeharrei erantzuteko beharbada ez gaude ongi hornituak; hortaz landara, geron barrenean –Euskaltzaindiaren galtzarrean bertan, alegia– halako ondoez baten zantzuak somatzen dira.

Guzti hori konpontzeko, badirudi biderik onena zela euskaltzain oso guztiei dei egitea eta bakartadezko toki baketsu batean denon artean gure problemak astintzea eta beroiei atarramendu on bat emateko soluzioak bilatzea.

Joan den Maiatzean, Iruñeko bilera izan genuenean, azaldu zen espresuki Euskaltzaindiko Zuzendaritzakoen artean bilera hauek egiteko lehen asmoa. Eta oroit naiz Leireko monasterioa aipatu zela orduan leku

egoki bezala. Baina nola Abuztuko batzarrea Gernikan egin behar zen Altuberen omenez, gero pentsatu zen hobe zela batzarre horren ondoko egunetan jardunok egitea eta hartarako tokia Gernika inguruan bilatzea. Eta hala hautatu zen Foruko komentua.

Jardunetarako deiak euskaltzain oso guzti-guztiei bialdu zitzaizkien, bileretan ukituko ziren gaiak etab. aldez aurretik jakin araziz. Euskaltzain osoez gainera, zenbait euskaltzain urgazleri ere egin zitzaion deia, hots, batzorde batzuetan parte hartzen dutenei.

Zenbat bildu ginen Foruan? Hogeiren bat. Euskaltzain osoetatik frankok egin dute huts. Egia da, bestalde, horietatik gehienek beren ezin etorria adierazi dutela: edo egun horietan beste lanik zutelako edo osasun faltaz etab. etortzerik ez zutela adierazi dute. Oker ez banaiz, bilera horietara ez zutela etorri nahi garbiki eta borobilki bik jakin arazi dute (Irigarai, Labaien). Inolazko erantzunik bidali ez dutenak beste bi izan direla uste dut (Lekuona, Iraizoz; Lojendiok ere ez du erantzun, baina jakin dugunez, gaizki dago).

Nik, euskaltzainburu naizenez, deitoratzen dut Euskaltzaindiaren kontra kejak dituzten euskaltzain batzuek okasio hau baliatu ez izana. Geure barneko arazoak barnean garbitu eta konpondu behar ditugu elkar hizketa eginez, bakoitzak bere ikuspuntuak azalduz eta gauzak denon artean eztabaidatuz eta galbahetuz. Baina horretarako batzarrera etorri beharra dago.

Foruko jardunak lehen urrats bat izan dira. Uste dut ondoko hilabeteetan han azaldu diren soluzio bideak zenbait erabakitan mamitu eta gorpuztuko direla. Baita ere uste dut, gure egitura hobetzeko, honelako bilerak noizean behin egitea probetxugarri dela. Beharbada, etorkizunean, behin baino gehiagotan jo beharko da honelako bilerak antolatzera.

Gainerakoan, jardun haietan irakurri ziren txostenen gainean, eztabaidatu ziren puntuei buruz, zenbait problemari bilatu zitzaion irtenbideari buruz etab., Idazkari jauna mintzatuko da xehekiago.

1979.eko EUSKALTZAINDIAREN JARDUNALDIAK
(Abuztuaren 28-tik 30-era)

J. M.ª Satrustegi

Hiru egunez bildu da Euskaltzaindia Foruko Frantziskotarren etxean, orain arteko elkargoaren egoera eta eskuarteko lanak aztertu ondoan, geroari buruz bere helburuak finkatzeko asmoz.

Iragan abuztuaren 28-tik 30-era izan dira jardunaldiak. Bezperan, abuztuaren hogeita zazpian, Seber Altube euskaltzainaren mendeurrenari hasiera emateko batzarre irekia ospatu zuen Euskaltzaindiak Gernikako Juntetxean.

Euskaltzain oso guziak banan-banaka deituak izan dira bilera hauetara, hala nola batzorde zenbaitetako idazkariak. Hameka euskaltzain oso etorri dira, eta beste biren bozkatzeko eskubidea jaso da idazkiz ezin etorria adieraziz.

Eskuarteko gaietan, H-dun hitzen zerrenda egiterakoan erabiliko diren oinarrizko punduak onartu dira, batzar agiriak dioen bezala.

Asteartean, 28

1) Goizeko hamarrak eta erdi inguruan hasita, Villasantek gure artean gaur ardurarik larrienekoak ditugun arazoen laburpena egin du, gero zehatzago ikusiko ziren gaiak aurkeztuz. Zenbaitzuren kezkaz jabetuz, Euskaltzaindiak burokrazia gehiegi ez ote duen galdetu du. Izan ere ikerlana da bere helburu nagusia. Hasiak ziren lan batzutan astiro dabilela ere salatu du.

Eztabaidatu diren punduetan, aski zabaldu gabe dauden adierazpen batzu aipatu dira. Gaur-gaurko "Euskara eta Euskalkien" arteko istiluan, herriak ez omen du Euskaltzaindiaren agerpena jaso eta nahasmendua dagoela esan da. Beste zehaztasun eta agerpen batzukin ikastola eta alfabetatze-euskalduntzen dabiltzen talde guziei bialtzea komeni dela esan du norbaitek.

Hizkuntza arazoan, guraso eta haurren arteko etendura sortu dela adierazi du irakaskintzako batzordeko ordezkariak. Erantzun jatorren bat bilatu beharko zaio egoera horri.

2) Euskaltzaindiaren barne eraketa eta azpiegitura aztertu ditu Lizundiak. Korporazio mailan ongi ibiltzeko hutsune batzu bete beharrak ikusten ditu. Hileroko batzarrari zama arintzeko, zuzendaritzako bileren egutegia finkatu eta bere esku utzi behar diren gaien zerrenda mugatu. Ikersail eta jagonsail buru bien eginkizunak ere ez dira garbi ikusten. Erabakien onartze kontuan, batzorde bakoitzak egindako lanari *bai* ala *ez* esatea omen da, bakarrik, euskaltzainen egitekoa.

Euskaltzaindiak bere gain hartuak dituen lanei erantzuna emateko langile gehiagoren beharra ikusten du. Langile berririk ez hartzeko, nolabait euskaltzainek egin dezaketen lana, ordainduz, egin beharko litzatekeela dio. Nahi eta ez ordaindu beharrak ikusten ditu zenbait kargu.

Urte bitarik edo egitea eskatzen du, oraiko honen antzeko jardunaldiak.

Txostenaren osteko eztabaidetan, diru-kontuen begirale bat izendatzea premiazkoa dela esan da. Era berean, ordezkaritza guzien arteko koordinaketa ere beharrezkoa da. Bilera bat egingo omen da langile guziekin, ordezkaritza bakoitzari eginkizun berezi bat emateko.

3) *Itzulpenak*

Euskaltzaindiari aspaldidanik datorkion itzulpenen iskanbila aztertu ondoan ikusi da, lehenik, ez dela Akademiaren eginkizunetan sartzen itzulpenak egitea. Itzultzaileen eskola sortu behar luke, edo sortzen lagundu, eta erakunde ofizial bakoitzak bere itzultzaileak izan beharko ditu.

Gero eta gehiago ugarituz doaz zenbait esaera labur —bideetako adierazpen, hiritako seinale, etab.— Batzuk uste dute Euskaltzaindiaren egitekoa dela horien itzulpena sortzea. Gehienen ustez, denborarekin finkatuz bezala hartuko ditu bere hiztegian. Bitartean, idurien bidez agertzen dira, hitzez baino gehiago.

Azteazkenean, 29

4) Euskaltzaindiak gaur bere gain hartuak dituen zenbait eginkizun utzi beharrak direla agertu du San Martinek. Irakasle tituluak, esate baterako, beste bide batez eman daitezke. Irakasle eskola sortzea izango litzateke hoberena eta geroago unibersitatearen eskuetan uztea. Alfabetatze-Euskalduntze mogimendua bera ere, Euskal Kontseilu eta Diputzaioen bidez ofizialtasunera helduerazi beharra dago.

Edozein modutan, jagonsailan liberatu bat behar beharrezkoa du Euskaltzaindiak, orain arte gertatzen ari diren gehiegikeria eta isiljokoak bideratzen joateko.

5) Ikersailako zereginak aztertu ditu Knörr euskaltzainak. Hizkuntzarekiko Atlas egiteko une egokia dela zioen, bai diru aldetik, nahiz gazte prestatuak baditugulako. Erdaldundu berri diren euskaldeetan azternak jaso beharko dira, denbora berean.

Gramatika lanak aipatu ditu, gero, aztertu behar beharreko bezala. Doinu eta azentua ere hor ditugu belarri ongi prestatuen zai; eta estilistika ia umezurtz.

Azkenekotz, hiztegiak aipatu ditu. Hori, inolako konkurrentzia zentzugabekorik sortu gabe Euskaltzaindiak egin dezaken lana ikusten du, batez ere hiztegi monografiko eta ohiturazko esamesen hiztegi aldetik.

6) *EUSKERA aldizkaria.*

Behin baino gehiagotan aipatu da, egun hauetan, EUSKERA aldizkariaren arazoa. Orain arteko gaien zerrenda osoarekin egingo delarik zenbaki bat, neurriz aldatzeko asmotan gabiltz gure aldizkaria. Egituraz eta ikuspegi osoz aldatu beharra ez ote duen, zioetan zonbaitzuk. Proposamena honela egina zen: orain arte bezala urtean bi ale argitaratuz, zenbaki bakoitza gai bereziekin osotzea.

Alde eta aurkako iritziak jaso ondoan, honako akordio batera heldu dira batzartuak: Urteoro zenbaki batean ikerlanak, eta bestean batzarretako agiri eta bestelako erabakiak sartzea. Gaien banaketa honelatsu egingo litzateke:

EUSKERA. I. Iker eta bilketa lanak.

EUSKERA. II. Erabakiak, agiriak eta berriak.

Bi aleak elkarrekin salduko dira, noski. Aldaketaren aldeko iritzia bototara onartu da. Batzordeaz beste alde, zuzenean aldizkariaz arduratuko den norbaiten beharra ikusi da. Beste argitalpen batzu ere baditu gaur Euskaltzaindiak. Denen gidaritza egin lezake.

Ostegunean, 30

Ezken egunerako utzia zen Euskaltzaindiaren pertsona arazoa. Satrustegiri eskatu zitzaion txosten hau. Euskaltzaindiaren lehen denboretako egoera eta gaurkoa ez dira berdinak. Erantzunkizuna ere ezin berdina izan.

Gaur bertan egin ditzakegun izendapenak, geroari begira eginak izan beharko dute. Orain arte, gutxi edo asko, aukeratuek egin zezakeeten lanari begira, etorkizun itxaropentsu baten ametsez egin izan dira izendatze asko. Ez zen beste biderik ikusten. Horrek bere ondore onak izan ditu, akats guzien eskutik; baina, gaur, bakoitzaren lana eta merezimendu orokorrak neurtu beharko dira euskaltzain berriak aukeratzerakoan.

Gaurko egoeran, beste alde, izen eskasiarik ez du bere zerrendan Euskaltzaindiak: 24 euskaltzain oso, 7 ohorezko, eta 145 laguntzaile. 176 izen, beraz, ofizialki euskaltzaindian agertzen direnak.

Benetan zerbait egiten dutenak, beste alde, oso gutxi. Osoetatik, erdiak agertzen dira batzarretara; urgazleetatik, gutxiago. 1977an 57 etorri ziren urte guzian. Horietatik 25, behin baino gehiagotan.

Edozeinek ibili ohi du euskaltzain izena, nahasmenduak sortuz.

Hori delata, laguntzaileari bere laguntza eskatzea izango litzateke eraberritzen hasteko bide bat. Beste jokabide batzu ere aipatu dira. Gaurko egoeran zer komeni den ikusi behar da.

Hitzari buruz, *euskaltzain* hitza, euskaltzain osoak bakarrik erabili dezake. Bakoitzak behar luke honetan kontu haundia izan.

Hasierako *urgazle* hitza berriz hartzea komenigarri ikusi dute bildutako gehienek. Euskaltzain laguntzaile esaeraren ordez, beraz, euskaltzain urgazle esango zaie hemendik aurrera.

Euskaltzain ohorezkoa, orain arte bezala aditzera emango dugu.

Azkenekotz, badira Euskaltzaindiaren esanera lanean ari diren batzu, eta horientzat, lankidetasuna agertuko duen beste esaeraren bat beharko genuke. Lana amaitzearekin edo bere laguntza ematez uztean, ez luke beste inolako loturarik izango izendapenak.

Arautegia

Pundu hauek kontuan izanez, eta Euskaltzaindia saleroskętan ondasun batzuen jabegorako gai dela adierazteko, arautegia ukitu beharra dagoela ikusi da. Legegizonen esku utziko litzateke arazoa.

Eguerdian amaitu da jardunaldietako lana, eta arratsaldean ibilaldi bat egin dute batzarkideek.

UDALEN IZENDEGIAREN AURKEZPENA

Gasteiz, 1979-X-1.

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Gasteizko Alkate jaun agurgarri eta bertako Aurrezki Kutxarei Zuzendari jauna.

Jaun-Andreak.

Gau on denoi!

Gaur kaleratzen da, Euskaltzaindiak prestatua eta Euskal Herriko hiriburuetako Aurrezki Kutxek ager arazia, Euskal Herriko Udalen izendegia.

Itxuraz ez da gauza handia. Liburu arin-xume-polita, iduriz pisu eta monta ttikikoa. Baina nolabait, beronen prestakuntza-urteetan, langintza hau hurbildik ezagutu dugunok badakigu zein zail eta oztopoz betea izan den bidea.

Zortzi urte bete dira lan honi hasiera eman zitzaionetik. Euskal Herriko herri, herrixka eta auzoen izendegi ofiziala egin nahi zen. Beronen premia gorria dugula esan beharrik ez dago. Euskarak ofizialtasun mailarik izan ez duelako eta administralgoan erabilia izan ez delako, euskaldunak gehienetan ez du ongi jakiten nola diren euskaraz gure herrien izenak. Jakingo du, noski, bere jaioterriarena, eta gertu xamarreko herrien izenak ere bai, baina urrunekoak ez, entzute handikoak ez badira behintzat.

Huts hau bete nahiz, eta, hain zuzen, Aramaion egindako batzarre baten ondorioz, Euskaltzaindiak izendatu zuen batzorde bat langintza honetan eskuak jartzeko. Gaur lana, edo behintzat lanaren atal garrantzitsu bat, burutu duenean, eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot batzorde honi, bidera irten zitzaizkion oztopo eta eragozpen guztiak gorabehera, etsitu gabe eta azkenera arte iraun duelako.

Ez. Lana ez da bat ere erraza izan. Gure herrien euskal izenak jakiteko aspaldiko dokumentazioa bildu behar zen. Lehenengo, aspaldiko dokumentaziorik ba ote den eta non den jakin behar da. Idatzizko dokumentazioa ez da beti egoten, eta egonagatik, tokian tokiko jendeari ere galderak

egin behar zaizkio. Pilatzen duzun materiala gero galbahetu behar da, zeren maiz-sarri forma bat baino gehiago aurkitzen baituzu. Herriaren ahotan badira laburdurak, badira fonetizismoak, badira forma desitxuratuak, izkribuetan forma zaharrak aurkitzen dituzu, berriekin bat ez datozenak... Nahaspila honetan behar zen hautaketa bat egin, eta horretarako irizpide edo kriterio argi batzuk edukitzea noraezeko da.

Luzaz lan egin ondoan, eta, izendegi osoa egitekotan, zati luze baterako lana zegoela ikusirik, batzordeak erabaki zuen oraingoz udalen izenak bakarrik ateratzea, gainerako herriena beste baterako utziaz. Eta hala egin da. Eta hori da liburuxka sotil eta txairo honetan duzuena.

Eskerrak ematen dizkiet berriz ere lan honetan parte hartu dutenei, eta bereziki Euskal Herriko Udal-Aurrezki Kutxei, beren laguntzaz argitalpen txairo hau egitea posible egin dutelako.

* * *

Excmo. Sr. alcalde de la ciudad de Vitoria.

Director de la Caja de Ahorros Municipal.

Señoras, señores:

Hoy sale por fin a la calle el Nomenclátor oficial de los pueblos con Ayuntamiento del País Vasco. Quiero decir, el Nomenclátor de los nombres euskéricos de dichos pueblos. Esta edición ha sido posible gracias al trabajo sostenido y perseverante de una Comisión de Euskaltzaindia, Real Academia de la Lengua Vasca, y al patrocinio de las Cajas de Ahorro Municipales de las cuatro capitales vascas.

La mole de los libros no siempre corresponde al esfuerzo que su preparación ha supuesto. Este es nuestro caso. Dado su aspecto diminuto, pudiera pensarse que se trata de algo baladí, y en todo caso de poco o casi ningún trabajo. La realidad ha sido muy otra, y algo sé de ello, pues aunque no he formado parte de la comisión correspondiente, me ha tocado seguir de cerca las incidencias, vicisitudes y dificultades con que se ha tropezado en la gestación de este Nomenclátor.

Hacer una lista de los nombres vascos de nuestros pueblos parece cosa fácil, pero no lo es. Al no haber tenido el euskara rango de lengua oficial ni haberse empleado en la Administración, falta la correspondiente tradición. El vascoparlante conoce, sin duda, el nombre vasco de su pueblo natal y también los del entorno próximo, pero no los de los pueblos más alejados, a no ser que sean muy sonados. Se hacía preciso buscar para cada caso la documentación escrita, cuando la hay, saber si existe y dónde existe. Hacía falta además el trabajo de campo, o sea, las consultas "in situ". Los datos que se recogen no siempre son concordes, por lo que resulta preciso estar en posesión de unos criterios claros a la hora de hacer la debida selección. Luego la comisión se encontraba con el problemón de los pueblos que han perdido, tal vez desde hace siglos, el uso del euskara. ¿Con qué criterios se había de establecer el nombre euskérico de dichos pueblos? En fin, el llevar a cabo la confección de un Nomenclátor

oficial de los nombres euskéricos de nuestros pueblos con garantías de veracidad y credibilidad era una empresa erizada de escollos.

Sólo diré que se han cumplido ya ocho años desde que la Academia, a raíz precisamente de una sesión pública celebrada en Aramayona, constituyó la comisión para efectuar este trabajo.

Sobre la marcha, después de varios años de labor, y previendo que un catálogo exhaustivo y completo no podría concluirse dentro de un plazo razonablemente corto, la misma comisión decidió dar prioridad a los nombres de los pueblos que tienen Ayuntamiento, y dejar los otros para una segunda fase. Esto es lo que se ha hecho y esto es lo que ofrece el libro que hoy sale a luz.

No me toca a mí extenderme más sobre la problemática y dificultades propias de este dominio, sobre las leyes que es preciso conocer para el recto uso, declinación, etc., de los nombres euskéricos de los pueblos y de sus respectivos gentilicios. Todo ello lo tenéis explicado en el libro que hoy presentamos al público. Además está entre nosotros el académico Sr. Michelena, quien justamente ha sido el presidente de la comisión de Euskaltzaindia que ha realizado este trabajo. Nadie más indicado que él para explicar cómo se ha realizado la elaboración de este Nomencláter, las dificultades a que ha habido que hacer frente y la solución que se les ha dado, etcétera.

A mí sólo me resta dar las gracias a la comisión, y por supuesto a las Cajas de Ahorro Municipales de las cuatro capitales, que con su ayuda han hecho posible el que este Nomenclátor se publique. Ojalá que en un plazo no demasiado largo se lleve a cabo también la 2.ª parte, para la cual hay ya mucho material reunido.

"BAI EUSKARARI" KANPAINA IPARRALDEAN

Donostia, 1979-IX-28

P. Xarritton

1978.eko "Bai Euskarari" kanpaina egin zelarik Hegoaldean, Ipar Euskal Herrian bazterretik egon ginen: Hegoaldearen ikuspegitik prestatua zen kanpaina haste-hastetik eta gero, kanpaina hasi ondoan, nihaur deitu nindutenean, alde batetik berantegi zen orduan, has eta has, edozer egiteko. Bestaldetik ordukotzat "Seaska" taldeak bere kanpaina betebetean zeraman. Gerorako utzi zuen beraz Euskaltzaindiak jaz Iparraldea.

Aparailuak

Aurten, Urtarrilaren 15ean, lehen bilkura bat egin zen, Baionako Museoan egunkarien bitartez dei bat eginik interesatuak zitezken guziei. 30 bat lagun bildu ginen. Bilbotik etorritako kanpainaren eragileak, Ibabe, Elorriaga, Castañares eta heien lagunak entzun genituen. Bilkuraren ondotik erabaki zen talde eragile tipi baten biltzea, iparraldean euskararen alderat aurki ditezken arrazoinak eta alderdiak ikertzeko eta gero Bilboko taldeari aurkezteko. Bilboko profesionalek eskaintzen ziguten alabaina beren laguntza publizitateari buruz. Bizkitartean ohartu ginen berehala kanpainaren aparailuek bi edo hiru hilabete eskatuko zizkigutela gutienetik eta beraz "Seaska"ren kanpainaren ondotik egin beharko zela aurten ere "Bai Euskarari" kanpaina: Hau da ekaineko hilabetean.

Talde eragileari izena eman genionak sei ginen: R. Kanblong, G. Etxeberri, J. Goyhenetxe, B. Garayart, Ladix L. eta nihaur. Gero R. Kanblong-en orde J. L. Hariñordoki etorri zitzaikun eta urtarriletik martxoraino sei edo zazpi bilkura egin genituen, euskararen egoera soziopsikologikoa ikertzeko gure eskualde hautan. Bilboko taldeari aurkeztu genion gero gure lana.

Apirilean Donostiarat ekarri zizkiguten Bilbotarrek beren proposamenak eta gero proposamen hauk ikertu zituen Baionako Museoan bilkura nagusiak. Azkenik iparraldeko euskaltzainek hartu zituzten erabakiak Belokeko bilkura berezi batean.

Erabaki horien arabera dira hautatuak izan afixen formulak, finkatuak hasierako Hendaiako eguna eta amaierako D. Garaziko pesta. Eus-

kaltzainek berek parte hartu dute artikuluak prestatuz eta beren izenean eskaerak igorriz herrietako auzapez, kontseilari, apezei bai eta diru etxe eta lantegiei. Bestalde Baionatik egina gatik kanpainaren koordinaketa, herrialde bakoitzean sort ziteken taldeari utzi zaio, berak, bere gogora eta asmura, bere programa egiteko esku osoa. Azkenik idazkaritzarako, galdatu zaio R. Bachoc jaunari, bere laguntza eman dezaion P. Xarritton ordezkariari.

Kanpaina bera

Horiek hola, Hendaian hasi zen kanpaina, ekainaren 3 an, lekuko taldeak prestatu egun ederrarekin.

Orduz geroz, nahigabe eta oztopo asko izan du gure kanpainak. Hala nola mugaren iragaiteko, grebak zirela ta, gibelatu baitira hegoaldetik ekarri behar genituen aldizkari, paper eta eranskailuak. Bestalde politika gertakariek sortu dituzten manifestapenek eta eginkizunek militante asko urrundu dituzte gure kanpainatik, bereziki D. Garaziko egunerako.

Ba dira publizitate lan batzu ahulki joan direnak: Irrati, telebista, egunkariek hartu dituzte guhaurk eman solas eta izkribuak, baina beren baitarik ez dute oldar handirik egin. Bereziki gobernuko irrati-telebistek eta *Sud-Ouest* egunkariak. Huni hasteko ez diote euskaldunek zorrik.

Aitor dezagun ere gure banko etxeak orainokoan elkor eta mutu egon direla. Alta bada euskaldun izen asko barne horietan eta denek ere maite dute euskaldunen dirua zaintzea. Bestaldi batez menturaz...

Dena dela erran behar dugu iparralde osoa hunki dela egundaino ez bezala, euskaraz eta erdaraz, eta herrialde batzuk ederki ihardetsi diotela Euskaltzaindiaren deiari. Heletan eta Alduden jende guti bildu bada ere pertsularien entzuteko, Aiherran eta Barkoxen jendalde pollita ba omen zen Lafitte eta Haritschelarri behatzeko. D. Lohitzuneko eskualdea ezpada ere asko harrotu, ez Baiona erdia ere, Getarian, Baiona berrian, Hiriburun, Hazparne eta Ziberoaldetan pesta bilkura ederrak muntatu dira.

Kanpaina bururatu eta, konduen egiteko ordua etorri denean eta parte hartu dutenei, uztailaren 28 arratsean dei egin diegularik, Senpereko haiztegi itzaltsu batetarat, 50 lagun bildu gara, zikiro baten inguruan. Eta kondu hauk atera ditugu:

Kanpainako konduak

– 2.500 letra igorri dira laguntza eske (60 ek ihardetsi).

– 30.000 astekari atera dira ta hoitarik 100.000 zabaldu.

– 46.000 afixa atera dira ta 20.000 inguru zabaldu.

– 4.000 pasa atorra sartu dira ta 2.000 inguru saldu.

– 20.000 eranskailu sartu dira 10.000 zabaldu.

Materiale hori guzia Hegoaldetik etorria zela jakinez geroz, aitor dezakegu ez ginuela iparraldean, laguntza hori gabe, gure kanpaina egiten ahalko baina erran behar dugu ere, gure ustez, ongi baliatu dugula eskaini diguten lauzka.

Xahupideak	**Libera**
Moldiztegia	3.000
Aduana	1.000
Publizitatea	2.100
Posta ta telefona	3.100
Idazkaritza.....	3.000
Ibilaldi ta gastu	3.000
	15.200

Sartzeak	**Libera**
Hendaia.....	13.000
D. Garazi	7.000
Hazparne aldea	11.374
Baiona aldea.....	10.525
D. Lohitzune aldea	1.165
Diru laguntzak	8.000
	51.064

Garbi konduan (2-IX-79) *36 659,79 libera.*

Bestalde Amikuzen ta Ziberon bildu den dirua zabaldu da herrialde hoitako haurrei eman diren primetan. Ba daude oraino Lapurdi aldean 5 eskola saristatzeko. Sar ditake ere oraino purruxka zerbait hantik edo hementik, baina lodiena hor da.

Ondotik

Aipatu zen Senperen, udazkenari buruz oldar berri ta labur bat egitea ikasturte berriko programak agertuz eta gelditzen den materiala baliatuz. Ikusi behar. Dena dela, orai hemendik hegoaldeko haurridei gure agurra eta esker ona bihurtu behar eta bihotzetik egiten diegu.

Gero iparraldean, Euskaltzaindiak kanpaina horretan bere deia entzunarazi badu, ez du orai berak ixil eta lo egon beharko. Herriari zor dio euskararen alde lan egitea eta eragitea. Bai eta bere lanen berri emaitea.

NAZIOARTEKO EUSKALARIEN JARDUNALDIAK

Gernika, 1979-VIII-31

Juan San Martin

Asmoa

1. Herbesteko eta Euskal-Herriko euskalariekin hitzaldiak.

— Euskalari bakoitzak hamabost edo hogei minutuko hitzaldia emango luke, eta bere gaia, euskarari buruz eskuartean duen lana, txosten gisa, adieraztea izango da.

— Hizlari guziak, edo gehienak, euskaraz mintzatuko dira.

— Hitzaldia idatzirik ekarri beharko dute. Gero, guk, artxiboan izan dezagun nor zertan ariden jakiteko eta aurrerantzean partaideekin harremanetan jarraitu.

— Orain bakoitza bere aldetik ari da, inoiz elkarren berri jakin gabe, eta euskalari sakabanatu hoien lanak, ondorean gure EUSKERA aldizkariaren inguruan biltzea ekarriko luke.

2. Euskalarien artean harremanak zabaltzeaz.

— Aurkiketa hoiekin, orain elkar pertsonalki ezagutzen ez direnek elkar hobeto ezagutzeko aukera idekiko luke, aurrerantzean harreman estuagoan izatea lortu eta euskararen ikerketak bizkortu. Lehendik ezagutzen direnak heurak ere harreman estuagoetara bultzaraziz.

— Lan berdinak edo berdintsuak egiten ari direnen artean elkarren berri eta laguntzak indartzea ere lortu lezake.

— Hitzaldien ondorengo elkarrizketaz, ikerketa hutsuneak non dauden eta zer bide hartu behar duten begiratu edo estudiatu.

— Eta, azkenik, biharko egunean Euskal-Herriko Unibertsitatearekin batean Kongreso edo Batzar nagusi bat burutzeko bideak ideki. Lan hau, eta hemendik aurrerakoa, gure iker sailaren bidez eroateko.

Beste ondorio batzuk

1. Aurkiketak beren zabalkunde hotsa izango dute:

a) Herriari erakutsi gizon ospetsu eta jakintsuak euskaraz arduratzen direla.

b) Ondorio bezala, haiek euskaraz mintzatzen direlarik, gure hizkuntza ikasteko gogoa sortarazi edo bizitu herriagan.

c) Era berean, egungo gizarte egoerak eskatzen digunaren arabera, errespetua lortu, zientzia mailan, euskararen alde. Gure hizkuntza gutietsirik eta bazterturik eduki bai du herriak kultur mailetan itzalik erakutsi ez duen konplexoz.

d) Ekintza honek, gainera, esan beharrik ez dago, Euskal-Herri eta Espainiako Estaduaren barnean, alderdikerien gainetik, begiramen hobea lortuko duela gizon politikoen artean ere.

e) Honetarako, behin eta berriz, argi erakutsiko dugu hizkuntza herri baten kultur ondasun maitagarri bat dela.

2. Plangintza guzia, aldez aurretik, publizitateko etxe baten bidez propaganda guzia gertatuaz eramango genuke, "Bai Euskarari" kanpainan bezala; herrian ez ezik, agintarien artean ere errespetarazi eta zer pentsa emateko gisa. Honelako propaganda bat behar beharrezkoa zaigu gaur Euskaltzaindiarentzat, politikazko bidegurutze honetan, bere itzala zabalago jartzeko eta euskararen alderako lorpenak handitzeko. Gainera, gure Akademi nortasuna zalantzan jarri nahi dutenen aurrean erakutsi dezagun, holako helburuak lortzeko ahalmena duen erakunde bakarra, gaur gaurkoz, Euskaltzaindia bakarrik dela nor.

3. Euskalariei, bidaia eta ostatua ordaintzeaz gainera, saria ere eman behar zaie. Beraz, presupuestoa aski handia izanen da. Baina, zabalkundeak, bestalde, berak ekarriko digu diru laguntza, lehen ere hala gerta zaigunez.

4. Ekintza honek maila guzietan izango duen eraginak, euskararen alderako giro berezi hobeago bat lortuko du, eta hau izanen dugu beharrezkoaena, probetxugarriena, gure herri guzia, euskaraz arduratzera, euskara ikastera eta erabiltzera bultzatuko duenez. Gaur egungo egoeran, holako ekintzak beharrezkoak ditu gure euskarak, indartsu berbiztuko bada. Historiak honera ekarri gaituanez, hala jokatu beharra dugu. Holako premiarik ez dugun egunean, euskaltzaleok izanen gara zoriontsu.

Oharrak:

Aldez aurretik, gomitatzen diren euskalarien "curriculum" laburrak bildu.

Etorriko diren nazioetako enbaxadore, konsul edo kultur ordezkariak gomitatatu. Honek, beronekin dakar hemengo gobernariak gure atzetik ekartzea, eta guk, eskari bidez, eskaintza konpromisoetara bultzaraztea, gure hizkuntzaren alde.

Lagintza aurrera eramateko bi batzorde osatu behar dira:

a) Aurkiketen eratzailea.

b) Antolatzailea, bidaiaz, ostatuz eta euskalariekingo harremanez arduratuko dena.

Horrez gainera, aurkiketen egunetarako, harreman arduradunak, zenbait pertsona Euskaltzaindiaren izenean izendatuz.

Adibidez: L. Mitxelena, J. Haritschelhar, J. Bilbao, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, X. Kintana...

HIL-BERRIAK

MIKEL ZARATE LEJARRAGA (1933-1979)

Lezaman, 1933.eko Martxoaren 6an mundura etorri zen herri berean, 1979.eko Apirilaren 10ean hil zen Mikel Zarate Lejarraga.

Mikel, etxegintzako aparejadoretarako ikasketak egin ondorean, hogei urtekin sartu zen Derion apezgai eta hogetahamaikakin eman zuen meza berria. Laster ekin zion euskarazko laneri eta era berean eman zion Filosofia eta Letrak ikasteari Deustoko Unibertsitatean. 1974an jaso zuen lizentziatura eta urrengo urtetik Unibertsitate berean maisu eskolako irakasletzan sartu zen, Derioko Seminarioan lan bera jarraituaz eta Liturgia batzordean parte hartuz.



MIKEL ZARATE
(1933-1979)

Mikelek, ordurako, zenbait liburu argitaratuak eta sariak jasoak zituen. Merezimendurik aski zuelako izendatu zuen Euskaltzaindiak urgazle 1972. urtean.

1978. urtetik Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia sailean irakasle zen. Eta, urte honetan, Euskaltzaindiaren eskariz gertatua, Bergaran egin zen Biltzarrean "Euskara batua eta euskalkiak" zeritzan txostena irakurri zuen (EUSKERA, XXIII (1978)-2, 557-568 orr.). Gai hontaz oso kezkatua zegoen bizkaiera batura eraman ahal izateko edo bizkaieraren guna euskara idatziaren batasunera emateko.

Bere lanak, literaturagintzazkoak eta euskararen eta euskal literaturaren ikerketazkoak izan dira gehien bat: ipuiak, eleberriak, olerkiak, saiaerak..., eten gabeko etorria eta lagintzarako kemena zuen Mikelek eta liburu asko idaztera heldu zen.

Hara hemen argitaratutako liburu zerrenda: *Gure Meza Deuna* (Bilbo, 1959), *Gure salbaziño-egintza* (Bilbo, 1967), *Meza liburu txikia* (bizkaieraz, gipuzkeraz eta gazteleraz) (Bilbo, 1968), *Bizkaiko euskalidazleak.* Bizkaiko literaturaren kondaira antzera. 1580-1968. (Bilbo, 1970), *Haurgintza minetan* (Zarautz, 1973), *Ipui antzeko* (Bilbo, 1975), *Euskal deklinabidea* (Bizkaieratik baturantz), (Durango, 1975), *Ipuin antzeko alegi mingotsak* (Durango, 1975), *Influencias del vascuence en la lengua castellana, a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierri-Gran Bilbao* (Bilbo, 1976), *Higidura berdez* (Donostia, 1977), *Euskal Literatura* I eta II. Azterbideak, aztergaiak, azterketak (Durango, 1977 eta 1978), *Euskal Ortografia* (Durango, 1978), *Bizipenen bultzadaz* (Durango, 1978), *Utopiaren fantasian* (Donostia, 1979).

Hoiez gainera beste honako hauek utzi zituen argitaratu gabe: *Bilbo irribarrez,* 55 ipui labur; *Hizunigu*, eleberri laburra; *Etorriaren zorabioz*, olerkiak. Eta guztiz bukatu gabe utzi zuen azken hamar urte hontan euskara batuan idatzitakoaren antologia, hitz-lauz.

Garrantzizko galera izan da Mikelena. Gazte, jakitun eta langile borrokatua sasoirik onenean joan zaigu. Bete ezinezko hutsunea utzi digu.

Goian bego, adiskide eta lankide maitea.

J. S. M.

JOKIN ZAITEGI PLAZAOLA
(1908-1979)

Azken urtea oso larria igaro zuen Jokin Zaitegi jaunak. Bihotza ahuldu zitzaion eta erori aldi baten ondotik Arrasatetik Oñatiko babes-etxera eraman zuten eta han iharraitu zion, piztu aldi bakoitzean, Platon-en lanak euskaratzeari, bere azken ordura arte.

JOKIN ZAITEGI
(1906-1979)

Zaitegi, Arrasaten (Mondragoen) jaio zen 1906.eko Uztailaren 26an eta Donostiako Probintziko Hospitalean hila sorterrira eroan zuten bere gorputza 1979.eko Abuztuaren hamaseian, biharamunuean hobiratzeko.

Jesuitetan estudiatu zuen Orixe, Ibiñagabeitia, Lauaxeta eta beste zenbait euskaltzalekin batean. Baina ordenatzeko orduan irten zuen apaiz egiteko eta laster joan zen Guatemalara misiolari. Gaztetatik erakutsi zituen olerkigintzarako dohainak eta 1934.urtean, Euskalzaleak Zarautzen eratu zuten olerki lehiaketan lehen saria irabazi zuen, *Tori nire edontzia* lanarekin. Urte berean, *Elerti* zeritzan liburu batean Zabalkundea Sortak argitaratua.

1953. urtetik Euskaltzaindiko urgazle zen. Euskara eta euskal literaturaren arloan zituen merezimenduak hain handiak zirenez, 1976ko abenduaren 19-an Arrasateko udalak eskaini zion omenaldian Euskaltzaindia ere partaide zen eta zuzendaritzakoek orduan proposatu zuten euskaltzain ohorezko izendatzea. 1977.eko Urtarrileko batzarrean ofizialki proposatu eta otsailekoan ohorezko izendatua izan zen.

Euzko gogoa aldizkariaren sortzaile eta zuzendari genuen. Euskararen egoera hain larria zen garaian sortu zuen Guatemala-n. 1950etik 1955era bitartean han argitaratu zuen, eta 1956tik 1959an suntsitu arte Miarritzen. Gerraondoko lehen idazle berriok han hasi ginen idazten, handik hartu genuen gerra aurrekoekin harreman eta lotura, eta euskaragatik inork ezer emango etzuen garai hartan pizgarri izan genuela jakiteko aski dira *Euzko gogoa*-ren zenbakietan Jokinek berak idazten zituen atarikoak irakurtzea. Haren euskaltzaletasun sutsua genuen orduko guti guztion eragile. Zaitegi ez zen geldirik egoteko gizona. Ekintza horretan bere ondasunak galdu ondorean, berriz ere Ameriketara joan zitzaigun.

Euzko gogoa aldizkariaren eragina ezagutzeko, ikus *Jakin*-en 12. zenbakain (Urria-Abendua, 1979) J. Intxaustiren lana, 120-137 orrialdeetan.

Bi olerki libururen egile genduen: *Goldaketan* (México, 1946) eta *Berriz ere goldaketan* (Guatemala, 1962). Hoien azken partean badira itzulpenezkoak ere. Izan ere, *Euzko gogoa*-ko artikuluetatik aparte, bere lan nagusia itzulpenak ziren. Klasiko zaharren itzulpenak. Honetarako ongi gertatua zegoen, latinez ez ezik grekera ere ikasia zuenez.

Longfellow-en *Ebangeline* (Guatemala, 1945) eta *Bidalien egiñak* (Zarautz, 1955) liburuez aparte, "Adiskide berekoiak Olabide'ren Itun Berrian" (*Euzko gogoa*, 1958), *Sopokelen antzerkiak*-I (México, 1946), *Sopokelen antzerkiak*-II (Baiona, 1958), Euripide-ren *Medeia* (*Egan* aldizkarian, 1963). Baina, bereziki Platon-en elkarrizketeri heldu zion, bere sarrerazko estudio eder batekin hasiaz, *Platon—eneko atarian* (Donostia, 1962), ondorean lan hauekin iharraitzeko: *Platon*-I. Oturuntza, Protagora, Menon (Donostia, 1975), *Platon*-II. Gorgia (Donostia, 1977), *Platon*-III. Eutrifron eta Sokrateren apologia (Donostia, 1978), *Platon*-IV. Kriton eta Faidon (Donostia, 1978), *Platon*-V. Ipia txikia eta Alkibiada (Donostia, 1979). Beste zati batzuk utzi ditu, itzuliak baina argitaratu gabe. Bere azken borondatezkoa zen Platon-en itzulpen guziak argitaratuta ikusi ondorean hiltzea, baina beraren osasunaren indarrek ez zioten lagundu.

Itzulpen hauetarako iharraitu zituen arauen berria aurkeztu zion Euskaltzaindiari "Platon euskeratzen" deitu txosten batean (EUSKERA, XIX, 1974, 358-361 orr.).

Euskal historian ez dakit izango den beste inor euskaragatik hainbeste eman duenik; nik ezetz uste. Esan beharra dago nori berea emateko, *Euzko gogoa*-ko zenbait artikulutan "Udalaizpe" eta "U" izenpetzen zuela. Berak gizontasunean eta langiletasunean zuen kemena, paregabea zen. G. B.

J. S. M.

SAUVEUR NARBAITZ
(1908-1979)

1979.eko Irailaren 12-an Sauveur Narbaitz jauna Behauzen hil da bere sort-etxean, eritasun luze eta oinazetsu baten ondotik.

Errient ohia zen, gobernuko eskoletan euskal herri askotan haurren argitzen ari-izana.

Amikuzeko euskarari arras atxikia zen, bai eta eskualde hortako ohidura gehieneri.

Politikaz sozialista zen. Luzaz bere alderdiko *Le Travail* astekaria kudeatu du, eta askotan lagunek aurkeztu dute beren kargudun-gai bezala auteskundetan, suerte gutirekin.

Baionan herriko gizon edo kontseilari iragan zen haatik alderdien arteko antolamendu bati esker.

Euskalzaleen Biltzarrak Dassance jaun zenaren denboran IKAS batasuna eraiki zuenean Sauveur Narbaitz ek esku hartu zuen batzorde hortan. Bere egin ahalak oro egin zituen bere errient lagunak euskararen erakasterat bildu beharrez.

Berak apailatu zituen zenbait liburuxka haurrentzat, euskara heien meneko ezarriz.

Askotan idatzi du eta hitz-egin euskararen alde, erdaraz ala euskaraz.

Hortakotz Euskaltzain-laguntzale izendatua izan zen.

Gerla denboran Alemanak ipar-euskal-herrietan baitzauden bazterren barrandan, S. Narbaitz ihardukiltzaletan eman zen. Etsaiek kausitu zuten, eta Alemaniara ereman, Buchenwald-eko zigor-zèlaietan hainitz pairaturik osagarria funditu baitzitzaion.

Ehorzketa ederrak egin diozkate Behauzen merezi zituen bezala irailaren 14ean.

Gure doluminik bizienak haren andreari, etxekoeri eta adixkideri.

P. L.

ETXAHUN-IRURI
(1908-1979)

Larrazken hastapenaren egun ederretan, urzo xuriak hegaldatzerat doatzilarik Euskal Herriko mendiak iragan beharrez, kanpoak oraino berde horailtzen hasiak direla, bet-betan, uste gabetan bezala Xiberuko txori erresiñula ixildu zauku.

Euskal Herriak ezagutzen duen sasoinik ederrenean Etxahun Iruri, Euskaldun guzien adixkidea, itzali da. Hor ditu bere azken egoitzarat laguntzeko, begitarteak zimur, bihotzak ilun, bere familia lehenik, eta haren inguruan ahaideak eta Euskal Herri guzitik jinikako adixkideak. Hor daude ere berak kantatu dituen Xiberuko bazter ederrak, egun sekulan baino hobeki edertuak, ibar eskuina eta ezkerra. Maidalena eta Bostmendieta, Unhurritze eta Orhi.

Hor daude ere Xiberuko oihan eta ur xirripak, hor dago Uhaitza eta haize hegoa oihanetan, ur lasterrak erreketan soinulari bihurtu direteke Etxahunek berak sekulan gehiago joko ez duen txulularen joiteko.

Hor dago Xiberua, hor dago Euskal Herria, Etxahun, egizu lo.

* * *

PASTORAL EGILE

Orhoitzapenetan eta euskal literaturan ez da sekulan itzaliko Etxahun Iruri. Hogoigarren mendeko pastoral egilerik famatuena izanen da. Boz ilun batzuek oihukatzen zutelarik Xiberutar pastorala bere azken hatsaren emaiten ari zela, zuk, Etxahun, duzu arrapiztu, azken 25 urte hautan bederatzi pastorala idatzi baitituzu. Xiberotarrez, Xiberotarki jokatu zira. Zurekin eta zure gatik bihurgune bat hartu du pastoralak, osoki euskaldundu baituzu. Begote bazterrean Testament zaharreko ixtorioak, daudela diren lekuan Charlemagne eta Aymon-en lau semeak, Türk handia eta Napoleon! Besterik nahi zinuen: Etxahun Barkoxekoa eta haren bizitza dolurusa, egiazko euskaldun koblakaria; Matalas, Mitikileko erretora Xiberotarren zuzenen zaintzalea; Bereterretxe XV garren mendeko Larraintar famatua, gure khantore zaharrenetarik batek aipatzen duena;

Santxo Azkarra, Euskaldun ororen erregea; Le Comte de Treville, herri huntako zalduna; Xikito de Cambo, pilotari famatua, Euskal Herriko plazetan ezagutua; Pette Beretter XVI garren mendeko nafartar gudaria.

Aldi bat bakarrik Euskal Herritik urrundu zira Ximena pastoralarekin. Bainan pastoral horrekin Xiberuko neskatilak agertu dira plazarat, igan dira tauletarat eta heien boz ozenen xaramelek laguntzen zituzte eskerrezko hitzak bihurtzen dauzkitzutela.

Bederatzigarren pastoral bat badaukazu zure paperetan: Iparagirre, "Gernikako arbola" kantuaren egilea. Hori dateke zure ordeñia, hortan ezarri dukezu zure arima osoa. Sujet ederra, elgarrekin asmatu duguna eta orhoit niz zer atseginekin izkiriatu zinautan duela orai urte bat eta erdi egina zela Iparagirreren pastorala. Etxahuni egin ditaiken omenaldirik haundiena da pastoral horren emaitea heldu den urtean.

ETXAHUN - IRURI
(1908-1979)

KHANTORE HUNTZAILE

Pastoral egile bezala geldituko zira Euskaldunen gogo-bihotzetan, bainan ere khantore huntzaile gisa. Zure kantuak hedatu dira urrun, Euskal Herritik kanpo, egiten zautzutelarik fama haundi bat. Kantatu dituzu Xiberuko bazterren ederrak, mendi, oihan eta zelaiak. Nork agurtu du, zuk agurtu duzun bezala, zure Xibero maitea.

"Agur Xiberua,
Bazter guzietako xokorik eijerrena.
Agur Sor lekia,
Zuri ditit ene ametsik goxuenak."

Eta bihotzaren erditik zarioten hasperenak joan dira mendiz mendi, oiharzun sarkorra egiten zutela euskal bihotzetan.

Xiberotarra zinen errotik, bainan Xiberua ohoratuz eta zerbitzatuz ohoratu duzu ere "ama Euskal Herria" senditu duzularik Euskal Herritik urrun bizitzearen nekea eta zorigaitza.

"Ai zer plazerra bost urten bürian sor lekilak ützültzia
Ene herria etsitü nian, zure berriz ikustia
Aski sofritüz nikhanitxetan, desir nükian hiltzia
Ez bazüntüdan hain maite ükhen, o Ama Euskal Herria!"

Kantatu duzu pilota eta Pilotarien biltzarra, erranez oldar berezi batekin:

"Zer lizateke Euskal Herria
Pilotarik gabe."

Senditu duzu eta konprenitu Euskal Herriko gazteriaren oihua eta haren oiharzuna sendi ditaike errepika batean:

"Ez gal gure odol berua
Bizi dadin gure Xiberua!"

Bihotzean hartu dituzu barnaki beste alderdiko gure anaien sofrikarioak, beren sort-herritik urrun zaudelarik ezin berriz etxeratuz. Edozoin euskal errefujiatuek kanta lezake:

"Entzün nezazü "Ama" zure deitzen,
Entzün nezazü zure nigarstatzen;
Eskualdün lürretik naie ohiltzen,
Noiz othe niz sarthüren ni libro etxen."

Bi ama aitortu dituzu, bizia eman dauzuna eta bestea "Euskadi", biak laudatu ditutzu amultsuki, biakelgarretaratuz amodio berean.

"Hanitxen gisa baditit
Bi Ama amiragarri
Enia eta Euskadi
Biak paregabeko dira.
Afekzionez beterik
Biak hanitx maite ditit
Eta haien besuetarik
Gogo hunez khantatzen dit."

Bakotxak bere segeretua baitauka, zuk ere bat atxiki duzu nehori erran gabe. Eman diozkatzu Euskal Herriari pastoral eta khantore, eman dizkiozu ahaide berri eta gogoan zinituen hasperenak hala nola esperan-

tzazko hitzak, horiek guziak nasaiki, jenerusa baitzinen euskaldunekin, bainan azken bertset bat atxiki duzu aspaldian huntürik zinuela Josefateko sohuko entrada gisa.

"Irus bizi niz aide sanuan laborantxan Xiberuan,
Ehantore zunbait huntüz mendian edo süthondo xokhuan;
Horik eskeintzen dereitziet bat begiratüz goguan
Entrada gisakhanta dezadan Josefateko sohuan."

* * *

AGUR ETXAHUN

Eta orai Euskaltzaindiaren eta Euskaltzaleen izenean eginen deitzüdan azken agurra zihauri hartüko deizüt. Etxahun Barkoxeri egin diozün omenaldian huntü düzün berset sarkor eta maitagarria eskainiz.

Zihaurek beste Etxahuni eskainia, zihaurek orai hartüko düzü.

"Othoitzerik den goxuena
Eginik zur'ilherrian
Nahi zütügü Etxahun zena
Bethikotz izar herrian,
Zeren zure orhitzapena
Argi da Eskual Herrian
Adios koblarik ederrena
Zaude Zelüko lorian."

Jean HARITSCHELHAR

JON OÑATIBIA AUDELA
(1911-1979)

Jaunak eman beizula, Jon, merezi izan duzun atsedena. Inor izan bada apalki euskal kulturaren alde lan egin duena zu izen zara, Jon adiskide eta maisu. Baina apalki eta protagonismorik gabe egin duzun lan hori ez da isilean ahaztuko Euskalerrian bizia eta iraunkorra delako.

Ameriketatik etorri berria zinela elkar ikusi genuen Oiartzunen zure Euskal Show Gernikara ekartzeko asmoz. Gero Gernikako Marijesiak zirela eta Oiartzungo beste kopla batzu konparatuz hainbat hitz egin genuen eta gogoratzen naiz 1967.eko Abenduaren azkenerantz bidali nizula Marijesien grabazio bat. Donostiako "La Voz de España" egunerokoan argitara eman zenuen Gernikako Marijesietako "Bart Belenen" doinu eta hitzez euskara musika bidez erakusteko asmotan. Eta Tolosako Musika Lehiaketetan ere baten baino gehiagotan mintzatu ginen musika, euskara, dantza, txistu eta abarreko gaiak erabiliz. Horregatik, Jon adiskide, min haundia hartu nuen 1979.ko Ekainaren 30 ean hil zinela jakin nuenean.

JON OÑATIBIA
(1911-1979)

Zoritxarrez gizon baliotsuok arinegi zoazte. Eta gu geratzen gara hemen zuen hutsunea bete ezinik. Baina zoaz lasai, ahalegindu behintzat egingo gara eta.

* * *

Jon Oñatibia Audela Oiartzunen jaio zen 1911.ean. Euskal kulturaren pizkundea ezagutu zuen txikitatik eta txistulari eta dantzari trebea izan zen gaztetatik. Zaragozako Unibertsitatean egin zituen Zuzenbide estudioak eta Imanol Lekuonak diozkunez, opor aldietan Nafarroako Erriberatik ibilten zen txistuarekin hango giroa alaituz eta dantzak lagunduz. Gerra denboran gudari izan ondoren euskaldun asko eta asko bezala ihes egin beharrean aurkitu zen, ez zuen txistua etxean utzi eta atzerrian, Parisen, txistulari lanean jarraitu zuen. Parisera iritsi berria zelarik han azaldu ziren Enrike Jorda, Julian Ajuriagerra, Paul Legarralde, Jose Etxabe, Jesus Luisa Esnaola, Gabriel Olaizola eta beste batzuren artean gure Jon Oñatibia. Denen artean Euskal Abesbatz eta Koreografi Talde bat sortzea erabaki zuten eta 1937.eko Abenduaren 18 an azaldu zen Pleyel aretoan *Eresoinka* taldea. Lau urtetan ibili zen Oñatibia talde honen barnean txistulari bezala 1941.ean Venezuelara jo zuen arte. Beste 13 urtetan ekin zuen Oñatibiak musika, dantzak eta euskara aztertzen eta zabaltzen Caracasen. 1954.arte hiriburuko Euskal Etxean eman zituen euskarazko klaseak, txistulari taldeak sortu zituen eta dantzariak ere jairik jai erabili zituen bere zuzendaritzapean. Eta azkenean, Ameriketako lana amaitzeko, 1954.ean Estatu Batuetara jo zuen Agirre Lehendakariaren aginduz Eusko Jaurlaritzaren mandatari gisan. Han ere lan ofizialetatik aparte bere hobbyrekin jarraitu zuen Atlantikotik Pazifikora bere dantzak eta txistu soinuak eramanez.

1960.ean berriz Euskalerrira etorri zitzaigun Oñatibia baina ez atsedenetako asmoz, lanean jarraitzeko baizik. Larraun abesbatza eta koreografi taldea sortu zuen eta Ameriketako teknikak onartuz, Euskal Show asmatu eta bideratu zuen. Talde hauetarako lanean, hainbat musika lan egin zuen, bai txisturako baita ahotsetarako ere. Hor daude betirako berak egin edo harmonizatutakoak: *Gabon Gaba, Gabeko Izar, Jeiki gaiten kristauak, Poztu bedi, Din, dan, don, Ave Maria, Aunitz urtez, Xoxuak galdu du, Aintza gurutze, Agur Zuberoa*, eta abar. Dantza zuzendari ere izan zen eta horrez ganera dantza berri asmatzaile: 1966.ean dantza berrien txapelketa bat eratu zenean beraren *Donibane* dantzak irabazi zuen lehen saria.

Baina euskararen irakaskuntza zen Oñatibiaren ardurarik handiena. Egon zen mundu zabaleko toki guzietan euskara erakusten ari zen eta euskara landu eta zabaltzen. Caracasen zegoela sortu zuen *Argia* asterokoa eta New Yorken jarraitu zuen aldizkari hau astero kaleratzen, 1958. arte. Oiartzunen berriz auzotu zenean, Ikastoletarako andereñoak hezitzen ari zen sutsu eta pedagogiarako gaurko teknikak erakutsi nahiean, Catalunyako Jose Serra Struch eta Ramon Fuster Rabes ekarri zituen Euskalerrira kursilo batzu ematera. Euskara erakusteko pedagogia berriak asmatzen hasi zenean, argi ikusi zuen Oñatibiak haurren bihotzetan hizkuntza sartzeko ezala odola, musika baizik, bide egokiena. Eta bere meto-

doa apurka apurka hobetuz, azkenean ondorio batetara iritsi zen: *Euskara jolas bidez* erakutsi behar zela eta izen buru hori jarri zitzaion bere metodoari. Baina haren euskararen aldeko sua ezen hor geratzen eta haurrak ez ezik nagusiak ere euskaldundu nahian ahalegindu zen *Método de Euskera Radiofónico* argitara emanez. Lan guztiau publikoki aitortu eta eskertu nahiean, Euskaltzaindiak Euskaltzain Urgazlea izendatu zuen Jon Oñatibia 1966.eko Azaroaren 25ean.

Istripuz joan zaigu hainbat alorretan maisu izan dugun Oñatibia Jauna. Haren hiletak Oiartzungo Parrokian, jendez gainezka, ospatu ziren, berrogei apaizek elkar-mezatan otoitz eginez. Han zegoen berak sortutako Lartaun abesbatza eta beste batzuren artean Oñatibiaren Ave Maria abestu zuten azken omenaldi gisan. Txistuak ere legundu zion hilobirarte. Ez da ez hil euskaldun hau haren lanak gure artean bizirik daude eta. Goian bego.

Jose Antonio Arana Martija

JESUS ELOSEGI IRAZUSTA
(1907-1979)

Gobon gauaz, Antonio M. Labaienen etxetik zetorrela, hil zaigu tolosar ospetsu hau. Etxetik kanpo egin zuen Gabon afaria,eta bihotzminduna zenez gero, kotxean emaztearekin zetorrela joan zitzaion arnasa. Goian bego.

Tolosan jaioa zen Elosegi 1907.ean. Gaztetatik sartu zen Tolosako euskal giroan dantzari eta txistulari bezala. Eta euskarari dagokion alorrean Lizardi bertan edukitzea ezan zori makala berarekin menderatu

JESUS ELOSEGI IRAZUSTA
(1907-1979)

zuen hizkuntza eta. 1930.ean hasi zen euskaraz idazten *Argia* asterokoan baita ere *El Dia* egunkarian. Baina izatez Arkeolojia izan zen haren zaletasunik handiena. 1947.ean sortu zuen Aranzadi Zientzi Elkartea eta *Munibe* aldizkarian hainbat eta hainbat ikerlan argitara eman zituen. Elkartearen idazkaria izan zen 1972.arte eta orduandanik aurrerantzean Ohorezko Bazkide.

Elosegiren ikerlanak ikusi nahi dituenak hainbat aldizkaritara jo beharko du: *Zeruko Argia, Goiz Argi, Ikuska, Egan, BRSBAP, Pyrenaica, Munibe, Speleon, Pirineos, Homenaje a Julio de Urquijo, Archives de Zoologie Experimentale, Boletin de la Sociedad Española de Historia Natural, Homenaje a don Joaquín de Mendizábal,* etabar. Batzutan Zimitz edo R. de Gainza izenordeekin agertzen dira argitaratuak. Beraren lanik mamitsuen artean aipatu beharrezkoak dira:

— *Catálogo dolménico del País Vasco.*

— *Toponimia de Aralar.*

— *Las minas de cobre de Aralar.*

— *Juan Ignacio de Iztueta y Echebarria* (Auñamendi 65-66).

Bestaldez izugarrizko lana utzi zigun *RIEV, BRSBAP* eta *Munibe* aldizkarien aurkibideak idazlez idazle emanik. Kirol zalea ere bait zen txikitatik mendigoizale zaletasuna ere bait zekarren. Gipuzkoar kirolarien markarik onenak aztertu eta xehetasun guztiekin eman zizkigun.

Euskaltzaindiak Euskaltzain urgazle izendatu zuen 1965.eko Irailaren 25ean. Abenduko bileran toponimiaz aritu zen Elosegi eta 1968.eko Abuztuaren 30ean irakurri zuen toponimiari buruzko txostena. Tokizenez bost mila fitxa eginak zituela adierazi zuen orduan Elosegik, eta Euskaltzaindiaren ardurapean laga nahi zituela. Berrondo jaunaren eskuetan utzi zuen Elosegik arazo hau baina oraindik, ez dira fitxak Euskaltzaindiko artxiboetara iritsi. 1953.ean, Beloki, Sansinenea de Elosegi eta Mitxelena jaunekin elkar lanean "Contribución al conocimiento del dialecto roncalés" lana argitara eman zuen RSVAP-en Boletinean. (Cuaderno 4.º, 499-536 orr.).

Tolosako Sakramentinoen elizan egin zitzaion hiletetako eleizkizuna Donestebe egunean. Jendez gainezka zegoen eliza eta hainbat euskalzale eta kultur gizon bildu ziren Elosegiri azken agurra emateko. Hala azaldu zuen herriak zenbaiteraino maite zuen gizon zintzo eta langile hau. Isilean egindako lanaren oihartzuna beti izango dugu bizirik gure kulturaren onerako.

Jose Antonio Arana Martija

MIGEL INTXAURRONDO ARRIERAN
(1897-1979)

1979.eko Maiatzaren 28.ean hil zen 82 urteduneko apaiza. Nafarroako Arriban jaio zen eta abadegintzako ikastaroak egin ondoren Etulaingo Erretore izan zen gazte denboran. 1924.ean Iruñeko Apaizetxeko euskara irakasle izendatua izan zen Intxaurrondo jauna eta euskararen alde gogor ekin zuen bai ikastetxean bertan baita Nafarroako Elizbarrudari begira ere. 1926.eko ikastaroaren hasieran hitzaldi bat eman zuen, Mateo Muxika gotzainari zuzendua, gai honi buruz: "La Iglesia y el euskera. Obligación de hablar al pueblo en su lengua nativa y de cultivarla", hurrengo urtean argitara emango zena hiru eranskinez ehun orri osatuz (*RIEV*, 1927, 203 or.; *Gure Herria*, 1927, 130-38 or.) Ikasleentzat ere *Método práctico del euskera* argitaratu zuen 1928.ean, 476 orridun liburu mardula (*Gure Herria*, 1929, 277 or.) Olerkari trebea ere bait zen Intxaurrondo jauna eta beraren olerkietatik bat, bahintzat, *Euskal Esnale* aldizkarian azaldu zen: "Aingeruaren iltzean". (1926, 143). Lexikologia arloan ere pausuak eman zituen: Euskaltzaindiaren artxiboan Azkueri zuzendutako lantxo bat dago: "Palabras vascas que no se encuentran en el Diccionario V.E.F. del Sr. Azkue". Zazpi orritan Araiz, Goizueta, Larraun, Lesaka eta Baztanen bildutako hitzak dakartza. Ohartxo bat jarri zuen Azkuek azken orrian: "Hay otra remesa del mismo que contiene 47 palabras"; baina bigarren lantxo hau ez da agertu oraindik artxiboan.

Gudak, Madrilen harrapatu zuen eta Armadako Kaperau izendatu zuten Gineara bidaliz. Orduandanik aurrerantzean herritik kanpo ibili beharrean aurkitu zen eta Cartagenan eta Puerto Rico-ko Humacao-n apaizgintzan jardun zuen 80 urte bete zituen arte. Urte bitako atsedena lortu ondoren hil zaigu euskaltzale hau. Goian bego.

Jose Antonio Arana Martija

JOSE MARIA LOJENDIO IRURE
(1910-1979)

Jaunak:

Albiste garratza Euskaltzaindiari jakin arazi beharrean nago: Jose Maria Lojendio Irure jauna, euskaltzain oso eta euskaltzainburu ohia, hil zaigula. Joan den urteko Abenduaren 28an hil zen Donostian, 69 urte zituela, eritasun luze baten ondorioz.

Asko zor dio Euskaltzaindiak. Gerra ondoko urte zail haietan, Ignacio M.ª Etxaide jauna hil zenean (1962), Euskaltzaindiak berarengana zuzendu zituen begiak. Ez alferrik. Euskaltzainburu izan zen denbora

J. M. LOJENDIO
Euskaltzainburua
(1964-1966)

laburrean euskaltzain oso berri hauek izendatu ziren, gutxienez: Jean Diharce "Iratzeder", Alfonso Irigoyen, Pierre Larzabal, Jose M.ª Satrustegi, Antonio Zavala, Antonio Labaien, Juan San Martin, Jean Haritschelhar. Horietarik ez gutik orduan berean egin zuten sarrera hitzaldia. Beraz, garai hartan aurpegi berri bat hartu zuen Euskaltzaindiak. Gainera, haren denboran bi Biltzar egin ziren: bat Arantzazun eta beste bat Loiolan. 1963tik 1964era egon zen euskaltzainburu, eta ez 1964tik 1966ra, leku askotan idatzirik ikusten dudan bezala.

Lojendio jauna, eta bai Arrue jauna ere, 1954ean euskaltzain oso izendatuak izan ziren, eta izendatuak izan ziren batzarrera etortzen ez zirenen ordezko bezala. Hori egin ahal izateko Arautegia aldatu behar izan zen, honako artikulu berri hau sarturik: "Si un académico deja de asistir durante todo un año a las reuniones, sin excusar su falta de asistencia con razones que la Academia estime suficientes, se designará un académico suplente que gozará de todos los derechos de los académicos de número y que no cesará en su cargo aun cuando el suplido comenzare a asistir" (Estatutos y Reglamento de la Academia de la Lengua Vasca, 1954; II, 7.° p. 4).

Orduan euskaltzain batzuk exilioan zeudelako, euskaltzain oso gutxi biltzen ginen batzarreetan, eta egoera honi erremedio jartzeko bilatu zen irtenbide hori.

Sebero Altube exiliotik etorri eta Gernikan bizitzen jarri zenean, Lojendiok nahi izan zuen haren obra batzuk bir-argitaratu (konkretuki, "La vida del euskera") eta bai berari omenaldi bat egin ere, baina zoritxarrez asmo horiek ez ziren bete.

1966. urtean Euskaltzaindiak euskararen alde Hezkuntza eta Jakintza Ministeritzari egin zion eskutitza ere Lojendiok izenpeturik joan zen.

Lege-gizon zenez, geroago, Euskaltzaindiaren Arautegia gaurkotze eta berriztatze lanetan asko lagundu zuen.

Adin laburreko Auzitegiaren lanekin oso lanpetua ibiltzen zen, harathunatak ere maiz egin behar izaten zituen, baina hargatik Euskaltzaindiarekin bere lokarri eta har-emanak ez zituen bertan behera laga. Besterik ezin bazuen, etorriko zen batzar egunetan euskaltzainak agurtzera. Oroit naiz Elizondoko batzarrearen ondoan, bera klinikan zegoelarik, nola kontatu nizkion batzarreko berriak eta zeinen pozik eta arretaz entzuten zituen.

Lojendio jaunaren bizi-xehetasun eta lanei buruz ikus *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca —Euskaltzaindia—* liburua, eta *Euskera* (1968), 297. orrialdean.

Goian bego gure lagun zaharra.

Donostian, Urtarrilak 25, 1980
Fr. Luis Villasante

ALEJANDRO EZKURDIA, OFM
(1902-1979)

Orio-n (Gipuzkoa) jaio zen eta Zarautz-en hil, Natibitate bezperan (Abenduak 24). Frantziskotarra.

Gizon zehatza, isila; bere bizitzarik gehiena natur zientziak irakasten eman zuen, bai Nafarroako Erriberrin (Olite) eta bai Arantzazun. Bietan kantari taldearen zuzendari izan zen; Arantzazuko Kolejioko mutikoen Erretore ere bai. Aranzadi elkartearen bazkide.

Hartako gai bazen ere, ez zuen askotzarik idatzi.

"Jentillen paso-lekua en Aitzabal-Aranzazu", *Munibe* (1953), 18.

"El pastoreo en la zona Urbia-Oltze", *Anuario de Eusko-Folklore* XV (1955), 161-166 (Aita Jose Ignacio Lasarekin elkar lanean).

"El nuevo Colegio Seráfico de Aranzazu", *Cantabria Franciscana* (1961), 71-77.

"Notas sobre el empleo del patronímico en Orio (Guipúzcoa) en los siglos XVI y XVII", *Euskera* (1978), 59-68.

Esan behar da lan hau hasiera edo lehen urratsa besterik ez zela, azterketa luzeago eta osoago baten hasiera. Horretarako luzaz esku artean izan zituen Orioko eliz liburuak, eta fitxa eta kuadernoetan zehazki kopiatuak utzi ditu hango xehetasun guztiak. Joan mendeetan agertzen diren izen-abizenak estudiatu nahi zituen, estudio horretatik atera daitezkeen ondorioak ateratzeko asmoz. Damurik, gaisotasunak eta heriotzeak lan hau bururatzea galerazi dio. Fitxeroak eta kuadernoak jasorik daude, eta gertu, hark egin ezin izan zuena bestek egin nahiko baldin balu.

Aita Ezkurdiari buruz ikus, baita ere, *Aranzazu* (1980), Otsaila.

Fr. Luis Villasante

ZUZENKIZUNAK - FE DE ERRATAS

EUSKERA XXIV (1979)-1

EUSKERA, XXIV (1979) - 1

ZUZENKIZUNAK - FE DE ERRATAS

				DIO - DICE	ESAN BEHAR DU - DEBE DECIR
63.	orrialdean	17.	lerroan	*Giopón*	*Guión*
64	"	9	"	menpekoegon	menpeko egon
65	"	17	"	errazgo	errazago
65	"	18	"	idatyi	idatzi
67	"	19	"	uskorekin	askorekin
67	"	23	"	sustrasr	sustraer
69	"	17	"	xere	zeren
122	"	3	"	CharritTon	Charritton
122	"	9	"	la	lau
123	"	36	"	Euskaltzainburna	Euskaltzainburua
130	"	2	"	Urritia	Urrutia
130	"	24	"	hona	honako
131	"	23	"	gaztekania	gaztelania
134	"	1	"	bebera	ber bera
137	"	21	"	Bustidureli	Bustidureri
172	"	16	"	xestelako	bestelako
172	"	18	"	agsrtzen	agertzen
172	"	32	"	Bilbomadrid	Bilbo-Madrid
174	"	6	"	ece	ere
174	"	14	"	uldiz	aldiz
174	"	20	"	bigaccen	bigarren
271	"	6	"	gehitxoizango	gehitxo izango
271	"	38	"	Exteberria	Etxebarria
272	"	15	"	*del*	*de*
273	"	3	"	ize a	izena
273	"	13	"	ere	era
273	"	34	"	(9	(9)
274	"	23	"	**xasantzarra**	**basantzarra**
274	"	27	"	(Cmrvus corax)	*(Corvus corax)*
338	"	4	"	para el conocimiento	para conocimiento

AURKIBIDEA

Ministerio de Educación, ORDEN MINISTERIAL SOBRE EL BILINGÜISMO 445
Carlos Santamaría Ansa, EL EUSKARA COMO LENGUA ESCOLAR. 465

OMENALDIA

Pierre Lafitte, GEORGES LACOMBE 487

EUSKAL LAU IDAZLERI OMENALDIA (Iruñea, 1979-V-25)..... 497
Fr. Luis Villasante, BORDEL, HUALDE, ARRIGARAI ETA LEZO-RI OMENALDIA..... 499
J. M. Satrustegi, "BORDEL" BERTSOLARIA ZENAREN EHUN-URTEBURUAN 503
J. San Martin, P. HUALDE MAIO, ERRONKARIKO "USKÁRAREN"LEKUKO..... 511
P. Bonifacio de Ataun, AITA JOSE ITURRIA ERIZE, KAPUTXINOA (1879-1952) 521
DISCURSO DE DON JAIME IGNACIO DEL BURGO, PRESIDENTE DE LA DIPUTACION FORAL DE NAVARRA 529
D. Vicente Galbete, EN MEMORIA DEL PROCER DE LAS LETRAS NAVARRAS DON ARTURO CAMPION 533
PALABRAS PRONUNCIADAS POR JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA 539

EUSKAL JAIAK (Elizondo, 1979-VII-20) 543
Fr. Luis Villasante, EUSKALTZAINDIAREN BATZARREA ELIZONDO-N 545

Jean Haritschelhar, ELIZONDOKO EUSKAL JAIAK DUELA EHUN URTE 555
J. San Martin, BRUNO ETXENIKE (1819-1843) 561
Mariano Izeta, EUSKARAREN GIROA BAZTANEN 567
José Urroz, BAZTANGO GAU-ESKOLEN GAIN 573

SEBERO ALTUBE JAUNAREN OMENEZ (Gernika, 1979-VIII-27) .. 577
Fr. Luis Villasante, ALTUBE-TAR SEBER JAUNAREN MENDEURRENA ZABALTZEAN 579
J. M.ª Velez de Mendizabal, SEBERO ALTUBE, GIZONA 585
J. A. Arana Martija, SEBERO ALTUBE ETA GERNIKAKO EUSKARA: DOMINGO KANALAETXEBARRIA 593

"SEBERO ALTUBE" LIBURUAREN AURKEZPENEAN (Arrasate, 1979-XII-6) 605
Juan Antonio Garmendia, SEBER ALTUBEREN OMENEZ 607
Fr. Luis Villasante, ALTUBEREN MAISUTZA EUSKAL HITZEN ARAZOAN 611
J. A. Arana Martija, ALTUBEREN EUSKAL ARIMARI 615
Patxi Altuna, ALTUBE ETA EUSKAL AZENTUA 619
J. M.ª Velez de Mendizabal, "SEBERO ALTUBE" LIBURUAREN AURKEZPENA 623

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK 627
ERAKUSLEAK 629
DEKLINABIDEA 633
"H" LETRAREN ORTOGRAFI ARAUAK 659
"H" LETRA ALFABETIKOKI KONTUAN HARTU GABE 665
"H" LETRA ALFABETIKOKI KONTUAN HARTURIK 679
Fr. Luis Villasante, "H" LETRAREN ORTOGRAFI ARAUAK ERABAKI ONDOREN 694
EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK IRAKASKUNTZAN 697
NAFARROAKO EUSKARAREN EGOERA 699
SITUACION DEL EUSKARA EN NAVARRA 701
EUSKAL ALFABETOAREN LETREN IZENAK 703
Fr. Luis Villasante, RELACIONES ENTRE EUSKO-IKASKUNTZA Y EUSKALTZAINDIA 705
BATZAR-AGIRIAK 711

BATZAR-TXOSTENAK

Gramatika

Etxaburu'tar Jose Mari (Kamiñazpi), AR EMAN ALA ARTU EMAN? 737
Pedro Pujana, AHALEZKO ADITZ-JOKOAK 743

Literatura

P. Lafitte, DUVOISIN KAPITAINAZ OHAR PURRUXKA BATZU 753
J. A. Arana Martija, EUSKARA DAKARREN XVII. MENDEKO LIBURU BAT MEXICON 759

Literatura: lekukoak

Fr. Luis Villasante, J. LIZARRAGA ELKANOKOAREN LIBURU AURKEZPENA 769
Juan Apecechea Perurena, J. LIZARRAGA, "DOCTRINA CHRISTIOAREN GAIN FEDE CHRISTIOAREN GAIN" 773

Ahozko literatura

Bertsolari Batzordea, EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA ERATZEAZ 787

Hiztegia

Roberto Lotina Benguria, NOMBRES DE LAS SETAS EN EUSKARA 799

BERRIAK

Fr. Luis Villasante, AMADEO MARCO JAUNARI ESKERRON--AGIRIA EMATERAKOAN 813

Vicente Galbete Guerendiain, SALUDO Y HOMENAJE A DON AMADEO MARCO 815
Fr. Luis Villasante, "EUSKAL ADITZ BATUA" ETA "OLETAKO EUSKAL ADITZA" AURKEZTEAN 821
Fr. Luis Villasante, FORUKO JARDUNALDIAK 825
J. M. Satrustegi, 1979.EKO EUSKALTZAINDIAREN JARDUNALDIAK 827
Fr. Luis Villasante, UDALEN IZENDEGIAREN AURKEZPENA 831
P. Xarritton, "BAI EUSKARARI" KANPAINA IPARRALDEAN 835
J. San Martin, NAZIOARTEKO EUSKALARIEN JARDUNALDIAK .. 839

HIL-BERRIAK

J. San Martin, MIKEL ZARATE LEJARRAGA 845
J. San Martin, JOKIN ZAITEGI PLAZAOLA 847
P. Lafitte, SAUVEUR NARBAITZ 849
Jean Haritschelhar, ETXAHUN-IRURI 851
J. A. Arana Martija, JON OÑATIBIA AUDELA 855
J. A. Arana Martija, MIGEL INTXAURRONDO ARRIERAN 861
Fr. Luis Villasante, JOSE MARI LOJENDIO IRURE 863
Fr. Luis Villasante, ALEJANDRO EZKURDIA, OFM 865

ZUZENKIZUNAK - FE DE ERRATAS

J. San Martin, EUSKERA, XXIV (1979)-1 869